



IRAILA. 2011

BEHIN BETIKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU
LARRUEN PLANEATZA
NEKARITZA ETXERANTZA ZALA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

BALMASEDA-ZALLAKO (ENKARTERRIAK) ESKUALDE EGITURAKO LURREALDEAREN ZATIKO PLANA

PLAN TERRITORIAL PARCIAL DEL ÁREA FUNCIONAL DE BALMASEDA-ZALLA (ENCARTACIONES)

MEMORIA

ESKUALDE EGITURAKO LURREALDEAREN ZATI KO PLANA

BALMA SED A – ZALLA (ENKARTERRIAK)

BEHIN BETIKO ONESPENERAKO DOKUMENTUA

MEMORIA

me(c)sa
consultoría + proyectos

2011KO IRAILA

PLANAREN SUSTATZAILEAK ETA PROIEKTUBURUAK

**INGURUMEN,LURRALDE PLANGINTZA
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
SAILBURUA**

M^a del Pilar Unzalu Pérez de Eulate

**GARRAIO ETA HIRIGINTZAKO FORU
DIPUTATUA**

Pilar Ardanza Uribarren

**LURRALDE ANTOLAMENDU ETA UR
SAILBURUORDEA**

Ignacio Achucarro Arruabarrena

HIRIGINTZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Iker Bergaretxe Larrea

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO
ZUZENDARITZA**

Alfonso Sanz Araujo

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA
PLANGINTZA ZERBITZUA**

Lurraldearen Antolamendu eta Plangintza

Zerbitzuko arduraduna

Jesús M^a Erquicia Olaciregui

Dok. arkitektoa

Bizkaiko Lurraldearen Antolamendurako

Zerbitzuko arduraduna

Pilar Monjas Rubio

Arkitektoa

José Obdulio de la Fuente Martín

Arkitektoa

Mercedes Izquierdo Fernández

Aholkulari juridikoa

PLANAREN ERREDAKZIORAKO LAGUNTZA TEKNIKOA

MECSA S.A.

Gabriel Chapa Prado

Arkitektoa

Miguel Angel Salomón Bello

Geografoa

José Luis Burgos Cid

Arkitektoa

Diego Alonso Rotaeché

Geografoa

Cristina Elorriaga Aboigor

Arkitektoa

Lourdes Portal Linero

Biologoa

Cristina Paez Martín

Arkitektoa

José Luis Tejeira Tajada

Delineazioa

Joaquín Juan-Dalac Fernández

BUPko Ingeniaria

Ainhua Zaragoza Sevilla

Argitaraldia

PARTE-HARTZAILEAK (GRAMA)

Ana Serrano Diez-Canedo

Geologoa

Koro Unzalu Altuna

Biologoa

PARTE-HARTZAILEA (EKAIN)

Jon Anda Lazpita

Abokatua

AURKIBIDEA

1	INFORMAZIO-SINTESIA	1
1.1	AURREKARIAK	1
1.2	LPP-REN LURRALDE-EREDUA AURRERAPEN TXOSTENAREN ONDOAN, HASIERAKO ONESPEN AGIRIA ETA ESPOZIZIO PUBLIKOKO TRAMITEA	3
1.3	EREMU FUNTZIONALEAN ERAGINA DUEN PLANGINTZA	5
1.3.1	Lurralde-Antolamenduaren Artezpideak	5
1.3.2	Onartutako Lurralde Plan Sektorialak	8
1.3.3	Tramitazio bidean dauden Lurralde Plan Sektorialak	17
1.3.4	Udal Plangintza	19
1.4	MARKO GEOGRAFIKOA	22
1.5	LURRALDEAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA	23
1.5.1	Ingurune Fisikoa	23
1.5.2	Ingurumen Arazoak	29
1.5.3	Garraioen eta komunikazioen azpiegiturak	32
1.5.4	Zerbitzu-azpiegiturak	37
1.5.5	Ekipamenduak	40
1.5.6	Aisialdiguneak	49
1.5.7	Herri-finkapenak	52
2	IDEIA SAORTZAILEAK ETA HELBURUAK	59
2.1	HASI BAINO LEHENAGOKO IRIZPIDEAK	59
2.2	EKIMENAREN ESTRATEGIA-LERROAK	60
2.3	INGURUMENAREN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK	62
2.4	HELBURU OROKORRAK ETA PARTIKLARRAK	63
2.4.1	Ingurune Fisikoa	63
2.4.2	Azpiegiturak eta zerbitzuak	65
2.4.3	Ekipamenduak eta espazio libreak	69

2.4.4	<i>Herri-finkapenak</i>	71
3	LURRALDE EREDUA	75
3.1	JOERAK EDO ESKU-HARTZE EZAK UTZIKO LUKEEN EGOERA.....	75
3.2	LPP-K PROPOSATZEN DUEN EGOERA	76
3.3	LPP-REN ALTERNATIBAK	78
3.3.1	<i>Ingurune fisikoaerentzat alternatibak</i>	79
3.3.2	<i>Komunikabideen azpiegiturentzat alternatibak</i>	79
3.3.3	<i>Zerbitzuen azpiegituretarako alternatibak</i>	80
3.3.4	<i>Udalaz gaineko ekipamenduentzat Alternatibak</i>	81
3.3.5	<i>Sare Berdearentzat Alternatibak</i>	82
3.3.6	<i>Hiri finkapenentzat Alternatibak</i>	83
3.4	INTERBENTZIO-RAKO SISTEMA ERAGILEA.....	86
4	INGURUNE FISIKOAREN ORDENAZIOA	87
4.1	ORDENAZIO KATEGORIAK.....	87
4.1.1	<i>Babes bereziko eremuak</i>	88
4.1.2	<i>Ingurunearen Hobekuntza eta Berreskurapen Arloak</i>	90
4.1.3	<i>Mendi Larreak</i>	91
4.1.4	<i>Lur-azaleko uren babesa</i>	92
4.1.5	<i>Nekazaritza eta abeltzaintza; eta landazabala</i>	95
4.1.6	<i>Basoa</i>	96
4.2	BALDINTZA GAINJARRIAK	96
4.2.1	<i>Akuifero kutsagarrien eremuak</i>	97
4.2.2	<i>Uholde arriskuko babes eremuak</i>	97
4.2.3	<i>Erosio-zonak</i>	97
4.2.4	<i>Naturgune babestuak</i>	97
4.3	INGURUNE NATURALEKO ELEMENTU NABARMENAK.....	100
4.3.1	<i>korridore ekologikoak</i>	100
4.3.2	<i>Interes geologikoko eta geomorfologikoko eremuak</i>	101
4.3.3	<i>Paisaia baliotsuko nekazaritza-sistemak</i>	102

4.3.4	<i>Arriskuan dauden fauna eta floraren babes-eremuak.....</i>	104
4.4	LANDA-GUNEAK	105
5	GARRAIO AZPIEGITURAK.....	109
5.1	ERREPIDE-SAREA	110
5.2	TRENBIDE-SAREA	114
5.3	GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALAK	118
5.4	AIREKO SAREA	119
5.5	BIDE-AZPIEGITUREN SARE ALTERNATIBOA	119
6	ZERBITZU AZPIEGITURAK.....	123
6.1	ENERGIA BANATZEKO AZPIEGITURAK.....	123
6.2	URA HORNITZEKO AZPIEGITURAK.....	124
6.3	SANEAMENDUA ETA ARAZKETA	124
6.4	MINDA-FABRIKA	125
6.5	TELEKOMUNIKAZIO AZPIEGITURAK	126
6.6	HONDAKIN SOLIDOAK	126
6.7	ENERGIA ALTERNATIBOAK	127
7	LAN HIDRAULIKOAK, LUR KUTSATUAK ETA ERAUZTE-LANAK EXTRACTIVAS	129
7.1	KADAGUA IBAIA BIDERATZEKO PLANA	129
7.2	LUR KUTSATUAK.....	130
7.3	ERAUZTE-LANAK.....	131
8	UDALAZ GAINEKO EKIPAMENDUAK.....	133
8.1	EKIPAMENDU HANDIAK	134
8.1.1	<i>Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua Otidesen.....</i>	<i>135</i>
8.1.2	<i>Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua Artzentalesen.....</i>	<i>136</i>
8.1.3	<i>Kirol ekipamendu turistiko handia.....</i>	<i>137</i>

8.1.4	<i>Bereizmen handiko ospitalea</i>	137
8.2	BESTELAKO PROPOSAMENAK	139
8.2.1	<i>Dauden ekipamenduak hobetu</i>	139
8.2.2	<i>Ekipamenduen proposamenak</i>	140
8.2.3	<i>Hirigune Historikoak</i>	143
9	SARE BERDEA	145
9.1	KADAGUAKO IBAI-PARKEA	146
9.2	LANDA- ETA INGURUMEN-PARKEA	149
9.3	DAUDEN AISIALDIGUNEETAN HOBEKUNTZAK	150
9.4	NATURA-IBILBIDEAK	150
9.5	BESTE PROPOSAMEN BATZUK	152
10	HIRI FINKAPENAK	155
10.1	HIERARKIA URBANOA	155
10.2	ESKU-HARTZE MODUAK	157
10.2.1	<i>Dauden finkapenak</i>	157
10.2.2	<i>Garapen berrietarako lehentasunezko eremuak</i>	159
10.2.3	<i>Garapen berriak antolatzeke baldintza bereziak; xede horretarako aurrez definitu ez direnak.</i>	160
10.3	BIZITEGI-LURZORUA	161
10.3.1	<i>Esku-hartzeak dauden finkapenetan</i>	161
10.3.2	<i>Garapen berriak</i>	165
10.3.3	<i>Bizitegi-lurzuaren eskaintzaren kuantifikazioa eta Babes publikoko etxebizitza</i>	168
10.4	EKONOMIA-JARDUERETARAKO LURZORUA	173
10.4.1	<i>Lurrealdearen oreka berria</i>	173
10.4.2	<i>Dauden finkapenetan esku-hartzeak</i>	173
10.4.3	<i>Ekonomia-jardueren garapen berriak</i>	175
10.4.4	<i>Ekonomia-jardueretarako lurzuaren eskaintzaren kuantifikazioa</i>	177
10.4.5	<i>Sustapen publikoaren aktuzioak</i>	178

10.4.6	<i>Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamenduaren kuantifikazioa</i>	178
11	ERANSKINAK	181
I.	ERANSKINA BALMADEDA-ZALLA EREMU FUNTZIONALEAN (ENKARTERRI), ETA BABES BEREZIKO KATEGORIA HAR DEZATEN, ZUHAITZ APARTEKO IZENDAPENA HATZEKO PROPOSATU DIREN ZUHAITZAK.	181
II.	ERANSKINA BALMADEDA-ZALLA EREMU FUNTZIONALEKO (ENKARTERRI) IBAI-TARTEEN IDENTIFIKAZIOA UR-IBILIAREN AZALERAREN ARABERA.....	185
III.	ERANSKINA BALMADEDA-ZALLA EREMU FUNTZIONALEAN (ENKARTERRI), ETA LURRAZALEKO UREN BABES KATEGORIAREN BARRUAN, ZONA HEZEEN BABES EREMU IZATEKO AUKERATU DIREN HEZEGUNEEN ZERRENTA.	187
IV.	ERANSKINA BALMADEDA-ZALLA (ENKARTERRI) EREMU FUNTZIONALEAN ARRISKUAN DAUDEN FAUNA ETA FLORA ESPEZIEAK	189

1

INFORMAZIO-SINTESIA

1.1 AURREKARIAK

1998ko urrian Bizkaiko Foru-Aldundiaren Hirigintza Sailak lehiaketara atera zituen Balmaseda-Zallako Lurralde Plan Partzialaren idazketa lanak. Kontsultoretza eta laguntza lanen baitan eman ziren idazketa prozesuaren pauso guztiak: atariko diagnostikotikoa eta informazio bilketa zein testuaren idazketa.

1999ko otsailaren 22an Hirigintza foru-sailak kontsultoretza eta laguntza kontratua ABEE: TALLER DE IDEAS CENTRO DE ESTUDIOS MILLONES SM eta PROSPEKTIKER SArri eman zion. Urte bereko uztailan informazio eta diagnostiko dokumentua aurkeztu zuten eta 2000. urtearen hasieran Aurrerapen dokumentua entregatu zuten.

Bilbo metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren bideratzean gertatutako atzerapenak Balmaseda-Zallako LPPri eragin zioten, LAAen 20. kapituluaren 5.3. puntuak honela aginduta; puntu honek Bilbo Metropoliko eta Alboko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialen koordinaziorako baldintzei eta Bilbo Metropoliararen dokumentua aurretik idatzi beharrari egiten dio erreferentzia. LPPren idazketa, beraz, esekita geratu zen eta legeak ezartzen duen epea bete zenean Aldundiak kontratua ebazteari ekin zion.

Behin Bilbo Metropoliko LPP onartuta, administrazio publikoak alboko eremu funtzionalen planen idazketa prozesuei ekin zien berriro ere; Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Balmaseda-Zallako LPPren lanen zuzendaritza eta jarraipena bere gain hartu zituen.

2006ko apirilean Lurralde Plan Partziala idazteko lehiaketa iragarri zuten, eta baita Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Ikerketarako lehiaketa ere. Urte horretako uztailan kontratua Marcial Echenique y Cía, S.A. (MECSA) enpresari eman zioten eta enpresa honek urte bereko azaroan Diagnostiko

dokumentua aurkeztu zuen. Behin hori eginda Ingurumen-Inpaktuari buruzko Ebaluazio Bateratuaren Aurrekontsulten tramitea amaitu zen.

Balmaseda-Zallako LPPren aurrerapen txostena egiteko goian aipatutako Hirigintza informazioen eta diagnostikoaren dokumentuan dauden ondorioak erabili ziren. Aurrerapen txosten honekin batera Ingurumen-Inpaktuari Ebaluazio Bateratuaren azterketa idatzi zen, izan ere, aplikazio legeak zehazten baitu Aurre-txostenaren eskaerarekin batera bideratu behar dela. Dokumentu honek Ingurumen sailburuordetzak 2007ko irailaren 3an ezarritako gomendio eta jarraibideak ditu hizpide. Bertan aurkitzen da “Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren” Ingurumen-Inpaktuari Ebaluazio Bateratua egiteko erreferentzia-dokumentua.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde-antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 3ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean zein inguruko egunkari hedatuenean “Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren Aurre-txostenari” buruzko lanen berri eman zuten. Aurre dokumentu hau Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailak al de batetik eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak bestetik osatu dute.

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) LPPren Aurre-txostena jendaurrean ikusgai egon zen bitartean hogeita zazpi (27) idatzizko iradokizun jaso ziren eta denei luzatu zitzaien erantzun egokia.

2008ko urriaren 30an, Ingurumen eta Lurralde-antolamendu Sailburuaren Aginduak “Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren” irizpide objektiboak eta konponbide orokorrak onartu zituen. Orduan hasi ziren Hasierako Onespena lortzeko dokumentua garatzen.

Gero, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren hasierako onespeneraren agiria prestatu zuen, 2009ko urriaren 15eko Aginduaren bidez. Era berean, behin-behineko onespena eman ondoren, interesa zuten lurraldeko administrazioak jendaurreko informazioko eta entzunaldiko izapideak egiten hasi ziren, EAEko lurralde-antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak 13.6 artikuluan finkatutako prozedurari jarraiki.

Horren ondoren, jendaurreko informazio eta entzunaldirako epeak zabaltu ziren, 2010eko martxoaren 31ra arte luzatuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 2010eko urtarrilaren 19an emandako aginduaren bidez.

Administrazio publikoei egindako hasierako onespen-agiriari buruzko jendaurreko informazio eta entzunaldiko izapideetan, guztira, hogeita hamar (31) alegazio-idazki aurkeztu ziren: Erakundeek eta partikularrek 20 idazki aurkeztu zituzten, eta lurraldeko administrazio publikoek, berriz, 11 idazki

(Eremu Funtzionaleko udalek 9, Eusko Jaurlaritzaren sail batek 1, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren sail batek 1). Alegazio horietako batzuk onartu ziren; eta horren ondoriozko aldaketak LPP behin-behinean onetsi zuen 2010eko azaroaren 3ko Aginduaren eranskinean daude jasota. Alegazio horiek gai hauek aztertzen dituzte: ingurune fisikoa, garraioko azpiegiturak eta komunikabideak, zerbitzuak, ekipamenduak, kulturako ondarea, bizitegi-lurzorua eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, abenduaren 22an Vitoria-Gasteizen izandako osoko bilkuran, erabaki zuen Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren agiriaren aldeko irizpena ematea; nolanahi ere, izaera sektorialeko zehaztapen batzuk sartu beharko ziren agirian.

Landaberrik Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren agiriaren berri eman du, 2011ko urtarrilaren 26an egindako bileran. Era berean, Euskal Herriko Ingurumen Batzordeak agiri horren berri eman du 2011ko apirilaren 6an egindako bileran. Bestalde, Ingurumen sailburuak, 2010eko abenduaren 27an emandako ebazpenaren bidez, Ingurumen Inpaktuaren Osoko Ebaluazioaren azterketa balioetsi du, eta aintzat hartu ditu kontsulten eta jendaurreko informazioaren emaitzak. Horrez gain, Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialaren ingurumeneko inpaktuaren behin betiko txostena aurkeztu da.

Azkenik, adierazpena egin da, ingurumen-inpaktua batera ebaluatzeko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak 15. artikuluan xedatutakoa betez, Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialari buruz.

1.2 LPP-REN LURRALDE-EREDUA AURRERAPEN TXOSTENAREN ONDOAN, HASIERAKO ONESPEN AGIRIA ETA ESPOZIZIO PUBLIKOKO TRAMITEA

Aurrerapenean eta Hasierako Onespen Agirian proposatzen den eredua oso egokia dela uste da; alde batetik, bi herrigune nagusi edo herriburu eratuko lirateke, bata Balmasedakoa eta bestea Zallakoa; eta bestetik, beste bi herriburu-orde proposatzen dira, bata Gueñesekoa (Gueñes eta Sodupe) eta bestea Sopuertakoa. Horrez gain Enkarterri nabarmen bi aldetan bereizita geratuko litzateke. Bi alde desberdin hauen egoera eta arazoak oso bestelakoak dira:

- Ekialdea populatuagoa da. Bertan daude Balmaseda Zalla, Gueñes, Sopuerta, Galdames eta Gordexola; Kadaguako korridoreak zeharkatzen du eta baita trenbideak ere. Bilbo Metropoliaren gertuko eragina bertaraino iristen da.

- Mendebaldea oso landatarra da. Hemen kokatuta daude Lanestosa, Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentales. Baserri-giroa eta lehen sektorea nagusitzen dira.

Egokitzen jotzen da LPPren irizpidea; etxebizitzaren banaketari, ekipamenduei, azpiegituren arazo eta abarrei erantzun desberdinak ematen dizkie. Leku bakoitzarentzat bertako ezaugarrien arabera konponbideak proposatzen ditu. Honek zera esan nahi du:

- Etxebizitzak eta industria-lurzoruak Kadaguako korridorearen eta dauden trenbideen inguruan eratu. Hortaz, garraio publikoa hobetuko da eta jende gehiago batek bertatik bertara izango du.
- Mendebalderako bizitegi-gune jasangarriagoak pentsatu dira eta bi ekipamendu handi egitea planteatzen da. Hauei esker lehenengo sektorearen jardura sustatzen eta babesten da, izan ere, jardura horrek berak bermatzen baitu biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea. Gainera, hau guztiarekin bateragarri diren bestelako jardura batzuk sortu nahi dira gaur egun nabarmentzen den oreka eza zuzentzeko.

Ingurune fisikoaren alorrean LPPren proposamenak bateragarritasuna bilatzen du; alde batetik, paisaiaren zein naturaren elementurik aberatsenak babestu eta sustatu nahi ditu; bestetik, zentzuzkoa den garapen ekonomiko eta sozialaren eskakizunari erantzun nahi. Funtsean, Eremu Funtzionaleko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea da asmoa.

Ingurune naturalaren balioaz baliatuko diren jardura ekonomikoen alde egingo du apustu LPPk, eta hori oso egoki ikusten da. Horri esker lehen sektoreak bere horretan iraungo du eta aldi berean paisaia zein kultura aniztasuna zainduko dira. Posible baita egoera honetan ingurumena aprobetxatuko duten jarduerak martxan jartzea.

Zona bakoitza duen ingurumen-balioaren arabera sailkatu da eta babes maila desberdinak zehaztu dira bakoitzarentzat. Lurralde-antolakuntzarako artezpideak kontuan edukita jardura batzuk baimendu dira eta beste batzuk debekatu.

Errepideak, trenbideak eta bestelako garraio-azpiegituren gainean LPPk planteatzen dituen proposamenak ganorazkoak dira. “Malabrigoko errepide-lotunea” deritzonaren garrantzia handia azpimarratzen da. Bestalde, zerbitzu-azpiegituren alorrean ideiak ere taxuzkoak dira; zerbitzuei buruzko informazio guztia gaurkotu da eta aintzat hartu da Las Torcachas-eko (Karrantza Harana) “minda-fabrika”.

Enkarterrik turismoari begira izan ahal dituen aukeretan sakontzeko ebazpenak hartu dira. Sekulakoa da bere natura- eta kultura-ondarea, hala nola naturaren interpretazio zentroak, landa-turismoko ostatuak, e.a..

LPPk bizitegi izango diren behar adina lurzoru kopurua egoki zehazten du. Bizitegi-lurzoru eskaintza hau bat dator Lurralde-antolakuntzako artezpideekin eta baita Bilbo Metropoliaren LPPren lurralde-ereduekin ere. Halaber, oso aproposa da jakitea LPPk zenbat lurzoru eskainiko dien ekonomia-jarduerari. Aurreikuspen honek betetzen ditu Lurralde-antolakuntzako artezpideak eta baita Ekonomia-Jardueretarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzekeko LPSrekin ere.

Oro har, aurreko aldien gainean egindako aldaketak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren 2008ko urriaren 30eko Aginduaren oharretan oinarritu dira. Jada definitu eta garatu dira lehentasuna duten aktuzioak; “Operazio Estrategikoak eta Akzio Egituratzailak” II. Eranskinaren bidez jakin ahal dugu lehentasun horien berri. Bestalde, bat egiten dute LPP behin-behinean onesten duen 2010eko azaroaren 3ko Aginduaren Eranskineko oharrekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, abenduaren 22an Vitoria-Gasteizen izan zuen osoko bilkuran, egin zuen akordioan agertzen diren zehaztapen sektorialekin. Izan ere, akordio horrek aldeko irizpena eman zuen Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionalako Lurralde Plan Partzialaren agiriari buruz.

1.3 EREMU FUNTZIONALEAN ERAGINA DUEN PLANGINTZA

1.3.1 LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ARTEZPIDEAK.

Euskadiko lege eremuaren barruan, eta lurralde-antolamenduari dagokionez, LAAk dira erreferente nagusi. Horregatik ezinbestekoa da jakitea zehaztapenak zeintzuk diren eta Lurralde Plan Partzialari nola eragiten dioten.

Baina LAAtik onartzen den Bilboko eremu metropolitarraren eta Balmaseda-Zallako LPPren arteko lotura aipatu beharko genuke. 20. kapituluko 5.3.2. puntuan, *Bilbo Metropolia eta alboko Eremu Funtzionala* etako Lurralde Plan Partzialak koordinatzeko baldintzak, eremu funtzional desberdinen LPPk bateragarri egitearen garrantzia adierazten da, eta zehazki Balmaseda-Zallako LPPren kasuan zera esaten da: “*Kontuan hartuta Bizkaiko lurraldearen desoreka, ekonomia-jardueretarako egokiak diren lurzoruen urritasuna eta Bilbo Metropoliaren egingo diren lanek alboko eremu funtzionala izango duten eragin handia, baldintza multzo bat ezarri da eremu hauetako Lurralde Plan Partzialaren idazketak koordinatzeko. Bilbo Metropoliaren berritu beharrean dagoen zati handi bat berrituko bada eta Behe-Nerbioiko hiri eta industria gunea aldatu nahi bada; derrigorrez lortu beharko da Balmaseda-Zalla, Igorre zein Mungiako eremu funtzionala izango den eremu funtzionala gehigarrietarako lur erabilgarria. Aldi berean, alboko eremu funtzional hauetako herri nagusien indartzeak zera eskatzen du; alegia, metropoliaren jardura eremu mugakide hauetara hedatzea...*”

LAAk Eusko Autonomia Erkidegorako zehazten duten ereduaren barruan Balmaseda-Zalla eremu funtzionalean Lurralde-lan Partziala gauzatzeko badira kontuan hartu beharreko zenbait artezpide eta betebeharrak.

Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko sistemak lehenengo ondorio bat dakarkio Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionalarentzat. Izan ere, eremu honen kokapena izugarritzko zailtasuna da LPPk gauzatu behar dituen proposamenak garatzeko. Beraz, nahitaez egon behar du eremu honek Bilbori eta Euskal hiriburuak lotzen dituzten elementuei lotuta; ezin baita ahaztu eremu hau Bilbo metropolitik oso gertu dagoela eta hauxe dela Euskal Autonomia Erkidegoko komertzio-gune nagusia.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolaketarako arztezpideek lurralde-eredu bat planteatzen dute. Laburbilduta, hauek dira bere proposamen nagusiak:

- LAAk eremu funtzional honetarako proposatutako neurri sorta bertako azpiegitura eta hornikuntza falta konpontzen saiatzen da. Horretarako, Bilbo Metropoliko jarduera eta baliabideak zonalde honetara ekartzeko erabakiak hartuko ditu. Gainera Balmaseda eta Zallaren arteko lotura sendotuko da elkarren arteko hirigintza areagotuz. Ondorioz, zonaldeko herri nagusi izango diren hauek askoz ere eraginkorragoak eta erakargarriagoak izango dira. Egia da gaur egun zonalde hau Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen bideetatik urrun samar dagoela; hala ere, herriburu garrantzitsu hauei esker, berez hain erakargarria den lurralde honek ospea berreskuratuko luke.
- Balmaseda herri-morfologia errotik birmoldatuko duen Hiri-berrikuntza lanak burutuko dira. Horretarako Hiri-berrikuntza Programa Estrategiko bat garatuko da.
- Balmaseda eta Zallako udalerrietan planak bateragarriak izan daitezen baliabideak martxan jarri.
- Balmasedako herri-erdigunearen kongestioa arindu. Horregatik, herri barruko industria lekualdatuko da, batez ere hiriari itxura negatiboa ematen diona; eta baita ere oso leku apropos eta aukerakoetan kokatzen dena. Aurreikusita egongo da herri-industria hori nora eraman; hots, herritik urruti ez, Kadaguako korridorerara hain zuzen, aurreikusita egongo diren lekuetara.
- LAAk Balmaseda eta Zallaren hazkunde urbanoa planteatzen du. Hazkundeak bi herri hauen egungo herri-erdiguneen tankera errespetatuko du; eta gainera herri bata eta bestea elkarrengandik "hurbilago" bilakatu nahi ditu. Zertan ote datza "hurbiltasun" hori? Bada, funtsean, Zallaren bizitza-gunea Balmasedatik gertueneko aldera lerratu nahi da. Batik bat, Balmasedara begira dauden Zallako guneetan kokatu

beharko lirateke partekatu beharreko eremu nagusiak eta zerbitzu-hornikuntza.

- Kadaguako Korridorean zehar Industria-Jarduera eremu bat sortuko da, gainera, Balmaseda-Güeñesko tartea hobetsiko delarik; honek Eremu funtzionalean bertan gerta daitekeen industria hazkuntza hartu ahal izango du; eta horrez gain, hiri-berrikuntza lanek eragindako hiri-eremuetan (batez ere Bilbo Metropoliari) dauden lantegiei egingo die lekua.
- Bilbo Metropoliairen alternatiba izango diren bizitegiak sustatzeko xedea dago. Habitat alternatibo hauek eskuarki Gordexola, Sopuerta eta Galdames udalerriko ekialdean egokitu asmo dira; kontuan izanda, jakina, herri hauetako biztanleria-guneak non dauden, desegituratuta gera ez daitezten. Hauek sortzearen atzean lurraldeari oreka emateko asmoa dago, izanez ere, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu funtzionala erabilera eta zerbitzu berriez suspertzeko nahia azaltzen da. Kadaguako korridorean aurreikusitako azpiegiturak HA hauei zuzenduta egongo dira. Bizitegi berri hauen arrakasta bermatzeko ezinbestekoa da ekonomia-jardueren ardatz berritik (Kadaguako industria-gunea) gertu egotea. Gauzak horrela, Zalla-Balmasedatik hurrantzen egoteari esker, posible izango da eskualde horretan martxan jarri nahi diren zerbitzuak leku honetako biztanleek erabiltzea. Ondorioz, estimatu nahi den esparruan demanda igoko litzateke; eta gainera, etengabe Bilbora joateko joera etengo litzateke.
- LAA hauen garapenaren xedeetako bat, besteak beste, Sopuerta eta Galdames udalerrietarako zehaztu diren Habitat Alternatiboez gain, beste batzuk gehiago aurkitzea da. Jada bizitegi diren guneei atxikita egotea izango da baldintza bakarra.
- Eremu funtzionaleko mendealdean dauden herrietan bigarren etxebizitzak sustatzea, bereziki Karrantzan eta Lanestosan. Trucios-Turtzioz eta Artzentalesen ere posible da bigarren etxebizitzak hazkundera gertatzea.
- Erabateko Herri-birgaitze Programa Estrategikoak garatzea Balmasedan eta Lanestosan.
- Aisia-lekuen proposamenak egitea Ranero-Betayo eta Kolitzako San Sebastianerako.
- Karrantza (Concha), Trucios-Turtzioz eta Artzentales hartzea Lurralderako sarbide-gunetzat.
- Hauek dira LAren lurralde-eredua egituratuko duten errepide-azpiegiturak: Kadaguako korridorea, Bilbotik Balmaseda-Zallaraino; Balmaseda eta Muskizen arteko lotura; eta BI 630etik Kantabriarako bidea.

Bai eta Aiaratik barrena Balmaseda eta Amurrioren arteko lotura, zein A-624tik Gasteizera doan errepidea ere.

- Aldiriko tren-zerbitzua indartu Balmaseda, Zalla, Gueñes, Alonsotegi eta Bilboren artean.
- Eskualdeko hornidura-sistemak Balmaseda eta Zallaren artean kokatzea.
- LAAk ez zuten zegokien eremuan naturgune babesturik aurreikusten. Hala ere aipatzen zuten Ranero-Betayoko interes bereziko naturgunea.

1.3.2 ONARTUTAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALAK.

LPSak planifikaziorako tresna eta baliabideak dira. Lurraldean eragina duten departamentu edo erakundeek sektore-politikak marko orokorrako batean txertatzeko sortu ziren; LAAk eta LPpek osatzen duten markoan hain zuzen ere.

Atal honetan behin betiko onartatu diren planen berri emango dugu. Aurrerago aipatuko ditugu tramite bidean dauden planak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta erreken ertzak antolatzeak Lurralde Plan Sektoriala. Kantabriako isurialdea.

Lurralde Plan Sektorialen artean behin betiko onartzen lehenengoa izan zen; abenduaren 22ko 415/98 Dekretuak onartu zuen. Planak km 1 baino ur-ibili luzeagoa duten ibai eta errekei eragiten die; lurrazalean geldirik dituzten beraien urei ere bai. Planak, bestalde, Euskal Herriko ur-ibili guztien ertz bietako lurzoru-zerrendak ordenatzen ditu: ibaien kasuan 100 m zabalerako lurzoru-zerrendak; eta urtegien kasuan 200 m zabalekoak.

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Ereku funtzionalen Kalera, Karrantza, Kadagua, Aguera eta Barbadun (Mercadillo) ibaien eta beraien ibaiadarren arroak daude. Ibai guzti hauek balio ekologiko handia dute.

Era berean, planak ibai ertzak esparru desberdinetan bereizten ditu, eta horretarako ibai ertzetan dauden elementuak kontuan hartzen dira. Elementu batzuk ingurumenaren alorrekoak dira; beste batzuk uren bideratzearekin dute zerikusia; eta azkenik, hirigintzaren alorreko elementuak daude. Planak, ibai ertzak esparrutzeaz gain, aipatutako hiru alorrak arautzen ditu. Ereku funtzionalaren diagnosiak behar bezala definitzen du.

Ingurune fisikoaren diagnosia egiterako orduan inportanteena, esparru bereizketari dagokionean behintzat, **ingurumenaren arloko** eremu bereizketa da, izatez, bertan mugatzen diren zonek babes berezia eskatzen baitute. Hauxe topatuko dugu, bada, esparru horietan:

- Interes Handiko Naturguneetan dauden ibaiertzak: naturgune babestuetako ibaiertzei buruz ari da. Zehazki Ordunte mendilerroko goi-ibarra aipatzen da (Ordunteko GKL): Karrantza ibaiaren ur-multzoa osatzen dute; Karrantza ibaian zein Kalera ibaian dute amaiera. Beste ibaiertz interesgarri bat Armañonetik (GKL) pasatzen da; Karrantza ibaian burutzen den Seko ibaiaren tarteak; Agueran amaitzen den Valnera ibaia; eta Kuadroren ibai tarteak, Los Jorrios-eko iparraldean zehar Ason ibaiaren arroan bukatzen dena.

Plan honen arabera ibai ertz hauetan ur-ibilia babesteko eremu bat zehaztu beharko da. Bi eremu horiek (Ordunte eta Armañon) ordenatzen dituzten dokumentuetan definituta daude zehaztu beharreko babes eremu horiek. Armañoneko dokumentuak, era berean, Armañon Parke Naturaleko Baliabide Naturalen Ordenazio Planaren oharra jarraitzen ditu.

- Landaredia egoera onean duten ibaiertzen txosten bat egin da. Lehendabizi ur-ibilien ertzetako landaretza nola dagoen, eta jarraian ibaiertz-tarte batzuk hautatu dira bertan zaindu beharreko landareak daudelako. Aztertutako arroa guztietan daude zaindu beharreko ibaiertz-tarteak, baina baten batzuk aipatzekotan Karrantza ibaia eta bere ibaiadarrenak (Concha auzora iritsi aurretik), eta Aguera ibaiarenak nabarmenduko genituzke.
- Berreskuratu beharrean dauden ibaiertzak batez ere Kadagua ibaiarenak dira, Zallatik Soduperako tartean daudenak hain zuzen. Berreskuratu beharreko ibaiertz hauek etxebizitza ugari dauden lekuetan eta beraien inguruan aurki ditzakegu. Zentzu honetan aipagarriak dira Kadagua ibaia eta Herrerias bere ibaiadarraren ertzak zein Kalera eta Barbadun ibaiarenak.

Ibaiertz hauetan landaredi klimazikoa egoera onean eduki nahi da; horretarako, aginduko dira landaredia zaintzea xede duten jarduerak. Bestalde, berreskuratzeko dauden ibaiertzetan, horretarako proposak diren neurriak hartu beharko dira.

Urak bideratzeko ibai-tarte desberdinak bereizteko orduan -uren bideratzearen alorraz ari gara- ibai bakoitzari buruzko zenbait informazio erabili dira: batetik, ibaia beraren azterketa hidrologiko eta hidromorfikoak egin dira; eta bestetik, uholdeak jasateko duen maiztasuna zein beraiei aurre egiteko duen gaitasuna ikertu da. Honen ostean, ibai bakoitzak ura hartzeko duen gaitasunaren arabera, ibai-tarte desberdinak mugatu dira.

Azkenik, Hirigintzaren alorraz arituko gara. Ibaiertzetan dauden herriguneen arabera bereizten ditu ibai-tarteak. Eremu funtzionaleko ibaietan honelako ibi-tarteak aurkituko ditugu:

- Ingurune landatarretan dauden ibai-tarteak. Preseski, hauek dira ibai-tarte zabalenak eta ugariak.
- Ereku garatuetan dauden tarteak. Bereziki ugariak dira Kadagua ibaian zehar.
- Garapen bide berriak urratu ahal dituzten eremuak: Kadagua ibaiaren marjinak okupatzen dituzte, eta baita ere Sopuerta, Galdames eta Trucios-Turtziozko auzune handienetatik gertu dauden tarteak; eta bereziki Karrantza haranean dagoen Concha auzoko zona garrantzitsu bat.

Euskal Herriko Errepide Plan Orokorra (1999-2010)

Lurralde Plan Sektorial hau ekainaren 8ko 250/1998 Dekretuak onartu zuen. 1992an sorturiko planaren lekua hartu zuen. Plan honek, zirkulazioaren dentsitate desberdinei erreparatuz, EAEko errepideen sarea definitzea du objektu. Planak hizpide dituen errepide batzuek Lurralde Historikoak elkarrekin lotzen dituzte, edota ondoko Autonomia Erkidegoko errepideekin. Gainontzekoak, aipaturiko hauen trafiko-dentsitatean zuzenean eragin dezaketenak dira.

Balmaseda-Zalla eremurako ondoko lanak proposatzen dira:

- Lan-programa nagusia
 - Azpiegitura berria: Kastrexana-Alonsotegi-Sodupe-Artxube autobia (BI-636)
- Egokitzapen-programa
 - Malabrigo-Traslaviña-Villaverde errepidearen (BI-630) bide-trazaduraren egokitzapena.
- Herri saihezbideen programa
 - Lanestosa (N-629)
 - Traslaviña (BI-630)

Orain dela gutxi, Errepideen Bigarren Plan Orokorren Berrikuspena (2005-2016) idatzi da. 2010eko azaroaren 23an Gobernu Kontseiluak hartutako akordioaren bidez onetsi da plan hori.

Euskal Trenbide sarearen Lurralde Plan Sektoriala.

Otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuak onartu zuen. Plan honek Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sarea garatzeko eta osatzeko lanak definitzen ditu. Bere erabakiek lurzorua erabilerari eragiten die. Eta ondorioz intzidentzia daukate lurzoru-erreserba baimentzen duten hirigintza-planengan.

LPSk FEVEren Aldiriko planaren ebazpenak bere egiten ditu. Esaterako, Bilbo-Balmaseda linearen aldiriko zerbitzua berritzeko asmoa du; halaber, geltoki, apeadero eta azpiegituretan egokitzapen-lanak egingo dituzte. Hori guztia tren-ustiapienaren optimizazio helburuak lortzeko burutuko da.

Aranguren-Balmaseda tartean planteatzen diren lanak, batez ere linearen desdoblamendua, Enkarterrin egon daitekeen trenaren erabilerari egoki erantzuteko dira.

Gaur egun bi errailetako trenbidea dago Bilbotik (Concordia) Zaramilloraino. Zaramillo eta Artxuberen artean, eta Sodupeko saihesbidea delakoan zehar, trenbidearen bigarren erraila egitea proposatzen da. Gaur egun Sodupetik La Quadrara bitarteko zatia BI-631 errepidea eta Kadagua ibaiaren artetik pasatzen da; eta zabalera txikiko lekua denez ezin da trenbidearen bigarren erraila bertan egin. Eragozpen honen ondorioz trenbidearen bigarren erraila ibaiaren eskuineko marjinan egin beharko da; horretarako, La Roblako antzinako trenaren bidea aprobetxa daiteke.

Artxube eta Aranguren artean trenbidea desdoblatzea proposatzen da; nolana ere, nahikoa litzateke egungo trazaduran bigarren erraila egitea. Bilbo-Santander linearen trazadurak, Arangurendik Balmasedarako noranzkoan, bi erraila ditu.

Arangurenen herrigunetik igarotzen den trenbidea utzi eta, saihesbide labur batean zehar, Zallarako trenbidearekin egingo da bat. Horrela, Casapinta-Arangurengo apeaderoa eremutik pasatzea ebitatuko litzateke.

Proposamen arabera Apeadero berri bat eraikiko litzateke, egun dagoenetik ez urrun, eta beraz herrigunean bertan. Oso bestela gertatzen da tren-geltokiarekin; dagoenean mantenduko da, ibaiaren eta paper-fabrikaren artean eta, haatik, bidaiarientzat herritik urrun eta eskueran ez.

Zallan saihesbide bat egitea planteatzen da. Herri-bilbean kontu handiz txertatuko da eragozpenak ahalik eta txikienak izateko. Zallako erdigunetik kanpoaldera doan errepidea ere zabaldu egingo da; egungoaren bikoitza izango da.

Balmasedarako tren-saihesbide bat pentsatu da. Xedea San Inazio auzoa eta UI-1 sektorea egokiro lotzea da. Horretarako, trenbidea eta geltokia lekualdatu egingo dira; hain zuzen, Roblako linean berreraikitzea proposatzen da. Honek Kadaguako korridorearen azpitik (BI-636) pasabide bat egitea ekarriko luke.

Bilbo-Santander lineako Aranguren-Karrantza tarteari dagokionez ezin da aipatu gabe utzi bertako trenbideko garraioak izan dezakeen balioa; estrategikoa edo funtsezkoa izan daiteke merkantzien garraiorako. Osterantzean, tarte honetan populazio urria denez, bidaiarien garraio-zerbitzua handitzeko arrazoirik ez dago.

Azkenik, informazioa emate aldera, aditzera eman behar da “Prestazio handiko Kantaurikoko korridoreari buruzko informazioko azterketa. Bilbo-Santander tarte” egiten hasi dela. Bere aldetik izapidetzen ari da, garrantzi handia izango du eremu funtzionalean, eta eragin nabarmena izan dezake. Hala ere, oraindik ez da erabaki ibilbidea eremu funtzionaletik joango den, edo itsasaldetik hurbilago egingo den.

Euskal Haize-energiaren Lurralde Plan Sektoriala.

Maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuak (EHAA, 105. zkia., 2002ko ekainaren 5a) onartu zuen Dokumentua behin betiko.

Lurralde Plan Sektorial honek parke eolikoak lurralde-antolakuntzan kokatzeko leku proposenak identifikatu, hautatu eta integratu nahi ditu. Eremu funtzionalean ondoko kokalekuak aurreikusi dira parke eolikoentzat:

- Ganekogorta: Gueñes, Okondo, Arrankudiaga eta Alonsotegi herrietan zehar banatuta.
- Ordunte: Karrantza eta Artzentales udalerrietan kokatuta.

Energia eolikoaren bigarren lurraldeko plan sektoriala izapidetzen hasi denez, eta aurreakordio bat dagoenez kokaleku jakin batzuk kentzeko, eremu funtzionalean ezarritako kokalekuak kenduz gero, horren ondorio guztiak ere kenduko dira, LPP hau aldatu beharrik gabe.

Euskal hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.

Ekainaren 27ko 160/2004 Dekretuak onartu zuen Dokumentua behin betiko. Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak arautzen ditu Euskal Herriko lokaztiak, eta kasu honetan hiru multzotan banatu ditu:

- I multzoa: Egun Naturgune Babestu izendapena lortuta dutenak. Gune berezi hauek, jada, araututa daude; bere araudi propioa dute.
- II multzoa: Gune hauek hirigintza-plangintza bereziren batek babesten ditu; edo, bestela, Lurralde Plan Sektorialak berak zehaztutako arauak babesten ditu.
- III multzoa: Lurralde Plan Sektorialak zerrendatzen dituen gainontzeko hezeguneak osatzen dute.

Eremu funtzionalean, gaur egun, III. multzoko hezeguneak bakarrik daude. Hala eta guztiz ere, posible da indarrean jar daitezkeen Antolamendurako Planek hezegune bat multzok aldatzea; era berean, litekeena da baita ere, beste toki batzuek Gune Babestu izendapena lortzea -hauen artean egon daitezke Trianoko edota Ordunte mendietako eremu batzuk-. Gauza bera gerta daiteke artifizialki sortutako (meatzaritzaren eraginez) zenbait zohikaztegi eta putzu edo aintzirak.

Planaren araudiko 17. artikulua III. multzoko hezeguneei buruz zera dio: alegia, udal plangintzak erabakiko du zein hezegune den baliotsua, izan ingurumenaren arloari begiratuta, zein naturaren edo paisaiaren arloei. Beraz, ikerketa sakonak egingo ditu eta gune bakoitza nola babestu eta beraien inguruak nola erabili ebatziko du; eta horretarako, tipologiaren arabera, ordenazio-kategoria jakinak emango zaizkie. Categoria hauek Lurralde Plan Sektorialak definitzen ditu.

Planak ondoko hezeguneak zerrendatzen ditu beraien tipologia kontuan hartuta:

HEZEGUNE NATURALAK

B.- BARRUALDEKOAK

Klima-erritmo atlantiarrekoak

B1.- zohikaztegiak

B1B3, Ordunte mendilerroko zohikaztegiak, Karrantza Haranean.

B1B5, Zalamako zohikaztegia, Karrantza Haranean.

B1 B6, Urrearen iturriko zohikaztegia, Balmasedan.

B3.- Ebaporitekin eta akuiferoekin zerikusirik ez duten aintzirak eta putzuak

B3B1, Ullabe aintzira, Balmasedan.

B3B2, Putzu Ederra, Balmasedan (idortua)

B3B3, Sabugal aintzira, Balmasedan (idortua)

HEZEGUNE ARTIFIZIALAK

D.- MEATEGIETAKO PUTZU ETA AINTZIRAK.

DB5 Sauco putzua, Galdamesen

DB6 La Rita putzua, Galdamesen

DB7 Printzesa meatzearen putzua, Galdamesen

DB14 Katalina meatzearen urmaela, Sopuertan

DB15 Montellanoko urmaela, Sопuertan

E.- URTEGIAK

EB17 Nozedaleko urtegia (Lingorta), Gueñesen

Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.

Dokumentu hau abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuak behin betiko onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluan. Dekretuak EAE mailako azterketa zabal bat egiten du, eta bertan zehazten du ekonomia-jardueretarako zenbat lurzoru behar den eta zenbat eskaintzen den. Gainera, koordinazioa eta osagarritasuna ere aipatzen dira.

Ekipamendu Komertzialetarako eta Ekonomia-jardueretarako Lurralde Plan Sektorialaren (LPSren) dokumentuak, arlo honen harira, Enkarterriko Eremu Funtzionalaren gainean balorazio eta diagnostiko bat egin du (3.2.7. puntu). Bertan behatu dira zein diren Enkarterriren gaur egungo egoeraren arrazoiak. Ondorioak hauek ezaugarriak dira: eskualdea garapen ardatz nagusietatik at dago; populazioa urria eta sakabanatua da; eta gainera, duen errepide sarea zaharkitua eta traketsa da.

Hau guztiaren eraginez, industria-jarduera Sodupe (Güeñes) eta Aranguren (Zalla) herrien inguruan garatu da batik bat; nahiz eta, orain arte, Balmaseda izan den biztanle gehien dituen herria.

LPSk jakinarazi duen bezala, Enkarterriko eskualdeak kalifikatuta dauden 164 ha. ditu; hauetatik 85 ha. hartuta daude, eta beste 79 ha. okupatu gabe. Lurzoru-erreserba onenak Güeñeseko udalerrian topa daitezke (23 ha.). Horrez gain, Balmasedan (22 ha.) eta Zallan (14 ha.) aurreikusitako lurzoru-erreserbak ez dira hain erakargarriak.

LPSren eduki orokorretan, **sustapen-eremuak** delakoak aipatzen dira. Hauetan ekonomia-jardueretarako eremu berriak erraztasunez sortzeko esku-hartze bereziak proposatzen dira. Enkarterrin, sustatze politika hau batez ere Zalla-Güeñes zonalderako planteatzen da; izanez ere, lehentasuneko herriak baitira planaren asmotan. Balmasedaren hazkundeak, aldiz, apalagoa izango da, neurrizkoa alegia.

LPSk, betiere Enkarterrien Eremu Funtzionalaren barruan, **Lurzoruaren kudeaketa publikorako proposamenak** egin ditu: horietako bat Güeñesen eraikiko den eskualde mailako poligono berria da. Sodupe eta Güeñes dauden haranaren tarte estrategiko bat erabiliko da horretarako. Asmoa eskualdeko zein Bilbo Metropoliko jarduerak erakartzea izango da.

LPSk **lurzoruak kuantifikatzeko jarraibide** hauek ezarri ditu Enkarterrirako:

- Egun martxan dauden ekonomia-jardueren instalazioek hartutako lurzoruen hedadura 85 Ha.
- Kalifikatuta egonda libre dauden, eta gainera eskaini daitezkeen, lurzoruen hedadura. Kalifikatutako lur

librearen eskaintza osoari 0,75eko minorizazio faktorea aplikatzen zaio. 60 Ha.

- Planak martxan jarriko dituen sustapen publiko desberdinek behar dituen lurzoruen azalera; gainera, lurzoru hauek, egungo hirigintza-plangintzaren barruan ez daudenez, rekalifikazioa behar dute25/50 Ha.
- Planak aurreikusten duen lurzoru-eskaera asetzeko beharrezkoak diren lurzoru berrien azalera25/50 Ha.
- Enkarterriren kuantifikazio globala. 200/250 Has.

Ekipamendu komertzial handien erregulazioari dagokionez, planaren ustetan eskualdeko herri nagusiak (B kategoria) Balmaseda, Gueñes eta Zalla dira.

Bizkaiko errepide plana

1999ko apirilaren 15eko 8/99 foru-arauak onartu zuen behin betiko; eta 1999ko ekainaren 25ean argitaratu zen EHAA. Plan honek Bizkaiko Errepide-sare Funtzional bat definitzen du; lurralde historikoko errepide guztiez osatua haiz zuzen ere. Errepide-sare Funtzional osoa aztertu du planak eta, ondoren, finkatuta utzi ditu zenbait xedapen, helburu, lehentasun eta egin beharreko hobekuntza-lanak.

Balmaseda-Zallako Eremu funtzionalerako ondoko soluzioak proposatzen ditu:

- Lehentasunezko errepide-sarea
 - o N-629. Lanestosako Saihesbidea. Burgos-Colindres bide printzipalenetako bat da. Bada, Bizkaian zehar Lanestosako herrigune arazotsutik igarotzen da. Beraz, hori ekiditeko, derrigorrezko ikusten da errepide horren trazadura aldatzea.
- Oinarrizko errepide-sarea
 - o BI-636. Kadaguako Korridorea. Galtzadaren bikoizketa.
 - o BI-630. Karrantzako korridorea.
 - Balmaseda-Malabrigo: azpiegitura berria.
 - Malabrigo-Traslaviña: trazaduraren hobekuntza.
 - Traslaviña: herri-saihesbidea
 - Traslaviña-Villaverde: trazaduraren hobekuntza
 - La Escrita-Ambasaguas: trazaduraren hobekuntza
 - Ambasaguas-L.P. Kantabria: berritze eta zabaltze-lanak.

- Eskualdeko errepide-sarea:
 - o BI-2617. Trucios-Turtzioz ardatza: berritze eta zabaltze-lanak
 - o BI-2701. Sopuerta-Otxaran ardatza
 - Sopuerta-Mercadillo-Avellaneda: berritze eta zabaltze-lanak
 - Avellaneda-Otxaran: trazaduraren hobekuntza

LPSren gainerakoa.

EAEko Itsasertza Antolatze eta Babesteko LPSa ere onartu da. Baina Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionala barrualdekoa denez, PLS honek ez dio lurralde honi eragiten.

1.3.3 TRAMITAZIO BIDEAN DAUDEN LURRALDE PLAN SEKTORIALAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintza Lurralde Plan Sektoriala.

Plan hau behin behineko tramitazio fasean dago oraindik. Hasiera n 2005eko urtarrilaren 10eko Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren Aginduak onartu zuen (2005eko urtarrilaren 27ko EHAA). Derrigorrezko Ingurumen-Inpaktuaren Ebaluazio Bateratua ere egin da.

Informazio-peparen ondoren, Plan honek hasierako dokumentuan ezarri zituen antolaketa-kategorien kopurua txikitu egin du. Beraz, gaur egun kategoriatu hauek xedatzen dira:

- Balio estrategiko handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza.
- Trantsiziozko landa-paisaiadun Nekazaritza eta Abeltzaintza.
- Basoa.
- Basoa-Mendi soila.
- Mendi larreak.
- Mendi larreak-Harkaiztiak.
- Ingurumenaren hobekuntza.

Kategoria hauen arabera planaren antolaketa Eremu Funtzionalaren ia lurralde osoa barruan hartzen du; Armañoneko Parke Naturala izan ezik, honek planifikazio eta antolakuntza propioak baititu.

Era berean, sailkapen honetatik Kanpo geratzen dira udal plangintzek herri-lurzoru -urbanizagarriak direnak- izendatu dituzten eremuak, edota azpiegiturek okupatutako lurrak.

Eremu honetarako ondoko kategoria hauek adierazi dira:

- Balio estrategiko handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza: Nekazaritzarentzat balio estrategiko handiko eremuak dira. Izendapen honen azpian lurren “maila agrologikoa” dago eta hiru maila bereizten dira; I, II eta III mailak. Mailaketa honetan, alde batetik, lur alubialak sartzen dira; hots, haran eta ibarretako lurrak, sakonak eta %12ko malda baino txikiagoak dituztenak. Eta bestetik, mahastiak dituzten soroak.

Aipatutako lur hauen ondoan nekazaritzarako estrategikoak diren beste batzuk ere badaude; izan ere, oso modernoak eta errentagarriak direlako. Horregatik, lehentasunezkoa da lur horiek nekazaritzaren esku jartzea eta ez beste jarduera batzuetara bideratzea.

Planak kategoria honetan biltzen ditu herrietatik zein ubideetatik gertu dauden ibar guztiak. Zentzu honetan azpimarragarriak dira Sopuerta haraneko ibarrak; eta neurri apalagoan aipagarriak dira baita ere Galdames, Artzentales eta Karrantza Haraneko ibarrak.

- Trantsiziozko landa-paisaiadun Nekazaritza eta Abeltzaintza: Balio estrategiko handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza eremuen ondoan guneak dira. Lursail erabilgarriari eustea eta ez galtzea da lehentasuna eremu hauetan; beraz urbanizatzeko-prozesuak eta azpiegiturak baztertu egin behar dira. Horrelako eremuak Karrantza Haranean aurkituko ditugu bereziki; bertan ganaduentzako larre zabalak daude nonahi, baita landazabal atlantikoak ere.
- Basoa: Kategoria honen baitan baso naturalak sartu dira; bai bertako espeziez osatutakoak zein landatutako basoak. Eremu hauen xedea zuhaitzien hedadura mantentzea eta ez galtzea da. Baso zabalenak haranen hegaletan eta gainetan daude; bertako antzinako landaretza duela zenbait hamarkada desagertu baitzen. Gordexolan daukagu honen adibidea, Herrerias ibaiaren harana inguratzen duten mendietan hain zuzen.
- Basoa-Mendi soila eta Mendi larreak kategoria osatzen duten eremuak bilatzeko mendilerroetan gora egin behar da, leku garaienetaraino. Bereiziki Triano eta Orduntera jo behar da. Dena den, gune hauetan basogintza ez da inondik inora jarduera nagusia. Bestalde, Mendi larreak-Harkaiztiak kategoria duten guneak aurkitzeko, Karrantza haraneko eta Triano mendietako harkaizti karstikoetan ibili behar da.

- Ingurunearen hobekuntza: gunetik haketan lehenbailehen egin behar dira lanak ekosistema hobetzeko eta bultzatzeko. Dagokigun Eremu Funtzionalean horrelako guneak ere aurkituko ditugu; hain zuzen, aire zabalean egindako meatzaritza-lanek egindako lurretan.

Harrobi hauek jardunean segitzen dute, baina ustiaketek kaltetutako ingurunea berritzeko lanak gutxi garatuta daude oraindik. Ondorioz, agortu diren ustiaketa-partzeletan apenas ez da hobekuntzarik nabaritzen; Planak eskatzen duen mehorarik ez behintzat.

Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektoriala.

Kultura Ondarearen antolaketa Euskal Kultura Ondarearen LPSa gauzatzen ari da. Honen Aurrerapena onatuta dago eta, gainera, aldeko txostena idatzi zuen EHLABk 2001eko ekainaren 13ko 3/2001 osoko bilkuran.

Etxebizitzaren sustapen publikorako Lurralde Plan Sektoriala

Dokumentu honen oinarritzko betebeharra da, alegia, babestutako etxebizitzaren sustapenerako erreserbatutako lurzoruei buruzko irizpideak proposatzea: lurzoruak non kokatu, nola antolatu eta beraiei neurriak mugatu. 2000/06/29an Aurrerapena aurkeztu zen.

Garraio-sare intermodal eta logistikoen Lurralde Plan Sektoriala

EAEko gunetik intermodal eta logistikoak sustatzeko erreserbatuta dauden lurzoruak kokatzeko, antolatzeko eta beraiei neurriak mugatzeko irizpideak proposatzea da Dokumentu honen oinarritzko betebeharra. Aurrerapena 2003/07/24an aurkeztu zen eta egun dokumentua bere hasierako onespenerako idatzen ari dira.

LPSren gainontzekoa

Portuen LPSa ere idatzen ari dira, baina honek ez dio Balmaseda-Zalla barrualdeko eremu funtzionalari eragiten.

1.3.4 UDAL PLANGINTZA.

Balmaseda-Zalla eremu funtzionala 10 herriek osatzen dute. Hauek guztiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan daude.

Herri hauen herrigintza-plangintzei erreparatuta oso egoera eta kasu desberdinak aurkituko ditugu.

Artzentales

B motako Arau Subsidiarioak ditu. Behin betiko 1991eko uztailaren 4an onbatu ziren; eta araudia 1997ko irailaren 29an argitaratu zen. Arau hauek 2006an hasierako onspena jaso bazuten ere, egun berrikusketa fasean daude eta alegazioak erantzuten ari dira. Hala ere, Udalak uste du hasieran onbatutako dokumentuan aldaketa nabarmenak daudela eta, ondorioz, litekeena dela arauak berriro jendaurrean ikusgai jarri behar izatea.

Balmaseda

Nahiko berriak dira bere B motako Arau Subsidiarioak; izan ere, 1994ko apirilaren 5ean behin betiko onbatu ziren eta 2005eko urtarrilaren 20an argitaratu zen araudia. Arau hauen aurreikuspenak betetzen hasi dira. Denbora tarte honetan aldaketa puntual asko bideratu dira. Besteak beste, horietako bat garrantzitsua izan da: Fabio Murgaren industria-lurzoru zena R-23 etxebizitza-lurzoru bilakatu da. (237/2008 Foru Agindua, otsailaren 28koa).

Galdames

2001eko abuztuaren 2an behin betiko onbatu ziren B motako Arau Subsidiario batzuk ditu. Araudi hura 2002ko urtarrilaren 28an argitaratu zen; gainontzeko Arau Subsidiarioak 2003ko uztailaren 15ean onbatu eta argitaratu ziren. Gerora, azken urteotan, arau hauetan zenbait aldaketa tramitatu dira.

Gordexola

B motako Arau Subsidiarioak ditu onbatu ondoren 1998ko abenduaren 7an argitaratu zirenak. Azken urteetan aldaketa batzuk ere egin dira bere gainean. Arau hauek berrikusketa fasean daude eta oraingoz Aurrerapen dokumentua baino ez dago. Gaur egun hasierako onspenerako txostena egiten ari dira eta Udalak uste du denbora gutxi barru jarriko dutela jendaurrean ikusgai alegazioak egin ahal izateko.

Gueñes

B motako Arau Subsidiarioak ditu, orain dela gutxikoak dira, izan ere 2006ko abenduaren 5ean onbatu eta 2007ko uztailaren 30 argitaratu ziren. Nahiko berriak diren arren aldaketa puntual batzuk tramitean daude jada; Gueñes baita Enkarterriko herri dinamikoenetako bat.

Karrantza Harana

B motako Arau Subsidiarioak ditu, 1991eko maiatzaren 18an onbatu ziren eta araudia 1991eko abuztuaren 8an argitaratu zen. Azken urteetan tramitatu diren aldaketa kopuruak erakusten du arau hauek zaharrak direla. Arau hauetan aldaketa berriak tramitatzeko jarraitzen dute eta Udala arauak berrikusten ari da, baina oraingoz ez da dokumenturik aurkeztu.

Lanestosa

Hamar urte baino gehiagoko B motako Arau Subsidiarioak ditu, izan ere 1992ko otsailaren 26an onartu ziren eta araudia 1993ko otsailaren 9an argitaratu zen. Arau hauek hamar urte baino gehiago badute ere, Udalak, momentuz, ez dauka hauek berrikusteko asmorik; arau berdinekin jarraitzeko asmoa du eta, beharrezkoa denean, aldaketa puntualak garatuko ditu. Honen adibide da saihezbide bat eraiki ahal izateko aurkeztu duena.

Sopuerta

Nahiko berriak diren B motako Arau Subsidiarioak ditu, izan ere 2004ko urtarrilaren 20an behin betiko onartu ziren eta araudia 2004ko ekainaren 1ean argitaratu zen. Arauak nahiko berriak dira baina azken urteetan proposamen asko gauzatu da, ezen oso ekintzaile baitabil Sopuerta udala.

Trucios-Turtzioz

B motako Arau Subsidiarioak ditu; 1998ko otsailaren 2an behin betiko onartu ziren eta data berean argitaratu zen araudia. Azken urte hauetan, arau hauen gainean zenbait aldaketa tramitatu eta onartu dira. Berriki Trucios-Turtziozko Udalak lizitaziora ateratu du arauen berrikusketa eta jada idazketa taldeak Aurrerapen dokumentua aurkeztu du jendaurrean ikusgai jartzeko.

Zalla

B motako Arau Subsidiarioak ditu; 1999ko maiatzaren 25ean behin betiko onartu ziren eta data berean argitaratu zen araudia. Azken urteetan aldaketa asko tramitatu eta onartu dira. Horrek erakusten du arau hauek nahiko zaharrak direla; Zalla bezalako herri aktiboarentzat behintzat bai.

Berriki aipatutako arauak berrikusketa fasean egon dira; Aurrerapen dokumentua jendaurrean aurkeztu da eta horri buruz egindako iradokizunei erantzun zaie. Hala ere, prozesua geratu egin da. Izan ere Zallako Udala "Kadaguaren ubideratze-pana" behin betiko noiz onetsiko zain dago. Plan honek egungo inondabilitate neurriak aldatzen ditu eta, ondorioz, herria garatzeko proposamenak baldintza horren menpe leudeke. Ziurrenik laster ekingo dio Zallako Udalak arauak berrikusteari.

1.4 MARKO GEOGRAFIKOA

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionala eta Enkarterriren betiko eskualdea bat datoz. Bizkaiko Lurralde Historikoaren mendebaldeko muturrean kokatuta dago eta 430 km²-ko azalera du. Bertan 30.413 biztanle inguru bizi dira, hau da, 70,9 biztanle/ km²-ko. Bere biztanle-dentsitatea Autonomia Erkidegokoa baino bost aldiz txikiagoa da.

10 udalerri osatzen dute eremu funtzionala: Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zalla.

Kontraste handiko eskualdea, bere lurraldearen zati handi baten betidaniko isolamendua eta Bilboko metropoli-eremuarekiko gertutasuna elkarrekin uztartzen ditu. Hain zuzen, inguru naturalaren ezaugarri fisikoek, orografiak batez ere, gune honen garapena eta bilakaera nabarmen baldintzapetu dute. Lurralde oso menditsua denez eta lau haranetan banatuta dagoenez, komunikazio aukerak mugatuta dauzka; barne komunikazioa izan zein alboko eremuekiko komunikazioa.

Eremu honetan bi esparru bereizten direla begi-bistakoa da. Bakoitzak bere egoera eta arazo propioak ditu:

- Mendebaldea oso landatarra da. Lanestosa, Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentalesek osatzen dute; Baserri-giroa eta lehen sektorea nagusitzen dira.

Mendebaldea ez da bizi Bilbo Metropoliari begira. Orografiak izugarri zailtzen ditu joan-etorriak eta komunikabideak, barrukoak zein ondoko eremuekikoak. Lanestosa, Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentales geografikoki Kantabriatik gertuago daude eta baserri-giroko ezaugarriak bizi-bizirik dituzte oraindik. Biztanleriari dagokionez kopurua beherantz doa eta nabarmen zahartzen ari da. Dena dela, oraindik bizilagun multzo aipagarria dauka, batez ere bertako lehen sektoreko jardunek dezenteko garrantzia daukatelako ekonomiaren arloan.

- Ekialdea antropizatuago dago. Bertan kokatzen dira Balmaseda, Zalla, Gueñes, Sopuerta, Galdames eta Gordexola. Kadaguako korridorearekin zuzen-zuzenean lotuta daude, trenbide-sareak zeharkatzen ditu eta Bilbo Metropoliaren eragina nabari dute.

Ekialdea Kadagua haranaren inguruan gorpuzten da. Haran hau, ekialdetik mendebalderako noranzkoan, Bilborako bide naturala da eta horregatik du lotura handia Bilborekin. Ibai honen bi ertzetan eskualdeko populazioaren gehiengoa (%60a) eta gaur egun diharduten ekonomia jardura gehienak (%70a) hartu dute lekua. Bertan Gueñeseko, Zalla eta Balmaseda harriak

daude eta ahalmen handiko hirugarren sektoreko jarduerak dituzte industria sektoreaz gain. Zona honek berriki demografia hazkundera izan du, nahiko eskasa ordea.

Bestalde, Sopuerta, Gordexola eta Galdames herriak lehen alderatutako bi eremuen erdibidean daude, trantsizio eremuak dira. Horregatik, beste maila batean, aurreko bi eremuen ezaugarri eta arazoak ere badituzte.

1.5 LURRALDEAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA.

1.5.1 INGURUNE FISIKOA

Enkarterri Bizkaiko dibertsitate biologikoaren erakusgarri aberatsenetakoa da. Hala ere, etorkizunean baso trinko bihur daitekeen landaretza galdua da jada. Egun, han-hemenka dauden baso nahasi atlantiarrak baino ez dira geratzen: haritzak, Kantauriko artadiak, lizarrak, pagadiak eta haltzadiak.

Dibertsitate biologikoaren murriztea arriskuan dauden landare eta animaliek pairatzen dute sarritan, edota "herri-interesa" piztu duten landare eta animaliek.

Arrazoi askok eragin dute dibertsitate biologikoaren murriztea. Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalean ondoko hauek antzeman dira:

- Basogintzaren eragin bortitza. Batez ere ustiatzen diren espezie aloktonoen ugaritasuna, eta bereziki pinus radiata-rena. Pinu honek balio handiko bertako baso, sastraka eta larreen lekua hartu du eta, ondorioz, landa-atlantiarraren berezko elementuak galtzen ari dira. Basogintzaren ondorio kezkarrienak Kadagua eta Herrerías ibaien haranetan gertatzen ari dira.
- Baso-ustialekuean erabiltzen dituzten plagiziden efektu gaiztoak animaliak (saguzarrak, animalia ornogabeak eta anfibioak) akabatzen ditu. Bestalde, otsoa bera ere galbidean jartzen ari da, izatez kalteak sortzen baititu abeltzaintza ustiapenetan eta horrek abeltzainen haserrea pizten du.
- Ingurumen-balio handiko gunetan edozein ibilgailu motordun ibiltzen da kontrolik gabe, aisialdi betean; eta beraz, ez bakarrik landa edo baso-lanetarako ibilgailuak. Hauxe gertatzen da Gallarraga mendiaren hegaletan, Triano mendietan edo Ordunte mendietan, hain zuzen, leku hauen erabilera mugatzeko planak falta direlako. Ez dago leku hauetako baliabide naturalak antolatzeke planik.
- Landare eta animalia inbaditzaileek (bisoi amerikarra, sasiakazia, Panpako luma-erratza eta Japoniako banbua) bertakoen lekua hartu dute. Gainera, zuzen-zuzenean ez bada ere, habitat askoren hondamena dakarte.

- Leku batzuetan jakina da gehiegizkoa dela abereen larratzea. Gainera, larre berriak egiteko sastrakak erretzen dituzte eta horrek berezko baso-berritzea eragozten du; eta halaber, menturazko habitat natural berriak zapuzten dituzte.

Beste arrisku posiblea Gueñes-Penagos linea elektrikoaren trazadura da; oso gertu baitago Armañongo Parke Naturaletik eta Triano mendietako Biotopo Babestua izango den horretatik. Linearen instalazio-lanak oso nozigarriak izan daitezke bertako faunarentzat, eta horrez gain, lanek eraginda, balio handiko landareak gal daitezke. Baita ere, Espainiako Sare Elektrikoa linea elektriko berri baten trazadura ikertzen ari da: Jara-Vallegón linea, 220 Kv-eko tentsio altuko aireko linea hain zuzen. Honek Artzentales eta Sopuerta artean dagoen “Landa-paisaiari” eragin dakioke.

Enkarterrik badu aipagarria den alderdi positiborik. Natura-ingurune paregabea dauka, oso egoera onean dagoena gainera eta ezer baino lehenago zaindu beharrekoa. Lanestosa, Karrantza Harana eta Artzentales herriek, eskualdeko beste eremu batzuen oso bestela, ez dute ingurumenaren transformazio bortitz hori pairatu. Lehen sektorea oraindik bizilege izateak ingurumenaren egoera paregabeari izugarrizko mesedea egiten dio. Bizkaiko Lurralde Historiko osoan ez dago Enkarterriren aniztasun biologikoa duen beste eremurik. Ingurumenari begira jarrita eremu zabalena da.

Elementu hau dagoen horretan zaindu beharrekoa dela uste da, hots, gizakiaren ustiaketa-jarduerak orain arteko irizpideen arabera egin behar dira. Eremuaren aberastasuna eta biodibertsitatea, eta beraz paisaiarena ere bai, gizakiaren urteetako ahaleginaren ondorio izan baita, landa eremuan eginiko lanaren emaitza.

Han-hemenka dauden bertako landaretza multzoak oso erakargarriak gerta daitezke, bai zientzialarientzat, ikasleentzat zein aisialdian paisaiatzat disfrutatzen dutenentzat. Are gehiago, aukera handia egon daiteke baso naturalak birsortu eta berreskuratzeko.

Eremuan oso apartekoak diren zuhaitz asko daude. Dituzten berezitasunak direla eta “Babestutako zuhaitz apartekoa” izendapena lortzeko hautagai dira asko eta asko.

Fauna dibertsitate handiena duten habitatak, animalia ornodunak zein ornogabeak kontuan hartuta, ustiaketa-landak dira; preseski nekazaritzari zein abeltzaintzari emandako landak. Aniztasun honen adibide dira landazabal atlantiarrak, bigarren mailako ibai guztien erriberak, eta baita Agüera eta Karrantza ibaiak ere; dena den, dibertsitatearen arloan bereziki azpimarratzekoak dira kareharri trinkozkozko amilburuak.

Eremuaren erdia baino gehiago herri-mendiek osatzen dute; Bizkaia osoan ez dago herri-mendiez osatutako hainbeste lursail duen beste Ermu Funtzionalik. Hau horrela bada, errazagoa da aipatutako dibertsitatea zaindu eta bultzatzeko ekimenak sustatzea.

Izan ere, “galzoriko espezieen” zerrendan sartuta dauden batzuentzat eta beraien biziraupena bermatu asmoz, “interes bereziko eremuak” mugatuta daude jada.

Balio natural handia duten zona eta paisaiak oso zabalak eta ugariak dira eta, gainera, legearen babesa ziurtatuta daukate. Egoera honetan daude Armañongo Parke Naturala eta Triano Mendiak, Biotopo Babestuak delakoaren sarean sartzeko tramiteetan baitaude. Berdin gertatzen da Orduntarekin, Europa mailako babes-figura batek (Garrantzi Komunitarioko Lekua) ematen baitio babesa; gainera, Natura 2000 sarearen barruan dago.

Eremuko landazabal atlantiarretan beste aniztasun elementu berri bat aipatu behar da, alegia, txakolina egiteko mahasgintzaren suspertzea.

Ur-baliabideak

Ur-baliabideei dagokienean bi arazo dira aipagarrienak oroz gain: uholdeen arriskua eta uren kutsadura.

Uholdeen arazoa hor dago eta aldika gertatzen da Kadagua ibaiaren erriberan dauden auzoetan. Izan ere eraikinak daude uren handitzeak pairatzen dituzten lurzoruetan; kasu batzuetan, eraikuntza batzuk ez dute ibaiarekin babesteko tarte nahikorik utzi; besteetan, ibaia hormigoizko ezpondez bideratuta dago; eta, uneka, ur-bideetan azpiegitura eta eraikuntza txikiagoak ere aurki daitezke.

Uren kutsaduraren atzean arrazoi desberdinak egon daitezke. Batetik, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako zenbait jarduera ibai eta erreken ondoraino iristen dira eta, honen ondorioz, urak kutsatzeko arriskua areagotzen da; ongarri kimikoak eta plagizidak erabiltzen direnez erriberako landaretzarekin akabatzen dute eta landaretza honek, hain zuzen, izan beharko luke gai kutsatzaileak ez ibairatzeko barrera. Gainera, ur-bide askotan botatzen dira, edota bota izan dira duela gutxi arte behintzat, araztu gabeko ur zikinak (Artzentalesen, Galdamesen, Karrantza Haranean, Lanestosan, Sopuertan eta Trucios-Turtziozen). Kadaguari erreparatuta, kontuan eduki Kadaguako korridorearen lanak zirela eta bere arroan gai solidoak, obra-hondakinak eta zaborrak bota dituztela.

Baina arazoak arazo, esan dezakegu ibaien tarte luzeenak ekologiarik kariara kalitate ona dutela, edo onargarria bederen bai. Uraren Esparru Direktibak zehaztutako helburuak lortzeko ur-baliabideak antolatzeko proiektuak ari dira martxan jartzen; uren saneamendurako, hornikuntzarako azpiegitura berrietarako eta uren trataerarako (Güeñeseko EDAR adibidez, Trucios-Turtzioz,

Sopuerta eta abar). Baita ere abian dira Agüera, Kadagua, Karrantza eta Barbadun ibaien arroak ingurumenaren arabera berritzeko planak. Honen ondorioz Eremu Funtzionaleko ur-bideetako uren kalitatea hobetuko da eta, era berean, ibaietako fauna ugarituko da.

Lur azpiko uren kalitatea ona da eta, urtaroa gorabehera, beti kantitate politean doaz. Aukera dagoen lekuetan erraza gerta daiteke ur hori aprobetxatzea.

Paisaia

Habitat naturalak aldatzen diren bezala eta bertako espezieak desagertzen diren antzera, paisaia naturalak edota erdinaturalak ere suntsitzen dira.

Eremuan nabaria da paisaia aniztasunaren pobretzea eta sinpletzea. Gainera, bizitegietatik gertu dauden zonetan landazabal atlantiarra edo mosaiko-paisaia galdu egin da. Galera hau bat dator nekazaritza eta abeltzaintzaren moteltzearekin.

Oraindik gutxietsi egiten dira basoko abeltzaintzak eratu dituen paisaiak. Basoko abeltzaintzaren kultura Karrantza Haranean eta Triano mendietako meatzaritza tokietan ematen da. Kultura edo jarduera honek ingurua aberasten du..

Landazabalekin kontrastea eginez, paisaian zehar guztiz gailentzen da mendi magaletan eta haranetan landatutako basoen zabalera, paisaia erabat monotonoa egiteraino; baso naturalak baino hiru aldiz gehiago dira landatutakoak.

Paisaian beste arazo batzuk ere mugatu daitezke: ibai-ondoko landaretzaren desagertzea; ibaien ibarretan ugaritzen ari diren txabolak; eta meatzeen ustiaketa batzuek eragiten duten paisaiaren desitxuratzeak. Azken hauek lur azpiko ondarea suntsitzen dute (zuloak eta kareharritzko eraketak), meatzeetatik kareharria ateratzeko ustiaketa lanek behinik behin bai.

Oso apartekoa da eta azpimarratzea merezi du Güeñeseko azpiestazio elektrikoak. Eskualdean oso garrantzitsua da eta goi-tentsioko linea elektriko askorekin lotuta dago. Honek gure begietara atentzioa ematen du, jakina, eta paisaiaren itxuran sekulako eragina dauka.

Paisaiaren Europako Hitzarmenak alde batetik, eta Garapan Jasangarriaren Euskal Estrategiak (2002-2006) bestetik, ingurumenaren babesaren barruan sartzen dute paisaiaren defentsa; paisaian bertan gorpuzten baitira gizakien jarduna eta ingurune fisikoa.

Funtsezkoa da abeltzaintza eta nekazaritza jarduerekin aurrera jarraitzea lurraren erabilera jasangarria bermatzeko. Orduan landazabal atlantiarrak eskaintzen duen paisaia ez litzateke galduko eta bere horretan iraungo luke. Gainera, paisaia mota honi, Eremu Funtzionalean oso hedatua izateaz gain, begirune handia zaio; balio handiko landa-paisaiatzat hartzen baita. Zentzu

honetan, Eremuko landazabal atlantiarretan beste aniztasun elementu berri bat aurkituko dugu, alegia, txakolina egiteko mahasgintzaren suspertzea.

Balio handieneko paisaia naturalak legalki ondo babestuta daude eta eremu honen zati handi bat hartzen dute (Armañoneko Parke Naturala, Trianoko Biotopo Babestua, Ordunteko GKL (Garrantzi Komunitarioko Lekua). Gaienera toki hauetako ia gehienak lurzoru publikoan kokatzen dira, Mendi Publikoak, Erabilera Publikoko Mendia deiturikoak dira ugarienak. Honi esker bertako errekurtsoen aprobetxamendu jasagarria eta arriskuan dauden espezieen iraupena errazago kudeatuko dira.

Nabarmenak dira Eremu Funtzionaleko baserri-giro handieneko tokien erakargarritasuna; bada horrelakorik Karrantza Haranean eta Artzentalesen, oso egoera txukunean gainera. Horiez gain, nahiz eta ez oso ezagunak izan eta oraindik interes handiegirik ez piztu, badira beste toki batzuk aukera handiak eskaintzen dituztenak: mendi-ibilbideen sarea mendizaletasuna praktikatzeko (ibilbide laburrak, Bizkaiko Bira, Galdameseko trenbidearen ibilbide berdea), meatze-paisaiak, interes geologiko handiko lekuak, Molinarreko bainuetxea, e.a..

Gainera Eremuan 16 atsedenleku daude; Bizkaia osoan ez dago hainbeste atsedenleku dituen beste Eremu Funtzionalik.

Eremu Funtzionaleko herri guztiek garapen iraunkorraren aldeko konpromisoari heldu diote. Hori dela eta, Tokiko Agenda 21 prozesuetan sartuta dabilta; herri batzuk beraien kasa, beste batzuk, berriz, beste herri batzuekin bat eginda; azken kasu honetan gerta daiteke Eremu Funtzioko herri batekin ala kanpoko beste batekin batzea.

Lurraren kalitatea

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza desagokiek tarteka lurak kaltetzen dituzte.

Ordunteko GKL Eremuan esaterako, zohikaztegi bigunetan, gehiegizko abeltzaintzak kalteak eragiten ditu; izan ere, malda handienak dauden lekuetan erosioa areagotzen baitu.

Nekazaritza eta abeltzaintza desagokiek lurtean uzten dute ongarri kimiko zein organikoen hondarrak, eta baita ere plagizidenak. Honek guztiak lurraren kalitateari gaitz handia egiten dio.

Bestalde, industriaren hondakinek eta garai bateko lindane isurketek ere lurak kutsatu dituzte; dena den, Karrantza haranean eta Galdamesen aurkitu zuten lindanea erretiratuta dago jada. Kutsaduraren arazoa ez da Bilbo Metropoliaren dagoenaren tamainakoa, hala eta guztiz ere Güeñes, Zalla, Balmaseda, Sopuerta, e.a. herrietako gunen nahikotxo katalogatuta daude (IHOBEn inbentarioa).

Arazo honekin lotuta beste bat dago: hondakindegia ilegalak. 2005. Urtean Foru Aldundia kontuak ateratzen ibili zen eta bere ondorioa izan zen Eremu Funtzional osoan 150 hondakindegia txiki inguru zeudela. Bereziki larriak dira meazulo zaharretako urmael eta putzuetan botata dauden obra-hondakinak; batez ere Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialak zerrendatzen dituen urmaeletan egindakoak, izan ere ekosistema baliotsu eta urri hauek suntsitzen baitituzte.

Gainera baso landatuetan egiten diren zenbait lan, batik bat malda handiko mendi-hegaletan egiten direnak, kaltegarriak izan daitezke erosioa areagotzen dutelako eta lur emankorra galarazten dutelako. Hau gertatzen da, gehienbat, basoa bota eta bertan beste bat landatu arteko tartean edota baso-landaketa berrietarako lurak atontzeko lanetan.

Leku batzuetan lurpea ere hondatzen ari da meatzetako mineral erauzketa-lanak direla eta. Honen adibide dira Galdames II-ko meatzeak; Galdameseko eremu karstikoaren barrunbeak hain zuzen; eta baita Andaroleta meatzea ere. Azken hau Saratxoko eta Zaramilloko eremuen barrunbeetan aritzen da.

Azken urteetako hiri-hondakin solidoen kudeaketaren hobetzeak aurretik bizi izandako egoera onera ekarri du (Garbiguneen hedatzeak, gaikako zabor-bilketarako edukiontzia, Zallako Transferentzia planta eta baita minda-fabrikaren proiektua ere).

Las Torchacas auzoan (Karrantza Harana) minda-fabrika bat egitea aurreikusita dago. Bertan minda edo simaurrak era egoki batean araztuko dira; kontuan izan gaur egun simaurren kontrolik gabeko isurketa arazo handia dela eskualdean. Dudarik gabe, planta hau Karrantza haraneko eta inguruko herrietako nekazaritzarako lurren zatitza onuragarria izango da; berari esker kiratsa arinduko da eta lurrazaleko zein lurpeko ibaien ur-bideen kalitatea hobetuko da.

Nekazaritzaren arloan ingurumenaren aldeko determinazioak gora doaz; nekazaritzarako lur gero eta gehiagotan ari dira plagiziden zein ongari kimikoen erabilera gutxitzeko neurriak hartzen. Honekin batera, "Basoen kudeaketa Jasangarriaren Ziurtagiria"ren barruan dauden basoen kopuruak ere gora egin du. Hortaz, baso-ustiaketa hobetu egin da.

Honek guztiak adierazten du ingurumenari dagokionean gizartearen kontzientzia handitu egin dela eta lurraren kalitatea hobera doala gutxika-gutxika.

Airearen kalitatea

Poluzio atmosferikoa eta airearen kalitate faltaren arazoa Kadagua haraneko herri handienetan kokatzen da funtsean. Problemaren arazoak bertan dauden zenbait enpresa kutsagarriak eta errepideko garraioak sortzen duen poluzioa dira.

Zona honetan industria-gune eta bizitegi-guneak nahasten dira eta ondorioz izugarritzko trafikoa dago. Hori dela eta puntu beltz batzuk aurki daitezke puntu jakin batzuetan; nabarmena da kutsadura Zalla, Balmaseda eta Güeñesen herriguneetan. Azpimarratuko dugu nola zona honetan papergintzak egundoko kiratsa zabaltzen duen.

Zehaztutako arazoak larriak badira ere oso mugatuta daude. Beraz, Eremu Funtzionalean zehar, toki gehienetan, airea kalitate oso onekoa da.

Kadaguako korridorearen lanek hauts asko harrotu eta airea asko zikindu zuten; batez ere azpiegitura honengandik gertu dauden Güeñeseko alderdietan. Kadaguako korridorea amaitu zenean ordea, trafiko handiena herri batzuegandik aldendu zen, eta horri esker Güeñeseko auzo jakin batzuetako kutsadura atmosferikoa gutxitu egin zen. Gauza bera gertatu zen Zallako eta Balmasedako auzo batzuetan.

Poluzio akustikoa

Kontuan hartzekoa da zarataren arazoa eta poluzio akustikoa Kadagua haranean. Garraiorako azpiegiturak, industriaguneak eta etxebizitzak elkarren ondoan daude denak, eta haranaren sakonean gainera. Honen erruz hain zuzen, Eremuko toki batzuetako biztanleen bizi-kalitateak behera egiten du neurri batean. Aipatutako zaratez gain, herrigune batzuek hurbileko meatze-lanek sortzen duten zarata handia pairatzen dute; hauen artean daude Mercadillo, Ranero edo Zaramillo esaterako.

Zarataren problema aztertu ondoren leku arazotsuenak mugatu dira eta ikusi da Eremuko leku gehien-gehienek ez dutela poluzio akustikorik; 55-65 dB (A)-ko neurrien inguruan daude. Are gehiago, herrigune gehienak 55 dB (A)-ren azpitik daude. Hauxe da, behinik behin, Kadaguako korridoreko bide-azpiegituren gainean egindako zaraten mapa estrategikoek adierazten dutena.

Kadagua haraneko herriak apurka-apurka industriaguneak eta bizitegi-guneak bereizteko pausoak ematen ari dira. Gainera, herrietako zeharbide nagusiak ibilgailuen trafikotik libre utziko dituen gaitasun handiko azpiegitura berria ezin da ahaztu. Ekimen guzti hauek hobekuntza nabarmena ekarriko dute poluzio akustikoaren arloan. Izan ere, problema hau non gertatzen den zehatz jakin arren, benetan arazo larria da paratzen duten herrietan.

1.5.2 INGURUMEN ARAZOAK

Inundabilitatea

Ur-baliabideak antolatzeke orduan uholdeak egoki saihesteko beharrezkoa da erabaki aproposak hartzea. Gerta daitezkeen uholdeen arriskuak ere gutxitzea da asmoa.

Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionaleko uholdeen arriskua “Ingurumen Arazoen” I-7 informazio-planoak jasotzen du. Plano hau egiteko bi iturri erabili dira: alde batetik, Euskal Herriko uholdeen prebentziorako osoko planaren inundatze-markak; bestetik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren Uren Zuzendaritzak eginiko ondoko lanean: EAEko Hiriguneen Uholde-arriskuari buruzko azterlana 2001-1005.

1996ko otsaileko Arriskuen Mapa Zuzentzailearen arabera, Eremu Funtzionaleko eurien isomaximoak tarte honetan daude: Sopuertako eguneko 175 mm-tik, Artzentalesko eguneko 325 mm-ra. Itzulera denboraldia 500 urtekoa izango litzateke kasu guztietan. Honek esan nahi du drainatze-lanak diseinatzerakoan prezipitazio hauek kontuan eduki behar direla derrigorrez, baita dagozkien ur itzulera ere.

Baso-sutea

Eremu Funtzionalean egon daitezkeen baso-suteen arriskuak aztertu dira. Horretarako bi iturri eduki dira kontuan: EAEko Landaretza Mapa eta Euskal Herriko “Baso-erregaien Eredua” (Europako Gaietarako Zuzendaritza 1999). Hauetan erregaitasuna aztertzen da, hau da, landaretzaren gainean sua nola hedatzen den alegia.

Badaude arrisku handiko zonak, landaretza autoktonoa duten basoak dira hain justu. Zentzu honetan eremu aipagarrienak Ordunteko Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL), Armañoneko Parke Naturala eta Triano Mendietako Biotopoa dira.

Enkarterriko leku gehienek baso-suteak izateko erdi mailako arriskua dute. Arrisku ertain hau landatutako basoei eta sastrakei dagokie. Arrisku txikiko gunek, aldiz, hiriko landaretza nitrofiloa osatzen dutenak (herriguneak) eta belardiak dira. Azkenik, leku batzuetan ez dago batere sute arriskurik; hauek landaretzarik gabeko gunek eta urmaelak lirateke.

Gai arriskutsuen garraioa

Gai arriskutsuen garraio-fluxuaren Euskal Autonomia Erkidegoko maparen (1998) arabera eta mapa bararen gaurkotzeari (2005) begira istripuak gertatzeko arriskua neurtu daiteke. Halaber, biztanleentzat zein ingurumenarentzat zenbaterainoko arriskua diren ere bai. Mapa horretan biltzen da EAEren muga administratiboaren barruan, erabat edo partzialki, gertatzen den gai arriskutsuen garraio-fluxu oro; errepidezko garraioa izan zein trenbidezkoa.

Eremu Funtzionalean ez dago gai arriskutsuak garraiatzen dituen trenbidezko linearik. Errepideetan, ordea, ez da gauza bera gertatzen, egoera oso bestelakoa da; izan ere, aztertuta dago zein motako sustantziak garraiatzen diren Enkarterrin zehar eta zein kantitatean. Informazio guzti hau bilduta dago “Ingurumen Arazoen” I-7 informazio-planoan.

Oro har, arrisku oso txikia duten errepideak hauek dira: BI-2604 errepidea, Sandamendiko gunetik hasita BI-636 errepidearekin bat egiten du; BI-630 errepidea, Güeñesetik Karrantzara; BI-2701 errepidea, Trapaga harana lotzen du Sopuerta-Otxaran ardatzarekin; eta BI-3651 errepidea. Hala ere bada erdi mailako arriskua duen errepide bat, BI-636 errepidea hain zuzen; Alonsotegitik Soduperako tartean erdi mailako arriskua du eta Sodupetik Balmasedara, aldiz, arrisku txikia.

Aztertu diren azpiegituren albo bietan 600 metroko lerro bana mugatu da. Egoera txarrean gertatu daitekeen istripu bati aurre egiteko zona seinalatzen du. Erabaki honek Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren gomendioak jarraitu ditu, zehazkiago, Saila berak gai arriskutsuen garraioaren inguruan 2001ean argitaratu zituen "Gai arriskutsuekin gertatzen diren istripuetan esku hartzeko fitxetan" gomendatzen dena.

SEVESO II araudia.

SEVESO Zuzendaritza gure marko juridikoan sartu dugu bi dekretuen bidez: uztailaren 16ko 1254/99 Errege Dekretua eta otsailaren 4ko 119/ 2005 Errege Dekretua. Azken honek aurrekoa aldatzen du, hots, uztailaren 16ko 1254/99 Errege Dekretua. Arau honek prebentzio neurriak zein istripuetan esku hartzeko gaitasuna hobetu nahi ditu.

Eremuaren ekialdeko muturrean, Alonsotegiko udalerrian hain justu, dagoen enpresa bat aitatu behar da. Enpresa honen jarduera nagusia hidrokarburo alifatikoen deribatuak eta uren tratamenduetarako flokulanteak produzitzea da. "Ingurumen Arazoak" I-7 planoan bi zirkulu marraztu dira. Zirkulu horiek lantegiaren kloro-isurketa baten aurrean non esku hartu adierazten dute. Gertakari hau da aipatutako lantegian jazo daitekeen okerreana. Hodei toxiko batek estaliko luke eremua.

Horren ondorioz, Zaramilloko (Güeñes) herrigunea balizko istripu batean esku hartzeko barrutian dago (gunetik lehenengo 750 m-etako erradioaren barruan) eta Quadrako (Güeñes) herrigunea alertagunean dago (gainontzeko 650 metroak).

Bestalde, Zallako udalerrian eta La Herrera, Sollano eta Arangurengo herriguneetan arriskutsuak gerta daitezkeen industria jarduerak daudela ikusi da.

Oso gomendagarria eta desiragarria izango litzateke mota horretako industria arriskutsuak lekuz aldatzea. Bizitegi izango diren lurzoruengandik urrunera egoki batean lekutu beharko lirateke

1.5.3 GARRAIOEN ETA KOMUNIKAZIOEN AZPIEGITURAK.

Errepide-sarea

Errepide nagusiak BI-636 (Zaramillo-Balmaseda), BI-630 (Zalla-Artzentales-Karrantza Harana) eta BI-2701 (Muskiz-Abanto-Zierbena-Malabrigo Sopuertatik) dira; hauek dira, hain zuzen, gainontzeko eskualde-errepide eta tokiko errepide guztien sorburu.

Bi dira batik bat Eremu Funtzionaleko komunikabideen garapena baldintzatu dituen zirkunstantziak: Batetik, orografiari begiratuta argi ikusten da eremua oso menditsua dela eta zaila dela herrietara bertaratzea edota herrien arteko lotura erraztea; ez hori bakarrik, ondoko autonomia elkarteko herrieke ere konexioa zaila gertatzen da. Bestetik, eremuko biztanleriaren dentsitate eskasak eragin du inbertsioak eta azpiegituren garapena eskualdeko beste gune populatuagoetara eramatea.

Errepide nagusien trazaduraren ezaugarri geometrikoak kontua hartuta argi dago ahalmen txikiko errepideak direla; tarte askok onartzen duten abiadura espezifiko 40 eta 60 km/h-ren artekoa da; oso eskasa beraz.

Beste kontsiderazio bat. Eremu funtzionalak herrigune gutxi eta txikiak dituenaz, eta gainera herrien artean dispersio handia dagoenez, bertako errepideak oso gutxi erabiltzen dira. Bestalde, herri hauetara goazelarik, beti izango da bidaia luzea eta denbora asko eskatzen duena.

Horrez gain errepide hauetako batzuk errepide nagusiengandik oso urrun daude. Hori dela eta oso aparte geratzen dira eta bertara iristea zaila gertatzen da. Hirigune eta gune ekonomiko garrantzitsuenak lotzen dituzten errepideetatik at daude.

Aparteko aipamena merezi dute herrietako zeharbideek. Arazotsuenak herrigune handietatik gertu daudenak dira, eta batez ere ibilbidean zehar eragozpen asko dituztenak (intersekzioak, pasonibelak, oinezkoen Joan-etorriak, semaforoak, e.a.). Zailenak eta eragozgarrienak hauek dira: Lanestosakoa (N-629), Balmasedakoa (BI-630) Traslaviñakoa Artzentalesen (BI-630), El Callejo eta Ambaguasekoak Karrantza Haranean (BI-630) eta Trucios-Turtziozkoa (BI-2617); baina bat azpimarratzekotan La Quadrakoa Güeñesen (BI-636) aipatuko genuke.

Errepideen arteko lotuneak oso eskasak dira; norabide aldaketak eta itzulbideak kaskarrak dira; eta gainera Zalla, Güeñes, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, e.a. bezalako herriguneetatik errepideak pasatzen dira. Zeharbide hauetan trafiko-fluxu handia dago, aipatu bezala eragozpen asko dituen trafikoa hain zuzen.

Kadaguako korridorea martxan jarri zenetik nabarmen hobetu dira inguruko herrien komunikabideak eta beraz, Eremu Funtzionaleko herrien arteko lotura

ere bai. Bestalde, gaur egun herriguneetan zehar pasatzen diren errepideak, zeharbideak esaterako, bide urbano bilaka daitezke. Horretara, gaur errepideek hartzen duten lekua herrientzat irabaziko litzateke.

BI-2701 errepidearen (Malabrigo-Muskiz Sopuertatik) trazaduraren hobetzeak asko sustatuko luke Eremuko Iparraldea (Galdames, Sopuerta eta Artzentales), Era horretan Abraren ezker aldeko iparraldean dauden herriekin lotura zuzenagoa irabaziko litzateke. Iradokizun hori bera ematen du LAAk, izanez ere errepidearen egungo trazadurak asko mugatzen baititu herrien arteko harremanak.

Ona izango litzateke baserri-guneetako errepideen tarte jakin batzuk zaintzea eta hobetzea. Ziur aski bertako bizimodu tradizionalak bere horretan jarrai dezan lagunduko luke; landa-paisaiaren iraupenerako ere onuragarria izango litzateke. Bertako ondare natural eta kulturalak aurrerabidea aurkituko lukete, horiek baitira hain zuzen gune horretako funtsezko balioak.

Trenbideak

Bi trenbideak (Bilbo-Balmaseda aldirikoa eta Bilbo-Santander ibilbide luzekoa) FEVEk daramatza zabalera metrikoan. Azpiegitura bera erabiltzen dute Bilbo eta Aranguren bitartean. Bilbo-Zaramillo tarte bi errailetakoa den arren gainontzeko guztia errail bakarrekoa da. Trenbideak zuzenean zerbitzua ematen dien herriguneek, orotara, 20.000 biztanle inguru dituzte; baina badaude beste 5.000 biztanle, urrunagoko herri-nukleoetan, lantzadera-zerbitzuen bidez trenera hurbil daitezkeenak.

Bilbo-Balmaseda aldiriko trenak bidaiari asko izan ohi ditu, baina hala ere duen maiztasuna. Gainera zerbitzu honek eskaintzen duen abiadura txikia da bere trazaduraren ezaugarrien ondorioz (pasonibel ugari, Zaramillo eta Balmasedaren artean errail bakarra, bidaiariak eta merkantziak tren berean garraiatzea...). Esate baterako, Bilbo eta Balmaseda arteko bidea egiten 50 minutu ematen ditu.

Bilbo-Santander linea ibilbide luzekoa da eta populazio-dentsitate txikia duten herrietan zehar pasatzen da (Traslaviña, Artzentales, Karrantza Harana...). Egunean oso zerbitzu gutxi eskaintzen ditu. Karrantzatik Bilborako bidea egiten ordu bete pasatxo ematen du.

Eremuan dabilzan bi tren zerbitzuek, Bilbo-Balmaseda eta Bilbo-Santander lineek alegia, dauzkaten arazo handienak, beraz, hauexek dira: zerbitzu-abiadura txikia eta maiztasun txikia. Problema hauen atzean hiru zergati daude:

- Tren-plataformek errail bakarra baino ez daukate bi norabideetan ibiltzeko.

- Ibilbidean zehar pasonibel ugari daude. Trenbide-pasagune hauek direla eta trenen maiztasuna ezin handitu daiteke, bestela autoen trafikoari eragozpen handiak sortuko lizkioke herrigune nagusienetan.
- Bidaiariak eta merkantziak aldi berean garraiatzea.

Bidaiari-trenaren zerbitzuak dituen traba hauek guztiak direla kausa zaila da funtsezkoa den horrelako azpiegitura bati etekin handiagoa ateratzea. Izan ere, zerbitzu publiko hau oinarritzkoa da Eremu Funtzionaleko herri nagusienak elkarren artean lotzeko, eta baita ere herri hauek Bilbo Metropoliarekin harreman zuzenagoa edukitzeko.

Gainera, ez dagoenez gune intermodalez eta lantzadera zerbitzuez osatutako zerbitzu-sare egokirik, oso zaila da barrualdeko herri askorentzat garraibide mota honetara heltzea.

Zentzu honetan, gogoan eduki behar da nola berriki gertatu diren herri-hazkunde batzuk, eta planeamenduak aurreikusita dituen beste herri-hazkunde batzuk ere bai, tren-geltokietatik nahiko urrun dauden; honek zaila egiten du gune horietako biztanleek trena aukeratzea, aitzitik, errazago egingo dute norberaren ibilgailuaren aldeko apustua. Kasu hauetan autoaren erabilera sustatzen da.

Oso gauza positiboa da tren-azpiegitura bat egotea Eremuko herri nagusienak zeharkatzen dituen, eta horrez gain Bilboko erdigunearekin zuzen-zuzenean lotzen dituen. Alderdi hau abantaila da Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremuaren lehiakortasunari begira; penintsula iparraldeko metropoli-eremu nagusienaren aktiboen eraginez aprobetxatzeko egoera ezin hobean dago kokatuta.

Arestian komentatu den zerbitzuaren pobretasuna arazo da. Bada, maiztasun txikia eta abiadura txikia, hots, problemaren muinak, asko hobetu daitezke lan jakin batzuk eginda, hala nola:

- Bigarren erraila eginda orain arte bakarra egon den tarteetan. Hobekuntza honekin zerbitzuaren abiadura handituko litzateke batetik; eta bestetik lineak posible izango luke bi norabideetan aldi berean ibiltzea. Herretara errazagoa izango litzateke merkantzien eta bidaiarien zerbitzuak antolatzea.
- Dauden pasonibel ugarien oztopoa konpontzeak, batez ere herri handienetan daudenak, ahalbidetuko luke trenen maiztasuna handitzea ibilgailuen trafikoa batere trabatu gabe eta erretentzioak sortu gabe.

Betalde, zerbitzu intermodal bat antolatzeak eta eraikiko diren bizitegi berrien zonaldeetara tren-geltokiak lekualdatzeak trenaren erabiltzaile gehiago egotea ekarriko luke, eta noski, azpiegitura honetan eginiko inbertsioa sozialki

errentagarria izango litzateke. Zerbitzu intermodalaren bidez tren-geltokietatik urrun bizi diren eremuko biztanleak trenera hurbilduko lirateke.

Trenaren esplotazio egokia funtsezkoa da Eremu Funtzionaleko biztanleriaren kopurua mantentzeko. **Metropoliko Eremutik** hurbilago egoteaz gain, eskualde honekiko hiriko biztanleen interesa piztu egingo da. Beraz, lotura sendotuta eta turismoarentzat erakargarriagoa izanda, Eremuko ekonomia eta bizi kalitatea hazi egingo dira inolako zalantzarik gabe.

Bestalde, azpimarratu behar da merkantzien trenbidezko garraioa eskualdean sustatu beharrekoa dela; kontuan izan, gainera, toki estrategiko batean kokatuta dagoela, Kantabriako korridoretik datozen merkantzia-fluxuak zein mesetatik datozenak har ditzakeela. Hala ere, era egoki batean egin behar dira bateragarri merkantzien trafikoa eta bidaiariena.

Garraio Publikoa

Bidaiarientzako garraio publikoak hainbat linea ditu martxan Eremu Funtzionaleko herriak elkarrekin lotzen dituenak eta baita Bilboko Metropoli Eremuarekin lotzen dituenak. Bizkaibusek daramatza:

- Bilbo-Balmaseda (A-0651): Sodupe, Güeñes eta Zallatik pasatzen da.
- Bilbo-Sodupe (A-3343)
- Bilbo-Arrespalditza (A-3341): Sodupe eta Gordexolatik pasatzen da.
- Bilbo-Artzeniega (A-3342): Sodupe eta Gordexolatik pasatzen da.
- Balmaseda-Lanestosa (A-0652): Zalla, Sopuerta, Artzentales, Trucios-Turtzioz eta Karrantza Haranetik pasatzen da.

Bizkaibusen lineez gain Bilbo-Lanestosa ibilbidea Autocares Discrecionales del Norte, S.L.-k darama. Garraio honek eskaintzen duen zerbitzua ona da, baina egiten dituen ibilbideak luzeak dira, eta gainera maiztasun txikia du. Horregatik, sarritan derrigorrezkoa da beste linea batzuk ere erabiltzea Eremu Funtzionaleko leku apartatuenetara iritsi nahi bada.

Galdamesen, Sopuertan, Artzentalesen, Karrantza Haranean, Trucios-Turtziozen eta Lanestosan garraio-publiko zerbitzu gutxi dagoenez ez daude batere eskueran eta horrek bertako garapen urbanistikoa zailtzen du. Herri horietako auzo askotara auzune baino ezin daiteke joan.

Auzune hauen arazo nagusia beraien biztanleria da; oso biztanle gutxi dituzte eta, gainera, zaharrak dira gehienak; mugimendu eskaseko biztanleria dute beraz. Ondorioz, sozio-demografia ezaugarri honi erreparatzen badiogu, egin daitezkeen garraio publikoaren hobekuntzak errentagarritasun sozial gutxikoak lirateke.

Gainera, eremuko auzune hauek urrun daudenez, nahiko zaila da errepidezko garraio publikoaren ibilbide egokia antolatzea. Izan ere, errepideen trazaduraren ezaugarriak kontuan hartuta, ikusten baita ibilbideak luzeak direla eta denbora luzea eskatzen dutenak gainera. Hau dela eta ezinezkoa da zerbitzu publiko konpetitiboa eskaintzea.

Bidaia-eremuko garraio publikoan eragiten duten faktore asko daudenez (biztanleriaren dispersioa, auzuneen tamaina, orografia, errepide sarearen ezaugarri geometrikok, e.a.) korapilatsua da arazoari konponbidea ematea. Mendi-eremu guztietan dago arazo bera.

Hala ere, nahiz eta jakin ez direla behin betiko garraio publikoaren zailtasun guztiak konponduko, eremuak badu aukerarik garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko.

Eremuko gune desberdinetan biztanleria finkatzeko aurrera eramaten den ekimen oro, errepide-sarea hobetzea, gune nagusienetatik aparte dauden lekuetan garapen ekonomikorako aukerak eskaintzea, e.a. administrazio publikoarentzat arrazoi izan beharko lirateke eremuko garraio publikoa hobetzeko.

Dena dela, ezinbestekoa da Enkarterriko mendebaldeko bizilagunen kopurua ez gutxitzeko bertara iristeko erraztasunak ematea: Bizkaibus eta FEVEren zerbitzuak hobetu eta maiztasuna handitu; eta baita ere lantzadera-autobusak jarri urrutien dauden auzuneentzat.

Gainera garraio politikak hobetzeko aukera batzuk jada aurreikusita daude; esaterako, Sodupen, Zallan eta Balmasedan kokatuko litzatekeen intermodoguneak garraio-zerbitzu desberdinak konbinatzeko eta disuasio-aparkaleku gisa balioko lukete. Konbinatzeko aukera ematen duen horrelako garraio-sarea oso egokia izango litzateke ikertzen ari garen herrietarako eta bidaiari asko erakarriko lituzkeela ziurrenik.

Garraio publikoa hobetzeak herri nagusienetatik urrun bizi diren biztanleak hurbilduko lituzke; hartara, zerbitzuen aldetik hornituago dauden herrietatik gertuago egongo lirateke; eta eskura izango lituzkete herri nagusienetako zerbitzuak, dotazioak eta ekipamenduak. Ondorioz, Eremu Funtzionaleko biztanleak zerbitzu horiez baliatuko lirateke eta berain bizi-kalitateak gora egingo luke.

1.5.4 ZERBITZU-AZPIEGITURAK

Energia elektrikoa eta gasa

Eremu Funtzionala hornituko duten energia sortzeko azpiegiturak ez daude Eremuan bertan, kanpoan baizik. Energia-iturri nagusienak petrolioaren deribatuak eta elektrizitatea (neurri handi batean Iberdrolak ekartzen du) dira.

Bilbo hornitzen duten energia elektrikoa garraiatzeko linea handiek Eremu Funtzionala zeharkatzen dute. Hori onuragarria da batez ere eremua elektrizitatez hornitzeko orduan, baina aldi berean inpaktu nabarmena eragiten dio ingurumenari eta paisaiari.

Eremu Funtzionaletik 3 linea elektriko nagusi pasatzen dira:

- 380 KV-ko linea. Güeñesera Gordexolatik iristen da.
- 220 KV-ko linea. Linea elektriko bikoitza du Herrerias haranean zehar.
- 30 KV-ko linea. Zallan dagoen La Jarako azpiestaziotik aurrera

Güeñes eta Zallako azpiestazioek herri askotara eramaten dituzte linea elektrikoak. Azpiestazio hauetatik abiatzen da elektrizitatea Eremu Funtzionaleko gainontzeko herrietara, Ezkerraldeko hainbat lekutara, Bilbora, Basaurira eta Gatikara. Duen tamainarengatik Güeñeseko azpiestazioak eskualde mailan garrantzia handia du.

Elektrizitate-hornikuntzaren zerbitzuak gorabeherak ditu Enkarterrin; zerbitzua gorabeheratsuagoa eta eskasagoa izan ohi da Kadaguako ardatzetik urruntzen den neurrian.

Elektrizitate-hornikuntza Artzentalesen, Karrantza Haranean, Trucios-Turtziozen eta Lanestosan oso eskasa da, askotan geratzen dira elektrizitaterik gabe, oroz gain eguraldia petratzen denean. Zentzu honetan, bereziki larria da Karrantza haranaren egoera; sare elektrikoa oso korapilatsua da, Bizkaiko konplexuenetarikoa. Bertako linea elektrikoak 114 km ditu 48 auzo zeharkatzen. Linea elektrikoa hain korapilatsua izateak zerbitzuaren etenaldiak errazten ditu, batez ere haize bolada handietan.

Arazo honen aurrean bertako biztanle askok elektrizitate-sorgailuak ipintzeko erabakia hartu du. Izan ere haran honetako jende asko nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi baita eta ekoizpenaren galera saihestu nahi dute.

Baina populazioaren sakabanaketak sortutako elektrizitate-hornikuntzaren arazo hauek, bereziki Karrantza haraneakoak, konpontzeko bidean daude. Hornikuntzaren ardura duen enpresak, Iberdrolak hain zuzen, arazo hauei aurre egiteko ikerketak hasi ditu Enkarterri osoan hobekuntzak aplikatu asmoz. Dena

den, dagoeneko hobekuntza lan batzuk egin ditu hornikuntzaren etenaldiak ekiditeko; elementu automatizatu batzuk jada ipini ditu.

Kadaguako korridoretik gasbidea pasa zenetik energia iturri hau, betiere merkeagoa dena, eskura jarri da eskualdean. Güeñes eta Balmaseda bezalako herri nagusienetan badute eta energia-eraginkortasuna asko hobetu da bai etxeetan eta baita industrietan ere. Hala ere, eremuan zehar dauden auzuneen dispersioa dela eta zaila izango da gas-hornikuntza eskualdean barrena hedatzea.

Bestalde, badaude eremuan bertan energia elektrikoaren iturri alternatiboak, mini-zentral hidraulikoak. Horrelakoak daude Balmasedan, Zallan eta Güeñesen. Ubide asko daudenez eremuan mota honetako instalazioak osagarri oso egokiak izan daitezke ohiko horniketa-zerbitzuentzat.

Gainera, Ganekogortan eta Orduten Parke Eoliko bana ipintzeko proiektua dago. Ganekogortako Parke Eolikoa gauzatuko balitz eremuari energia-iturri alternatibo berria eskainiko lioke.

Ordunteko Parke Eolikoari dagokionez esan behar da kokalekua oraingoz balekoa dela, izan ere indarrean dagoen dokumentu batean zehazten da, hain zuzen "EAEko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialean". Hala ere, aitortu behar da nola horretarako aurkeztu den proiektuari inpaktuaren ebaluazio kritiko bat erantsi dioten; ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua atzera bota du.

Azpiegitura hidraulikoak

Ur hornikuntza eta saneamendu zerbitzuek Enkarterrietan banaketa desberdina erakusten dute eta zerbitzu txarrena duten udalak Kadaguako korridoretik urrun daudenak dira.

Kadaguako korridoreko herriak Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak zerbitzatzen ditu. Burgosen dagoen Ordunteko urtegitik ateratzen diren lineek banatzen die ura.

Eremu Funtzionalak ur-baliabide ugari ditu. Hauek dira arrazoiak:

- Zonaldeko plubiositate handia.
- Azaleko drainatze-sare zabala.
- Raneroko Harrietako eremu karstikoetan lur azpiko akuifero bikainak daude.

Eremuak udalaz haratagoko azpiegitura garrantzitsuak ditu: adibidez, Partzuergoaren ponpaketa-estazioak Balmasedan eta Zallan; Kadaguako eta Herreriaseko urak arazten dituen EDARa Güeñesen; eta Zallan dagoen edateko uraren tratamendu estazioa. Gainera, Trucios-Turtziozen eta Sopuertan ura

edangarri egiteko estazioak dituzten udal ur-deposituak daude eta Güeñesen ur-depositu propio bat dago.

Trucios-Turtziozen Ur Edangarria Tratatzeko Estazio (UETE) bat dago. Laredo auzotik gertu dago eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoan sartzeko tramiteak egiten ari dira. Sopuertan eta Artzentalesen hornikuntza ur-depositu propioen bidez egiten da. Artzentalesen kasuan, ez dago ura edangarri egiteko azpiegiturarik.

Beste herri batzuek ur hornikuntza oso eskasa dute; horien artean Karrantza Harana dago, ondoko ibaiko (Karrantza ibaia) urak aprobetxatzen dituen linea bakar baten bidez eta Presako Villanueva auzoaren ondoko ur-putzuaz baino ez baitu hornitzen herria.

Karrantza Haraneko ur-hornikuntza arazoak konpontzeko bidean daude; ur-putzu berri bat ezarriko da eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoaren barruan sartzeko zorian dago.

Uren arazketari dagokionez, Kadagua eta Herrerias ibaien ertzetako herriek bakarrik daukate urak arazteko sistemaren bat. Güeñeseko UZAk (ur zikinen araztegia) Kadagua eta Herrerias ibaien ura arazten du. Gainontzeko herriek urak araztu gabe zuzenean ibaira jaurtitzen dituzte. Dena den, joera hau aldatzen ari da, izan ere Trucios-Turtziozek esterako, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, Basinagre auzoaren ondoan ur zikinen araztegi (UZA) bat egiteko plana dauka. Era berean, Karrantza Haranak ere araztegi (UZA) bat egitea espero du ibaiaren meandro batean, Ambasaguas auzoaren ondoan hain zuzen ere.

Uraren kutsadura eremuko herri guztien arazoa da, salbuespen bakarrak Artzentales eta Gordexola dira. Eremu Funtzionaleko ingurumenaren arazo handienetakoa da hau. Gainera, Kadagua haranean denboraren poderioz areagotzen ari da.

Saneamendu-sarea hobetzeko proiektu berriak aurreikusita daude. Alde batetik uren kutsadura saihestu nahi da, bestetik, populazioaren ur-eskariari erantzun nahi zaio:

- Lanestosan proposamena egin da saneamendu-sarea eta une honetan kudeatzen ari den EDAR araztegiaren proiektua handitzeko (BAO 2010-02-25).
- Artzentalesen dagoen saneamendu-sarea hobetzea eta berria eginez handitzea.
- Balmaseda-Zalla kolektorea ia amaituta dago, bere azken fasean da.
- Sodupe-Gordexola kolektorea jada egina dago; baita Kadaguako interzeptorearen goiko tartea ere.

Beraz, zona batean dotazio onak edukitzea ala ez oso lotuta dago zona horietako errepideen kalitatearekin. Horregatik, oso garrantzitsua da Eredu Funtzionaleko

biztanleek beharrezko zerbitzuak erabili eta bizi-kalitatean gora egiteko dotazio gutxiko zonetara sarbideak hobetzea.

Hezkuntza ekipamenduari dagokionez, Lanestosa eta Galdames dira eskasia handiena dutenak. Balmasedan, Gueñesen eta Sopuertan, berriz, hezkuntzako zuzkidurak onak dira, udalerri horietako eskariak betetzeaz gain, inguruko udalerrietako eskariak ere betetzen baitituzte hezkuntza-maila jakin batzuetan; adibidez, hala gertatzen da Artzentalesek, Gordexolak, Karrantza Haranak, Trucios-Turtziozek eta Zallak dituztenein.

Osasun ekipamenduari dagokionez, eremu funtzionalean, osasun-zentro bat dago 15.000 biztanleko. Kopuru horrek lurralde historikoaren zenbateko estandarra hobetzen du, lurralde historikoan osasun-zentro bat baitago 17.800 biztanleko. Mendebaldeko muturrean dauden herrietako (Lanestosako, Karrantza Haraneko eta Trucios-Turtziozko) jendea Balmasedara joan behar da atentzio berezia edo larrialdiko arreta jasotzera; egin behar duten bidaia berrogeita bost (45) minutu baino gehiagokoa da. Gainera, ospitaleko arretarako Bilbora joan behar dira; kasu honetan bidaiak ordu bete pasa irauten du.

Eremuak, orokorrean, **Laguntza Ekipamendu** bikainak baditu ere, zenbait udalek eskasia nabarmenak dituzte. Trucios-Turtziozek, Lanestosak, Galdamesek eta Artzentalesek ez dute, populazio zaharkitua duten udalak diren arren, adinekoentzako eguneko zentrorik. Gainera eremu osoan ez dago orientazio zentrorik eta eskari hau asetzerako Bilbo Metropolira joan beharrean aurkitzen dira.

Eremu funtzionaleko biztanleak zahartzen ari direnez, eta mendekotasuneko indizeak handitzen ari direnez, laguntzeko ekipamenduaren beharrianek nabarmen egingo dute gora. Gaur egungo estandarrak Bizkaikoak baino askoz hobeagoak dira, eta, beraz, eremu barruko eskaria betetzeaz gain, muga dauden eremuetako eskariak ere arduratu ahal da. Lurraldearen zati handi batek landa-guneetako ezaugarriak ditu, eta eremuak izaera atsegina du. Horiek ikusita, aukera egokia izan daiteke mota honetako ekipamenduen espezializazioa lortzea, lurralde historikoko beste toki batzuetako baliabideak erakartzeko.

Kultura-arloko ekipamendu gehiena Kadaguako korridorean dago. Balmaseda, Zalla eta Gueñes udalerriz gairik herri gisa aritzen dira, haiek baitira instalazio gehien eta kulturako eskaintza aukera gehien dituzten herriak. Enkarterriko landa-guneak kultura-ondarearen zati garrantzitsu bat dira; hortaz, bultzada eman behar da biztanleak bertan geldi daitezen eta lehen sektoreak iraun dezan, bizimodu gisa.

Kultura-ekipamendu gehienak bisitarien eskariak asetzerako zuzenduta daude batik bat, eta ez ordea biztanleenak. Egia esateko, Eremu Funtzionaleko demografiaren ahulezia dela eta, beraien kultura eskaintza nahiko txikia da eta ez da oso erakargarria gertatzen, batez ere aparte dauden bizitegietan bizi

direnentzat. Zenbait udaletan eskasia oso nabariak antzematen dira; Artzentalesen esaterako, liburutegi publikorik ere ez baitu.

Bestalde, **kultura-ondareko** osagai ugari daude Enkarterrin, katalogatuta edo inbentarioan jasota. Horiek ezinbestez sustatu eta balioetsi behar dira, garapenerako aukera bikaina baitira, turismoari begira.

Illo horretan, komenigarria da behar bezala bereiztea monumentu-multzoak, kalifikatutako monumentuak, inbentariatutako ondasunak eta ustez garrantzi arkeologikoa duten gune arkeologikoak.

Honako hauek monumentu-multzo gisa sailkatuta daude: Done Jakue bidea, Balmasedako hirigune historikoa, La Encartada txapel-fabrika (Balmaseda) eta Lanestosako hirigune historikoko gune arkeologikoa.

Balmasedako hirigune historikoa nabarmentzeko modukoa da; atal hauek hartzen ditu barne: Zubi zaharra, San Seberino eliza, Udaletxea, Buriel jauregia, Urrutia Jauregia, eta edertasun handiko eta balio kultural nabariko beste osagai kalifikatu batzuk.

Honako hauek monumentu gisa sailkatuta daude: Santa Maria eliza, Quadra dorretxea (Gueñes), San Pedro de Romaña eliza (Trucios-Turtzioz) eta Terreros dorretxea (Zalla).

Ondare arkeologikoari dagokionez, Enkarterrin sei gune megalitiko daude, eta, otsailaren 3ko 25/2009 Dekretuaren bidez, kultura-ondasun gisa kalifikatuta daude, monumentu-multzo kategoriarekin. Hona hemen dauden gune eta monumentu megalitikoak:

- Aizkoko gune megalitikoa. Bizkaiko gunerik handienetako bat da, eta Karrantza eta Mena (Burgos) haranen arteko banalerroan dago.
- Alengo gune megalitikoa (Arribaltzaga). Artzentales, Sopuerta eta Trucios-Turtzioz udalerrietatik zabaltzen da, eta Kantabriarekin egiten du muga (Castro Urdiales). Zehazki, Aguera, Brazomar eta Barbadun ibaien arteko banalerroan dago.
- Armañongo gune megalitikoa. Trucios-Turtzioz eta Karrantza Haranetik zabaltzen da; zehazki, Karrantza Haranaren iparraldeko mugan dago, guneari izena ematen dion mendiaren ondoan.
- Balgerriko gune megalitikoa. Artzentales, Balmaseda eta Karrantza Haranetik zabaltzen da. Ordunten (Balgerri) kokatuta dago, Burgosko probintziarekiko mugan (Mena Harana), eta Kadagua eta Asur haranak bereizten ditu.
- Eretzako gune megalitikoa. Galdames eta Gueñes udalerrietatik zabaltzen da, eta guneari izena ematen dion mendian dago kokatuta.

- La Escrita gunee megalitikoak (Hormatza). Karrantza Haranean dago, eta Armañongo gunearen jarraipena da, harekiko bertikalean baitago, Karrantza Haranaren ekialdeko itxieran, hain zuzen, Villaverde de Trucioseko mugan.

Bestetik, Enkarterrin dorretxe ugari daude, eta haietako asko kultura-ondasun gisa jasota daude Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean, monumentu kategoriarekin (Kultura sailburuak 2002ko urtarrilaren 14an emandako Aginduaren bidez). Inbentarioan jasota dauden 26 dorretxeetatik, 20 eremu funtzionalean sartuta daude.

- Traslaviñako dorretxea (Artzentales)
- San Esteban edo El Campoko dorretxea (Karrantza Harana)
- Sangricesko dorretxea (Karrantza Harana)
- Ibarguen edo Urarteko dorretxea (Gordexola)
- Largatxa I dorretxea, dorre beltza edo errea (Gordexola)
- Oxirandoko dorretxea (Gordexola)
- Urtusaustegi dorretxea (Gordexola)
- Zubiete edo Oribai dorretxea (Gordexola)
- La Jara dorretxea, Salcedo de La Jara edo Mayor de Salcedo ere deitua (Gueñes)
- La Puente edo Romarate dorretxea (Gueñes)
- Lazkano dorretxea (Gueñes)
- Maruri dorretxea (Gueñes)
- Garai dorretxea (Sopuerta)
- La Puente edo Balparda dorretxea (Sopuerta)
- Llano II dorretxea (Sopuerta)
- Villa dorretxea (Sopuerta)
- Garma dorretxea (Trucios-Turtzioz)
- Pando dorretxea (Trucios-Turtzioz)
- Bolunburu dorretxea (Zalla)
- Llantada dorretxea (Zalla)

Balmaseda, Gueñes eta Zallatik igarotzen den Done Jakue bidea nabarmendu behar dugu. Kultura-ondasunaren adierazpena jaso du, monumentu-multzo gisa sailkatuta (urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bidez), eta erromesentzako ibilbide gisa izan dezakeen balioa garatu gabe dago oraindik. Goian aipatutako dekretuak ez zuen grafikoan jaso ibilbide osoa, besteak beste, Kadaguako ibilbidea ez baita agertzen. Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak 2010eko uztailaren 29an emandako ebazpenaren bidez, hutsune hori zuzendu da, Done Jakue bidearen ibilbide osoa jaso baita grafikoetan, Kadaguako ibilbidea ere barne hartuta.

Bestetik, Enkarterri iparraldetik hegoraino zeharkatzen duen galtzada erromatarra ez dago katalogatuta, baina oso gune interesgarria da, eta bultzatu behar da, Balmasedako hirigune historikoa Zalla eta Sopuerta aldean inbentariatuta dauden hainbat ondasunekin lotzen baititu.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondarea eratzen duten kultura-ondasunei dagokienez, 7/1990 Legeak babesten dituen eta Enkarterrin kokatuta dauden ondasun horiek dagozkien udal-plangintzetan sartu beharko dira.

Orain dagoen **kirol-ekipamendua** egokitze jo dezakegu, eremu funtzionaleko biztanleen kopurua eta ezaugarriak aintzat hartuta. Arlo honetan ere, Kadaguako korridoreko udalerriek dituzte zuzkidurarik onenak (Zalla, Gueñes eta Balmaseda); eta Trucios-Turtziozko instalazioak ere aipatzeko modukoak dira.

Bestalde, Balmaseda udalerriak hurbil dagoen Burgosko Mena Haraneko biztanleak erakartzen ditu. Erakartzeko gaitasun hori indartu behar da, era horretan Kadaguako mendebaldean dauden udalerriek aukera izan baitezakete beren zuzkidurak hobetzeko, zerbitzupean duten biztanle-kopurua handituta.

Artzetales eta Lanestosa dira urritasun gehien dituzten udalak; futbol zelai bana falta dutela ikusi da. Artzetalesen, Galdamesen gertatzen den bezala, igerileku publikorik ere ez dago.

Merkatal ekipamenduei dagokienez, esan dezakegu Eremu Funtzionalean aurrera eramaten diren merkatal-jarduerek joera tradizional azpimarragarria dutela. Establezimenduak eta enpresak tamaina txikikoak dira, familia-enpresak dira asko eta eguneroko oinarritzko produktuen salmentan aritzen dira. Orokorrean, merkataritza ez dago oso garatua, Balmaseda eta Zallako herriguneetan kokatzen da oroz gain; hauek dira Eremuaren barruan erosketa gune bisitatuenak. Gainera, Bilboko metropoli-eremuak lehia handia egiten dio, izan ere, gertu dagoenez eta eskaintza komertzial zabala duenez oso erakargarria gertatzen da; Komunikabideak eta errepideak hobetu ahala are eta erakargarriagoa gertatzen da gainera. Gauzak horrela, eremuko merkataritzaren hazkundera mugatu egiten da.

Kadaguatik urrutiratuta dauden udalerrietan **merkataritzako ekipamenduak** oso urriak dira. Horiek horrela, aukera bikaina dugu gehienetan oso gutxi ustiatuta dagoen sektore hori garatzeko. Horrekin batera, hirugarren sektorea ere garatu daiteke udalerrietan, turismo eta ostalaritzako sustapenaren bidez, naturako baliabideak balioetsi ondoren.

Balmaseda eta Zalla eskualdeko hiriburu gisa finkatu dira. Horrenbestez, udalerrri horietako merkataritzako zereginak gora egin behar dute, eta hobeto espezializatuta egon behar dute. Era horretan, ondasun eta zerbitzu jakin batzuk eskuratzerakoan, ez da hainbesteko mendekotasunik egongo Bilbo metropolitarrarekiko.

Balmaseda eta Zalla eskualdeko hiriburu gisa finkatzeaz batera, **administrazio, herri eta epailetzako ekipamendua** ere indartu behar da. Dena dela, dagoeneko aski ugaria da bi guneetan. Udal guztiek Balmasedako eta Zallako **mota horretako ekipamendua** erabili behar dute derrigorrez, eta beraz, oso deserosoa da eremuko biztanleentzat, beraien herriak urruti baitaude eta barne komunikabideak ez baitira onak. Hala ere, dependentzia hori ulertzekoa da, izan ere ekipamendu mota hau zentralizatuta egotea komenigarria baita.

Orokorrean, eta dauden desorekak kontuan hartu barik, Eremu Funtzionalak biztanleko duen ekipamendu mailari dagokienez, ondo ekipatuta dagoela baieztatu daiteke; alegia, ez duela gabezia nabarmenik.

Kadaguako Korridoreko herriek duten hornikuntza maila onak udal hauek erakargarri egiten ditu jendearentzat, bereziki Bilboko metropoli-eremuko populazioarentzat; hurbiltasuna eta komunikabide onak direla-eta urteen poderioz ikusi da benetan aukera ona izan daitekeela. Abagune hau sustatu eta erabili egin behar da zona honetan dinamika positibo bat sortzeko eta gainontzeko herriak dinamika berean murgilarazteko. Gainera, honek nekazaritza eremuko populazioa mantentzen lagunduko luke.

Gainera, zerbitzu hauetatik urrunago dagoen populazioak ohiko gestioak gertuago egin beharko lituzke, eta horretan saiatu behar da; alegia, gestioak egiteko aukera gerturatzen. Honetarako oso onuragarria litzateke, administrazioaren zenbait zerbitzuetan behintzat, internet bidezko leihatila birtuala garatea. Zentzu honetan oso mesedegarria da Udal guztiek beraien KZ-gunea izatea biztanleak interneten sartu ahal izateko.

Ondoren Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionalan dauden ekipamenduak zehazten dira. *1-5 informazio-grafikoan* ikus daitezke. *Ekipamenduak:*

a) Osasun ekipamenduak:

1. Osasun zentroa eta Larrialdietako zerbitzua Balmasedan

1. Balmaseda BHI (FP)
2. CPS Bagabiltza VIP (FP) Aranguren.
3. CREPS San Viator LBHIP (FP) Sopuertan.
4. Avellaneda Ikastetxea Güeñesen.
5. COENEN ikastetxea Güeñesen.
6. Bigarren Hezkuntzako Institutua Güeñesen.

7. Zubi Zaharra Ikastola Balmasedan.
8. Haur eta Lehen Hezkuntzako Mendia Ikastetxea Balmasedan
9. María de Zumalabe Haurreskola Balmasedan

f) Ekipamendu administratiboa.:

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren bulegoa Balmasedan.
2. Posta eta telegrafoak Sopuertan eta Zallan.
3. Ertzaintza Balmasedan.
4. Suhiltzaileak Balmasedan.
5. Babes Zibila Balmasedan.
6. Segurantzaz Soziala Balmasedan.
7. Jabetza-erregistroa Balmasedan.
8. EIN Zallan.
9. Enkarterriko Mankomunitatea Aranguren.
10. Okupazio-zentroak Zallan.
11. Enkartur Balmasedan.
12. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa Artzentalesen eta Balmasedan.
13. Telezentroa Gordexolan.

g) Kultura ekipamenduak:

1. “La Encartada txapel fabrika” ehun-museoa Balmasedan.
2. “Balmasedako Historiaren Museoa”
3. Mitologia-zentroa Balmasedan.
4. Loizaga Dorrea kontzeju-gaztelua Galdamesen.
5. Biañezeko eliza museoa Karrantza Haranean.
6. Enkarterriko Museoa Sopuertan.
7. Okendo Goikoa eta Behekoa Jauregiak Sopuertan.
8. Sangriceseko dorrea Karrantza Haranean.
9. San Estebango edo Campoko dorrea Karrantza Haranean.
10. Iparraldeko multzo dolomitikoa Karrantza Haranean.
11. Garmako dorrea Trucios-Turtziozen.
12. Pandoko dorrea Trucios-Turtziozen.

13. Basinagreko errota Trucios-Turtziozen.
14. Romañako San Pedro eliza Trucios-Turtziozen.
15. Traslaviñako dorrea Artzentalesen.
16. Terreroseko dorrea Zallan.
17. Bolunburuko dorrea Zallan.
18. Llantadako dorrea Zallan.
19. Hoyoko leize-zuloa Sopuertan.
20. Urrutiako dorrea Sopuertan.
21. Llano II-ko dorrea Sopuertan.
22. Garaiko dorrea Sopuertan.
23. Torre de Villa Sopuertan
24. Zubiaren edo Balparda dorrea Sopuertan.
25. Ibarguen edo Urarteko dorretxea Gordexolan
26. Oxirandoko dorretxea Gordexolan
27. San Roke baseliza
28. Urtusaustegi dorretxea Gordexolan
29. Zubiete edo Oribai dorretxea Gordexolan
30. La Puente edo Romarate dorretxea Gueñesen
31. Largatxa I dorretxea, dorre beltza edo errea, Gordexolan
32. La Jara dorretxea, Salcedo de La Jara edo Mayor de Salcedo ere deitua, Gueñesen
33. Lazkano dorretxea Gueñesen
34. Maruri dorretxea Gueñesen

h) Parte Zaharrak:

1. Balmasedako Parte Zaharra
2. Lanestosako Parte Zaharra.

i) Aisialdirako ekipamenduak:

1. Arenaza I-eko haitzuloa Galdamesen
2. Gueñeseko karting-zirkuitua
3. El Molinar bainuetxea Karrantza Haranean
4. Karpin Abentura Karrantza Haranean

5. Pozalaguako kobak Karrantza Haranean
6. SPA Hotela Artzentalesen
7. Sopuerta-Abentura
8. Ventalaperrako haitzuloa Karrantza Haranean
9. Judutarren haitzuloa Lanestosan.
10. Horcasitas jauregia, hotel-eskola, Balmasedan
11. Santa Isabel komentua, hotel SPA, Gordexolan

1.5.6 AISIALDIGUNEAK

Eremu Funtzionalak, naturaren eta geografia fisikoaren ezaugarriak direla eta, atsedentoki ugari ditu. Güeñesen izan ezik, herri guztietan daude aisialdigune naturalak; gainera, oso azpimarragarriak dira duten ekologiaren eta paisaiaren balioa, eta horregatik dira hain erakargarriak turistentzat. Zentzu honetan ondoen hornituta dagoen herria Trucios-Turtzioz da, zortzi aisialdigune eta hiru mendi-ibilbide ditu. Bestalde, horrelako mendi-ibilbideak ia herri guztietan daude, lurraldearen zehar ibiltzeko balio dute eta batzuek aisialdiguneak elkarrekin lotzen dituzte.

Jarraian, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalean dauden aisialdiguneak zehazten dira. Datu hauek bilduta daude *I-5 informazio-planoan*.
Ekipamenduak:

1. La Porqueriza
2. La Herrera
3. Bolunburu
4. La Brena
5. Berbikiz
6. Aguasjuntas uharka
7. Atxuriaga parkea
8. Santa Ana
9. Carraleko San Roque
10. Las balsas parkea
11. Tuetxe-San Antolin
12. Santa Kruz
13. Armañon-Los Jorrios
14. San Roque
15. Gordon

Bestalde, eremu funtzionala zeharkatzen duten hiru ibilbide garrantzitsu nabarmendu behar ditugu: **Done Jakue bidea, Ibilbide handia (GR-123) eta galtzada erromatarra**. Done Jakue bideak Balmaseda, Gueñes eta Zalla zeharkatzen ditu; baina ibilbide honek izan dezakeen indarra garatu gabe dago oraindik. Ipar-Hegoranzko norabidean, Sopuerta, Zalla eta Balmaseda

zeharkatzen dituen galtzada erromatarra dugu. Hala ere, ibilbide hau ezezaguna da, Enkarterriko biztanleentzat ere bai askotan.

Azkenik, GR-123 ibilbideak bide perimetrala egiten du Enkarterritik, eta bertan dauden aisialdiko gune asko lotzen ditu, baita Done Jakue bidea eta galtzada erromatarra ere. Gordexolatik abiatzen da, eta Arabako mugatik egiten du aurrera (Artziniegatik). Gero Balmasedara jaisten da, eta hirigune historikoa zeharkatzen du; eta, horren ondoren, berriz egiten du gora Ordunteko mendilerrera, eta Burgos eta Karrantza Haraneko mugatik jarraitzen du. Karrantzako Harana inguratzen du, eta Ranero guneraino igotzen da. Gero, Armañongo natura-parkeraino iristen da, eta Trucios-Turtzioz udalerriraino ere bai. Udalerrri horretan dauden natura eta aisialdirako guneekin lotu ondoren, Pandora jaisten da; eta, horren ondoren, berriz egiten du gora, Sopuertaraino, Kantabriarekiko muga ondotik ibiliz.

Edertasun handiko ibilbide honek duen oztopo bakarra da ibilbide menditsua dela, eta, beraz, ezin dutela biztanle guztiek erabili eta gozatu.

Horrez gain, eremu funtzionalean hainbat **interpretazio-zentro** daude:

1. Ortuella eta Galdames arteko muga dagoen Peñas Negras Interpretazio Zentroa ingurumenari buruzko informazioa eman eta sentsibilizazioa piztu nahi duen zentro bat da, eta Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du.
2. Balmasedako La Pasi3n Interpretazio Zentroa Santa Klara komentuan dago; bertan, Balmasedako Aste Santuko osagairik adierazgarrienetako batzuk daude gordeta.
3. KOBEN KOBARTe Paleolitiko Europarrari buruzko Interpretazio Zentroa Sangrices gunean dago (Karrantza Harana), baina bertara iristeko Lanestosatik joan behar da. Leize-zulo natural batean dago kokatuta, eta Paleolito aroko biztanleen eguneroko bizitza eta haiek egindako sormen-lan artistikoak ditu ikusgai.

Mintzagai dugun inguruaren ezaugarriek aukera bereziak eskaintzan ditu, batez ere hurbil horrelako lekurik ez dutenei. Horrelako aisialdiguneek ohikoak ez ditugun ekintzak egiteko aukera eman beharko ligukete, eta noski, horretarako instalazio bereziak eskaini. Aparteko ingurumen naturala eskura eduki eta errespetu osoz eta arduraz erabiltzen bada, gozamen iturri ederra bilaka daiteke. Bilbo Metropoliaren osagarri oso interesgarria izan daiteke.

1.5.7 HERRI-FINKAPENAK

Populazioa

Enkarterri zona nahiko zabala da, orografia malkartsua duena eta biztanle gutxi dituen: 429 kilometro koadron zehar 30.413 biztanle ditu, gutxi beraz. Dentsitatea Km²-ko 71 biztanle da; EAerekin alderatuta 5 aldiz gutxiago eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren ondoan 8 aldiz txikiagoa. Eskualde hau hobeto hornitzeko edozein jarduerak eragozpen horixe du, biztanle gutxirentzat zuzen dela hain zuzen.

Gainera, populazioaren gehiengoa Kadagua haranean barna biltzen denez (%60), aipatutako arazoa areagotu egiten da ekimen berriak eremuko beste gainontzeko herrietara zuzentzen direnean. Leku horietan gaur egun biztanleak sakabanatuta bizi dira; lurraldea baserri soilez osatuta dago.

Populazioaren eboluzioak joera negatiboa dauka. Honen arrazoiak natural-naturalak dira (hilkortasun-tasa jaiotze-tasa baino altuagoa da) eta etengabeko zahartzea dakarte. Trucios-Turtziozko, Karrantza Haraneko eta Lanestosako kasuak bereziki larriak dira jaiotze-tasa izugarri baxuak dituztelako (1.92, 4.5 eta 3.47 hurrenez hurren). Hortaz, herri hauek uzten ari dira eta beraien etorkizuna despopulatzen joatea da.

Migrazio saldoak positiboak diren arren, ez dute indar nahikorik atzerako joera hori aldatzeko. Gainera, migrazio saldo horiek barnekoak (EAE) direnez, ez dute jaiotza-tasa handitzeko kemenik erakusten. Eremu Funtzionalak Bilbo Metropoliko biztanleak soilik erakarri ahal izan ditu, oso gertu baitago.

Eremuko dependentzia-indizeak %47 baino altuagoak dira; kontuan izan Bizkaian eta EAEn ez direla %43ra heltzen. Gainera, indize hauek gero eta handiagoak dira; gora doaz batez ere Lanestosa eta Artzentalesen, non %60 baino altuagoak diren; eta antzera Galdamesen, Gordexolan, Karrantza Haranean, Sopuertan eta Trucios-Turtziozen, non %50en gainetik dauden.

Demografia-joera honek sortzen dituen ondorioen artean, arazo bat ikusten da, alegia, mundu globalizatu eta teknifikatu batera moldatzeko gaitasun eza. Arazo honi aurre egin behar zaio. Biztanleria zahartzen ari da eta gehienek ez daukate eskolatze maila handirik. Eta honi gehitzen badiogu aparte bizi direla, gaurko gure gizarte teknifikatuaren berrikuntzak eta kezkak gero eta arrotzagoak izango dituzte. Izan ere, gure gizartea gero eta teknifikatuago den bezala, gero eta formazio eta egokitzeko gaitasun handiagoak eskatzen dizkigu.

Eremuko populazioa behera egiten ari bada ere, ez da gauza bera gertatzen herri guztietan. Bestelakoa gertatzen ari da Güeñes eta Zallan esaterako, biztanleen kopurua gora egiten ari baita; izan ere inguruko herrietako jendea, interland deritzon horretakoa, erakartzen ari da. Sopuerta era hazten ari da, baina bere

hazkundera Ezkerraldeko jendeari zor dio. Antza denez, Sopuerta erakargarria da Ezkerraldekoentzat.

Eremuak aukera handiak eskaintzen ditu, eta horiek aprobetxatuz gero Eremuaren balioak gora egingo luke, ondoan duen Bilboko metropoli-eremua bezain baliotsua izango litzateke kasik. Gaur egun bizitzen ari den trantsizio aldia abantaila da beste eremu batzuekin izan dezakeen lehian.

Populazioa Kadaguaren inguruko herrietan dago kontzentratuta, batez ere Güeñes, Balmaseda eta Zallako herriguneetan. Bada, ezaugarri hau positiboa da oso, zeren haran hori izugarri ondo komunikatuta dago penintsulako iparraldeko azoken artean erreferente den azokarekin: Mercabilbo.

Ekonomia

Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionalaren ezaugarri ekonomikoak definitzeko geografia markoari erreparatu behar diogu eta nagusiki bertako ekonomiaren oinarria diren hiru faktoreak kontuan hartu behar ditugu:

- Bilboko Metropoli-eremuaren periferian dago.
- Eremuan zehar ez da pasatzen Bilbo Metropolia inguruko beste merkatuguneekin lotzen duen korridore nagusirik. Hau da, ez dago inorako erdibidean.
- Lurraldearen ezaugarri fisikoek eta oztopo orografikoek, lurralde hau ondoko Metropoli-eremuarekin harremanetan jartzea zailtzen du.

Geografia-baldintza hauek direla medio Eremuko ekonomiaren garapena uste baino motelagoa izan da. Are gehiago kontuan hartzen badugu Eremua penintsulako iparraldeko merkatu nagusienetik hurbil dagoela.

Eremuan zehar ekonomia-sektore guztiek ez dute pisu bera. Alde batetik, Bilborekin lotzen duen korridore nagusiaren (Kadagua harana) inguruan hirugarren sektorea nagusitzen da, industria berak ere pisu handia duelarik. Bestetik, bada ekonomiaren produkzioa lehenengo sektorean oinarritzen duen zonalde bat; hau Eremuko mendebaldeko herrietan gertatzen da, hots, korridore nagusienetik urrun samar dagoen alderdian.

Dena den, nahiz eta zerbitzuen sektorea behinena izan, sektore honek duen enplegu-tasa eta BPGd-ri egiten dion ekarpena oso txikiak dira hirugarren sektore modernoa eta ondo garatua duten eremuen aldean. Ondorioz, bere ekonomiaren antolakuntzan lehen eta bigarren sektoreek oraindik ere garrantzia oso handia dauka.

Egoera hau ez da udal guztietan berdin ematen, izan ere, beste behin bi egoera desberdin topatuko ditugu. Alde batetik, ekonomiaren produkzioa lehenengo sektorean oinarritzen duen herriak daude (Artzentales, Karrantza Harana,

Lanestosa eta Trucios-Turtzioz). Hauetan enplegu-tasa populazio aktiboaren %15a baino gehiagokoa da. Abelazkuntzak EAEko ganadu-aziendaren % 11,77 osatzen du. Datu honek erakusten du Eremuan zein indartsua den azpi-sektore hau. Herrien artean Karrantza Harana da lehena, bere ganadu-aziendak Eremu Funtzionaleko % 34,54a osatzen du.

Lurraren erabilerari ere begiratu behar diogu oraingoan. Zentzu honetan basogintza azpimarratzekoa da. Eremu honetan baso izugarri handiak daude eta beraien egurra zuraren industria eta eraikuntza asetzeko lehengaia da.

Herri batzuetan, ingurumen fisikoaren erruz komunikabide txarrak dituelako, zaila da ekonomia jarduera berriak lekua hartzea. Ingurumen fisikoaren zailtasuna ez da gainditzten Metropoli-eremu bat ondoan izanda ere; nekeza izango da sarbide eskasak edukita Metropolia eta bere demandarentzat erakargarria izatea.

Zalla, Balmaseda eta Güeñesen zerbitzuen sektorea nagusi bada ere, industriaren sektoreak pisu handia du oraindik. Hiru udal hauek Eremu Funtzional osoko enpleguen %70a beraien gainean hartzen dute. Enpleguaren egoera honek desoreka oso handia sortzen du; batetik, desoreka hornikuntza eta azpiegituren eskaintzan datza; eta bestetik, populazioaren errentak desberdintasun nabariak erakusten ditu.

Eremuko per capita barne-produktu gordina Bizkaiko edo EAEko bataz bestekoa baino askoz txikiagoa da. Industria gehien duten herriek balio altuenak dituzte; eta, aldiz, lehenengo sektorean oinarritzen diren herriek balio oso txikiak dituzte.

Beraz, ondoriozta dezakegu, ingurune geografiko honetako eremu honek trantsizio aldia bizi duen ekonomia daukala. Ekonomiaren eboluzioari dagokionez, esan dezakegu bere ekonomia hirugarren sektorera lerratzen ari dela. Hala ere, ingurunearen baldintzak direla medio, hirugarren sektorerako bidea oso motela izaten ari da.

Eremutik gertu pisu handiko ekonomia-gune bat eta azpiegitura oso garrantzitsuak daude; eskualde mailako zein nazioarteko garraio eta komunikazio azpiegiturak daude bertan, aireportua eta merkataritza-portua esterako. Horrez gain, Metropoli-eremuak izugarrizko lurzoru eskasia dauka. Arrazoi hauek guztiengatik, aipatutako azpiegiturak Enkarterrira begira daude beraien jarduerak han lekua hartzeko.

Zerbitzuen sektoreak zenbait esparrutan eskasia handia eta garapan falta nabarmena du. Sektorearen egoera hau aitzakia ona da ekonomia-eragileek negozio aukera berriak sortzeko.

Oraindik ere lehen sektoreak duen indar erlatiboari esker landa-paisaia ez da galdu, eta gaur egun zaindu beharreko paisaia eman digu; halaber, kultura eredu aberats bat ere gureganaino helarazi du. Bada, posible da paisaia eta kultura aberastasun horiek jarduera berrien ondoan bizirautea eta, zergatik ez, garatzea. Oraindik pobrea den turismo-sektorea aukera bat izan daiteke.

Bizitegiak eta herriguneak

Eremu Funtzionalean etxebizitza kopurua %37an handitzea aurreikusita dago, hala ere herrien arabera hazkundeak oso desberdina dira. Esate baterako, Karrantzaren hazkundea %70ekoa izango bada, kontrako muturrean, Zalla daukagu, bere hazkundea %10koa baino ez baita izango. Gainera, eskaintza berri hau oreka gutxikoa da oso, bi herritan, Balmasedan eta Güeñesen, egotekoak baitira Eremuko etxebizitza berri horien %61a.

BOE berrien eskaintza lau udaletan kokatzen da: Balmaseda, Güeñes, Karrantza Harana eta Zalla. Gainontzeko herriek ordea ez dute etxebizitza mota hau eraikitzeke planik.

Hirigintza-planen garapen oso desberdinak daude eta zenbait udaletan plan hauek aplikatzea zaila izan daiteke.

Lanestosako, Karrantza Haraneko eta Trucios-Turtziozko udalen hirigintza-garapenak, orokorrean, nahiko geldirik daude. Horren arrazoia eskualdeko komunikabideen egoera eskasa da. Gainera, Lanestosako alde zaharrak berrikuntza-lanak behar ditu eta honek bere dinamismoa moteltzen du.

Zenbait kasutan etxebizitzak eraikuntza herrigunetik kanpo gertatzen da, eta herrigunetako lurzoruak hutsik eta erabili gabe geratzen dira. Ekimen hauek herrigunea hankamotz eta bete gabe uzten dute; lurzorua alferrik galtzea dakar. Izan ere, familia bakarreko etxebizitzak eraikitzen dira herrien erdialdean etxebizitza kolektiboak eraiki beharrean. Finean, herriguneetan etxebizitzak irudiak uniformeak izan beharko luke.

Trenbidearen trazaduraren ondoan eta Kadagua ibaiaren etzeetan utzikeria erakusten duten guneak topa daitezke. Gainera, Sodupe, Aranguren, Mimetiz eta Balmasedako herriguneetan dauden pasonibel ugariak auzoen arteko bereizketa fisikoa sortzen dute; eta herrigunean bertan joan-etorriak oztopatzen dituzte. Trenbidearen trazaduraren ondoan gune oso hondatuak daude.

Zalla eta Gueñes izan ezik, beste herri guztiek daukate etxebizitzak kopurua heren batean handitzeko asmoa; zera da, duten etxebizitza kopuruaren halako hiru hazi nahi dute. Hala diote behintzat indarrean daukaten hirigintza-plangintzek.

Balmasedako BOEren aurreikuspenak nabarmentzekoak dira; aurreikusitako etxebizitza berrien %38a dira guztira. Herri honetan, gainera, Alde Zaharrean etxebizitzak egiteko dinamikan gogotsu sartuta daude. Bestalde, industria-guneetan zein zonalde degradatuetan dauden eremuak garatu nahian dabilta. Adibidez, Fabio Mugaren industria-lurzorua birkalifikatzekotan daude bizitegirako lurzoru urbanoa R-23 (237/2008 Foru Agindua, otsailaren 28koa) sortzeko.

BI-2701 eskualdeko errepidea funtsezkoa da, Eremua Bilbo Metropoliko ipar-ekialdearekin lotzen baitu. Oso garrantzitsua da errepide honen trazadura hobetzea, bizitasun handia emango bailioke bai Sopuertari eta baita ere bere ondoan dituen Galdames eta Artzentalesi.

Trenbidearen trazaduraren ondoko eta Kadagua ibaiaren ertzetako abandonatutako guneak berritzeko aukera paregabea dago. Bertan egin daitezke hiri-parkeak, ibilbideak, tren geltokien ondoan aparkalekuak, e.a.. Erriberetako parke zuzen hauek inundabilitate arriskua duten eremuak okupatuko lituzkete eta honek, zalantzarik gabe, herrigunea indartuko luke eta herriaren irudia hobetu ere bai. Hartara, populazio berria ere erakarriko litzateke.

Laburbilduz, Kadaguako korridorearen eraikuntzak Kadagua haraneko komunikabideak hobetu ditu. Güeñes, Zalla, Gordexola eta Balmaseda eskurago daude eta hori mesedegarria izan da. Enkarterriko barne-komunikazioa asko hobetu da eta gainera Bilboko eremuarekiko lotura estutu egin da. Hau guztiari gehitzen badiogu Enkarterriko etxebizitzaren prezioak baxuagoak direla, ziur Enkarterriko eta batez ere Kadaguaren inguruko guneetan etxebizitza eskariak gora egingo duela; eta honekin batera populazioak ere egingo du gora. Are gehiago korridorearen lanak amaitu direnetik, errepidea ona baita eta garraio publikoa ere badagoelako.

Lur ez urbanizagarria eta baserri-guneak

Bilboko Metropol-eremutik gertu edota berarekin ondoen komunikatuta dauden baserri-guneak (Gordexola, Güeñes eta Zalla) alde batetik; eta Ezkerralderengandik hurbil daudenak (Sopuerta eta Galdames) bestetik, dira hiriguneen presio handiena jasaten ari diren zonaldeak. Metropol-eremuko guneek dituzten arazo bertsuak dituzte, hori bai, neurri txikiagoan.

Herri hauetan urbanizagarria ez den lurretan benetako etxebizitza-demanda dago, baina baserri-gune hauetan familia bakarreko etxebizitzak baino ez dira eraikitzen; eta noski, horrek ingurumen fisikoan eragin txarra dauka.

Komunikabide eskasak dituzten herrien (Artzentales, Trucios-Turtzioz eta Karrantza Harana) ondoan dauden baserri-guneen arazoak oso bestelakoak; bertako biztanleek "aparte" daudenaren irudipena daukate, eta ez da harritzekoa, orografia malkartsua eta errepide txarrak baitituzte. Horregatik gune hauetan

apenas dago etxebizitzaren demandarik, eta egon daitekeena bertako jendeak eskatzen duena da.

Mendialdean (Karrantza Harana eta Trucios-Turtzioz) populazioa baserri-guneetan bizi da batik bat. Gune hauek hazteko legeak trabak jartzen ditu eta zaila da lurzoru urbano eta urbanizagarri berriak identifikatzea. Beraz, herrien hazkundera mugatuta dago eta garapen urbanoak ezin du aurrera egin.

Baserri-guneek eremu honetan duten presentzia oso garrantzitsua da, bai kopuruagatik (97), bai landa-eremuetan populazioa kokatzen dutelako eta baita ere paisaiaren balioa mantentzen dutelako. Eremu Funtzionaleko mendialde hau eta landa-eremuak sustatu eta indarberritu nahi badira, dauden baserri-guneek izan behar dute abiapuntua; horietan oinarritu behar da garapena.

Karrantza Haranaren kasua bereziki konplexua da, bizitegi-guneak sakabanatuta dituelako eta populazio murrizta duelako; arrazoi hauek tarteko Karrantzak baserri-giroko irudia azaltzen du eta paisaia paregabea dauka. Udalerrri oso zabala da eta bertako populazioaren gehiengoa nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi da. Horregatik, berrogeita bost (45) bizitegi-gune edo populazio multzo ditu, eta hauetatik berrogeita hiru (43) baserri-guneak dira. Gune hauek, orokorrean, ez dute ekipamendurik eta jasaten duten herri handien presioa txikia da. Beraz, ona litzateke Ambasaguas eta Concharen garapena sustatzea eta biak lotuta nukleo bakarra, homogeneoa, osatzea.

Dena dela, baserri-giroko herri hauek paisaia eta ingurugiroa kalitate handikoak dituzte. Horregatik eremu hau oso aproposa da eta aukera handiak eskaintzen ditu, hala nola, bigarren etxebizitzak edukitzea, nekazaritza-turismoa, aisialdirako ekintzen eskaintza, natura etab.. Hortaz, bizitegi mota hauek sustatu beharko lirateke, herrigune bakoitzeko toki nagusienak indartu eta ekonomia jarduera alternatiboak bilatu. Sustapen asmo hauek aurrera eramateko errepidea tarte batzuetan berritzeak asko lagunduko luke.

Ekonomia-jarduerak

Ekonomia jarduerentzat Kalifikatuta dauden lurzoruen datuak aztertuz gero, ez du ematen industriarentzat lurzoru eskari handia dagoenik, izan ere, kalifikatutako luraren erdia baino gehiago libre dago gaur egun; Güeñes, Balmaseda eta Zallak, lurzoru industrialaren eskari handiena izan dezaketen herriek, lurzoru libre ugari dute.

Hala ere, libre dauden lurzoruen zati handi bat han-hemenka daudenak edo oker aukeratutakoak dira; ondorioz, Eremu Funtzionaleko lurzoruen eskaintza ez da lehiakorra eta nekez hartuko du Bilbo Metropoliko ekonomia-jarduerarik.

Bestalde, badaude izatez okupatu gabe egon beharko luketen lurzoru urbanizagarriak, baina benetan ez da horrela, hartuta baitaude. Hauxe gertatzen

da Galdamesen esaterako, berez hutsik dauden 10 Ha lurzoruan harrobiaren instalazioak daude, eta okupatuta beraz. Trucios-Turtziozen antzeko zerbait gertatzen da; bere lurzoruek 3 Ha hartzen dute baina % 50 okupatuta daude. Karrantza Haraneko lurzoru urbanizagarriak (4,41 Ha) ere okupatuta daude; lurzoru bat esnegaien enpresa batek hartuta dauka, eta bestean "la Cadena" harrobiaren instalazioak kokatzen dira.

Gertatzen da Industrien egoitza batzuk eta azpiegitura batzuen instalazioak herri batzuen erdigunean bertan kokatuta daudela. Hau dela eta herrigune batzuek oso itxura txarra erakusten dute, hala nola Güeñesek, Arangurenak eta Balmasedak. Gainera, urbanizagarritzat hartuta dauden lurzoru batzuk ibaien handitzeek har ditzaketen guneeetan daude; horregatik, derrigorrezkoa da lurzoruen leku aldaketa batzuk egitea.

Egoki ikusten da industria lekualdatu eta industrialdeetan kontzentratzea; planteatu beharreko ekimena da. Horrela egingo balitz, eremu horiek bizitegiak egiteko erabili ahal izango lirатеke, eta jakina, herrigunean bertan egonda, askoz ere egokiagoa izango litzateke lurzoru horiek etxebizitzak egiteko irabaztea; hartara, herrigune batzuk, ildo honetan hazita, askoz ere trinko eta homogeneoagoak izango lirатеke. Gauza bera esan daiteke ibaien handitzeek hartzeko arriskua duten gunetako lurzoruez; hauek lekualdatuz gero, ibai ertzak berreskuratzeko lanak egin ahal izango dira.

Esanda dago industriak desegokiro hartuta dituen lurzoruak berreskuratu nahi direla eta dispertsatuta dagoen industria kontzentratu nahi dela. Bada, posible da industria horien leku aldaketa, izan ere Eremuan bai baitaude industriaren jarduera hartzeko moduko gunek. Hori horrela izanda, industria-poligono trinkoetan kontzentratuko da industria eta gainera, Bilbo Metropoliko industria-jarduera hartze aldera, industria-lurzoru hauen lehiakortasuna hobetuko da.

Horregatik, industria hartuko duten lurzoruak Metropoli-eremuarekin komunikabide hoberena eskainiko duten garraio-azpiegiturretatik gertu egon behar dira: Kadaguako Korridorea eta Barbaduneko ardatza.

Hala ere, Funtsezkoa da herri-lurzoruak era desberdinetan erabiltzea; batzuk bizitegi izateko eta beste batzuk hirugarren sektoreko jardueratan edo zerbitzuetan aritzeko. Asmoa jada eraikita dagoenaren balioa handitzea da. Herri-lurzoruen erabilera anitza sustatzen bada herriguneek indarra hartuko dute eta herriguneetan ekonomia-jarduerak presentzia handiagoa izan dezakete. Gainera, proposamen honek lurzoruen bizitegi-erabilera bateragarri egiten du ekonomia-jardueraren erabilera jakin batzuekin; eta aldi berean, industria-jarduerak dakarren inguruaren desitxuratzea bizitegietatik urruntzen du.

2

IDEIA SAORTZAILEAK ETA HELBURUAK

2.1 HASI BAINO LEHENAGOKO IRIZPIDEAK

Eskualde honen inguru naturalaren ezaugarri fisikoek eta Bilbo Metropolia hain gertu egotearen eraginak eremu honen garapena eta eboluzioa nabarmen baldintzatu dute. Horrela bada, lurraldearen antolaketa gehien baldintzatzen duen faktorea hau da: alegia, lurraldearen zonalde desberdinetara nolako komunikabideak dauden. Kadagua haranaren inguruan dauden zonetara joatea eremuko beste guneeetan sartzea baino askoz errazagoa da; eta ondorioz, azken hauetako populazioa askoz gehiago mugitzen da. Arazo nagusia, beraz, bide txarrak dira, orografiak jartzen dituen oztopoak gainditu nahi dituzten bideak hain zuzen; eta noski, egoera honek gainontzeko beste guztiak baldintzatu ditu. Ikusi bestela eremuko zonaldeek zein garapen desberdina duten. Beste faktore nagusia Bilbo Metropolia-aren gertutasuna da; hain da garrantzitsua ezen populazioa hango abantailez baliatzen baita baserri giroko guneeetan bizi den bitartean, herrietako bizitzaren elementu propioak ere aprobetxatuz.

Behin faktore nagusiak eta testuingurua aztertuta, planaren estrategia ondoko hasierako irizpideetan oinarritzen da:

- Ezarritako irizpide nagusiak osagarritasuna bilatu nahi du. Prozesu eta ekimen guztiak osagarritasun honen ildotik joan behar dute, bestela ez dira onartuko. Baina, zer esan nahi da osagarritasunarekin? Bada, osagarritasuna, Eremu Funtzionalak eta bere alboko lurraldeak elkarri mesede eta on egitea da.
- Eremu hau planifikatzeko orduan kontutan beste irizpide bat hartu behar da, alegia, ekimen publikoek despopulatze eta ekipamendu eskasiaren arazoa duten gunetara begiratu behar dute. Betako biztanleen beharrak asetzea da lehentasuna, hau da, zerbitzuak hara hurbiltzea.

Aipatutako lehen irizpideak, osagarritasunak, hainbat esanahi ditu:

- Eskualdearen kokapenari buruz. Eremuaren kokapena baliatu behar denez, ekimenak ondoko lurraldean eragin handia (afekzioa) izan nahi du. Plan honen helburua Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionala Eskualde interesgarri bilakatzen laguntzea da; horretarako, turismoa erakartzeko gaitasuna indartu nahi da, eta horrez gain, Bilboko Metropoli-eremuan ematen diren ekimenei (Guggenheim Museoa edo Bilboko Biltzar-Jauregia) etekina atera nahi zaie Eremuarentzat; bestetik, Bilboko Metropoli-eremuaren eskaintzaren osagarri ere izan nahi da.
- Ondoko Autonomia Erkidegoetako edo Euskal Autonomia Elkarteko beste eremu funtzional batzuetako espazioei buruz. Kasu honetan, alboan eta oso gertu dauden tokiekin (Amurrio, Artziniega eta Bilboko Metropoli-eremuko Ezkerraldea) harremana nola estutu eta elkarren arteko sinbiosia nola sortu pentsatu behar da. Helburua deskongestioa da (lurzoru edota azpiegiturak), edota zerbitzu espezializatuak eskaintzea.

Hurbil dauden Kantabriako herriak gogoan izan behar dira, eta batez ere Burgosekoak; operazioak Enkarterriren lehiakortasuna handitzea bilatuko du, bai zerbitzuen eskaintzari dagokionean eta bai ekonomia-jardueren arloan. Gertutasun hori aprobetxatu nahi da aipatutako aldameneko lurralde horietako biztanleak erakartzeko.

Aipatu den beste irizpide garrantzitsu bat; ekimen publikoak martxan jartzeko orduan lehentasuna eman beharko lieke eremuko arazoak (despopulazioa, bertaratzeko errepide zailak...) larrien sufritzen dituzten guneei; nahiz eta leku hauetan inbertsioen errentagarritasuna eta bertako demografiaren urritasuna ez bat etorri. Irizpide hau jarraituz, ekimenak sustatu behar dira arazo hauek beste inon baino larriago pairatzen dituzten lekuetan. Gaur egun Kadaguako korridoreko herrien eta gainontzeko herrien artean dauden desorekak leuntzea eta eskualdea bateratzea izango da asmoa.

2.2 EKIMENAREN ESTRATEGIA-LERROAK

Irizpide hauek kontutan izanik, LPPk jarraitu behar dituen oinarrizko estrategia-lerroek eskualdearen arazo handienei erantzun behar die, betiere lurraldeak aurrean jartzen dituen aukera apartak aprobetxatuz. Eta noski, estrategia-lerro horiek edozein Lurraldearen Antolakuntza planek onartzeko modukoak izan behar dute; eta kasu honetan, Enkarterriren egoerarentzat egokiak izan behar dira. Horregatik, zenbait kasutan, LPPren erabakiak arazo jakin batzuk konpontzera bideratuta egongo dira; beste kasu batzuetan aldiz, zeharka bada ere, prozesu sinergikoez baliatuz beste arazo batzuk konpontzeko proposamenak egiten ditu.

Oro har, LPP honek proposatzen dituen estrategia-lerroak hauek dira:

- Ingurune Naturala eta Ondare Kulturala babestu eta balioetsi, hauexek dira eta Eremu Funtzionalaren bereizgarriak baliotsuenak. Natura eta kultura ondareek eremu funtzionala aparteko paisaiatzat apaintzen dute; gainera, lurralde osoaren garapen ekonomiko jasangarriarentzat baliagai oso garrantzizkoak direla ez da ahaztu behar.
- Ekonomiaren dibertsifikazioa. Dibertsifikazioa ekonomia sektore berrietara zabaltzean, eta globalizazio berriaren eskakizunei erantzuteko prestatzean datza. Aldi berean, nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreak sendotu behar dira populazioa mantentzeko eta gaur egungo paisaiari eusteko.
- Errepide-sarea hobetzea, bai biztanleen eguneroko joan-etorrien mesedetan eta bai populazioa zein ekonomia-jarduerak erakartzeko. Ildo berean, ekipamenduen eskaintza hobetu behar da eta gaur egungo arazo eta gabeziak konpondu. Gainera, etorkizuneko premiak ere aurreikustea komeni da.
- Lurzoru eskaintza sortu; bizitegi-lurzoruak zein ekonomia-jardueretarako lurzorua. Betiere, lurzoru eskaintza honek mugikortasun jasangarriarekin bat etorri behar du eta ezin du eskaini bere kapazitatearen gainetik, hots, ahal baino duena gehiago. Gainera, aprobetxatu behar da eremu hau erakargarria dela alboko lurraldeetako biztanleentzat bigarren etxebizitza edukitzeko.
- Lurzoruen erabilera anitza sustatu eta herriguneei dentsitate handiagoa eman. Bizitegi izateko lurzorua eta beste batzuk hirugarren sektoreko jardueratan edo zerbitzuetan aritzeko lurzorua konpatible egin; jada eraikita dagoenaren balioa handitu eta herriguneei indarra eman. Gainera, proposamen honek industria-jarduerak dakarren inguruaren desitxuratzeko bizitegietatik urruntzen du; beraz, bizitegien ondoan ameti daitezkeen jarduerak bakarrik onartzen ditu.
- Enkarterriren mendebaldeko alderdiarentzat (Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentales) neurriak hartu bertako guneak babestu, zuzendu edota konpentsatu beharrean aurkitzen badira ere; inguru honek etorkizunean ere gaur duen itxura mantentzeko. Espazioaren, eta beraz, paisaiaren aberastasuna eta bioaniztasuna gizakiaren baserri-lanaren ondorio izan dira. Horrenbestez, lehen sektorea eta berak dakarren bizimodua zaindu, suspertu eta lagundu egin behar dira; are gehiago eremu hauetan non populazioaren zahartzea eta galtzea hain larriak diren.

2.3 INGURUMENAREN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK

EAEko II Ingurumen Programa Markoa 2007-2010aren arabera, ikusita LPPk ingurumenean eragin handia izan dezakeela, LPPk planteatzen duen proposamen bakoitzak, ondorengo ingurumenaren irizpide estrategikoei erantzun beharko dio besteak beste:

- 1) Jada artifizialak diren lurzoruen erabilera bultzatu bereziki nekazaritza-lurrak eta naturako lurrak errespetatzeko.
- 2) Lurzorua kutsatuta daudelako ez ubanizagarri bezala errekalifikatu aurretik, beraien berreskuratzea lehenetsi.
- 3) Saihestu, ahal den neurrian, artifizializazioa; 100 urteko itzulera denboraldiko etorbideen aurrean arriskua duten eta gaur egun garatu gabe dauden zonaldeen artifizializazioa.
- 4) Herri egitura trinkoa, dentsoa eta konplexua sustatu; hala beharko da planteatutako premiei egoki erantzuteko. Hala, eraikinen dentsitatea handituko da.
- 5) Herrietan segregazioa eta dispersioa ekidin. Gisa horretan, jarduera eta lurzoruen erabilera desberdinak ondo integratuta eta kohesionatuta egongo dira, eta ez hori bakarrik, mugikortasuna ere txikituko da.
- 6) Beharrezkoa den mugikortasuna antolatu modu berri batean; oinez ibiltzea, bizikleta eta garraio publikoaren aldeko apustua egingo da. Laburki esanda, motorrik ez duen mugikortasuna eta garraio publikoa suspertu behar da.
- 7) Energia aurrezte, energiaren efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera bultzatu.
- 8) Berdeguneen kalitatea hobetu eta baita herriguneetan dauden ur-ibiliena ere. Hau dena, herriguneetako bioaniztasunari hobeto eusteko.
- 9) Batetik, aniztasun biologikoaren galtzea geldiarazi; eta bestetik, habitat eta ekosistemen martxa jasangarria berrezarri eta babestu. Modu berean, Babestutako Naturguneetatik at dauden eremuen konektibitatea, koherentzia eta nahikotasuna babestu behar da.
- 10) Eskualdearen eta lurraldearen garapena egoki lotu beharra dago Bioaniztasunaren iraupenarekin. Horretarako, azpiegitura handiek ados egon behar dute "Natura 2000, korridoreak eta paisaia"rekin.
- 11) Edozein erako proposamen batek kontinenteko urei eragin ahal die; eragin hori gerta daiteke lur azpiko uretan, azalekoetan, ibai-hondoetan, ur-ibilietan, erribera eta ertzetan, trantsizio uretan eta kostakoetan,

berdin da. Edozein proposamenek kontuan izan behar du, lehenik eta behin, ura eta bere ingurua hor daudela; eta gainera errespetatu, mantendu eta berreskuratu egin behar dituela. Konkretuki, hori bera egingo du LPPk; neurriak hartuko ditu ura eta bere ingurua kontserbatzeko; eta aurreikusiko du zer gerta daitekeen eta zer baliabide tekniko eta finantziario beharko diren hori guztia betetzeko. Ingurumena da lehentasuna.

2.4 HELBURU OROKORRAK ETA PARTIKLARRAK

2.4.1 INGURUNE FISIKOA

Ingurumen Naturala eta kultura ondarearen babesa eta balioestea. Hauek dira Lurralde Plan Partzialarentzat Eremu Funtzionalaren balio eta bereizgarri printzipalenak. Kultura eta natura ondareek eremuari paisai berezi bat ematen diote eta honek izan behar du, alegia, Eremuaren garapenarentzat, garapeen ekonomikoa eta jasangarriarentzat behintzat, berebiziko baliabidea.

Planaren Lurralde-ereduarentzat Ingurumen fisikoaren antolaketak ondoko helburu orokor hauek ditu.

- Naturaren egoeraren eta paisaiaren elementu baliotsuenen mantentzea eta balioz handitzea, hori guztia, konpatible egin garapen ekonomiko eta sozialarekin, zein Eremu Funtzionaleko biztanleen bizi kalitatearen hobetzearekin. Bereziki hala da, legearen babesik ez duten eta antolatuta ez dauden naturako gune baliotsuetan.
- Beti-betiko luraren erabilerak biziraunarazi. Erabilera hauek inguru naturalarekin eta espeziekin oreka gordetzen dute. Oroz gain mantendu beharrekoak dira nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboak, zeren habitatarekin eta aparteko paisaiarekin lotura estua baitute.
- Urak eta ur-ibiliak; uretako zein erriberetako ekosistemak; hala nola akuifero eta uraren zikloaren baitako elementu denak berreskuratu. Halaber, lurraldean aritu daitezkeen jarduera desberdinen ondorioz ingurumenak jasan ahal dituen kalteak saihesten saiatu.
- Inguruak jasan ezin ditzakeen jardueren eraginez degradatuta dauden naturako elementu eta prozesuak hobetu, berreskuratu eta rehabilitatu; baldin eta lehenera itzultzeko gaitasuna badute bederen. Horretarako ekintza zehatzak prestatu.

Helburu partikularrek Eremu Funtzionaleko ingurune fisikoan antzemandako arazo eta gaitasunei erantzuten diete. Bat datoz lurraldearen diagnosiaren ondorioekin. Hauek dira:

- Paisaia era aktiboan mantendu; non eta Nekazaritza eta abeltzaintza era tradizionalan praktikatzeko dituzten, edota praktikatu ahal dituzten, lekuetan. Hala, ekologiaren balioak mantendu eta berrituko dira. Ereku Funtzionalan balio hauek landazabal atlantiarren paisaiarekin kointziditzen dute, biodibertsitate aberatsari lotuta daudelako.
- Fauna eta flora populazioen isolamendua ekidin Ereku Funtzionalan balio natural handiena duten eremuen arteko konexio ekologikoak erraztuz; eremu hauek Ordunteko GKL, Armañoneko Parke Naturala eta Trianoko Mendietako Biotopo Babestua dira. Hemen ezin ahaztu Natura Sare 2000ko eremuak, hauek Ereku Funtzionalaren mugetatik kanpo daude, baina fisikoki oso gertu.
- Ereku Funtzionalaren barruan inolako jarduerarik hartuko ez duten eremuak zehaztu, jarduera horiek suntsipena edota aldaketa handiak ekar ditzaketelako. Helburua da eremu horiek basoko landareztarantz eta faunarentzat beharrezkoak diren korridore ekologikoak izatea, eta eginkizun hori nahikoan betetzea. Funtzio hau ibaiek, basoek, habitat sasi-naturalek eta mendiek hartzen dute.
- “Babestutako zuhaitz apartekoa” izendapena hartuko duten zuhaitzen kopurua handitzea. Izendapen hau 16/94 legeak, ekainaren 30ekoak, Euskal Herriko Natura babesteko legeak hain zuzen, sortutakoa da
- Espezie autoktonoez osatutako basoak mantentzea, hedatzea eta sustatzea; bereziki, Eremuan urrituta daudenak eta oso ondo hazi daitezkeenak. Eta nagusiki, Eremuko Erabilera Publikoko Mendietan.
- Gehien nabarmentzen den naturaren ondare geologikoa eta geomorfologikoa babestea eta mantentzea. Ondare hau eremu guztian zehar aurki daiteke, batez ere, multzo karstikoetan; horrelako asko dago Armañoneko Parke Naturalean eta bere inguruko lurretan.
- Lurraren balioa jaisten ari da. Hori basogintzaren eragina gero eta handiagoa delako gertatzen ari da; kontrara, abeltzaintza eta baso naturalak behera egiten ari dira. Hau guztia dela eta, ahal den neurrian behintzat eta batik bat Karrantza Haranean eta Artzentalesen, basogintza industrial mugatu behar da eta mendi-sailak artifizialtzea ekidin.

Lurraldean aurrera eramateko proposatu diren ekimenak helburu partikularretan oinarritzen dira; nolako helburua, halako aktuzioa. Izan ere, helburuek babes berezirik gabeko lurzoru ez urbanizagarriak identifikatzen dituzte. Era honetan, eremu berezi horien betiko ezaugarri eta funtzio natural propioek bere horretan jarraituko dute. Hau erdiesten bada, orduan beteko lirateke planak Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Ereku Funtzionalerako markatuta dituen helburu orokorrak.

Proposamen hauetako asko helburu partikular bat baino gehiagoren arteko sinergiak eta erlazioak eraginda sortu dira. Beste proposamen batzuen atzean, aldiz, helburu bakarra dago.

2.4.2 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

Garraio eta komunikazio azpiegiturak

Garraio sisteman egiten diren proposamenak populazioaren beharrei erantzuteko egiten dira: joan-etorrien denborak txikitzeko; garraio mota desberdinen zerbitzua hobetzeko Eremu Funtzionalera errazago joate aldera; eta baita barneko joan-etorriak aise egiteko. Honen harira helburuak hauexek dira:

- Lurralderako sarbideak hobetzea, batez ere Kadagua haranetik mendebaldeko barnealdeko haranetara doazenak.
- Eremu Funtzionaleko herrien eta Bilboko Metropoli-eremuaren artean trenbidea sustatzea eta berau bilakatzea garraiobide nagusi.
- Garatzekoak diren herrietan beharrezkoak izango diren eskualde-errepide eta tokiko errepideak egin. Sustapen honek egokitu egin behar ditu lurraldearen eredu berria eta errepide sistema.
- Baserri-giroko espazioetan errepide zati batzuk atontzea eta hobetzea, horrela aktibo naturalak eta kulturalak hobeto aprobetxatzeko.
- Errepideen trazadurak hobetzea; zati arazotsuak kendu eta hauen ordeztzatibitaba berriak sortzea; trafiko gehien duten tarteetan plataforma zabaltzea; e.a.
- Herriguneetatik ibilgailuen joan-etorria saihesteko, zenbait zeharbide herriguneko kale bihurtzea.

Herri bakoitzean egiten diren aktibitateen garapena egokiagoa izateko azpiegiturretan zenbait hobekuntza egitea komeni da. Hartara, biztanleek behar dituzten oinarrizko zerbitzuak areagotuko dira. Helburu partikularrak hauek dira:

- FEVEren trenbidea hortik pasatzen dela aprobetxatu eremua garatzeko, Bilboko Metropoli-eremuarekin konexio ona baitu. Trenbideko pasonibelak kentzea eta Zaramillo eta Balmasedaren arteko tartean bigarren erraila egin. Hauek dira LPPren helburu nagusiak.
- Trena Artzentales, Trucios-Turtzioz eta Lanestosa herrietara eta Karrantza Haranera eramateko neurriak hartu; hori lortzeko tren-apeadero berri bat eraikiko da Mimetizen (Zalla); horren kariaz, posible izango litzateke Zallako osasun, epaiketa... zerbitzu-ekipamenduetara azkar eta erraz hurbiltzea, Zalla bera baita Ermuko herriburuetako bat.

- Mimetizeko auzunean (Zalla), trenbidearen bigarren erraila egitekoak direla aprobeztatzuz, trena herrigunean ondo integratu behar da, izan ere, tarte honetan FEVEk pasonibel ugari edukitzeaz gain, trena auzunearen erdi-erditik pasatzen da. Beraz, trena auzoan integratzeko soluzioak pentsatu behar dira; hala nola trena lurpera eramatea, edota hau gehiegi bada, trena lubaki batean sartzea.
- Eremuko errepide nagusien trazadura eta bidegurutzeak hobetzea; esaterako Malabrigoko mendatea. Lan hauekin lotura zuzena dute “Malabrigoko errepide-lotunea” izenez ezagutzen diren egin beharreko beste azpiegitura batzuek; hauen artean dago “Zallako lotura-bidea” (La Herrera auzoarekin egiten du bat). Lotura-bide hau funtsezkoa da Eremuko mendebaldeak pairatzen duen errepide gabezia konpontzeko. Honi esker Artzentalesek, Trucios-Turtziozek, Karrantza Haranak eta Lanestosak komunikabide egokiak edukiko lituzkete, Eremuko beste herrien parekoak.
- Zallatik Balmasedaraino BI-636 errepidea zabaltzea. Udal planeamenduak, ahal den neurrian, errepidera behar adinako tarte utzi behar du. Eguneko batez besteko trafikoaren intentsitatearen datuei ere erreparatuko zaie dira.
- BI-2701 errepideari garrantzia handiagoa ematea eta bere trazadura hobetzea. Errepide hau lotura-ardatz bat da, Enkarterriko herriak Muskiz eta Abanto-Zierbenarekin lotzen ditu; bera da Enkarterrira sartzeko iparraldeko errepidea. Baina errepide honen egungo trazadura eskasak ez duenez lotura hori batere estutzen, trazadura berritzea oso ona izango litzateke Sopuertarentzat eta baita ere ondoan dituen Galdames eta Artzentalesentzat. Asko dinamizatuko lirateke gunehauek.
- BI-2701 eta BI-3632 errepideen arteko lotunea hobetu, horixe da Galdamesera sartzeko bidea; eta BI-2701 eta BI-3614 errepideen arteko lotunea ere hobetu, Mercadillo (Sopuerta) auzunearen erdialdean dago eta bertatik pasa behar da Artzentalesera joateko.
- Saihesbide berriak planteatzea. Sopuertako Mercadillo eta El Crucero auzoetan, saihesbidea baino gehiago “integratutako kale urbanoak” izango dira. Gauza bere gertatzen da Trucios-Turtziozko erdigunean, oso leku estua da eta.
- Zenbait herriguneetan (Sodupe, Güeñes, Aranguren...) egungo errepideek banantzen dituzten espazioak berreskuratzea. Espazio hauek herri barruko kale bihurtu behar dira.
- Gune intermodalak jartzea; disuasio aparkalekuak tren-geltoki nagusien ondoan; eta lantzadera autobusen konbinaketarako gunek ezartzea.

- Eremu Funtzionala Bilboko Eremu Metropoli-eremuko ekipamendu handiekin, portuarekin adibidez, lotzeko errepide-sarea bultzatzea. Eta baita ere alboko lurraldeekiko konexio-sareak hobetzea.
- Enkarterriko mendebaldeko zonaldera iristea erraztea. Bizkaibusen zerbitzuaren maiztasuna handitu eta zerbitzua bera ere hobetu; FEVEren zerbitzuaren maiztasuna handitu.

Oinarrizko azpiegiturak

Beste arlo batzuetan bezala, oinarrizko azpiegituren hornikuntzan ezberdintasun handiak eta nabarmenak daude Eremuaren baitan; Kadaguako Korridorean kokatuta dauden populazioak jasotzen duen zerbitzuaren mailaren eta beste haranetako populazioak jasotzen duenaren artean alde handia dago. Gai honetan, LPPk helburu hauek lortu nahi ditu:

- Ur-hornikuntza eta saneamendu-sarea hobetzea eremuko herri guztiek zerbitzu bera izan dezaten. Zentzu honetan Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoan ez dauden udalak bertan parte har dezaten proposatzen da.
- Elektrizitate-sarearen zerbitzua eta antolaketa hobetzea; ingurumeneari duen inpaktua txikitu; elektrizitate-tentsio handienetako azpiegitura elektrikoak pasatzeko korridoreak egin, ingurumenarentzat jasangarriak direnak gainera.
- Eremuko garbigune-sarea hobetzea; zerbitzu honen inguruko mugikortasuna txikitu eta, bilketa selektiboa zentralizatuko duten gunak sortu.
- Telekomunikazioen azpiegitura bat garatzea funtsezkoa da enpresek lehiakortasuna izateko. Helburua argia da, alegia, komunikazio eta informazio sistema berriak Eremuko pertsona, erakunde eta enpresen esku-eskura jartzea. Ondorioz, Eremu Funtzionalarentzat egokia izango den telekomunikazio-sarea ezarri behar da.

Ondorengo helburu partikularrak planteatzen dira:

- Energia elektrikoaren zentzuzko erabilera sustatu. Efizientzia energetikoa eta energia aurrezteko lortu behar dira; energiaren autohornikuntza bertako baliabide berriztagarriak erabiliz. Era berean, errekurso berriztagarrien erabilera bultzatuko da; aurrezteko eta kontserbatzea; biztanleak kontzientziaztea eta energia sortzeko estazio berriak promozionatzea.
- Interesgarria izango litzateke energia sortzeko planta berri bat bultzatzea Enkarterin; industria eta nekazaritzaren kogenerazioa izango litzateke energia sortzeko baliabidea, oso egokia gainera Eremuan, izanez, nekazaritzaren kogenerazioan oso bertako baliabidea da; kogenerazio

industrialia, aldiz, LPPk zehaztutako industriaguneetan kontenplatzen da. Nekazaritzaren kogenerazioa industriarena optimizatzeko osagarria da.

- Gomendagarria da biomasa-zentral bat egitea Enkarterrin zurgintzaren hondakinak tratatzeko (basogintzaren hondakinak). Balmasedan egitea proposatzen da.
- Ur-hornikuntzaren alorrean, LPPk Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoan ez dauden herriak erakunde honetan sartzea bilatzen du, zerbitzua hobetu eta hornikuntza bermatzeko helburuarekin. Aspektu honetan, Eremuko mendebaldean dauden herrietako (Karrantza Haraneko eta Lanestosako) hornikuntza hobetu behar da eta herri hauei, lehorte garaian, hornikuntza bermatuko dien azpiegitura eman. Kontutan hartu beharreko ekimenen artean urmaelak eta iturrietatik hartzen den urentzat araztegiak ezartzea dira. Adibide bezala Karrantza Haranean egingo den urmael berria daukagu. Helburua baliabide hau hobeto antolatzean datza.
- Eremu honetako arro desberdinen saneamendu-sarea hobetzea. Horretarako, ibai-arro bakoitzeko araztegi bat proposatzen da. Horrek esan nahi du bi araztegi egongo direla: Karrantzaren eta Barbadunen behealdean bat (Kolitzaren eta Galdamesen urak bilduko dituen); eta beste araztegi bat Aguera eta Kalera ibaietan.
- Ingurumena ahul dagoen guneetan ingurumen-inpaktuak txikitzeko elektrizitate azpiegiturentzako korridoreak egin behar dira. Elektrizitate azpiegiturak hobetu behar dira bereziki Artzentales, Trucios-Turtzioz eta Karrantza Haranean. Esanda dago nola bertako eguraldi gogorak arazoak sortzen dituen eta etenak izaten dituzten.
- Hondakinen bilketa selektiborako ekipamenduak sendotzea. Era berean, Zalla eta Sopuerta bezalako herrietan garbigune berriak ezarri behar dira. Eremu Funtzional honetan ekipamenduen banaketa hobea izatea da helburua.
- Mindaren kudeaketa egokia planteatzea. Kontu hau benetako arazoa da, Karrantza inguruan orain arte minda-isurketak egiten ziren nonahi. Beraz, minda-fabrika bat eraikiko da Karrantza Haranean arazo hori konpontzeko, kokapena oraindik finkatu gabe badago ere. Azken batean, konpatible egin behar dira lehen sektoreak naturari ateratako etekina eta paisaiaren balioa.

2.4.3 EKIPIAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

Lurralde baten ekipamenduen hornikuntzen eta atsedenlekuen mailak eragin handia du lurralde horren garapenean; populazioaren behar desberdinei erantzutea posible egiten du, bai kulturaren arloan eta bai behar sozialen arloan.

Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionalean dauden hornikuntzak eremuko demografiaren ezaugarriei dagozkionak dira; hala ere, ekipamenduz eskas dauden herriak badaude Eremuan. Eremu Funtzionaleko bizi kalitatea hobetzeko, ekipamenduak sustatzea beharrezkoa da, batez ere gabeziak dituzten herrietan eta populazio osoak zerbitzu hauek eskura jartzen dituzten onurez gozatu ahal izateko.

Ekipamenduak

Ekipamenduei dagokienez, Lurralde Plan Partzialaren helburuak honela laburbildu daitezke:

- Herri nagusien hornikuntza hobetzea da jomuga; hauek Eremu Funtzionalaren barruan duten estatusa galdu ez dezaten eta ahalik eta biztanle gehienei zerbitzua emateko. Balmasedan eta Zallan eskualde mailako ekipamenduak sendotu behar dira eremu funtzionalean duten herriburutza indartzeko. Bi motako ekipamenduen proposamenak daude: dagoen ekipamendua hobetzeko proposamenak eta ekipamendu berriak ezartzeko proposamenak.
- Sopuertan eta Sodupen bigarren mailako ekipamenduak sendotzea herri nagusien ordeko izatera iristeko; inbertsioa justifikatzeko demografia nahikoa ez duten herriguneei emango die behar duten zerbitzua.
- Gehiegizko inbertsioa dela-eta argudiatuz ekipamendu gehiago jartzea merezi ez duen populazio gutxiko herrietan, alboko erreferentzia-puntuetara heltzeko errepideak hobetzea proposatzen da. Tamaina txikiagoko udal hauek herri bertako eskariari erantzuteko oinarritzko ekipamendua izango dute.
- Eremu honen turismoa hartzeko gaitasuna bultzatu behar da, zera da, eremua irekiago bilakatu behar da. Horretarako, derrigorrezkoa da EAEko hirietatik eta eskualdeetatik hara doazen sarbideak erraztea.

Ondorioz, ondoko helburu partikularrak planteatzen dira:



- Herri bakoitza gehien ezagutzera ematen edo definitzen duten ezaugarrien inguruan ekipamenduak sustatu behar dira. Horrela, esaterako, Balmasedak edertasun handiko Alde Zaharra dauka, kulturaren alorrean eta turismoan aukera handiak eskaintzen dituzten elementuak dituen gainera; bada, elementu hauek dira sustatu eta azpimarratu behar direnak. Gaitasun turistikoa hau hotelak eta jatetxeak gehitzeko, irabaziak emateko eta abar esplotatu behar da, eta era berean, hori esker Alde Zarraren ehuna berreskuratzeko balioko du. Kontuan izan Balmasedan dagoela “Gazteluaren muinoa” izeneko parkearen proiektua, Alde Zaharraren ondo-ondoan; turismoari begira herriguneko arkeologia-parke aparta bilaka daiteke, eta gainera, herriaren jatorrizko perimetroa, harresiak, gaztelua, e.a. agerian utziko lituzke.
- Zallako herrigunea populazio, zerbitzu eta errepide gehien dituen nukleoa da; funtsezkoa da bere kokalekua, Eremuaren erdi-erdian baitago. Bada, zentralitate hau sustatu behar da eta bertako ekipamendu mota guztien eskaintza nabarmen hobetu. Zallari zerbitzua emateaz aparte, alboko herrigune askori ere emateko.
- Sopuertako herrigunea sustatzen ari da herri nagusien ordeko bihurtzeko, baina garrantzia hori lortzeko oraindik zenbait aldaketa eta hobekuntza egin behar dira: ekipamenduen hornikuntza indartu eta etorkizunean populazioan emango den hazkundeari aurre egiteko azpiegiturak eta sarbideak hobetu. Galdames eta Artzentales herrientzat hau guztia onuragarria izan daiteke, Sopuerta esku-eskura baitaude.
- Artzentales eta Karrantza Haraneko landa-ezaugarriak direla eta, kirol-turismoa eta ekoturismoa sustatzea proposatzen da. Gainera, enpresaren ikuspuntutik balioa handitu beharreko nekazaritza eta abeltzaintza dauzka. Horretarako, bertakoen eta bisitarien demandak aseko dituen erabilera anitzeko ekipamenduak prestatu behar dira; ekipamendu hauek ekonomia bultzatzeko eta nekazaritzari zein abeltzaintzari enpresa-dimentsioa emateko balio behar dute.
- Lanestosak, edertasun handiko Alde Zaharra duen partetik, bere turismorako ahalmena indartu behar du; horrek lanpostuak sortzeaz gain, garapen soziala eta Alde Zaharren berreskuratzea ekarriko luke.



Espazio Libreak. Aisialdiguneak.

Enkarterrik, duen naturaren eta kulturaren balioa aintzat hartuz, azpiegitura egokiak sortu behar ditu haien inguruan; aberastasun horiek ezin dute ezerezean geratu. Espazio Libreak eta aisialdiguneak egiteak, dudarik gabe, balio handia ematen dio Ingurune naturalari eta Enkarterriko paisaiari; hauek dira eta Eremu Funtzionalaren bereizgarri nagusiak. Arlo hauetan ondoko helburuak planteatzen dira:

- Eremu Funtzionalean dauden atsedenekuen garapen turistikoa sustatuko da; hauen erabilera herriaz gaindikoa izan dadin eta erakargarri gerta dadin, bai Bilboko Metropoli-eremuarentzat eta bai alboko gainontzeko eremu guztientzat.
- Lurraltera heltzeko errepideak, atsedenekuak eta herrigune nagusiak lotuko dira ibilbide errazen bidez; ibilbide hauek oinezkoek, zaldiek, bizikletek... soilik erabiltzeko izango dira. Bestalde, oinez edo bizikletaz egin ahal izateko Ibilbide-sarea bultzatuko da; herrien arteko komunikabide jasangarriak izango dira eta asialdirako garraio alternatiboaren sarean egongo dira.
- Espazio Libreakin lotura duten azpiegitura egokiak egitea, adibidez: Naturaren Interpretazio Zentroak, landa-ostatuak, e.a..
- Done Jakue Bideak eta Erromatarren galtzadak turismoa erakartzeko ahalmen handia daukate; Bide honek ukitzen dituen herriek kapitalizatu beharko lukete.
- Kadaguaren ur-ibiliak Kadaguaren ibai-parkea egiteko aukera ematen du. Helburua posible den habitat naturalena islatzea da; jendeak horrelako gune bereziaz disfruta dezan eta zuhaitzik gabeko guneetan zuhaitzak sartzeko. Honek balioko luke baita ere ibaiaren handitzeetan arbolez osatutako babesa edukitzeko eta horien arteko lotune garbi bat edukitzeko.

2.4.4 HERRI-FINKAPENAK

Lurralde Plan Partzialak proposatzen duen herri-finkapenen eredua zehazteko, aurretik eginiko Informazio bilketa eta diagnosian oinarritu dira eta aukera handiak ikusi dira. Puntu hauetan laburbildu daiteke:

- Bilbo Metropoliaren indar ekonomikotik, eta baita ere eskualdeko zein nazioarteko garraio eta komunikabide azpiegituretatik gertu dago; adibidez aireportua eta portua. Haietatik hain gertu egoteak, eta Bilbo Metropoliak

duen industria-zoruen eskasiak, Enkarterri eskualde ezin hobea bilakatzen du azpiegitura horiei zerbitzua emango dien hainbat jarduera hartzeko.

- Eremu Funtzional hau Bilbo Metropolitik eta Ezkerraldetik oso gertu dagoenez, bertako populazioa hartzeko leku aproposa da; horregatik, eskuragarriagoak diren etxebizitzak eskaini behar dira.
- Zerbitzuen sektorea jarduera jakin batzuetan gutxi garatuta dagoenez, eragile ekonomikoek merkatuan aukera aprobetxagarriak erraz aurki ditzakete. Hirugarren sektorea garatzea planteatzen da, bai herri nagusietan (Balmasedan eta Zallan) eta bai bigarren mailako herri nagusienetan (Güeñesen eta Sopuertan).
- Turismo sektorearen garapen urriak ustiatzeke dagoen aukera bat eskaintzen du; are gehiago Enkarterrin aktibo naturalak eta kulturalak kontutan hartzen baditugu. Turismoarekin zerikusia duten jardueren garapenarentzat euskarri paregabea dira.
- Lehenengo sektorea mantentzea, batez ere Karrantza Haranean, Trucios-Turtzioz eta Artzentales herrietan. Lehen sektore horrek paisaiaren eta kultura aberastasunaren mantentzean garrantzia handia izan du. Gaienera, ingurunearekin erlazionatutako beste aktibitate batzuekin batera existitu daiteke.

Helburu partikular hauek planteatzen dira:

- Kadagua haranean eta baita Artzentales eta Karrantza Haranean ere edukiera handiko garraioetatik eta trenbidetik gertu dauden gunetan sustatzea bizitegien hazkundeak.
- Bultzatuko den bizitegien hazkundera jada osatuta dauden herri-bilbeetan izan dadila; hor kontzentratu populazioa eta zerbitzuak.
- Baserri-eremuetan etxebizitzak sustatu; eremu hauetan lur urbanizagarri gutxi dauden arren lurzoru batzuk oso onak eta egokiak dira urbanizatzeko. Izan ere, posible da dauden lur urbanizagarriak oso malkartsuak izatea edota uren handitzeak pairatzeko arriskuan egotea. Egoera honetan dago Karrantza Harana.
- Eremu funtzional honetan oso sakabanatuta dago ekonomia-jarduera. Beharrezkoa ikusten da industria lekualdatzea eta kontzentratzea. Beraz, helburua da industria komunikabide nagusienetatik gertu kokatzea. Hartara, alde batetik Kadaguako korridorea bultzatuko da; eta bestetik Malabrigoko zonaldea, bertatik pasatzen baita BI-2701 errepidea eta haxe da, hain zuzen, Ezkerraldetik Enkarterrira dagoen beste sarrera.
- Hirugarren sektorea sustatzea, bai herri nagusietan (Balmasedan eta Zallan) eta bai bigarren mailako herrietan (Güeñesen eta Sopuertan)

- Lurzoruen erabilera anitza sustatu eta herriguneei dentsitate handiagoa eman. Bizitegi izateko lurzoruak eta hirugarren sektoreko jardueratan edo zerbitzuetan aritzeko lurzoruak konpatible egin; jada eraikita dagoenaren balioa handitu eta herriguneei indarra eman. Gainera, proposamen honek industria-jarduerak dakarren inguruaren desitxuratzeari bizitegietatik urruntzen du; beraz, bizitegien ondoan ameti daitezkeen jarduerak bakarrik onartzen ditu.
- Eremu funtzionalean ekonomia mailan gutxietsita dauden eremuetan, ekonomia-jarduerak dinamizatuko dituzten elementua inplantatu; Eremuko desberdintasun ekonomikoak berdintzeko. Adibidez, ekipamendu handiak jarri Sopuertan, Artzentalesen eta Karrantza Haranean; ekonomia garatzeko eta nekazaritza zein abeltzaintza industrializatzeke.

3

LURRALDE EREDUA

Etorkizunean Balmaseda-Zallako Eremu Funtzionalean planteia daitezkeen egoerak asko dira. Baina egungo egoeratik abiatuz, bi baino ezin dira koherentziaz planteatu.

Egungo egoera kontutan hartuz nahiko ziurtasunez planteia daiteke egungo egoerak duen joera. Ostera, joerazko egoera edo esku-hartze ezak ekarriko lukeen eszenario honen aurrean, LPPk eszenario objektibo bat planteatzeko du; bere asmoa Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalak, ezer egin ezean, ustez ekar dezakeena zapuztea da.

3.1 JOERAK EDO ESKU-HARTZE EZAK UTZIKO LUKEEN EGOERA

Egoera hau egungo okupazio eta aktibitate ereduak jarraituz gero etorriko da. Egoera honetan lurraldearen arazoak areagotzen eta ugaltzen dira eta, gaur egun gertatzen den bezala, ez dira lurraldeak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen. Hau gertatzen da, neurri handi batean behintzat, eremu honen lurralde antolaketari bere osotasunean aurre egingo dion tresnarik ez dagoelako.

Egoera hau ezaugarri hauek definituko lukete:

- Kadagua haranaren eta Eremu Funtzionalako beste haranaren artean dagoen alde nabarmenaren areagotzea; Kadagua haraneko herriek gehiago garatuko lirateke eta horren ondorioz populazioak, enpleguek eta zerbitzuek bertaratze joera izango lukete. Honi jarraituz, Zalla Eremu Funtzionalako herri nagusia Zalla izango litzateke, eta beraz, merkataritzaren zein ekipamenduen gune nagusia ere bai.
- Karrantzako haranean dauden herriguneen despopulazioa. Egungo okupazio eredu eta demografiaren dinamika ikusita, ezinbestekoa da

Eremuaren mendebaldean dauden herriek eta Kadagua haranetik aparte dauden herriek populazioa galtzea, eremuko herri nagusien mesedetan.

- Errepide nagusien saturazioa. Haran nagusitik pasatzen diren komunikabideen trafiko intentsitatea handitzea normala da, izan ere, iragaten dituzten herrien populazioaren kontzentrazioa handia da, eta gainera, ordezeko errepiderik ez dago.
- Ekonomia-jarduerak dispersatuta jarraituko lukete. Egoera honetan jarduerak ez lituzkete komunikabide-azpiegiturak ondo aprobetxatuko. Ikuspegi orokorra oso bertakoa eta murrizta izango litzateke, batere koordinaziorik gabea; ekonomia-jardueren kokalekuak ere koordinazio falta handia erakutsiko lukete.
- Eremu Funtzionalaren osotasunean paisaiaren eta ingurugiroaren txikizioaren areagotzea. Jakina da, dagoen babeserako legeen gabeziak, eta paisaia aberastasuna sortzeko iturri garrantzitsu bezala ez ikusteak, inguruaren ustiapena orain arte aurrera eraman den ez bezala egitea eragingo duela. Horrela balitz, egungo aukerak ez lirateke aprobetxatuko ingurunearekin lotutako jarduerak garatzeko; aktibitate hauek baino ez baitute bermatzen ingurumenaren kalitatea eta eremuaren ustiaketa jasangarria.

Lehen Sektorearen beherakada basogintzaren garapen gero eta handiagoa ekartzen ari da; kontrara, abeltzaintza eta baso naturalak behera egiten ari dira; eta honekin batera behera doaz baita ere luraren balioa, bioaniztasuna eta bere paisaia; besteak beste, kasu honetan dago Trucios-Turtzioz, non basogintza industrialak izugarri hazi den.

3.2 LPP-K PROPOSATZEN DUEN EGOERA

Bestelakoan, LPPk erdietsi nahi duen egoerak ezaugarri hauek lituzke:

- Bi herriburu dituen Eremu Funtzionala, bi herri nagusi dituena, Balmaseda eta Zalla hain zuzen; bestalde, Sopuerta, Güeñes eta Sodupe bigarren mailako herriguneak lirateke. Planak ez du populazioaren, ekonomia aktibitateen eta eskualdeko ekipamenduen banaketa aldatu nahi; lurralde osoan garapen homogeneoa egon dadin nahi du.
- Landa-eremua babestea eta landa-eremuko populazioaren mantentzea; landazabal atlantikoaren erabilera jasangarria bermatzeko eta horrekin batera landazabal atlantikoa “balio handiko nekazaritza-paisaien” zerrendan egoten jarraitzeko. Honi jarraituz, LPPk zenbait bizimoduaren kalitatea igotzea xede du ekipamendu berriak zonalde horretara eramanez; horrela, bizimodu landatiarra erakargarriagoak izango da. Era berean, Karrantza Haranarentzat eta Artzentalesentzat neurriak hartu bertako guneak

babestu, zuzendu edota konpentsatzeko, inguru honek etorkizunean ere gaur duen itxura manten dezan.

- Eremuko naturaren balio nagusien babesa, hauek baitira elementu propio eta bereizgarrienak. Babes hau aukera bezala ulertu behar da eta ez ekonomiaren garapenarentzat traba bezala. Horretarako, inguruaren naturaren balioak aprobetxatzen dituzten ekonomia-jardueren aldeko apustua egiten da.
- Populazioaren fluxuen hobekuntza eta birrantolaketa; populazioaren mugikortasuna hobetzeko zerbitzuak eta ekonomia aktibitateak biztanleengana hurbilduko dira, batetik azpiegiturak optimizatuz, eta bestetik bizitza bakarreko etxeen garapena mugatuz. Joan-etorrien hobekuntza orokorra egingo da, trenbidea bezalako kapazitate handiko garraiobideak sustatuz.
- Industri aktibitatea komunikabide nagusien ondoko industrialdeetan kontzentratzea. Gainera, ekonomia sustatzeko politikak behar dituzten Eremuko herrietan, lurzoru eta mekanismoak antolatuko dira ekonomia jarduera singularrak eta balio erantsi handiko aktibitateak kokatzeko.

Indarrean dagoen ereduan, lurren erabilerak ingurunean sortu dituen aldaketei erreparatuz, erabilera nolakoa denaren arabera, lurraldea zenbait sektoreetan banatu da:

- Baso emankorra: ekialdeko eta erdialdeko guneetan nagusi da (Kadagua haranaren hegaletan, Sopuertan eta Galdamesen).
- Nekazaritza eta abeltzaintza: mendebaldeko gunean kokatzen da erabat (Karrantza Haranean, Trucios-Turtziozen eta Lanestosan).
- Baso autoktonoak: batez ere mendi publikoetan aurki daitezke. Eremu natural nagusiak Triano Mendiak, Armañoneko Parke Naturala, Ordunte Mendiak eta alboko guneak dira.
- Hiri eta industria hazkundeak: batez ere Kadagua haranaren goialdean bilduta.

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalean ekonomia sustatzea eta demografiaren arazoari aurre egitea beharrezkoak dira; derragun, populazioa gero eta zaharragoa dela gazteek beste eremu funtzionaletara egiten dutelako alde etxebizitza eta lan bila. Horretarako, lurraldearen ereduak populazioa erakarriko duen bizitegien garapena planteatu behar du, egungo biztanleak mantentzeko eta beste eremu funtzionaletara aukera bila joan beharra izan ez dezaten.

Hau aukera erakargarria izan dadin, bertako ekonomia aktibitateek eskaini beharko dute lana, eta horrekin batera, ekipamendu hornikuntza egokiak jarri beharko dira eskura; sektore publikoak zein pribatuak kudeatutakoak. Horrela, populazioaren beharrei erantzungo die eta biztanleriak gora egingo du.

Gainera, ezaugarri hauei esker, landa-eremuetan ekonomia jarduerak dituzten teknologia-maila handiko enpresak erakarriko lirateke. Enpresa hauek lan aukerak emango lituzkete, industria gaitan lehiakortasuna sustatuko lukete eta gune honetan aberastasun iturri den nekazaritza eta abeltzaintzaren ekoizpena sendotuko lukete.

Enpresa hauen jarduera hobetzeko, gazteen heziketa eta gaitasun profesionala garatzea beharrezkoa da; eta horretarako heziketarako azpiegitura egokiak eskaini behar dira eta enpresa ekonomia aktibitate berrien ezarpena laguntzea komeni da.. Bereziki, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza sustatu eta garatu nahi dituzten promotoreak hartuko dituzten enpresa multzoak sortzea proposatzen da.

Enkarterrik dituen paisaia eta kultura aberastasunak aprobetxatuz, diru-sarrera iturri bezala turismoa sustatu nahi da eta EAEko beste tokietako bisitariak erakarri. Jolasa, kultura, kirola eta aisialdirako aktibitateak paregabeak dira eta turismoarentzat oso erakargarriak gainera. Honek ere enplegua sortuko luke, eta garrantzitsua izango litzateke landa-eremurako lanbide heziketan aritzeko orduan.

Funtsezko ekimenak hauek izango lirateke: etxebizitza eta enplegu eskaintzak; biztanleen oinarrizko behar guztiak asebetetzeko ekipamenduak ezartzea; eta komunikabide egokiak, Eredu Funtzionalan bertan mugitzeko, Bilboko Metropoli-eremuarekin ondo lotuta egoteko, edo EAEtik kanpo dauden beste erkidegokoen etorrera errazteko.

Honen guztiaren helburua Eredu Funtzionalaren garapen sozio-demografikoa eta ekonomikoa da. Eredua O-8 planoan, "Proposatutako eredua", ikusten da.

3.3 LPP-REN ALTERNATIBAK

Enkarterriko LPPk eskuartearen darabilen informazioa aztertu eta gero, giltzarriak eta erreferentziak zehartu dira Lurraldearen Eredua konfiguratzeko; eta hortik aurrera bere antolaketaren Irizpideak eta Helburu Orokorak zehazki detailatzeko; Soluzio orokorrak detailatzeko ere bai.

Enkarterriren atzerako dinamika eta dauden baldintza orokorrak kontuan izanda, ezin izan dira Lurraldearen ereduaren alternatiba bereiziak planteatu, baizik eta alternatiba orokor bakarra. Alternatiba horrek Eredu Funtzionalarentzat lurraldearen Ereduak dituen oinarrizko elementuak biltzen ditu.

Hala ere, jada definituta dauden helburu orokorren arabera, posible da aukera desberdinak planteatzea, betiere ezarritako jomugak lortu ahal izateko. Bereziki lortu behar dira funtsezkoak diren helburuak, elementu estrategikoak. Normalean haien inguruan gauzatzen dira interbentzio politikak.

Zentzu honetan, alternatiba partzialak planteatu dira helburu bera duten aktuazioentzat, posible den kasuetan behintzat. Jarraian, ebaluazio bat egitea komenigarria litzateke oso. Orografiak, inundabilitateak, sarrerak, e.a. bastante mugatzen ditu; alternatiba bakarra da ur-handitzeentzat proposatutako guneak gehiago edo gutxiago aprobeztatzea.

3.3.1 INGURUNE FISIKOARENTZAT ALTERNATIBAK

Oro har, bioaniztasunaren eta, bereziki Enkarterriko mendebaldean, landa-eremuaren paisaiaren aldeko apustua egin da. Landa atlantiarra babestea eta sustatzea erabaki da; landa mota hau Karrantza Haraneko eta Artzentalesko leku askotan aurki daiteke, oso egoera onean gainera, eta beraz, neurriak hartu behar dira bere horretan manten dadin. Neurrien helburua landa-eremua babestea denez, basogintzari mugak jarriko dizkio, eta horrez gain, laguntza publikoak ere emango dituzte.

Landa atlantiarra desagertzen ari da herriguneen inguruetan eta mendi-hegaletan; Eraikuntzak ez direnean basogintza da lurak okupatzen dituen, eta arrazoi horiek direla medio betiko nekazaritza eta abeltzaintza ateratzen dira galtzen. Honen aurrean, LPPren lurraldearen ereduak Enkarterriko mendebaldeari bultzada bat eman nahi dio lehen sektorea indartuz eta basogintza mugatuz.

3.3.2 KOMUNIKABIDEEN AZPIEGITURENTZAT ALTERNATIBAK

Errepide-sarea

Errepide-sareari begira planteatzen ziren oinarritzko alternatibak: Enkarterrira joateko errepide nagusi bakar bat ezartzea, Kadaguako korridorea hain zuzen; osterantzean, BI-2701 errepidea sustatzea, Ezkerraldeetik Enkarterrira doana; hartara, Eremu Funtzionalak bi sarera nagusi edukiko lituzke.

Lurraldearen eredu bere osotasunean aztertuta eta Sopuertak edukiko duen garrantzia aintzat hartuta -herriburuen ordeko izango baita- ikusten da nola beharrezkoa den Enkarterrira iparraldeetik sartzen den errepidea sustatzea, BI-2701 hain zuzen. Asmo honek hobekuntza lan dezente ekarriko ditu, hala nola trazadura hobetzea, lotuneak hobetzea, hiri-saihesbideak, e.a.

Zentzu honetan, bi herri-saihesbide planteatu dira, bata Sopuertan eta bestea Trucios-Turtziozen, eta bakoitzarentzat alternatiba bana dago. Biak ala biak

Trenbideak

Airezko sarea

Biak ala biak komunikabide nagusi baten ondoan egotearen eskakizuna betetzen zuten, baita ere linea elektriko eta oztopo eza, aineratzerakoan/lurreratzerakoan enbarazurik ez izateko. Hala ere, lehenengo alternatiba hobea iruditu da

3.3.3 ZERBITZUEN AZPIEGITURETARAKO ALTERNATIBAK

Energia elektrikoa eta gasa

Energia elektrikoko sarea 220 kv-ko tentsio altuko linea berri bat egiteko asmotan dabil: Jara-Vallegon linea. Horretarako, bi alternatiba posible planteatu dira: lehenengoa, Espainiako elektrizitate-sareak proposatutakoa da; honek Artzentales eta Sopuerta arteko “Nekazaritza-sistemaren Paisaiari” eragiten dio; bigarrena berriz, LPPk proposatutakoa. Azken honen arabera sare hori ekialderago garatu behar da, alegia, aipatutako “Nekazaritzaren Paisaia Sistemarengan” eraginik ez izateko. Bigarren kasu honetan, Espainiako elektrizitate-sareak zehaztuta dauzka elektrizitate-sarea pasako litzatekeen korridoreak zein izango liratekeen.

Azpiegitura hidraulikoak (saneamenduak y hornikuntza)

Ur zikinak zein edateko urak tratatzeko estaziorik ez duten herrietan era honetako zerbitzuak ipintzeko asmoa dago; adibidez Sopuertan, Galdamesen, e.a.. Bada, ur zikinak arazteko estazioak (EDAR) eta edateko ura tratatzeko estazioak (ETAP) kokatzeko alternatiba bat baino gehiago aztertu dira herri hauetarako.

Hondakin solidoak

Garbigune berriak non jarri erabakitzeke herri bat baino gehiago hartu dira kontuan; hala nola Zalla, Galdames, Sopuerta, Artzentales, e.a. Azkenean, erabakia hartu da (Zalla eta Sopuerta), eta erabakiaren arrazoia zera izan da: populazioaren mugikortasuna txikitzea. Horregatik, gaikako zabor-bilketa egiteko Eremuaren erdian dauden herriak aukeratu dira.

Minda-fabrika

Minda-fabrika kokatzeko hiru alternatiba eduki dira kontuan, hirurak Karrantza Haranean bertan. Lehendabizikoa, Las Torcachas auzoaren ondoan, bere ekialdean; bigarrena, Las Torcachas auzoaren mendebaldean; eta hirugarrena, BI-630 errepidearen ondoan, Manzaneda de Biañez auzotik gertu.

Badirudi, aukera bezala, terrenoen jabetza eskuratzeko errazagoa dela Las Torcachasen ekialdean dagoen alternatiban; gainera komunikabideei begira askoz hobeto kokatuta dago lehendabiziko aukera baino. Horregatik, azken erabakia minda-fabrika Las Torcachasen ekialdean dagoen terrenoan kokatzearen aldekoa izan da, bera da lekuri aukerakoa.

3.3.4 UDALAZ GAINKO EKIPAMENDUENTZAT ALTERNATIBAK

Ekipamendu Handiak

- **Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua Artzentalesen** kokatzeko asmoa dago. Lurraldearen ereduak, halere, baldintza batzuk jartzen dizkio kokalekuari, hots, errepidetik eta garraio publikotik (Autobusa zein trenbidea) gertu egotea. Bada, azkenean kokalekua erabaki da, La Renejan, Traslaviñaren hegoaldean, paratuko da.

Kokaleku honi berari ere aldaketa batzuk planteatu zaizkio; baina finean, lehen sektorek okupatzeko izango duen lur-sailen tamainari dagozkio, alternatiba batzuek lur-sail gehiago eskatzen zituzten, beste batzuek, aldiz, gutxiago.

- **Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua dago Karantza Haranerako** aurreikusita. Kokalekua baina, ez zegoen guztiz argi eta alternatiba batzuk pentsatu ziren: lehendabizikoa, Otides auzoaren ondoan, terreno batean, izango litzateke; bigarrena, Soscaño auzunearen ondoan jartzekoa zen, Sollano izenaz ezagutzen den zona batean.

Azkenean, ekipamendu hori Otidesen jartzekoa izango da. Izan ere, Soscañok eragozpen batzuk zituen: alegia, Soscaño guneko densifikagarri

bezala izendatuta dago, eta beraz, posible da bertan bizitegiak egitea; gainera, lur gutxiago eskaintzen du Soscañok. Bestalde, ez dirudi oso egokia denik era honetako ekipamendua eta bizitegiak elkarren ondoan egotea.

- Sopuertan egitekoa da **“Turismorako kirol-ekipamendua”**. Hau kokatzeko alternatiba bakarra dago: Cruceroren ondoan paratuko da, Las Rivas eta Mercadillo auzuneen artean. Hartara bi auzuneak elkartu eta bat eginda geratuko dira, multzo herritar bakarra izango dira. Proiektua Udalak aztertu du eta, horrekin batera, herriaren saihezbidea egiteko asmoa ere bada.
- Zallan **“Bereizmen handiko ospitalea”** egingo da eta honen kasuan ere alternatiba bakarra aztertu da: El Carmen izenaz ezagutzen den zonan egongo da; kontua da Zallako Udalak eta Osakidetza jada adostuta daukatela kokalekua. Dena den, LPPk ñabardura bat gehitzen dio asmoari, hau da, ekipamendu honentzat lur gehiago erreserbatzea proposatzen du, balizko handiagotzeak egin ahal izateko.

Bestelako ekipamenduen proposamen batzuk

“Tiro-zelaia” kokatzeko Gordexola dago aukeratuta, eta zehazki non egongo den ere erabakita dago, bestelako alternatibarik aztertu gabe. Izan ere, Tiro-zelaia kokatzeko ideiaaren atzean eraldatutako lur batzuen berrerabilpena zegoen, hau da, lur hori Tiro-zelaia egiteko propio eraldatuko da.

Tiro-zelaia kokatzeko Gordexolako zabortege zaharra proposatu da. Leku hau gaur egun itxita eta landatuta dago. Gaienera, herrigunetik urrun dago eta horrek esan nahi du tiro-hotsak nekez entzungo direla herritik.

3.3.5 SARE BERDEARENTZAT ALTERNATIBAK

- **“Kadaguako ibai-parkea”** garatzeko bi alternatiba hartu dira gogoan: lehendabizikoa, planaren Aurrerapenean aurkeztuta dago eta Kadagua ibaiaren ertzetako lurak hartzen zituen, ibaiaren handitzeek hartzeko arriskua duten lur guztiak hain zuzen; bigarrenak, Kadaguaren kanalizatze-plana hartzen du kontuan; bada, kanalizatze-plan honek dituen hutsuneak hartzen ditu, Balmasedatik eta Zallaren erditik Güeñesen herriguneraino, eta hortik aurrera ibaiko uren handitzeek hartu ahal dituzten zonak.

Bi alternatiba hauen artean bigarrenaren alde egin da, izan ere, Kadaguaren kanalizatze-plana horretarako eskumena duten erakundeek aprobatu dute. Plan horren bidez ibaiko uren handitzeek sortzen dituzten arazo larriak ekidin nahi dira. Beraz, LPPk Plan hori errespetatu du eta Kadaguako ibai-parkea planaren arabera antolatu du.

- **Naturaren interpretazio zentroak** kokatzeko hainbat alternatiba aztertu dira, denak ere Karrantza Haranean. Aurrerapen dokumentuan kokaleku batzuk aurreikusi baziren ere, aldaketak adostu dira Karrantza Haraneko Udalarekin.

3.3.6 HIRI FINKAPENENTZAT ALTERNATIBAK

Kadaguaren kanalizatze-planak Zalla eta Güeñeseko herriguneak ukitzen ditu eta, horri esker, posible izango da gaur egun inundagarriak diren gunek batzuk, gerora eta kanalizazio-lanak bukatu ostean, bi herrien hazkundera gauzatzeko balio izatea.

Gainera kontuan eduki behar da plan honek aldatuko dituen lurrak garraio publikoaren eraginetik oso gartu daudela eta, kasu askotan, herrigunean bertan; horregatik, LPPk oso aproposak ikusten ditu herri finkapena gauzatzeko. Zentzu honetan, Mimetizeko (Zalla) eta Güeñesen erdiguneko lurrak izango dira planak aldatuko dituenak.

Bestalde, LPPk zehaztuta dauka nola zaharkitutako industria eremu batzuk birmoldatuko diren bizitegi bilakatzeko eta, aldi berean, gaur egun udal planeamenduak klasifikatuta dituen zona batzuk natura-eremura itzuliko dituen.

Bizitegien garapena

Bizitegi berrien garapenerako lehentasunezko alternatibak ondoko hauek izan dira:

- **Balmaseda:** Balmasedaren lurralde ereduak La Calzada izeneko gunean dauden lurzoruak baino ez zituen aukeran jartzen, besterik ez. Baina Balmasedan aurreikusia duten hazkundera ez da kabitzen jada klasifikatuta dagoen lurzoruetan, nahiz eta Balmasedaren erdigunean dentsitatea handitu nahi duten. Horregatik, proposamen hau bat dator aipatutako demandarekin.
- **Zalla:** Mimetizen gauzatuko diren hezkundeek lotura dute Kadaguaren kanalizatze-planarekin eta honek aldatuko dituen lurrekin; lur hauek hazkunderaren barruan sartzea edo ez sartzearekin. Beste kontu bat da Kadaguaren kanalizatze-planak eskaintzen dituen lurrak zein neurritan okupatu. Hau guztia hazkunderaren tamainaren arabera izango da.
- **Güeñes:** Güeñes hazkunde berriaren alternatibek ere zerikusia izan dute Kadaguaren kanalizatze-planarekin, izan ere, planak gaituko dituen lurrak zein lekutan eta neurritan hartu hazkunderentzat erabaki behar da. Herri honetako hazkunderaren alternatibak hor topatuko du kanalizatze-planean kokatzen dira.

Era berean, lurraldearen eredu berrian kontuan izan dira Zaramillo eta La Quadra zonaldeak; hauek garraio publikoa dutela izan da arrazoia. Aukeran dago hazkundera zenbaterainokoa izango den edota zenbat lurzoru, proposatuta dagoenetik, okupatuko duen.

- **Sopuerta:** Eremu Funtzionalean bigarren mailako garrantzia hartuko duenez, edota herriburu-orde izango denez, multzo herritar bat sortzea zen lehenik eta behin egin beharrekoa. Alternatibak dira dentsitatearen tamaina zehaztea edota proposatutako lurzoruetatik zenbat okupatzea.
- **Galdames, Gordexola eta Artzentales:** Herri hauetan izango diren hazkunde berriek bi alternatiba dituzte: lehendabizikoa, hazkundera herriaren gune nagusian soil-soilik kokatzea; bigarrenak planteatzen du, aurrekoaz gain, hazkunderaren aukera landa-gune batzuetara ere eramatea. Azken gune hauei gune dentsifikagarri izena eman zaie.

Lurraldearen ereduak lehendabiziko alternatibaren alde egin du. Arrazoi bat garraio publikoaren gertutasuna izan da (Artzentales kasu); beste arrazoi bat herriguneetan dauden lurzoru soilak edo hutsuneak dira, okupatu egin behar baitira (Gordexola kasu). Oro har, lurraldearen ereduak herriguneak indartu nahi ditu lehenengo alternatibaren alde egitearekin.

- **Karrantza Harana eta Trucios-Turtzioz:** Lurraldearen ereduak ez ditu bizitegi aipagarri berriak planteatzen herri hauetarako. Herri hauetarako alternatibak gune dentsifikagarri direlakoak dira.
- **Lanestosa:** Herri honentzako alternatibak dentsitate berriaren tamaina zehaztean edota proposatutako lurretatik zenbat okupatzean datzate.

Industria Garapenak.

Industriaren garapenerako lehentasunezko alternatibak ondoko hauek izan dira:

- **Balmaseda:** Lurraldearen ereduak Balmasedan ez dio lurzoru berririk eskaintzen industriari. Horregatik, dagoen demandari erantzun nahian, LPPk Nozedal izenaz ezagututako zonan lurzoruak industriarentzat eraldatzea planteatzen du.
- **Zalla:** Errekalkifikazio proposamenez gain, beste hainbat alternatiba planteatu dira Zallan lurzoru berriak sortzeko: Sollanorako alternatibak, halere, sektorearen tamainan datzate, ez ordea kokagunean.

Nozedalerako (Balmasedaren ondoan) proposamenak eta Malabrigorakoak (Sopuertaren ondoan), udalaz gaidikoak direnez kokagunearen inguruan ez dira alternatibak zalantzan jarri. Gune hautarako alternatibek zenbat lur okupatu proposatzen dute gehiago.

- **Sopuerta:** Herri honetan, egungo industria-lurzoruen (Laiseka) eta arestian aipatutako Malabrigoko lurzoruen eraldaketez gain, bi alternatiba planteatu dira: lehendabizikoa, LPPren Aurrerapenak luzatutako proposamena. Honek Malabrigon soil-soilik eskaintzen du industria-lurzorua; bigarrena, ekonomia-jardueretarako (hirugarren sektorerako edo komertzioa) eremu berri bat inplementatzea Capetillo eta El Crucero auzuneen artean, egun gasolindegia dagoen lekuan.

Lurraldearen ereduak bigarren alternatibaren alde egin du. Izan ere, Sopuertan multzo herritarra indartzen lagunduko luke alde batetik; eta bestetik, hirugarren sektoreko edo komertziorako establezimendu bat eskainiko lioke guneari.

- **Güeñes:** Herri honetarako alternatiba batzuk planteatu dira. Hasteko, Orbijana izenaz ezagututako zonaldean lurzoru bat proposatu da. Baina LPPren Aurrerapenaren lehenengo proposamena Artxubeko poligonoaren handitzea zen; San Pedro-Santxosolok aldera handitzeko proposamena hain zuzen. Bigarren proposamena Santxosolon lurzoru bat finkatzea da, Kadaguako korridorearen ondoan.

Kudeaketa errazagoa izango delakoan eta bertako zoruaren zein landaretzaren kalitateari erreparatuta bigarren alternatibaren alde egin da; Santxosoloko lurzoruaren alde, Kadaguako korridorearen ondoan.

- **Galdames:** Ereduan hiru alternatiba planteatu dira herri honetarako: lehendabizikoa, LPPren Aurrerapenak adierazi bezala, industriari batere lurzorurik ez ematea; bigarrena, BI-2701 errepidearen ertzean kokatzea, Arenao auzunearen ondo-ondoan; eta hirugarrena, egun BI-3632 errepidearen ertzean La Aceñan dagoen industria-lurzorua handitzea.

Azkenean lurraldearen ereduak hirugarren aukeraren alde egin du. Kontuak kontu, Udalak jada eskuartean industria-proiektuak baditu, alternatiba honek oso komunikabide onak ditu eskura eta gainera jarduerak gune jakin batean kontzentratuta geratuko lirateke. Hauexek dira erabakiaren arrazoiak.

- **Karrantza Harana:** Herri honetarako bi alternatiba planteatu dira: lehendabizikoa, LPPren Aurrerapenak proposatutakoa da, alegia, ekonomia-jardueretarako lurzorua handitzea La Cadenako industria-lurzoruaren alboan. Lurzoru hau harrobiaren mugen barruan dago; bigarrenak, minda-fabrikaren asmoarekin dauka zerikusia eta jarduera gune jakin batean kontzentratu nahi du. Gainera komunikabideak esku-eskura ditu proposamen honek. Bada, bigarren alternatiba honen alde egin da.

3.4 INTERBENTZIORAKO SISTEMA ERAGILEA

Proposamen eta helburu guztiak gauzatzeko interbentziorako estrategia-lerro batzuk finkatzea derrigorrezkoa da. Estrategia-lerro hauei esker Enkarterriko LPPk eraginkorra izan behar du, aldi berean anbizio handikoa izateari utzi gabe. Interbentziorako estrategia-lerro hauek era selektibo batean zehazten dira gero Ekintzetan zein Lanetan aurrera eramateko. Betiere interbentzioetan eragin handiena eta positiboa bilatuko da lurraldearentzako mesedegarri izan dadin.

LPPk martxan jartzen dituen eraldaketa eta interbentzioak, proposamen ororekin gertatzen den bezala, mugatuta daude. Lurralde Plan Partzialaren proposamenak zehazten direnean erabat eta ondo burutzeko, esparru baten barruan kokatzen dira, alegia, Lan Estrategikoen eta Ekintza Estructuratzailen multzo berean sartzen dira. Hauen eskema papereratuta dago O-9 ordenazio planoan, "Lan Estrategikoak eta Ekintza Estructuratzailak" izenarekin.

Lan Estrategikoak (LE) Enkarterrirako Lurralde Plan Partzialaren proposamenak zehazten diren espazioek osatzen dute, hau da, lanak gauzatuko direneko gunek.

Ekintza Estructuratzailak (EE) Enkarterriko lurraldearen ardatza osatuko duten ekintzen multzoari deitzen zaio; batez ere ardatz eta sare berriekin du zerikusia.

4

INGURUNE FISIKOAREN ORDENAZIOA

Ingurune naturala eta kultura ondarea babestea eta balioestea Lurralde Plan Partzialaren ikuspegiaren arabera Eremu Funtzionalaren oso propioak diren balioak dira. Kulturaren eta naturaren ondareek mintzagai dugun eremuari oso paisaia berezia ematen diote. Paisaia hau izugarritzko baliabidea da ekonomia garapenerako; garapen jasangarrirako hain justu.

87

4.1 ORDENAZIO KATEGORIAK

Ordenazio Kategoriak LPPren Lurraldearen Ereduak Ingurune Fisikoarentzat egiten dituen proposamenak dira. Katgoria hauek lurraldea zonaldeetan, edo sektore homogeneoetan, bereizten dute. Sektore hauek, era berean, beraien ezaugarriak aztertu ondoren, definituta dute beraien baitan zer hartzeko gai diren; eta horren arabera, sektore bakoitzaren gainean erabilera posible jakinen erregulazioa egiten da. LAAk ere zehazten duten bezala, Ordenazio Kategoriek bi funtzio betetzen dituzte: lehenengoa, hirigintza-plangintzak urbanizagarriak ez den lurra kalifikatzeko orduan erabiltzen dituen izenak homogeneizatzea; eta bigarrena, Lurraldearen Antolakuntzan zein Udal Plangintzetan lurren antolaketarako irizpide orokorrak zehaztea, jakinda, irizpide hauek baldintza izango direla lurzoru ez urbanizagarrien erabilera eta bertan egiteko ekintzak erregulatzeko orduan.

Kategoria hauek zehaztu dira:

- Babes berezia.
- Ingurumenaren hobekuntza
- Mendi larreak

- Lurrazaleko uren babesa.
- Nekazaritza eta Abeltzaintza; eta landazabala.
- Basoa

4.1.1 BABES BEREZIKO EREMUAK

LAAk kategoria honen barruan sartzen ditu egoera onean dauden baso autoktonoak, itsasadar eta estuarioak, egoera oneko ibaiak, hondartzak, barruko hezeguneak, kostaldeko itsaslabarrak eta goi aldeetako eremuak edo landaretza berezidunak; eta oro har, ekologiaren, kulturaren zein naturaren ikuspuntuen arabera baliotsuak diren elementu guztiak.

Lurralde Planak eremu batzuk markatzen ditu babes berezia behar dutenak. Izan ere, badira habitat batzuk mantentzea merezi dutenak dauden daudenean. Honek ahalbidetuko luke gertatzen ari den aniztasun biologikoaren galtzeari eustea. Baita ere lagunduko luke animalia eta landaretza desberdinen artean, espazioaren zatikatzea dela-eta, gertatzen ari den deskonexioa geldotzea.

Eremu horiek basoko espezieak kontserbatzeko interes handikoak dira. Gainera, naturaren eta paisaiaren ikuspegitik ekosistema hoberenak dira, eta kasu batzuetan, eremu oso delikatuak dituzte arriskuan dauden landaretza eta fauna dutelako.

Eremuak mugatzeko oinarria EAEko Basoen Mapako (2005) informazioa erabili da. Mapa hau Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak egin da. Bertatik atera dira baso naturalak eta baita ere “Mendiz kanpoko basoak” izenez ezagutzen direnak; hots, ibai ertzetan dauden zuhaitz multzoak, hala nola sahastiak, erriberetako basoak eta basorik gabeko ibai ertzetako hostozabal naturalak, nahiko lerrokatuak batzuk; teselen modura tartekatzen direnak gainera.

Babes bereziko eremuen barruan daude lehentasunezko habitatak. Habitat natural hauek desagertzeko zorian daude eta hori ez gertatzeko ardura berezia hartu behar da; habitat hauek mantendu beharrekoak dira, oso eremu txikia hartzen baitute. Gehien-gehienetan baso naturaletan aurkituko ditugu horrelako habitatak.

Babes bereziko eremuen barruan, zabalenak edo hedadura handiena hartzen duten espazioak hauek dira:

- La Calerako pagadi-hariztia, Karantza Haranaren hego-mendebaldean, Ordunteko GKLren ondoan.

- El Encinaleko artadia, Karrantza Haranean, Karrantza ibaiaren ezkerreko ertzean, Riosecotik ibaian behera.
- Luxar mendiko erkameztia, Soduperen (Güeñes) ipar-mendebaldean.
- Galdameseko San Pedroko artadia-baso mistoa.
- Olabarrietako baso mistoa, Sopuertan.
- Koltza mendiko artadia-haritzia, Artzentalesen.
- La Herrerako artadia, Zallan.

Eremu hauetan babestu beharreko basoen inguruan babeserako perimetro bat zehaztuko da. Perimetro horrek hamar (10) metroko babes-tartea uzten du parapetoren lana egiteko; hartara, eragin negatiboetatik edota erabilera kaltegarrietatik babestuta egongo dira, eta gainera, perimetro horrek baldintza egokiak baditu, posible izango da baso edo habitat horiek berreskuratu eta handitzea.

Kategoria honen barruan daude *Zuhaitz Apartekoak*. Zuhaitz hauek dituzten ezaugarri apartak direla-eta (adina, historia, edertasuna, kokagunea, tamaina, e.a.) babes berezia merezi dute.

Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu funtzionalean, Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarean sartuta dagoen Zuhaitz Aparteko bakarra, Artzentalesko Haritza da; maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuak eman zion Zuhaitz Aparteko izendapena. Haritz hau Euskal LPPk Babes Bereziko kategoria emango dio.

Horrez gain, Lurralde Planak Babes Bereziko kategoriaren barruan sartuko ditu, nahiz eta ez egon Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarearen barruan, beste Zuhaitz Aparteko batzuk. Zuhaitz hauen ezaugarriak (adina, historia, edertasuna, kokagunea, tamaina, e.a.) begiratuta, merezi dute eta kategoria honen barruan sartuta egotea.

Hona hemen aukeratu diren zuhaitzen zerrenda. Beraien ezaugarriak Memoria honen I. eranskinean deskribatzen dira, "Babes bereziko kategoria eta zuhaitz bereziaren izendapena har dezaten, Balmaseda-Zalla eremu funtzionalean (Enkarterri) proposatu diren zuhaitzak" izeneko eranskinean:

- Sodupeko (Güeñes) San Bizenteko artea.
- San Estebaneko artea Galdamesen.
- Balmasedako Zuhaitz Lodia
- La Tajadako (Sopuerta) haritza

- Zariketeko (Zalla) San Pedroko haritza
- Txoko Maiteko (Balmaseda) haritza

Ezin da aipatu gabe utzi nola azken urteetan benetan apartak ziren zuhaitz batzuk bota dituztela, eta hala izan ez balitz babes berezia mereziko zutela: jada desagertuta daude Aresti kondearen etxeko lorategian zegoen araukaria, Gordexolako El Molinar auzoan; "rebolla del Concejo" izenaz ezagutzen zen haritz pedunkulatua, Linareseko San Migel elizaren ondoan zegoena; edo Sopuertako Las Balsas aisiagunean zegoen urkia. Honek argi uzten du zein arriskutan dauden zuhaitz hauek eta nola babesa behar duten.

Zuhaitz Aparteko hauei babes neurri hauek emango zaizkie:

- Beraien fruituak ezin dira aprobetxatu, ez eta bere zatiak ere, eta ez bera osorik; aldiz, posible da bere haziak eta propaguloak hartzea baldin eta zientziaren helburuekin bada. Halere, horretarako dagokion administrazioaren baimena beharko da.
- Debekatuta dago hondatzea, kaltetzea, markatzea edota edozein motako objektuentzat euskarri gisa erabiltzea.
- Zuhaitza egoera onean mantentzeko beharrezkoak diren landare-osasunerako tratamenduak, horren kudeaketaren ardura duen Foru Aldundiko organoak egingo ditu; organoak berak zuzenean edota Zuhaitz Apartekoaren jabearekin adostuta.

Babeserako Periferia Eremua bat izango du, hain zuzen, enborretik hiru (3) metrora eginiko perimettoa izango da, eta dagokion babes hori honetan datza:

- Babeserako Periferia Eremuan, hots, lurlean, zein zuhaitzean bertan, debekatuta dago zuhaitzarentzat kaltegarri izan daitekeen edozein ekintza
- Debekatuta dago sua egitea..

4.1.2 INGURUNEAREN HOBETUNTZA ETA BERRESKURAPEN ARLOAK

Kategoria honen barruan bi eremu mota desberdin aurki ditzakegu: **Landaretza autoktonoa berreskuratze** eremuak eta **Eremu Degradatuak berreskuratze**ak.

Landaretza autoktonoa berreskuratze eremuek degradatuta dauden baso naturalek osatzen dituzte; kasu askotan landatutako basoekin nahastuta daude. Kasu honetan, erabileren aldaketak izan dira ekosistema hauek kaltetzearen errudunak.

Eriberako basoak ere kaltetuak eta txikituak izan dira; ez bakarrik herrietan daudenak, urrutirago daudenak ere bai.

Badira bestelako baso autoktono batzuk ere berreskuratu beharrean aurkitzen direnak; izan ere, baso hauetan, basoaren perimetroaren barruan, azkar hazten diren espezieak daude, Monterrey pinuak eta eukaliptoak batik bat; beste batzuetan egoera okerragoa da, espezie hauek baso autoktonoaren barru-barruan baitaude, haritzekin eta pagoekin nahastuta. Egoera hauek asko zailtzen dute baso autoktonoaren berreskuratzea.

Eremu hauetan helburua betiko ekosistemak berreskuratzea da, ahal den neurrian behintzat. Eta horretarako, batetik oraindik irauten duten elementuak babesteko neurriak, eta bestetik, jada gertatu diren kalteak leuntzeko neurriak hartuko dira. Eremu hauek, behin fase behinenak burutu ostean Babes Bereziko kategorian sartuko dira.

Baso autoktonoak Eremu Funtzionalen berezko berreskurapenari ekiteko oso egoera onean daude; gehienak mendi publikoetan daudelako. Hori dela-eta, nahiko erraza da babes-neurriak hartzea, hala nola gunen perimetrikoak markatzea. Horrelako neurriekin beraien berreskuratzearen kontra doan edozein jardura ekiditen da.

Eremu Degradatuak berreskuratzearen kasuan, Eremu Funtzional osoan, tarteka-marteka, ikusi da nola eraldaketa handiak sufritu dituzten gunak dauden; kasu guztietan gizakiaren ekintza izan da eraldaketa horien erruduna. Bereziki aipatu behar dira oso-oso aldatuta dauden eremuak eta lehen zuten itxurarekin zerikusirik ez daukatenak: adibidez, aterakuntzazko erabilerak, bereziki era guztietako harrobiak eta meatzeak. Horrelako lanek eragin handia izan dute artadi kantauriarretan.

Eremu hauei begira helburu nagusia ingurumenaren berreskuratze prozesuak martxan jartzea da, betiere kontuan izanda neurri hauek paisaia ahalik eta inpaktu txikiena izan behar dutela; eta eragingarriak izan behar direla, ahal den neurrian, eremuen egoera ekologikoa lehengora ekartzeko.

4.1.3 MENDI LARREAK

Mendi gailurretan ematen den abeltzaintzarekin du zerikusia; mendiguneetan larreak dauden eremuak dira hauek. Belar motza eta trinkoa nagusitzen da goiera horietan; abereek oso ondo aprobetxatzen dutena, nahiz eta urtaro jakin batzuetan bakarrik posible izan. Artzaintzarekin, eta horrek dakarren guztiarekin, lotura dute goi-eremu hauek; artzainen lanak kulturalki balio handia

dauka eta paisaian ere eragin izugarria du. Era berean, goi-eremu hauen barruan sartu dira larre berriak lortzeko sastrakaz garbitutako larreak.

Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala eta Ingurune Naturaleko Lurralde Plan Sektoriala hartu dira Mendiko Larre hauek mugatzeko. Plan horiek jada Mendiko Larreak eta Harkaitzak mugatuta dituzte.

Kategoria honen helburua artzaintzak era jasangarri batean aurrera egitea da; hau baita goi-eremu horiek babesteko erarik onena eta eraginkorrena. Dena den, kontuan eduki beharko da komeni baino abere gehiago ez mendiratzea, baizik eta larre kopuruaren arabera izatea abereen larreratzea. Gainera, betiko abeltzaintza estentsiboarekin bat ez datozen azpiegiturak eta eraikuntzak ekidingo dira; itxiturak, bordak, uraskak, e.a. bakarrik baimenduko dira.

4.1.4 LUR-AZALEKO UREN BABESA

Ur kontinentalak berebiziko garrantzia dute; naturan ez dago berak besteko babesa merezi duen elementurik. Izan ere, baliabiderik garrantzitsuena da, bai populazioarentzat, bai faunarentzat, eta baita landaretzarentzat ere.

Baliabide hidrikoen eta ziklo hidrologikoen mantentzea eta kalitate ekologikoaren hobekuntza lehentasunezko kontua bihurtu da; ez bakarrik gure eskualdean, baizik eta mundu mailan ere bai.

Uren Zuzendaritzak zein Euskal Herriko Uren Legeak, ekainaren 23ko 2/2006 legeak hain zuzen, lur-azaleko uren babeserako marko bat ezarri dute. Beraz, babestuta daude: lur-azaleko ur kontinentalak, trantsiziozkoak, kostakoak eta lur-azpikoak. Era horretan kutsadura murriztuko dute, erabilera jasangarria sustatuko dute, ingurugiroa babestuko dute, uren ekosistemen egoera hobetuko dute eta uholdeen zein lehorteen eraginak arinduko dituzte.

Horregatik, sistema hidrikoak eta hauei zuzenean lotuta dauden ekosistemak oso kontuan hartu behar dira; babestu behar baitira jasangaitzak diren aldaketak eragingo dituzten erabileretatik eta garapenetatik; ondorioz, hauen hobekuntza edo berreskuratze naturala ekarriko luketen ekimenak baino ez dira onartuko.

Lurrazaleko uren babesaren barruan Eremu Funtzionaleko ibaiak eta errekek daude, eta dagozkien babeserako eremua. Horiez gain, uren handitzeek hartzen dituzten zonak ere babesgunearen barruan daude.

Kategoria honen barruan ondoko bereizketa egingo dugu:

- Ibai ertzen eta erriberen babes eremuak
- Zona hezeen babes eremuak.

Ibai ertzen eta erriberen babes eremuak

Euskal Autonomia Erkidegoaren Kantabriar isuriko ibai ertzen eta erreken Lurralde Plan Sektorialak zehaztutako argibideak jarraituz, Udal Plangintzak adieraziko du ibaien ertzak ez urbanizagarri direla (Landa-eremuko ibai ertzak) eta izendapen honen azpian sartuko ditu: “lur-azaleko uren babeserako lurzoru ez urbanizagarria”. Babes hori mugatzeko ur-ibiliaren ertzetik neurri batzuk zehaztu dira:

- 50 metro urtegiarentzat eta $C > 100$ Km²-ko ibai-arro tarteentzat (III, IV, V eta VI mailako tarteak).
- 30 metro $10 < C \leq 100$ km²-ko ibai-arro tarteentzat (I eta II mailako tarteak).
- 15 metro $1 < C \leq 10$ km²-ko erreka-arroentzat (0 mailako tarteak). Gainontzeko sare hidrografikoak osatzen du.

Memoria honen II. Eranskinean zehazten dira maila horietako bakoitzaren barruan dauden Eremu Funtzionaleko ibai tarteak.

Zona hezeen babes eremuak

Hezegune txikien garrantzia azpimarratzen da baita ere; hauek Eremu Funtzional osoan zehar eta era iraunkorrean agertzen dira, naturaltasun maila txikia edo handiagoarekin.

III. mailako tarteari dagokien hezeguneak dira eta Gune Hezeen Lurralde Plan Partzialean zerrendatuta daude; uztailaren 27an 160/04 dekretuaz behin betiko onartu zena. Gerora egindako modifikazioak ere bilduta daude Zona Hezeen Zerrendan.

Beraien artetik batzuk aukeratu dira; hain justu, duten garrantzia kontuan izanda eta beraien balio ekologikoari erreparatuta, lurraldearen antolaketarako Lurralde Plan Partziala bezalako dokumentu baten barruan sartzeko modukoak direnak, babestuak izan daitezten. Memoria honen III. eranskinean bilduta daude. Bi taldetan banatzen dira zona heze hauek:

- a) Zohikaztegiak: Barrualdeko zona heze naturalak dira, klima atlantiarraren aldaketen arabera moldatzen direnak. Ez dira oso ezagunak, batik bat gure herrialdean ez direlako nabarmenak -cripto-hezeguneak osatzen dituzte askotan-, txikiak izan ohi dira eta landaretza higrofitoaren artean erdi galduta egoten dira. Beraz, eremu txikiak dira eta oso kaltetuak egon ohi dira lorezaintzaren, baratzezaintzaren eta abeltzaintzaren eraginez. LPPk ondoko hauek aukeratu ditu:

- Ordunte mendilerroko zohikaztegiak, Karrantza Haranean.
- Zalamako zohikaztegia, Karrantza Haranean baita ere.

b) Meatzetako urmaelak: Zona Heze artifizialak. Hau da, gizakiaren ustiapen-lanek eraldatuta sortu direnak. Gauza da ustiapena bertan behera utzi denean eremu horiek berez berreskuratzen joan direla, naturalki. Urmael hauek duten balio naturalaz gain, balio kulturala ere badaukate, nabarmena gainera, zeren historiako bista-bistako elementu bat direlako, garai bateko ekonomiaren testigu biziak. Beraien artetik, balio ekologikoari erreparatuta eta babesa eskaini asmoz ondoko hauek aukeratu ditu LPPK:

- Sauco-ko urmaelak, Galdamesen
- La Buena 1eko urmaela, Galdamesen
- Jarralta putzua, Sopuertan
- Vinagre putzua, Galdamesen
- La Pesquera putzua, Galdamesen
- Sorpresa urmaela [DB38], Sopuertan

Espazio hauek guztiak sustatu eta garatu gabeko aukerak eskaintzen dituzte naturarentzat zein zientziarentzat. Eta horregatik, hezeguneentzako eta hauen alboko guneentzako babes-neurriak hartzea beharrezkoa da.

Hezegune hauen babes-eremua berehalako ingurura hedatzen da; kanpoko ertzetik 10 metroko zabalerako banda batek osatzen du; betiere leku bakoitzaren egoeretara moldatuta. Perimetro horietan gertatzen ari diren lurraren erabilerak kontutan hartuko dira .

Honi esker, zohikaztegien eta ur masen multzoen, zein hezeguneen ingurumen-kalitatea hobeto babestea posible izango da. Gainera, hauen berreskurapena erraztuko da eta gertatuko diren edo gerta daitezkeen inpaktu negatiboen aukera murriztu egingo da.

Hala ere, kontuan hartu behar da, Triano Mendien Biotopo Babestuan edo Ordunteko GKLn gerta daitezkeen antolaketa eta kudeaketa planek, espazio hauetan dauden hezeguneentzako proposatzen diren babes neurri minimo hauek alda dezaketela.

Bestalde, kontuan hartu behar da, Zalamako zohikaztegia kotoi-landarearen (*Eriophorum vaginatum*) Kudeaketa-planaren barruan dagoela; espezie honen mantentzeko Interes Berezikoko Eremu bezala. Izan ere, espezie hau “galzorian” baitago, hala dio behintzat Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoak.

4.1.5 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA; ETA LANDAZABALA.

Kategoria honi atxikitzen zaizkion Eremu Funtzionaleko lurrek hurrengo ezaugarriak dituzte: nekazaritzarako aukera eta gaitasun hoberenak; ez dute orain arte aipatutako babes kategoriak; edota baldin badaukate, antolaketa plangintza eta kudeaketa propioak behar dituzte.

Malda gutxiko lurak dira, erraz lantzen diren lurak, eta sarritan ibaietatik gertu dauden lurak dira. Egoera hauek direla-eta, lur hauek izan dira okupazio maila handiena izan dutenak; okupazioa, ez bakarrik mota guztietako produktu atlantiarrena, baizik eta baita populazio guneena eta hauekin lotutako azpiegiturena.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako betiko erabilerak, ohikoak izan direnak, garapen eta hazkuntza berriek zapuz litzateke, zenbait kasuetan erabilera hauek desagertu arte; horregatik, oso garrantzitsua da aldaketa berri hauek ondo baloratu eta mugatzea, eta horien eragina pairatu dezaketen lurak identifikatzea.

Lur hauek mugatzeko Nekazaritza eta Basozaintzaren Lurralde Plan Partziala kontuan hartu da, bertan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabal kategoriak definitzen baitira. Bi azpikategoria bereizten ditu Planak:

- **Estrategi Balio Altuko Nekazaritza eta Basozaintza lurak:** nekazaritzarako gaitasun handiko lurak hertzen ditu; eta baita ere abeltzaintzaren terrenoak. Terreno hauek beraien modernotasuna, errentagarritasuna edo jasangarritasunaren arabera izango dira sektorearentzat estrategikoak.

Zona hauen helburua da lurak nekazaritzarentzat baliagarri izaten jarraitzea, eta horregatik, nekazaritza- eta paisaia-ekosistema mantentzea ziurtatuko duten jarduerak baimenduko dira.

- **Trantsiziozko landa-paisaia:** Produktzioarako gaitasun txikiagoko eremuak dira; aldapatsuagoak direlako, landazabaleko larreak direlako, edota, mosaikoa osatzeko, baso koxkorak direlako.

Eremu hauetan posible da nekazaritzaren erabilera bestelako aprobetxamenduekin osatzea. Nekazaritzaren osagarri izan daiteke, adibidez, basogintza

Eremu Funtzionalean Nekazaritzak, abeltzaintzak eta landazabalek hartzen duten hedadurari begiratuta, ikusten da nola garrantzitsuena Sopuerta harana den; eta neurri txikiagoan garrantzitsuak dira Galdames, Artzentales, Karrantza eta Kadagua haranak.

4.1.6 BASOA

Kategoria honen barruan dauden Eremu Funtzionaleko terrenoek ezaugarri propioak (aldapak, arriskuak, arroen babesak, e.a.) dituzte baso bilakatzeko. Kategoria honen barruan ez daude egungo basoak, behealdeetan eta landetan kokatuta daudenak; zeren landa-gunearen elementuak baitira kasu honetan, eta beraz, konbinagarriak dira beste erabilera batzuekin; nekazaritza eta abeltzaintzarekin adibidez.

Lur hauek mugatzeko Nekazaritza eta Basozaintzaren Lurralde Plan Partziala kontuan hartu da, bertan Basoa eta Baso soila kategoriak definitzen baitira. Aldiz, kanpoan geratzen dira Lurralde Plan Partzial honek Babes Berezikotako kategorian sartzen dituen basoak.

Kategoria honen helburua egungo zuhaitzien hedadura mantentzea eta basoak sustatzeko lehentasunezko neurriak hertzea da. Beste asmo bat basoen sustatzek behar dituen azpiegiturak egitea da. Basoen barruan egiten den artzaintza (baso-artzaintza) onargarria izango da baldin eta ez badu kaltetzen zuhaitzia edota bere berritzea.

4.2 BALDINTZA GAINJARRIAK

Baldintza gainjarriak, izenak berak adierazten duen bezala, Ordenazio kategorien gainetik ipintzen dira; egia esateko ez dute erabilera mugatzen, bai ordea forma, zera da, ez dituzte kategoria horietako jarduerak debekatzen, baizik eta formari begiratzen diete. Kasu bakoitzean gerta daitekeen arrisku eta egoerei erantzungo diete.

Balmaseda-Zallako Lurralde Plan Partzialak gainjartzeko baldintza multzo hauek markatzen ditu:

- Akuiferoen kutsadurarako babes eremua.
- Uholde arriskueterako babes eremua.
- Eremu erosionagarriak.
- Naturgune babestuak.

Lur hauen mugatzea O-2 Ordenazio Planoan agertzen da, "Inguru Fisikoa. Inguru fisikoaren Ordenazioa. Ordenazioaren Oinarrizko Kategoriak."

4.2.1 AKUIFERO KUTSAGARRIEN EREMUAK

Lur azpiko uren kasuari dagokiolarik akuiferoak eta beraiek urak hartzen dituzteneko zonaldeak babesteko asmoa dago. EAEko Akuiferoen Zaurkortasun Mapak mugatuta dauzka akuiferoen zaurkortasun-arriskua altua edo oso altua duten eremuak. Beraz, **Akuiferoen zaurkortasun-eremu** hauen babesa proposatzen da.

Eremu horietan jarduera kutsagarriak ez lekua hartzea proposatzen da, gaitzatsaileak bota ditzaketelako; hala ere, ezinbestean eta behartuta mota honetako jarduerak jarri behar direnean, urentzat kaltegarri izan ez daitezela exijituko da; horretarako bermeak ere bai.

4.2.2 UHOLDE ARRISKUKO BABES EREMUAK

Benetako uholde arriskua duten eremuak dira. Kokaguneagatik, erliebeagatik edo topografia ezaugarriengatik dute arrisku hori. Eremu horiek ibaien ohiko handitzeek hartzen dituzte. Kontua da maiztasuna jakitea; bada, honi guztiari buruz Uholdeen Prebentziorako Plan Integrala mintzatzen da; plan honek zehazten du uholdeen maiztasuna.

Uholdeen eremuak ibaien ohiko handitzeek hartzen dituzten lurak dira; finkatu den errekuarentzia aldia 500 urtekoa da.

Uholdeen arriskuaren aurrean lehenik eta behin hartu beharreko neurria uraren joana libre uztea da, hots, ur-ibiliari edota gainezkabideei oztoporik ez jartzea edo ur-ibilia bera ez ixtea. Neurri horiez gain, gainezka egindako uren ondorioz instalazioetan gerta daitezkeen kalteak murrizten saiatu behar da.

4.2.3 EROSIO-ZONAK

Eremu hauek erosioa pairatzeko arrisku handia dute; normalean ezaugarri litologiko bereziak dituzte eta beraien erliebeak ere posible da erosioari laguntzea. Fenomeno hau hobeto zehazten du EAEko Mapa Geomorfologiko Sintetikoak. Zona hauetan hartu beharreko neurri orokorra bertako zuhaitzak mantentzea da; eta lur soilak badira, zuhaitzak sartzea eta zuhaitziak hedatzea. Hau da erosioari aurre egiteko modurik eraginkorrena.

4.2.4 NATURGUNE BABESTUAK

Eremu hauek legedi propioa daukate. Bada lege orokor bat, Euskal Herriko Natura babesteko 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa. Halaber, Parke Naturalen

eta Babestutako Biotopoen kasuetan, badira beraiei dagozkien Baliabide Naturalen Ordenaziorako Planak (BNOP) zein Erabilera eta Kudeaketarako Plan Gidariak (EKPG). Honek esan nahi du, esku artean darabilgun Lurralde Plan Partzialak egin behar duen gauza bakarra eremu hauek mugatzea dela; naturguneak zedarrituko ditu eta babeserako periferia-zona ere markatuko du babes berezia eremu horietan aplikatzeko, besterik ez. Hau izango da Plan Partzialaren betebeharrak bakarra. Beraz, eremu hauek ez ditu definituko, ez eta erabilerak arautuko; horretarako, BNOPren eta EKPGren edukiei egingo die erreferentzia.

Eremu hauen erabilerek eta bertan egin daitezkeen aktibitateek araudi propioa daukate.

Lurralde Plan honek Naturgune babestuan baitan ondoko hauek sartzen ditu: Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Natura 2000 Sarea.

- a) *Parke Naturalak* zer diren Euskal Herriko Natura Babesteko Legeak esaten du bere 14. artikuluan, alegia, "gizakiaren ustiaketa eta presentziak asko aldatu ez dituen tokiak dira. Ikusmiren edertasunak eta ekosistema izaera erakusgarriak, edota landaredi, fauna nahiz eraketa geomorfologiko apartekoak bereizten ditu. Hala bada, herri-agintaritzaren aldetik lehentasuneko ekintza-bideak behar dituzte, bi helburu bateratu ahal izateko: batetik, natura-baliabideen aprobetxamendu antolatua eta erabilera publikoa; eta bestetik, balio ekologiko, estetiko edo heziketakoak gorde edo berriz oneratzeko."

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalean **Armañoneko Parke Naturala** dago, hala izendatu zuen 176/2006 Dekretuak, irailaren 19koak, Baliabide Naturalen Ordenaziorako Plana aurkeztu eta behin betiko onartu ostean. 3.519 hektarea ditu parkeak; 2.971 hektarea parkeak berak hartzen ditu; eta gainontzeko 547 hektarea gehiago babeserako periferia-zonari dagozkio. Parkearen eremua, ia erabat, jabetza publikokoa da, Erabilera Publikoko Mendiak dira hain zuzen; hauen artean daude La Llorosa, Sopena eta Remendon; Periferia-zonaren tarte handiena, aldiz, jabetza probatukoa da.

Parkearen azalera, bat dator ia-ia erabat Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL) izendapena -izendapen hau Europako Natura 2000 Sareak ematen du-daraman gunearekin; GKL gune honek 2.966 hektarea baititu, ia parkeak beste. Parke Natural hau bi udalerritan zehar hedatzen da: Karrantza Harana eta Trucios-Turtzioz.

- b) *Biotopo Babestuak* ingurune naturaleko eremu bereziak dira eta orokorrean bitxiak, apartekoak, ederrak, arraroak, zaurkorak, e.a. direla esan ohi da. Beraien baitan ekosistemak aurki daitezke, elkartek, elementu

biologikoak, interes geologikodun eremuak, e.a. eta horregatik babestu beharrekoak dira. Legeari bistarazo bat botata bi lege aipatuko ditugu: 16/1994 Legea, oinarrizko edukiak dituen; eta martxoaren 27ko 4/1989 Legea, Naturguneak eta Basa Flora eta Fauna kontserbatzeari buruzkoak. Biotopo Babestuak espazio naturalak dira, eta izen hauek har ditzakete: natura-erreserbak, natura-monumentuak eta babestutako paisaiak.

Lurralde Plan Partzial honen eraginpean Triano Mendiak eremua dago, Galdamesen. Oraindik ez du Biotopo Babestua izendapena lortu baina jada administrazioan da tramitazio bidean. Izan ere, Lurralde-antolamendu Sailburuak hasi zuen 2006ko ekainaren 13ko Aginduekin, 2011ko Maiatzaren 18ko Aginduak aldatua, Biotopoko eremuaren mugaketa aldatzen duenaren bitartez.

LPPren kartografian egungo behin-behineko mugak ikusi ahal dira.

BNOPa aprobatzen ez den bitartean, LPPk ordenatzen du behin-behinean Biotopoaren eremua; horretarako, gainontzeko lurzoru ez urbanizagarrientzat erabiltzen diren irizpideak jarraitzen ditu.

BNOPa indarrean sartzen den unetik aurrera, LPPk probisionalki ezarritako ordenazioa bertan behera geratuko da. Hortik aurrera BNOParen dokumentuak ezarriko ditu Biotopoaren mugak, eta eremuaren ordenazioa ere bera gain hartuko du.

- c) Natura 2000 Sarea Europako ekologia-sare bat da. Bere oinarria 43/92 EB Direktiban dago, maiatzaren 21ekoa, Habitat Naturalak eta Basa Flora eta Fauna kontserbatzeari buruzkoa. Sare horren barruan Direktiba honen baitan daudenaz aparte, beste bi eremu ere badaude: Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE); eta 79/409 EB Direktibaren -basa-hegaztiak eta beraien habitatak zaintzeari buruzkoa- barruan klasifikatuta dauden eremuak, hain zuzen Hegaztien Babes Bereziko Aldeak (HBBA).

LPPk bi eremu ditu izendatuta Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL) bezala gero Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izango direnak; eta era horretan, Natura 2000 Sarean sartuko dira:

- **Armañoneko GKL** (parke naturalarekin ia bat dena).
- **Ordunteko GKL**: 3.869 Ha-ko azalera dauka. Karrantza Haranaren hegoaldean dago baina Artzentalesko udalerriaren zati txiki bat ere hartzen du. Ordunte Mendien ipar isuriko hegalean dago, Bizkaian, hego-ekialdetik ipar-ekialdera begira.

Ordenazio planik ez duen bitartean, LPPk ordenatzen du behin-behinean Biotopo honen eremua; horretarako, gainontzeko lurzoru ez urbanizagarrientzat erabiltzen diren irizpideak jarraitzen ditu.

BNOPa indarrean sartzen den unetik aurrera, LPPk probisionalki ezarritako ordenazioa bertan behera geratuko da. Hortik aurrera BNOParen dokumentuak ezarriko ditu Biotopoaren mugak, eta eremuaren ordenazioa ere bera gain hartuko du.

4.3 INGURUNE NATURALEKO ELEMENTU NABARMENAK

Eremu eta toki batzuek naturaren ezaugarri oso nabarmenak dituzte eta hori ez du LPPk ahaztu nahi. Eremu eta toki nabarmen horiek azterketa eta balorazio sakon bat eskatzen dute. Era berean, eremu hauen mugak garapenaren plangintzak berak zehaztuko ditu; beraien babeserako ingurua eta beraien behin betiko ordenazioa zehazten dituen bezala. Ingurune Naturaleko Osagai Nabarmenenak O-1 Ordenazio-planoan daude, "Ingurune Fisikoa. Kontserbatu eta hobetu beharreko Elementu nabarmenak" atalean.

4.3.1 KORRIDORE EKOLOGIKOAK

Korridoreak dira, normalean zuzen-zuzenak, eta interes ekologikokoa duten zonak lotzen eta elkarrekin komunikatzen dituzte. Batik bat balio dute landare eta animaliak batetik bestera migratu ahal izateko eta ondorioz geneen trukaketa gertatu ahal izateko; bestela, korridore hauek gabe, oso aislatuta egongo lirateke. Espazio berriak ere kolonizatu ahal izango dituzte. Guzti honekin isolamendua eta horrek dakarren espezieen desagertzea ekiditen da.

Faunaren dibertsitatea egoteko landaretza natural zabalak egotea derrigorrezkoa da; baina baita ere beharrezkoa da elkarren arteko komunikazioa ahalbidetzea. Korridoreak, beraz, bakanduta egon daitezkeen eremuak elkartzen ditu.

Zona hauek ordenatzerakoan lehenik eta behin egun dauden oztopoak detektatu eta klasifikatu egin behar dira. Hortik hasita korridoreak irekitzeko proposamenak egiten dira; gero, klasifikatutako zonetan baimendutako erabilerak erregulatzen dira. Hau guztia eta gero lortu daiteke korridoreak bere funtzioa betetzea.

Baina korridore hauen ordenazioa, planifikazioa zein kudeaketa onak eta egokiak izateko kontuan hartuko dira EAEko Korridore Ekologikoen sareentzat ezarrita dauden orientabideak.

Kasu honetan ere espazio hauek mugatuta daude. Hori egiteko erabili da EAEko Korridore Ekologikoen sarearen kartografia erabili da. Esan behar da, Kartografia hau Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritzak egin duela.

4.3.2 INTERES GEOLOGIKOKO ETA GEOMORFOLOGIKOKO EREMUAK

Eremu Funtzionalak duen balio natural handienetako bat bere geologia-ondarea da. Honen adibide esanguratsuena dauden multzo karstiko garrantzitsuak dira. herri dezentetan aurki daitezke; Galdamesen, Trucios-Turtziozen, Karrantza Haranean eta Lanestosan hain justu.

Interes geologiko oso handia duten gunek daude. Bada internazionalki ezaguna eta oso garrantzitsua den toki bat: Karlistaren Torca. Horrez gain, nazio-garrantzia duen beste gune bat ere bada: Pozalaguako haitzuloa.

Eremu eta gune geologiko garrantzitsu horietako gehienak babestutako naturguneetan daude, Armañoneko Parke Naturalean adibidez; edota etorkizuneko Galdameseko Mendien Biotopo Babestuan.

Hala ere, babestutako esparru hauen kanpoaldean beste **Interes Geologikoko eremuak daude**, batzuk haietatik oso gertu gainera; kasu askotan haien begibistako jarraipena dira, edota jarraipena agerikoa ez bada, aurrekoen lur azpiko jarraipena dira. Beraz, hala bada, babestuta dauden balio bera dute nahiz eta, izatez, babestu gabe egon.

Bestalde, badaude **Interes Geologikoko Puntu Isolatuak**, Interes Geologikoko eremuekin inolako zerikusirik ez duten arren zientifikoki eta geologikoki garrantzitsuak direnak. Hala izanda mereziko lukete ordenazio bereziren bat.

Harri-alderdi hauetan landare eta animalia errupikolak daude, hots, harkaitzetan hazten direnak. Hauetako batzuk galbidean daudela, hala nola hegazti harrapari batzuk eta kiropteroak. Espezie hauen populazioaren kontserbazioa lotuta dago paisaia karstikoek eskaintzen dituzten ekosistemekin.

Ondorioz, behar-beharrezkoa da ondare aberats hau babestea eta nabarmentzea. Babes aktiboa eskaini behar zaio jendeak ezagutu dezan eta erabilera didaktikoak zein zientifikoak edukitzeko. Beharrezkoa da gune hauek hondatu edo kaltetuko lituzketen jarduerak ekiditea. Gune hauen ezaugarriek bere horretan iraun behar dute.

Eremu karstiko hauetan bertako urak kutsatuko lituzketen jarduerak guztiz debekatu nahi dira. Baina hori posible ez balitz, balizko fabrika berriak lur azpiko urak ez kutsatzeko instalazio egokiak eduki beharko ditu derrigorrez. Hori dela eta, dena delako fabrika-proiektuek dagokion Administrazioaren txostena eduki beharko dute.

Era berean Udan Plangintzek eremu eta interesgune hauek kontuan eduki beharko dituzte. Beraiek baloratuko dute lurraldearen antolakuntzaren arabera

zein erabilerak hondatu dezaketen gune baliotsu hauek, edota zein erabilera izan daitezkeen konpatibleak.

Interes geologikoa duten guneen inbentarioa oinarritzat hartuta (Eusko Jaurlaritza, 1991), "Interes geologikoa duten arloak" (Natura-ingurune osagai nabarmenak) atalaren barruan sartutako gune karstikoez gain, ondo aztertu behar diren barrunbe ugari daude. Ereku funtzionalaren geoaniztasuna oso garrantzitsua da, ezinbestez zaindu eta gorde behar da, eta azterketa zehatza egin behar da, gune karstiko horietan babes eta antolamenduko ingurune bat zedarritzeko eta finkatzeko.

Illo horretan, LPPk proposamena egin du Trucios-Turtziozko Interpretazioko Zentroa osatzeko, alderdi txiki batean espeleologiari buruzko ikerketa-zentroa eginez. Zentro hori zientifikoa izango da gehienbat, eta endokarst-a aztertzeaz arduratuko da, eremu funtzionalean dauden gune karstikoen ikerketa sustatuko du, eta gune horiek turismo- eta hezkuntza-aldeak duten balioa indartuko du, Pozalaguako leize-zulotik gertu baitaude. Ikasgela didaktiko txiki bat egongo da ikasleei eta bisitariei zuzenduta, eta, horren bidez, Enkarterriko geoaniztasuna hobeto zaindu eta babestuko da.

Behin-behinean, hori garatuko duen plangintza idatzi bitartean, LPPk, Enkarterriko gune karstikoak babeste aldera, grafiatutako interes geologiko eta geomorfologikoko gune guztiak kautelaz parekatuko ditu "akuiferoen kutsaduraren aurrean kalteberak diren guneak" gainjarritako baldintzarekin.

4.3.3 PAISAIA BALIOTSUKO NEKAZARITZA-SISTEMAK

Gizakiaren ekintzek ingurune fisikoan eragina dutenez oso garrantzitsua da Biodibertsitatearen eta paisaien babesa eta kontserbazioa indartzea. Hala adierazten dute behintzat Bioaniztasunaren Munduko Hitzarmenak, Dibertsitate Biologikoa Kontserbatzeko Europa osoko Estrategiak, Paisaiaren Europako Hitzarmenak, Dibertsitate Biologikoa Kontserbatzeko Espainiako Estrategiak eta Garapen Jasangarriko Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2006) berak.

Sarritan kontuan hartzen ez bada ere, Europan babestuta dagoen faunaren %50aren iraupena, betiko nekazaritza eta abeltzaintza kontserbatzea eta mantentzearekin oso lotuta dago; alegia, eta gurean, landa-atlantiar edo kantabiarretako ustiapenak zaintzearekin. Ereku hauen zainketaren esku dago espezie asko bizirik jarraitzea eta bertako dibertsitate biologikoaren irautea; eremu hauei "balio natural handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-sistema" ("High Nature Value Farmland") deitzen zaie.

Ereku erdi-natural hauek, ezaugarriez, ingurune desberdin asko eskaintzen dituzte; desberdinak baina osagarriak aldi berean: belardiak, larreak eta

laborantza-soro atlantiarrak. Eremu hauek itxituratuta egon ohi dira, zuhaixkez eta/edo zuhaitzez egindako ezponda eta heskaien bidez. Beraien inguruan, tarteka, haritz pedunkulatuez osatutako basoak egon ohi dira, edota baso mistoa; beste batzuetan landatutako baso txikiak ere aurki daitezke. Eremu hauek hainbeste elementu hain desberdinak dituztelako, Europa Atlantiarrean estimu handia diote eraldatutako paisaia estilo honi. Biodibertsitate handiko eremuak dira, fauna eta basa-florari dagokionez; baina baita arraza eta barietate autoktonoen arloan.

Hala ere, paisaia erdi-natural hau eta bere baitan dituen habitatek zailtasunak dituzte beraien kalitateari eta balioari eusteko. Paisaia honen, hots, landa atlantiarraren gutxitzea eta sinpletzea gertatzen ari da; herriguneetatik gertuko lekuetako landazabalak desagertzen ari dira. Arrazoiak bi dira: herri-okupazio gero eta handiagoa eta basogintzaren landaketak. Baina hau gertatu aurretik, lehenengo pauso bezala, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera estentsiboa desagertzea da. Behin jarduera-eremu hauek abandonatuta Eremu Funtzionalen ez da geratzen basa-fauna eta landaretzarentzat habitat aproposik.

Horrez gain, orokorrean ez dira baloratu behar den bezala paisaia hauek eta beraien aportazioak; aportazio sozial, ekonomiko, estetiko eta ingurumenaren arlokoak. Erabilera tradizionalak eraldatu duten paisaia hauek Euskal Herriko landa-eremuaren garapen jasangarriarentzat funtsezkoak izan direla ez da ikusten. Paisaia honek, Euskal Herrian garai batean orokorra zenak, gaur egun apartekoa eta bitxia dirudi, jada ia galdua dagoelako.

Oso azpimarragarriak dira, ingurumenaren kalitate handikoak direlako eta eremu zabalak direlako, Karrantza Haraneko eta Artzentalesko landazabalak. Bi herrien larreak batuta, heskai eta guzti, etenik gabeko hedadura izugarria osatzen dute, EAEko handiena (2005eko basoen inbentarioa) hain zuzen. Bada, herri hauetako eremu batzuk, lehen aipatutako baldintzak betetzen dituztenak behintzat, babestea proposatzen da.

Eremu Funtzionalaren Iparraldeko eta hegoaldeko mendien artean, korridore ekologikoak balira bezala, lotura-lana egiten dute landa atlantiarrek. Korridore-lana betetzen duten horrelakoren bat aipatzearen, Ordunteko GKLren eta Armañoneko Parke Naturalaren- GKLren tarteko eremua aipatuko genuke; Karrantzako udalerriaren barruan dago.

Eremu hauen babesa ere operazio estrategikoen bidez gauzatzen da; kasu honetan operazio estrategikoa QE-10en bidez. "Nekazaritza-sistemaren paisaiak".

4.3.4 ARRISKUAN DAUDEN FAUNA ETA FLORAREN BABES-EREMUAK

Arriskuan dauden basa- eta itsas- fauna eta flora espezieen Euskal Katalogoa Eusko Jaurlaritzaren 67/1996 Dekretuak, uztailaren 9koak, sortu zuen. Dekretu honen atzean ekainaren 30eko 16/1994 Legea dago, Euskal Herriko Naturaren kontserbazioari buruzkoa; eta bereziki Lege honen 47. artikulua. Aipatutako Katalogoan espezieak, azpiespezieak edota babes berezia behar duten fauna- eta flora-populazioak agertzen dira. Gaur egun faunaren 146 taxon eta floraren 136 ditu. Arrisku ere mailakatzen da eta lau arrisku-kategoria zehaztu ditu:

- a) **Galtzeko arriskuan:** Katetoria honetan dauden espezieak, azpiespezieak zein fauna- eta flora-populazioak benetan galbidean daude, hau da, egungo bere bizi-baldintzak aldatzen ez badira, biziraupena ia ezinezkoa izango dute.
- b) **Zaurgarriak:** Pairatzen dituzten eragile kaltegarriek bere horretan jarraitzen badute, edota beraien habitata ez badira berreskuratzen, goiko kategoriara pasatzeko arriskua duten taxonak dira.
- c) **Bitxiak:** Katetoria honetan daude populazio txikiko espezie eta azpiespezie batzuk; geografia-gune txikietan edo sakabanatuetan aurki daitezke eremu handiago batean. Gaur egun ez daude galtzeko arriskuan, ez eta zaurgarrien kategorian ere.
- d) **Interes berezikoak:** Katetoria honetan sartzen dira arreta berezia merezi duten taxonak; interesgarriak direlako zientziarentzat, ekologiarentzat, kulturaren ikuspegitik, edota benetan apartak direlako. Baina, betiere, aurreko hiru kategorietan sartuta ez dauden espezieak izan behar dira.

Aipatutako 16/1994 Legearen 50. artikulua jarraikiz, espezieak, azpiespezieak edo fauna- eta flora-populazioak Euskal Katalogoan sartzeak, ondoko debeku orokorrak dakartza:

- a) Animalien kasuan, baimenik gabe hiltzea, harrapatzea, jazartzea edo molestatzea; gauza bera larbak, kumeak edo arrautzak badira ere; era berean, ezingo da animalien habitata hondatu, eta bereziki habiak, animalia-zuloak, ugaltze-eremuak, negu-zuloak, atsedenerako edo bazkarako lekuak.
- b) Landareen kasuan, ezingo da baimenik gabe landarerik hondatu, moztu, ebaki edo ipurditik atera, edota beraien habitata hondatu.
- c) Animalia zein landareen kasuan, eta “galtzeko arriskuan” edo “zaurgarriak” kategorien barruan daudenean, debekatuta egongo da espezie horiek edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, erakustea, bizirik zein hilda inportatu edo esportatzea; gauza bera landareen zatiei buruz, debekatuta egongo da haziak, polena edo esporak hartzea. Hau guztia, baldin eta arauzko baimenik ez bada.

Gainera, gestio-plana aprobatuta duten espezieen interes bereziko eremuetan (bisoi europarra eta *eriophorum vaginatum*), garapenaren plangintzak aipatutako plan hauen dispozizioak errespetatu beharko ditu.

Fauna eta flora espezieen babes eremuak zehazteko ikerketa bat hartu da erreferentzi bezala; bere jatorrizko izena *Cartografiado a escala 1:5.000 de las poblaciones vizcainas de plantas incluidas en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas* da, eta Sestaoko Natur Zientzien Elkarteko Botanika Departamentuak burutu du; ikerketa-lan honek Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren diru-laguntza izan du; bestalde, bi fasetan eraman zen aurrera, 2005 eta 2006 urteen artean. Hirugarren fase bat ere aurreikusita dago; honetan, babes eremu gehiago zehaztuko dira, baina oraindik ez da gauzatu.

Arriskuan dagoen fauna espezieen babes eremuak mugatzea zaila da. Jakina, animaliak mugitu egiten baitira eta normalean ez dira eremu bakar batean geratzen; honek, beraz, eremua zehaztea zailtzen du. Dena dela ere, mendi inguruan zein ibai inguruan ibili ohi dira eta gune hauek jada hartu dute Lurralde Plan honen babesa.

Eremu Funtzionalean arriskuan dauden fauna eta flora espezieak Memoria honen IV. Eranskinean daude zerrendatuta.

4.4 LANDA-GUNEAK

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeari jarraiki, landa-gune bat sortzen da sei eta hogeita bost arteko baserri elkartzen direnean denok biltzen dituen eta izaera ematen dien gune publiko baten inguruan. Ildo horretan, lege hori garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuarekin bat etorrita, baldintza hauek guztiak bete eta metatzen dituen eraikina da baserria:

1. Bakartuta dagoen erakin bat da, eta gehienbat etxebizitza gisa erabiltzen da.
2. Gutxienez etxebizitza bat du, Jabetzaren Erregistroan xedatutakoaren arabera.
3. 1950eko urtarrilaren 1ekoa baino lehenagokoa den lehen erabilerako lizentzia eduki beharko da, edo, bestela, bizitegi gisa eraginkortasunez erabiliko dela dudarik gabe frogatzen duen agiria.
4. Udalak hirigintzako plangintzan edo dagokion udal-ordenantzan finkatzen dituen bestelako ezaugarriak bete beharko dira.

Hortaz, landa-guneek indarrean dagoen legeriak horri buruz finkatzen duena beteko dute; hau da, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Euskal Autonomia

Erkidegoko 2/2006 Legea eta 105/2008 Dekretua beteko dituzte. Hori gorabehera, LPPko araudian gai honi buruz finkatzen diren irizpide orokorrak ere bete beharko dituzte.

Hogeita bost baserri baino gehiago dituzten baina hiri-lurzorukoak ez diren landa-guneek murriztuta izango dute hazkundea. Izan ere, plangintzak ezin du etxebizitza berririk sortu lurzoru urbanizaezina duten landa-guneetan.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da 2/2006 Legea, lege horrek finkatzen baititu landa-guneak halakotzat jotzeko eta hiri-lurzoru bilakatzeko bete beharreko baldintzak. Ildo horretan, bereziki azpimarratu behar dugu premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 5. artikulua, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duena, bi egoera hauek hartzen baititu aintzat:

“1.- Landa-gunean dauden lurzoru urbanizaezinak, 5/1998 Legeak ezarritakoari jarraiki erabateko garapena izan badute, sailkapen horrexen babesean jarraitu ahal izango dute, betiere, garapen berririk egiten ez bada haietan. Hala izatekotan, berri sailkatu beharko dira, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri bezala, hain zuzen, Lurzoru eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeari jarraiki dagokion eran, eta lurraldeko plangintzan zehaztutako antolakuntzako eredia betez.

2.- Landa-guneetako lurzoru urbanizaezinak, 5/1998 Legeak ezarritakoari jarraiki erabateko garapena izan ez badute, lurzoruaren sailkapen horrexen babesean baizik ezin izango dute beren garapena bete, betiere, Lurzoru eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 29. artikuluan xedatutakoa betez.”

Udal-plangintzan gauzatuko da landa-guneak zedarritzeko lana, zehazki, haren berrikuspenean. Ildo horretan, agiri honetan finkatzen diren irizpide orokorrak beteko dira. Hortaz, bada, indarrean dagoen plangintzan halakotzat jasota dauden landa-guneek indarreko legeriak edota LPP honek finkatzen dituzten baldintzak betetzen ez badituzte, sailkapenetik kenduko dira.

Landa-gune bakoitzaren zedarritze-lana berrikusi beharko da, erakina barreiatuta gera ez dadin. Horrez gain, proposatuta dagoen baserrien multzoari dagokion horretara egokituko da, eta, hortaz, multzo horren azalera murriztuko da, eta LPPk ingurune hurbilerako finkatzen dituen irizpideak beteko dira.

LPPk irizpide orokor hauek ezartzen ditu landa-guneak berrikusteko:

1. Landa-guneak zedarritzean eta arautzean, neurriak bete beharko dira gunen horien izaera historikoa eta nekazaritza-girokoa babesteko eta zaintzeko.
2. 5/1998 Legeari jarraiki garatu diren landa-guneei dagokienez, 25 baserri baino gehiago badago, behar bezala egiaztatu beharko da ea horien

zedarritze-lanak landa-gune gisa sailkatzeko bete behar diren baldintzak betetzen dituen, hau da, ea etxebizitzak gunee publiko baten inguruan bilduta dauden, edo, aitzitik, ea barreiatutako eraikinen multzo bat ote den. Hala izatekotan, zedarritze-lana murriztu beharko da, eta baldintza horiek betetzearen ondoriozkoa ezarri.

3. Landa-guneetan saihestu beharko da gaur egun -neurri handiagoan edo txikiagoan- etxebizitzei loturik dauden nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak bota daitezen, eta erabilera horiek iraungo dutela bermatu beharko da.
4. Landa-guneek lehentasuna eman beharko diote lehen sektoreko jarduerari, eta bizitegirako baizik ez diren eraikinen eraikuntza saihestu beharko dute.
5. Eraikin berriaren tipologia dagoen eraikinaren antzekoa izango da, eta landa-guneak dituen berezko ezaugarriak zaindu beharko dira.
6. Indarrean dagoen plangintzan, lurra zatitzeko eta eraikitzeko baldintzen araudi zorrotza finkatuko da, kontraesanak edo araudi anbiguoak baliatuta, hiri-izaerako eraikinik eta lotifikaziorik egon ez dadin, eta, horrez gain, lurzorua kontsumoa ahalik eta gehien murriztu ahal izateko.
7. Lursailaren dimentsioak ahalik eta gehien doituko dira, gehieneko etxebizitza-kopuruari eusteko eta landa-gune gisa sailkatuta dagoen lurra murrizteko.

Plangintza Orokorrak edo Plan Bereziak egiten duen antolamenduak landa-guneak berritzean, LPPk informazio hau ematea gomendatzen du:

1. Landa-gunearen kokapena, eta bertako egoera.
2. Irisgarritasuna: gunera iristeko modua, eta erabilitako ibilgailuentzako bidearen egoera.
3. Morfologia: landa-gunearen deskribapen laburra, jatorrizko forma eta igarotako hamarkadetan izan duen bilakaera azalduta.
4. Gunearen eta bertan dauden eraikinik garrantzitsuenen antzintasuna.
5. Eraikinaren egoera: eraikinaren egoera azalduko da, 105/2008 Dekretuak finkatutako parametroak betez, eta alderdi hauek hartuko dira aintzat: eraikinen erabilera nagusia, haien kontserbazio-egoera, tipologia nagusia eta aurreikusita dauden eraberritzeko jarduerak.

6. Hirigintzako datuak, hala nola, gunearen hedadura edo azalera, lursailen kopurua, dauden eta aurreikusi diren eraikinen kopurua, plangintzan landa-guneari begira jasota dauden zehaztapenak, etab.
7. Hiri-zerbitzuak. Sare hauen ezaugarriak eta egoera azalduko da: ur-hornidura, saneamendua edo arazteko baliatzen den modua, hiri-hondakin solidoak eta zaborraren gaikako bilketa, guneko argiteria publikoa, gas naturala, gas butanoa edo banakako gasolioko biltegiak, telefonia finkoa edota telekomunikazioak, eta telefonia mugikorra, etab.
8. Kasu bakoitzean dauden arazoak zehaztuko dira, eta aurreikusita edota hasita dauden jarduerak ere bai -halakorik badago-.
9. Hiri-ekipamenduak eta -altzariak: gunean dauden ekipamenduen ezaugarriak eta egoera zehaztuko dira, bai eta hirigintza eta hiri-altzarien egoera ere. Dauden arazoak zehaztuko dira, eta aurreikusita edota hasita dauden jarduerak ere bai -halakorik badago-.
10. Nagusi den jarduera ekonomikoa. Gunean nagusi den jarduera ekonomikoa zehaztuko da (nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa, turistikoa, bizitegikoa, mistoa, etab.)
11. Ingurumena eta paisaia. Gunearen ingurumen- eta paisaia-arloko balioak zehaztuko dira; eta babes-motaren bat edo babes bereziren bat duten ingurune hurbileko lurzoru guztiak zehaztuko dira, bai eta Lurralde Plan Partzial honetan finkatutako gainjarritako baldintzak betetzen dituzten horiek ere.

5 GARRAIO AZPIEGITURAK

Mugikortasun jasangarriaren gaia sakonki aztertuta dago jada, hori baita Enkarterriko LPPren funtsezkoenetako aspektu bat. Dokumentu honetan bildu dira autoaren erabilera murriztuko luketen aspektuak, esaterako, Enkarterri zeharkatzen duen trenbide azpiegitura. Hala ere, dokumentuan egiaztatzen da baita ere nola autoaren erabilera gora doan joera jasangarrien aurka; datorren mugikortasun ereduak ez dirudi batere jasangarria:

- Eremu Funtzionalaren orografia konplexua da eta joan-etorriak zailtzen ditu eremuko gunek askotan.
- Trenbide azpiegitura badagoen arren, tren-zerbitzuen maiztasun txikiak batez ere, jendeak trena ez hartzea eragiten du. Errepidezko garraio publikoari buruz ia-ia beste hainbeste; autobus-zerbitzuek maiztasun txikia dute, eta gainera, askotan autobusen ibilbideak izugarri luzeak izaten dira. Hori gutxi balitz, sarritan, Eremu Funtzionaleko zona apartatuetara iristeko gerta daiteke autobus-linea bat baino gehiago hartu behar izatea.
- Metropolitasuna, fenomeno bezala, gora egiten ari da, eta horrek suposatzen du herrien arteko joan-etorriak pendularrak direla, zera da, nahiko luzeak; desplazamendu hauek gehienak Bilbo Metropoliara eta Ezkerralderakoak dira, bi eskualde hauek baitira Enkarterriko populazio aktiboaren zati bat hartzen dutenak; eta baita ere Enkarterriren merkatu nagusia.

Hala ere, Enkarterriko Eremu Funtzionalean dagoen populazio dentsitate eskasa eta eremuaren ezaugarri fisikoei erreparatuta, argi ulertzen da nola garraio eta komunikabide azpiegiturak ia ez diren garatu. Eremuan bertan kokatutako herrien arteko lotura zailagoa egiten zuen, eta baita ere eremuko herrien eta Bilbo Metropoliaren zein Ezkerraldearen artekoa ere. Egia da, bestalde,

a) Sare nagusia: Izena berak adierazten du; lurraldea egituratzen duten errepideek osatzen dute; eremuaren kanpotik bertaratzeko errepide-ardatz nagusiak dira. Beste era batera esateko, lurraldeko ateak dira. Errepide hauetaz ari gara:

- BI-630: Kadagua harana eta Karrantza Harana lotzen ditu; era berean, Karrantza Kantabriarako bidean jartzen du, Ason haranerantz.
- BI-2701: Muskiz eta Abanto-Zierbena alderdia Malabrigorekin, Sopuertan zehar, lotzen du.
- Kadaguako korridorea eta bere loturak: Eremua Bilbo Metropoliarekin eta Mena haranarekin lotzen du. Hau da eremuko sarbiderik garrantzitsuenak; gainera, eremuko herrigune nagusienak elkarrekin lotzen dituen errepidea da.

- N-629: errepide honek Burgoseko Las Merindades eskualdea lotzen du, Lanestosan barna, Ason haranarekin.
- b) Sare banatzailea: eskualdeko errepideek osatzen dute; Eremu Funtzionaleko zonalde desberdinak elkarrekin lotzen ditu. Eskualdeko herriguneak inguruko herri nagusiak direnekin lotzen ditu.
- c) Sare kapilarra: Gainontzeko errepideak dira. Bere betebeharra lurraldeko leku guztietara iristea da, edota aurreko errepideentzat alternatiba izatea.

Lotura- errepide-sistemako errepide sare hau hobetzeko ondoko lanak proposatu dira:

- Trazadura hobetzea: honen barruan sartzen dira plataformaren handitzea, bihurguneak eta peralteak zuzentzea eta, oro har, trafikoa errazago ibiltzeko baliagarriak diren lanak egingo dira. Zerbitzu hobea eskaini nahi da zentzu honetan egoera txarrean dauden errepide tartetean; batez ere trafiko handia duten eta eragozpenak sortzen dituzten tartetean.
- Saihesbideak: Herriguneak zeharkatzen dituzten errepideen ordez saihesbideak egitea. Horrela trafikoa herriguneetatik aterako da. Dena dela, errepide hauek “herri barruko kaleak” izango dira, eta ez bakarrik errepideen trazadurari erreparatuta.
- Herriko kale bihurtzea: Saihesbidea daukaten herrietan antzinako zeharbideak herriko kale bihurtzea eta beste funtzio bat ematea herriaren barruan; Horretarako zirkulazioaren abiadura murriztuko da eta herri barruko ezaugarriak emango zaizkio (semaforoak, oinezkoen pasabideak, espaloiak, aparkalekuak, e.a.)
- Lotuneen hobetzea: Lotune korapilatsuenak eta arriskutsuenak hobetzea; betiere, beraien trafikoaren ezaugarriak eta funtzionaltasuna kontuan izanda.

Proposamen orokor hauen xehetasunak:

- Malabrigoko errepide-lotunea: BI-636 eta BI-630 lotuko dira La Herrera auzunearen parean; horretarako saihesbide bat egingo da. Lan honen helburuak joan-etorrien denbora murriztea eta Balmasedako herrigunetik pasa behar ez izatea dira. Funtsezkoa da azpiegitura hau egitea errepide nagusietatik Malabrigo mendatera iristeko eta, behin hori lortuta, eremuko mendebaldea -Lanestosa, Karrantza Harana, Trucios-Turtzioz eta Artzentales- ondo konektatua geratzeko; honi esker askotan aipatutako zonalde honen desoreka konpontzeko bidean jarriko litzateke. Gainera, lotura honek BI-2701errepidea eskuragarriago uzten du eta, beraz, Sopuerta y Muskiz gertuago lirateke.

Errepide sarea hobetzeko proposatutako lanen artean garrantzi handiena duena da. AE-1 akzio egituratzailearekin gauzatzen da. “Malabrigoko errepide-lotunea”.

- BI-2701 errepidea sustatzea garrantzitsua da. Horretarako, trazadura hobetzeko lanak egitea beharrezkoa da. Izan ere, hauxe baita eremurako bigarren sarbidea edota “iparraldeko sarrera”, Ezkerraldeatik sartzen dena alegia. Errepide hau hobetuta asko irabaziko lukete Sopuertak, Galdamesek eta Artzentalesek. AE-2 akzio egituratzaileak gauzatzen du. “Iparraldeko ardatza”.
- BI-636 errepidea, Zallatik Balmasedara, zabaldu eta bigarren erreia egin. Eguneke batez besteko trafikoaren intentsitatea ere kontuan edukiko da. Udal Plangintzak ere errepidearekin eduki behar duen tarte errespetatu behar du. Proposamen hau AE-4 akzio egituratzaileak gauzatzen du, “Kadaguako korridorearen desdoblamendua”.

Aurrekoari lotuta, komenigarria da irtenbide egokia azaltzea, BI-636 errepideak Balmasedan duen hegoko sarreran, hiribilduaren sarbide horren funtzionaltasuna eta segurtasuna bermatzeko.

- Sopuertako saihesbidea: BI-2701 errepidea ez dadin pasa Sopuertako (Mercadillo eta La Baluga) herrigunetik. Tarte honetan errepidea asko estutzen da eta oso arriskutsua gertatzen da. Hau konpontzeko, saihesbidea ekialdetik egingo litzateke bere behar bezalako trazadura eta guzti. Muskizetik eta Malabrigotik datorren trafiko-fluxuari mesede egingo lioke.

Egungo herri barruko zeharbidea herriko kale bilakatuko litzateke eta hartara egokiagoa izango litzateke gune horretarako proposatuta dagoen bizitegi berriei begira. Proposamen hau akzio egituratzaile bitan gauzatzen da: AE-2 “Iparraldeko ardatza” eta AE-5 “Saihesbideak eta zeharbideen birmoldatzea”.

- Trucios-Turtziozko saihesbidea: BI-2617 errepidearen saihesbide honek herrigunea mendebaldetik saihestuko du, eta gainera, herriaren alde horretan bizitegiak egingo direla aprobetxatuko da. Beraz, hau guztiarekin



herrigunean errepideak duen estutzea konponduko da.

Hala ere, saihesbide honen lanak oso kontu handiz pentsatuta egin behar dira; toki horretan izugarrizko maldak daude eta ibaia oso gertu egoteaz gain, errepideak bere gainetik pasa behar du. Den dela ere, Trucios-Turtziozko herrigunearen edertasuna areagotzeko, merezi du esfortzu bat egitea eta egungo zeharbidea herriko kale atsegin bihurtzea, turtzioztarrek bertan gehiago gozatu ahal izateko. Proposamen hau AE-5 akzio egituratzailearen barruan dago, “Saihesbideak eta zeharbideen birmoldatzea”; alabaina, udalerri honi dagokionez, gomendio bat besterik ez da.

- Lanestosako saihesbidea: Herriaren barrutik N-629 errepidea ez pasatzeko herrigunearen mendebaldean, hain justu Lanestosak Kantabriako Autonomia Elkartearekin muga daukan lekuan. Proposamen hau AE-5 akzio egituratzailearen barruan dago, “Saihesbideak eta zeharbideen birmoldatzea”.
- Aprobetxatuz trafikoaren zati handi batek Kadaguako korridorea erabiliko duela, BI-3651 eta BI-3636 errepideak (Güeñes-Aranguren-Mimetiz) Zallako herrigunearen bukaeraraino birmoldatzea eta herriko kale bilakatzea. Proposamen hau AE-5 akzio egituratzailearen barruan dago, “Saihesbideak eta zeharbideen birmoldatzea”.
- Jarraian dauden proposamenak AE-2 “Iparraldeko ardatza” eta AE-3 “Mendebaldeko zonalderako sarbidearen hobekuntza” akzio egituratzaileen barruan daude; errepideen arteko lotuneak eta artikulazioak hobetuko dituzte errotonden eta intersekzioen bidez. Hauek dira:
 - o BI-3602 errepidea BI-2701ekin (Erretola)
 - o BI-2701 errepidea BI-3632rekin (Galdames)
 - o BI-2701 errepidea BI-3611ekin (El Carral)
 - o BI-2701 errepidea BI-3614rekin (Mercadillo iparraldea)
 - o BI-630 errepidea BI-3614rekin (Traslaviña)
- BI-3614 tokiko errepidearen trazadura hobetzea; bide-trazadura hobetzeko bihurguneak leunduko dira eta errepidea zabaltu egingo da posible den lekuetan. Gainera, tarte arazotsuak konponduko dira lan erraz batzuk aurrera eramanda. Azken batean, Traslaviñatik Sopuertara joateko denbora murriztu egin nahi da. Proposamen hau AE-3 akzio egituratzailearen barruan dago, “Mendebaldeko zonalderako sarbidearen hobekuntza”.
- Ildo beretik, BI-630 eskualdeko errepidearen hobetzea proposatzen da; bide-trazadura hobetzeko bihurguneak leunduko dira eta errepidea

zabaldu egingo da posible den lekuetan. Gainera, tarte arazotsuak konponduko dira behar den lekuetan. Azken batean, Malabrigotik Karrantza Haranera joateko denbora murriztu egin nahi da. Proposamen hau AE-3 akzio egituratzailearen barruan dago, “Mendebaldeko zonalderako sarbidearen hobekuntza”.

- BI-3632 errepidearen trazadura hobetzea. Errepide honek Galdamesera garamatza.

Antolamenduko planoetan agertzen diren eta Jabari Hidrauliko Publikoan, ibaiertzetan, edo urpean gelditu ahal diren gunetan eragina izan dezaketen bideen planoak orientatzeko baizik ez dira (Malabrigoko lotura, Otxarandik Muskizera doan errepidea Mercadillo auzotik igarotzean, Lanestosa eta Trucios-Turtziozko saihezbideak). Jabari Publiko Hidraulikoan edo zortasun-eremuan edota polizia-eremuan esku hartu ahal izateko, aurrez, arro horretako erakundearen administrazio baimena lortu beharko da. Bestalde, baimen hori URA-Uraren Euskal Agentziaren Kantaurikoaren Ekialdeko Arroen Bulegoan izapidetu beharko da.

Azkenik, **nabarmendu behar da mendebaldeko errepideak osorik hobetzeko eta egokitzeko lanak egiteko –zehazki, BI-630 errepideko lanak egiteko–, administrazioek batera esku hartu behar dutela Villaverde Harana zeharkatzean**, eta hauxe da horretarako unerik egokiena. LPP hau izapidetzeaz gain, Kantabriako Gobernua bide-sare autonomikoa eraberritzeko lanak amaitzen ari da, eta inbertsioak ezarri ditu errepide horien funtzionaltasuna hobetzeko eta arrisku-maila jaisteko, “Kantabriako Errepideen III. Planean” finkatutako helburuei jarraiki.

Jarduera hori guztiz garrantzitsua da Trucios-Turtziozko, Karrantza Haraneko eta Lanestosako irisgarritasuna hobetu ahal izateko. Era beran, Kantabrian dagoen Valle de Villaverde udalerriko biztanleek eragin-trukea dute LPPko eremu funtzionalean, bertako errepideak erabiltzen baitituzte, seme-alabak eskoletara eramaten baitituzte, bertan lan egiten baitute, etab.

5.2 TRENBIDE-SAREA

Kontuan izanda oinarrizko gabeziak erakusten dituela trenbide-sareak eta Eremurako plan urbanistiko berriak daudela planteatuta, esku artean daukagun LPPk trenbide-sareari buruz ere baditu bere proposamenak. Kontua da, antolatuta dagoen tren-zerbitzuen eskaintzak ez duela mugikortasun demanda asetzen. Hori dela eta, udal-administrazioek eta gai honetan ardura duten administrazioek zerbait egin beharko lukete trenen maiztasuna handitzeko eta trenezko joan-etorrien denbora murrizteko.

Trenbide-sistema hiru ardatzen inguruan egituratu du Lurralde Plan Partzialak:

- Trenbideak: Lurralde Planak gunen batzuetan bigarren erraila jartzea eta trazadura batzuk aldatzea proposatzen du.
- Tren-geltokiak: Geltoki berriak eraikitzea, edota daudenak lekualdatzea.
- Gune intermodalak: Tren-geltoki nagusien ondoan gune intermodalak egiteko asmoa dago. Beraien helburua izango da Eremu Funtzionaleko herrigune guztietako biztanleei Bilbora joateko trena eskura jartzea. Proposamen hau premiazkoa da ikusita Enkarterriren egitura, hau da, herriguneak txikiak direla eta sakabanatuta daudela.

FEVEren Bilbo-Balmaseda linearen maiztasuna handitzeko eta trenezko joan-etorrien denbora murrizteko ondoko hau planteatzen da:

- Bigarren erraila egitea Zaramillo eta Artxuberen arteko tartean; horretarako Sodupeko saihezbidearen ibilbidea egingo du eta, aurreikusita dagoen bezala, trazadura antzinako La Robla trenaren bera izango da. Proposamen hau AE-6 akzio egituratzailearen barruan dago, "Trenbidearen bikoizketa Balmaseda-Zaramillon".
- Artxubetik Arangurenearaino trenbideari bigarren erraila egitea, egungo trazaduran bertan. Proposamen hau AE-6 akzio egituratzailearen barruan dago, "Trenbidearen bikoizketa Balmaseda-Zaramillon".
- Arangurenetik Balmasedaraino trenbidea bikoiztuko da. Hau aurrera eramateko Balmasedan La Roblaren trazaduraren zati bat erabiltzea pentsatu da; gainera geltokia herrigunetik gertuago egitea proposatu da. Proposamen hau AE-6 akzio egituratzailearen barruan dago, "Trenbidearen bikoizketa Balmaseda-Zaramillon".




- Hargatik, LPPren proposamena da egokiena. Hori gorabehera, Balmasedako Udalak eta FEVEk (eskumenak dituen erakundea den aldetik), egokitzen jotzen duten tokian jar dezakete. Izan ere, tren-geltoki bat hiri-continuumean kokatzea udal-plangintzan finkatu behar da. LPPk zera besterik ezin du egin: goian azaldutako arrazoiak aintzat hartuta, beste kokaleku bat proposatu.

- Traslaviñako FEVEren geltokia herrigunera hurbilduko da.

Proposamen hauek AE-6 eta AE-8 akzio egituratzaileen barruan daude; “Trenbidearen bikoizketa Balmaseda-Zaramillon” eta “Bilbo-Santander trenbidearen sustapena” hurrenez hurren.

Azkenik, informazioa emate aldera, aditzera eman behar da “Prestazio handiko Kantaurikoko korridoreari buruzko informazioko azterketa. Bilbo-Santander tarte” egiten hasi dela. Garrantzi handia izango du eremu funtzionalean, eta eragin nabarmena izan dezake. Hala ere, oraindik ez da erabaki ibilbidea eremu funtzionaletik joango den, edo itsasaldetik hurbilago egingo den.

FEVEren SISTEMA OROKORRA – GEROKO EGOERA



5.3 GARRAIO PUBLIKOA ETA INTERMODALAK

LPPk garraio publikoari begira intermodaltasuna bultzatzearen aldeko apustua egin nahi du; garraio modu desberdinak elkarrekin nahasi nahi ditu. Honek, jakina, lurzoru-erreserba eskatzen du garraiobide aldaketarako guneak egiteko. Helburua erabiltzaileak Eremu Funtzionalaren barruan zein Bilbo Metropoli aldera errazago mugitzea da. Trena-Busa-autoa gune intermodala proposatzen dira tren-geltoki askotan.

Beraz, Eremu Funtzionalan autoa gutxiago erabiltze aldera proposatu dira gune intermodalak, herri hauetako geltokietan hain zuzen: Sodupe (Güeñes), Aranguren, Mimetiz (Zalla) eta Balmaseda. Proposamen hau AE-9 akzio egituratzailearen barruan dago "Gune intermodalak". Proposamen honetako herri bakoitzak bere ñabardurak ditu:

- Sodupe: gune intermodal hau inguru hurbileko (Gordexola) biztanleak erakartzeko aproposa da. Jada autobus geltokia ere badu (A0651, A3342 eta A3343 Bizkaibusen lineak) eta auto zein bizikletentzat aparkalekua edukitzeko aukera dauka.
- Aranguren: gune intermodal honek inguru hurbileko (Galdames eta Güeñes) biztanleak erakarriko ditu. Jada autobus geltokia ere badauka (A0651 Bizkaibusen linea) baina hobekuntza-lanen premia daukana. Gune honek, aldiz, ez auka autoentzat aparkalekua egiteko aukerarik. Bizikletak uzteko ekipamendua jarri beha da.
- Mimetiz: gune intermodal honek inguru hurbileko biztanleak eta autobus lineen (A0651 eta A0652 Bizkaibusen lineak) erabiltzaileak erakarriko ditu. Auto zein bizikletentzat aparkalekua jartzeko aukera dauka.
- Balmaseda: inguru hurbileko biztanleak erakartzeko egokia dirudi, gune intermodal honek FEVEren linearen amaierarekin lotura dauka eta autobusarekin ondo konbinatzeko aukera ematen du. Gainera, autoentzat aparkalekua jartzeko aukera dauka.
- Balmasedan autobus-geltoki garrantzitsu bat egitea proposatzen da Eremu Funtzionalako herri desberdinak eta ondoko erkidegoak lotzeko, izan ere bere kokalekua oso aproposa da autobus-geltoki estrategiko bat jartzeko. Horregatik, Balmasedarako asmo honek koordinazio handia eta kontuak ondo ateratzea eskatzen du: nolako den Balmasedaren udal-politika, zein ibilbide diren posible, zein garraio-sarek kudeatuko dituen eta nolako lurzoru-erreserba dagoen asmoa aurrera eramateko.
- Ambasaguas (Karrantza Harana): Gune intermodal honek autobusaren (A0652 Bizkaibusen linea) konbinazioa dauka. Auto zein bizikletentzat aparkalekua jartzeko aukera ematen du.

Proiektu hauetan sartuta dauden udalek gauzak erraztu beharko liekete inguru hurbileko erabiltzaileei aparkatzeko hornidura egokiak eduki ditzaten (autoak, motorrak, e.a.) eta baita bizikletak eta abar uzteko leku egokiak ere; hau guztia garraio modu desberdinak eskura eduki dezaten. Dena dela ere, eta etorkizunari begira irizpide bat ezartzeko, tren-geltoki berriren bat egiteko asmoa baldin balego, gune intermodal batez osatzeko aukera badagoen aztertzea ezinbestekoa litzateke. Hau da, gune intermodalak posible izan beharko du tren-geltoki berria egingo bada.

5.4 AIREKO SAREA

Aire-nabigazioari dagokionean kontuan hartu behar ditu Plan Sektorialak Bilboko aireportuaren xedapenak. Baina horien arabera ez du ematen aldaketa handirik egongo denik Enkarterrin; aireportuaren gaurko mugek ez dute batere eraginik Enkarterrin eta aireportuaren Gida-planek bultzatutako balizko handitzeek ere ez lukete inolako eraginik Enkarterrin. Zentzu honetan Eremuko lurraldea eragin horretatik libre da.

Halere, Enkarterriko LPPk Ambasaguasen (Karrantza Harana) eta Mimetizen (Zalla) heliportuak jartzea planteatu du zerbitzu azkar eta eraginkor bat eskura edukitzeko. Hasiera bateko asmoa osasun arloko eta larrialdietako zerbitzu bat izatea da. Osakidetzaren helikoptero medikalizatuari bidea egitea alegia. Proposamen hau AE-3 akzio egituratzaileak gauzatzen du, "Mendebaldeko zonalderako sarbidearen hobekuntza".

Ambasaguaseko heliportuak Enkarterriko mendebaldeari (Lanestosa, Karrantza Harana eta Trucios-Turtzioz) emango dio zerbitzua; egungo futbol-zelaian egongo da, errepide nagusietatik nahiko gertu, eta helikopteroek lurra uzteko/hartzeko gune segurua da, ez baitauka oztopo izan daitekeen linea elektrikorik. Mimetizen kasuan, heliportu bat egin nahi da egingo den Bereizmen handiko ospitale berriaren zabaltzan. Heliportu hauen bidez Enkarterritik Gurutzetako ospitalera helikopteroz joateko aukera izango da Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-eko (BEC) heliportuaren bidez.

5.5 BIDE-AZPIEGITUREN SARE ALTERNATIBOA

Euskal gizarteak ematen du lortu duela ingurumenaren aldeko mentalitatea eta garapen jasangarriaren aldeko apustua egin duela bizitzako arlo guztietan. Honetan aurrerapauso handiak eman dira.

Lurraldeko baliabide naturalak, garraioa eta joan-etorriak aztertu eta gero jasangarritasunaren alde egin da, beraz LPPk mentalitate honekin koherente izan behar du. Ildo honetatik derrigorrezkoa planteatzen zein neurrian den posible eguneroko joan-etorriak bizikletentzako bideetan (Balmaseda-Zalla-Güeñes-

Sodupe Kadaguako bizikleta-bidea) edota bide arinetan zehar egitea. Herriak lotzeko komunikabide jasangarririk bada haxe da hain zuzen.

LPPk gogoan izan du Enkarterreren orografia zaila dela eta zaila dela bizikleta garraibide bilakatzea. Gainera, Enkarterriko distantziak handiak, aldapak ere bai, trafikoa, eguraldia, istripuen arriskua, e.a. direla medio, esan bezala, zaila da bizikleta egunerokotasunez erabiltzea. Hala ere, bizikletak apurka-apurka gero eta leku gehiago hartzen joan behar du, eta ez bakarrik aisialdirako elementu bezala, baizik eta garraibide bezala. Bizikleta herriguneetako joan-etorriak egiteko aproposa da eta desplazamendu labur horiek egiteko sustatu behar da. Herri barruko bizikletaren erabilerak abantaila nabarmen asko ditu (aparkatzeko arazorik ez, merkea, azkarra, e.a.)

Bizikletak badu abantaila gehiagorik, ingurumenarentzat zein gizartearentzat: ingurunearen kalitatea hobetzen laguntzen du, biztanleen osasunari mesede egiten dio, energia gutxiago kontsumitzen du (energia eta materia), zaratarik ez du ateratzen eta ez du kutsatzen.

Beraz, argi dago bizikletentzako bideak eta bide arinak eguneroko joan-etorriak egiteko aproposak direla. Zentzu honetan egiten diren azpiegitura guztiak, bizikleta-bideak, bide arinak, oinezkoentzako bideak, koexistentziazko guneak, eta abar herrietako bizitza atseginagoa izateko pentsatu dira, azken batean biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako oinezkoari emango zaio autoei kendutako espazioa, garraio publikoa sustatuko da eta garraibide alternatiboak, bizikleta kasu, indartuko dira.

LPPren proposamenak bizikletazko garraioaren inguruan EA-10 akzio egituratzailearen barruan daude, "Hiri-sare berdea" izenekoak. Proposamenak hauek dira:

- Bide-azpiegituren sistema alternatiboa sortu, etenik gabekoa eta maila-sareaz inguratua. Bizikletak bakarrik ibiltzeko (bidegorriak) izango dira. Bide-sare honek Balmaseda-Zalla-Güeñes-Sodupe Kadaguako bizikleta-bidea eta aisialdirako beste bizikleta-bideak lotuko ditu.
- Programatuta dauden lanetan, lanak nondik hasi aztertzerakoan, lehentasuna emango zaie jada eginak dauden bidegorrien artean falta diren zatiak osatzeari bide berriak egiteari baino.
- Herrietan egiten diren zaharberritze proiektu eta lan guztietan, garapen guztiz berrietan edota errepide berriak egiterako orduan, beti egingo da lurzoru-erreserba bide-azpiegituren sare alternatiboa ezartzeko.
- Ekipamenduetan, zerbitzuen lekuetan, plazetan eta, oro har, trafikoa erakarriko duten jardueretan, soilik bizikletentzako izango diren aparkalekuak jartzea.

- Gaur egun jada aisialdian paseorako erabiltzen diren bideak bultzatu; beraien espazio jakin batzuk mendi-bizikletan ibiltzeko erabiliko dira. Bide hauek aprobeitxatzearen arrazoia inpaktua gutxitzea da, batez ere interes natural handia daukaten lekuetan, ibaien ertzetan edota aisialdigune handietan.
- Ibilbide zehatz batzuetan eta egun jakin batzuetan, gutxienez, bizikletei emango zaie lehentasuna beste edozein motako ibilgailuen aurrean. Ibilbide hauek lurraldea egituratzen duten eskualdeko errepide eta tokiko errepideetan zehar izango dira.

6

ZERBITZU AZPIEGITURAK

LPPk oinarritzko azpiegituren arloan jasotzen dituen proposamenak jada martxan daudenak hobetzeko dira. Izan ere, aitortu behar baita era honetako azpiegituren hornikuntza nahiko ona dela Eremuan. Pentsatuta dauden hobekuntza lanak, oroz gain, urrun dauden mendebaldeko herrietan aurrera eramateko dira. Proposamen hauek O-4 ordenazio planoan jasota daude, “Oinarritzko azpiegiturak”.

123

6.1 ENERGIA BANATZEKO AZPIEGITURAK

- Populazioaren beharrei zerbitzu egokia eskaintzeko energiaren banaketa hobetu egin behar da, batez ere Artzentalesen, Trucios-Turtziozen eta Karrantza Haranean, eta hori banaketa-enpresei dagokie.
- Energia sortu et banatzen duten enpresek egin behar dituzte azpiegitura hauentzat eta energia banatzeko korridoreak. Jarduera honetan, ahal den neurrian behinik behin, ingurumen-inpaktuak minimoa izan behar duenez erabiltzen diren elementuak kontzentratu egin behar dira. Oroz gain, azpiegitura hauek LPPk proposatutako babes bereziko eremuetatik pasa daitezen ekidin behar da.
- Zentzu honetan, Espainiako Sare Elektrikoa Jara-Vallegon linea berriaren trazadura ikertzen ari da, 220 Kv-eko tentsio altuko aireko linea hain justu. Linea honek Eremu Funtzionala zeharkatuko luke, eta gainera eragina izan dezake LPPk definitzen duen Artzentales eta Sopuerta arteko “Nekazaritza-sistemaren Paisaia”. Beraz, Espainiako Sare Elektrikoak ikertu dituen energiarentzako korridoreen artean ekialdeenetik doanaren alde egin behar da, aipatutako “Nekazaritza-sistemaren Paisaia” ez ukitze aldera. Horrez gain, atxikipenak erabat txikiagotu beharko ditu, “balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintzako” kategorian sartuta.

- Ikusita oro har gero eta energia gehiago kontsumitzeko joera dagoela, Enkarterrik esfortzua egin behar du autohornikuntzaren alde eta saiatu behar duen energia bere kabuz sortzen. Horretarako, gehiago eta hobeto aprobeztatu beharko lituzke bertako baliabide berriztagarriak, eta batez ere, energiaren zentzuzko erabilera bultzatu beharko luke.
- Energia sortzen eta banatzen jarduten duten guztiek nola edo hala saihestu behar dute aireko linea elektrikoek pertsonen edo ondasunen gainean duten eragin kaltegarria, otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretuaren espirituari jarraiki. Izan ere, dekretu horrek onetsi zituen goi-tentsioko aireko lineetako baldintza teknikoei eta segurtasunerako bermeei buruzko Araudia eta haien jarraibide tekniko osagarriak (ITC-LAT 01etik 09ra).

6.2 URA HORNITZEKO AZPIEGITURAK

Proposamen hauek daude “Uraren Tratamendua” AE-12 akzio egituratzailearen barruan:

- Uraren hornikuntza hobetu Lanestosa, Trucios-Turtzioz eta Artzentalesen, izan ere batzuetan ur eskasia pairatzen dute eta hori aldatu beharra dago. Horretarako, edateko ura arazteko estazioak egingo dira herri horietan.
- Karrantza Haranean ur-putzu berri bat egingo da, Aldeacueva auzoaren ondoan. Honen helburua lehorte garaian hornikuntza hobetzea izango da.
- Eremu Funtzionaleko herri guztiak Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoaren barruan sartzea bete-betean. Hartara, eremu osoko arazoa konponduko litzateke eta herri jakin batzuek uraren hornikuntzarekin duten arazoari aurre egingo litzaioke modu eraginkorrean. Proposamen hau gomendio gisa jaso da, eta ez du izaera loteslerik.

6.3 SANEAMENDUA ETA ARAZKETA

Era berean, saneamendu-sarearen hobetzeak ur-ibiliak onera ekarriko ditu. Ildo honetako proposamenak AE-12 akzio egituratzailearen barruan daude, “uraren Tratamendua”. Proposamenak hauek dira:

- Eremu Funtzionaleko ur zikin guztiak araztu, arro bat bera ere utzi gabe. Horretarako, ur zikinen araztegi berriak egingo dira.
- Trucios-Turtziozek aurreikusita dauka araztegi bat (EDAR) egitea Basinagre auzoaren ondoan; Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izango du lan horiek aurrera eramateko. Era berean, Lanestosan EDAR araztegi bat egiteko proiektua dago, eta une hauetan kudeatze-lanak egiten ari dira (BAO 2010-02-25)

- Aurreikuspenen arabera, Artzentalesen EDAR araztegi bat egingo da Traslaviña auzoan, 87/2010 Foru Agindua bidez onetsitako Plan Bereziari jarraiki, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan arituta.
- Karrantza Haranak ere araztegi bat (EDAR) egitea aurreikusten du. Ambasaguas auzoaren ondoan kokatuko dute, ibaiaren meandro batean.
- Barbadun ibaiaren uraren kalitatea hobetzeko, gomendio gisa proposatzen da EDAR araztegi bakarra egitea Ventorro eta Arenao auzoen artean, eta Sopuertako eta Galdamesko urak arazteko prozesua bateratzea.
- Kasu honetan ere Eremu Funtzionaleko herri guztiak Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoaren barruan sartzea proposatzen da uraren zikloari era bateratu eta osoan aurre egiteko. Proposamen hau gomendio gisa jaso da, eta ez du izaera loteslerik.

Azkenik, instituzioen laguntza ezinbestekoa da landa-guneetako ur zikinak arazteko azterketa zehatzak egin ahal izateko. Programa bat finkatu behar da arazo hori aintzat hartuta.

6.4 MINDA-FABRIKA

Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreak funtsezkoak dira egungo populazioaren kopurua mantentzeko eta paisaiari bere horretan eusteko. Naturaren elementuak mantentzeak eta bere balioa handitzeak ez du oztopo izan behar gaur egun demanda den ekonomiaren garapenarentzat, ez gizartearen garapenarentzat, ez eta Eremu Funtzionaleko biztanleen bizi-kalitatearen hobetzearentzat. Honek denak bateragarria izan beharko luke.

Horregatik, eta lur azpiko urak babesteko, lehentasuna dauka mindak tratatzeko fabrika bat egitea; dauden auzo-finkapenak eta landa-eremuaren betiko erabilerak konpatible izaten jarraitu behar dute. Minda-fabrika hau, Las Torcachas (Karrantza Harana) auzoaren ondoan kokatuko da. Proiektu hau AE-14 akzio egituratzailearen barruan dago, "Minda-fabrika".

Las Torcachas gunea aukeratu da minda-fabrika jartzeko, ustez kalte gutxien egiten duen lekua delako; itxura batean bertako lurren azpian ez dago akuiferorik, tokia nekazaritzarako ez da onegia, ez ditu kaltetzen interes geologikoko eremurik, Ordunte eta Armañoneko Garrantzi Komunitarioko Lekuetatik (GKL) kanpo dago eta lursaileko landaretza nagusia larreek, haritz batzuek eta bertako espezieez eginiko heskaiek osatzen dute.

Minda-fabrikari esker mindak egoki kudeatuko dira eta inolako kontrolik gabeko isurketek sortzen duten arazoa konponduko da. Mota honetako isurketa kaltegarriak ohikoak izan dira inguru honetan (Karrantza Harana eta Artzentales). Fabrika honi esker, baita ere, Karrantza haraneko nekazaritzarako lursailen

kalitatea hobetuko da, kiratsaren arazoa txikituko da eta ibaien ur-ibiliek, azalekoek zein lur azpikoek, asko hobetuko dute beraien kalitatea.

Funtsezkoa da, minda-fabrika inguruan ondo integratuta geratzea, zeren eta zaila baita, ikusita zein motako planta den, paisaian erabat ondo integratuta geratzea. Horregatik, neurriak hartu behar dira eraikinak paisaian ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko; erabiliko diren materialak ondo aukeratu behar dira. Oro har, eraikinaren ikuspegiak ez du oso nabarmena izan behar, "industria ekologikoa" delakoaren irizpideak eduki behariko lituzke.

6.5 TELEKOMUNIKAZIO AZPIEGITURAK

LPPk ondo gogoan dauka zein zaila den Enkarterriren orografia. Gauzak horrela, ez da posible telekomunikazioentzat azpiegitura fisikoa hedatzea Eremu Funtzional osoan zehar. Enkarterriren ezaugarri honek berebiziko garrantzia dauka.

Dena dela ere, Eremu Funtzionala orokorki eta oreka batean garatu nahi bada, derrigorrezkoa da telekomunikazioak garatzea eta komunikazioaren sistema berriak pertsona, enpresa eta erakunde guztien eskura jartzea. Gainera, telekomunikazioen arloa garatzea funtsezkoa da enpresen lehiakortasunari begira.

Telekomunikazio sareak herrigune nagusienetan eta ekonomia jardueretarako poligonoetan sustatzea eta hobetzea proposatzen da. Gainera, bereziki Enkarterriko mendebaldean telekomunikazio sareak hobetu behar dira eta zona honetan apartatuta dauden auzuneei zerbitzu egokia emateko neurriak hartu behar dira.

Zentzu honetan, eta telekomunikazio-sarea jartzeko orduan, optimizazioa bilatu behar da eta gerta daitezkeen inpaktuak ekidin. Horretarako, beharrezkoak diren azpiegiturak -antena, errezeptoreak, e.a.- han edo hemen jartzeko irizpide egokiak ezarri behar dira. Ez dugu ahaztuko lan honetan enpresa pribatuak beraien kasa eta beraien planen arabera ari direla azpiegiturak jartzen; beraz, lurraldearen ikuspegitik, oso egokia izango litzateke azpiegitura hauek jartzeko momentuan enpresa probatuak eta erakundeak adostasun baten barruan aritzea; koordinatzea alegia.

6.6 HONDAKIN SOLIDOAK

LPPk paper, beira eta plastiko hondakin guztiak birziklatzearen aldeko apustua egiten du. Horrek esan nahi du gaikako zabor-bilketa bultzatuko eta erraztuko duela; eta beste alde batetik, zabortegi kontrolatuak proposatuko dituela birzikla ezin diren zaborrak biltzeko. Honetarako, garbigune-sareak eskaintzen duen

zerbitzua hobetu beharra dago. Bestalde, garbiguneen inguruko mugikortasuna ere txikitu egin behar da eta bilketa selektiboa zentralizatuko duten guneak sortu behar dira.

Kontuak kontu, Zallako zabortegia lehenetsiko da baina, betiere, hondakinen birziklatzea areagotzeko asmo irmoaz; gaur egun birziklatzen dena baino askoz gehiago birziklatzea lortu behar da. Asmo honekin, zaborren gaikako bilketa bultzatuko da eta birziklatu ezin diren hondakinak tratatzeko proposamen desberdinak aztertuko dira. Azken proposamen hauen harira aztertu beharko da energiaren balorizazio-plantak jarri ala ez; eta beraien kokapena sektore osoaren ikuspegitik erabaki beharko da. Planta hauek energia alternatiboekin zuzenean lotuta daude.

Proposamen hauek AE-13 akzio egituratzailearen barruan daude, "Hondakinen kudeaketa". Hauek dira:

- La Baluga delakoan, Sopuertan, garbigune berri bat jartzea aurreikusten da, batez ere herri honi zerbitzua emateko eta baita Artzentales eta Galdames herriei ere.
- Era berean, Zallako industriaren hondakinei irteera bat emateko garbigune berri bat aurreikusita dago; La Calzadilla auzunetik gertu egongo litzateke.

6.7 ENERGIA ALTERNATIBOAK

LPPren helburua energia elektrikoaren zentzuzko erabilera egitea da. Honek esan nahi du energia aurreztea lortu behar dela, efizientzia energetikoa bilatu, eta autohornikuntza erdietsi behar dela bertako baliabide berriztagarriak aprobetxatuz: ura, haizea, eguzkia, e.a.. Honetan ezinbestekoa da biztanleak kontzientziaztea. Proposamenak hauek dira:

- Udal antolamenduak erraztasunak eta laguntzak eman behar dituzte plaka fotovoltaikoak jartzeko jada eraikita dauden edo egitekoak diren etxeen edo fabriken teilatuetan. Kontuan eduki behar dute plaken orientazioa erabakitzeke orduan ez dezatela ondoko bizitegietan erreflexu egin, eraikinengan ondorio kaltegarriak eragin baititzakete.

Ikusita Enkarterri nolakoa den, hau da, bere inguruari eta ezaugarri naturalei erreparatuta eta eremuaren erabilera nolakoa den ikusita, mota honetako azpiegitura jartzea industria jardueratzat hartzen da; paisaian eragin handia eta nabarmena duena eta lur asko hartzen duena gainera. Beraz, ez da onartuko nekazaritza lurretan horrelako instalaziorik, edota eguzki baratze fotoboltaikorik, jartzea.

- Oso gomendagarria da Enkarterrin industria eta nekazaritza kogenerazioa ezartzea, oso baliabide interesgarria baita. Nekazaritza kogenerazioak

inguruko errekurtsok aprobetxatu ahal ditu. Industria kogenerazioa, aldiz, LPPk industriari eskaintzen dizkion lurzoruetan kokatuko da. Kasu honetan, nekazaritza kogenerazioa lagungarria izango litzateke, jarduera nagusiari lagunduko liokeen ekarpena; instalazioa optimizatzeko lagungarria alegia.

- Enkarterrin biomasa zentral bat jartzea gomendatzen da. Oso ona izango litzateke egur hondakinak (basogintzaren hondakinak) tratatzeko. Balmasedan kokatzea proposatzen da.

7

LAN HIDRAULIKOAK, LUR KUTSATUAK ETA ERAUZTE-LANAK

7.1 KADAGUA IBAIA BIDERATZEKO PLANA

Kadagua ibaiaren bideratzeko planak egungo arazo hidrologikoari erantzun nahi dio. Gauza da ibaia pasatzen den herrietan uholdeen arriskua dagoela, eta planarekin hori saihestu nahi da. Herri horietako bizitegi asko daude arrisku horren barruan eta zerbait egin beharra zegoen uholdeen arriskua gutxitze aldera.

Jada idatzita dago Kadagua ibaia bideratzeko plana Zalla herriko ibai-tarteari dagokionean eta Güeñes herriaren gunerako. LPPk jasota ditu egin beharreko lanak, ur-ibilian zein bere inguruetan. Honek, baina, ez du esan nahi plana hor geratuko denik; litekeena da beste ibaiaren tarte batzuetan planak aurrera egitea eta hauek ere LPPren baitara sartzea. Beraz, arlo honetan LPP ez dago itxita. Gaur-gaurkoz LPPn sartu den zonaldea Zalla eta Balmasedako udalerrien mugatik hasi eta Güeñesen tren-zubia dagoen guneraino doana da.

Ibaia bideratzeko Planak uholdeak saihestu nahi ditu 100 urteko itzulera denboraldian, eta horrez gain, uren joana egokia izan dadila bermatu nahi du beste 500 urteko itzulera denboraldian, uren handitzei ondo erantzutea alegia. Horretarako, ur-lamina txikitu beharko da ur-ibilian zehar. Oro har, uholdeen arriskuak gutxitzeko egin behar diren lanak honetan oinarritzen dira: ibai-tarte bakoitzean, eta beti beraien ezaugarrien arabera, sekzio desberdinak izango dituen kanal bat egitea.

Lan horiez gain beste batzuk ere planteatu dira, adibidez: begi txikiak dituzten zubiak kendu edota beraien orde berriak egin, ibaiaren ertz bietan bermak egin, urak desbideratzeko ubide bat egin Mimetizen, kirol instalazioen eta Aretxagaren artean, e.a..

Kadagua ibaia bideratzeko Planak lanak planteatuta dituen guneean paisaia berreskuratzeko asmoa dauka. Horretarako gaur egun erriberan dagoen landaretza mantenduko du, eta beste alde batetik erribera bera ahalik eta gutxien aldatzen saiatuko da. Hau lortzeko mahai gainean dauden proposamenak lan “arinak” dira, ur-ibilia beti bezala, edota antzera, uzten saiatuko direnak hain zuzen.

LPPk bereak egiten ditu Kadagua bideratzeko Planak planteatzen dituen proposamenak eta AE-11 akzio egituratzailearen barruan sartu ditu, “Kadagua Bideratzeko Plana”.

Era berean, LPPk zehazten du Kadagua bideratzeko Planak eragina duen herrietan hirigintza-plangintza berrikusi behar dela Plana burutu eta gero, izan ere, aurreikusita dauden lanek lur asko hartzen baitute eta amaitu arte ezin da ondo ikusi nola geratuko den gunea. Gainera, LPPk lurzoru urbanizagarri berri izendatu dituen batzuk gaur egun zona inundagarrietan daude, eta beraz, beraien garapenak Kadagua ibaiaren bideratzea eskatzen du lehendabizi.

Une hauetan Kadagua ibaia bideratzeko planak prestatzen ari dira beste arlo batzuetan –adierazitakoez gain–; esate baterako, horra hor Balmasedako udalerrian aurreikusitakoa, eta Gueñesen prestatzen ari diren tarteak, Artxube eta Sodupe aldean, Kadagua eta Herrerías ibaiekin.

Zentzu honetan, Eremu Funtzionalaren barruko beste gunek batzuetan –gaur egun Bideratze-planaren barruan ez daudenetan– ibaiaren Bideratze-planak aurrera egiten badu, hori gertatzen den heinean posible izango da gunek horiek hirigintza-plangintzaren baitan sartzeari, herrigunearen handitze naturalak izango balira bezala. Jakina, hirigintza-plangintzan sartzeko herrigunearen barruan egon beharko dute sail horiek, herri-bilbearen hutsune eta zirrikituak osatzeko. Kasu hauetan ez lirateke izango LPPren aldaketa puntualak.

7.2 LUR KUTSATUAK

Hiri-eraldaketa lanak hartzen dituzten lurzoruen kutsadura, edota jasan dezaketena, zuzendu egin behar da. Lurzoru hauetako batzuk zerrendatuta daude, “EAEko lurrraren Kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan” alegia. Kasu hauetan behintzat derrigorrezkoa kutsadura aztertu, garbitu eta lurzoruak erabat garbi eta kutsadurarik gabe uztea.

Gai honen inguruan gogora ekarriko dugu legedia, zehatzago 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzoruak ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoari buruzkoa. Lege honek hiru helburu nagusi ditu: lurzoruen kutsadura berriak prebenitzea; kutsadura kasu larrienei konponbidea ematea; eta azkenik, epe luze zein laburrera jada kutsatuta aurkitu ditugun lurzoruak berreskuratzeko bidean jartzea.

LPPk garapen jasagarria bultzatzen duenez funtsezkoa da, edozein lan egiten dela ere, lurzoruen kalitatea mantentzea. Ondorioz, udal plangintzetan leku jakin bat eman behar zaio arlo honi eta garbi definitu nola eramango den aurrera kutsatutako lurzoruen arazoa. Lurzuok berreskuratzeko estrategiek ondo zehaztuta egon beharko dute udal plangintzetan.

LPPk 1-7 informazio planoan, “Ingurumen-arazoak”, zerrendatzen ditu aipatutako inbentarioan agertzen diren lur kutsatuak.

7.3 ERAUZTE-LANAK

LPPk 1-6 informazio planoan, “Hiri-finkapenak”, jasotzen ditu Eremu Funtzionalean eman diren meatze-eskubide guztiak, esplotazioen kontzesioak eta esplotazio proiektu denak. Bestalde, eman diren ia kontzesio denak aire zabalekoak dira (aire librean), bat izan ezik, Pandos meatzea hain zuzen. kontzesio hau Armañoneko parkean dago, lur azpian zulatua eta Armañoneko BNOPl (Baliabide Naturalen Ordenazio Plana) espresuki baimendua.

LPPk honek ez ditu meatze-lanak, ezta harrobiak ere, gaizki ikusten. Baina kontua da, erauzte-lan hauek Enkarterriko eta landa-eremuetako paisaia aparta errespetatu beharko luketela; Enkarterriko paisaia ez baita edozelango erauzketek hondatzeko modukoa.

Lurralde Plan Sektorialak erauzketa-lanak arautzen ez dituen bitartean, garatu eta aprobatu gabe baitago, LPPk lurraldearen antolamendurako artezpideek (LAA) bere baitan daukaten “Ingurune fisikoa ordenatzeko matrizea” jarraituko du. Matrize honen arabera “Erauzte-jarduerak” bere barruan kontenplatuta dauzkan harrobi guztiak debekatuta egongo lirateke “Babes bereziko eremuetan” zein “Naturgune babestuetan”. Halere badaude salbuespenak, jada baimenduta daudenak dira hain justu.

Erauzketa-jarduerak jartzeko, dagozkion sektoreko baimenak, Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Banakako Azterketa, Plan Berezia eta udal-izentzia behar dira. Bestetik, babestutako natura-guneen atxikipeneko eremuen eta mugen barruan, ezin izango da meatze-ikerketarik egin, ez aire zabalean ez lurpean, martxoaren 11ko 1/2010 Legeari jarraiki. Izan ere, lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzen du, eta horren araudian (17.4 artikuluan) gai hau azaltzen da.

8

UDALAZ GAINEKO EKIPAMENDUAK

Enkarterrirako planteatu den ereduak bertako populazioa mantendu nahi du eta biztanleen bizi-kalitatea hobetu. Honek eskatzen du ekimen publikoak martxan jartzeko orduan lehentasuna eman behar ziola biztanleak galtzen ari diren lurraldeko zonaldeei. Hala ere, horretarako tokian tokiko akzioak planteatu ahal badira ere, ekipamendu berriak eskaintzeko momentuan ez da ahaztu behar lurralde osorako ditugun erronkak.

LPPk ekipamendu garrantzitsuak ditu planteatuta. Beraien izaera udalaz gaindikoa izango da, eta Eremu Funtzionalerako garrantzia estrategikoa izango dute. Tamainakoak eta Eremu Funtzionalerako hain garrantzitsuak izanda, behar besteko lurzoru erreserba eskatzen dute garatu ahal izateko.

LPPk darabilen “Ekipamendu handiak” kontzeptuak, gehienetan, zerikusia dauka ekonomia jarduerarekin, eta beraz, ikuspuntu oso zabala dauka; zentzu honetan ekipamenduak ez baitira populazioari begira soilik eskaintzen diren zerbitzuak, zerbait gehiago dira. Ekipamenduak ekonomia jarduerekin, heziketarekin, e.a. lotuta egongo dira; aldi berean errealitate askori erantzuteko asmoa dute.

LPPk bultzatzen dituen ekipamendu handiek, esan bezala, ekonomia jarduerekin lotuta daude eremuko naturaren balioak aprobetxatzeko. Baian ez da hor geratzen, gainera, ekipamendu hauek landa-eremua babesteko asmoa ere badute, berau -landa-eremua- baita Eremuko naturaren balio azpimarragarrienetako bat, Eremua apartekoa eta desberdina egiten duena eta, bestalde, Eremuari aukera handiak ematen dizkiona.

Era berean, badaude bestelako proposamen batzuk. LPPk baditu ekipamendu txikiagoak, udal mailakoak, egiteko proiektuak. Batzuk proposamen berri-berriak dira, hau da, orain arte ez zeuden zerbitzuak eskaintzea; beste batzuk aldiz, jada

8.1 EKIPAMENDU HANDIAK

Hauek dira planteatutako proposamenak:

- LPPk pentsatzen du Eremu Funtzionaleko mendealdeko ekonomia jarduerak betiko lan tradizionalen inguruan ibili behar dutela, eta horiez gain balio erantsia emango dieten beste batzuk sartu behar direla, turismoari lotutakoak hain justu. Dena den, turismoak ez lioke zonaldeari bere kutsu tradizionala kendu behar.

Horregatik, LPPk proposatzen dituen ekipamendu handiek balio erantsia emango duten ekonomia jardueratan oinarritzen dira, baina betiere lurraldeko tradizioei lotuta; turismoak ezin ditu betiko ohiturak zapuztu.

Ilido beretik, esan gabe ezin utzi proposatzen diren lau ekipamendu handietatik bi Eremuko mendebaldean kokatuko direla, izan ere, beraien xedea nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak garatzea baita. Erabaki honekin argi erakusten da nola lehenengo sektorea defendatu eta bultzatu nahi den, bera baita, jada askotan esan dugun bezala, bioaniztasuna eta paisaiaren kalitatea zaintzen dituen. Gainera, ekipamendu handi bi hauen beste helburu bat Eremu barruko lurralde desberdinen arteko desoreka berdintzea da, eta hartara, orain arte zerbitzu gutxi eduki dituen zonaldeari lehentasuna emango zaio. Proposamen hauek OE-9 operazio estrategikoen barruan sartzen dira, “Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena”. Turismoarekin lotura duten proposamenak, aldiz, OE-6 operazio estrategikoen barruan sartzen dira, “Iparraldeko atea. Sopuerta sendotzen”. Azkenik, Zallako bereizmen handiko ospitalea OE-3 operazio estrategikoen barruan dago, “Zalla, zerbitzu-nodoa”. Proposamen horiek guztiak “Ekintza egituratzaileak eta eragiketa estrategikoak” izeneko II. Eranskinean daude garatuta.

Jarraian proposamen hauek denak zehaztasun handiagoz aurkezten dira.

8.1.1 SUSTAPEN EKONOMIKORAKO ETA ENPRESA-ARLOKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAREN GARAPENERAKO EKIPAMENDUA OTIDESEN

Otides (Karrantza Harana) auzunearen ondoan jartzea proposatzen da, Llanora doan errepidean. Ekipamendu hau sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako da Derrigorrezkoa da orduan landa-eremuetako populazioari eustea betiko jarduera jasangarriari jarraipena emango bazaie. Esanda dago, belaunaldien arteko jarraipena premiazkoa da.

Otideseko ekipamendu honek posible du bere barruan hartzea nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia duen ikerketa eta garapen zentro bat. Honi esker asko indartuko litzateke sektorea; I+G (Ikerketa eta Garapena) ikerketa proiektuak sortuko lituzke; nekazaritza eta abeltzaintza azokak eta abar sustatuko lirateke. Gainera, interesgarria izango litzateke lehen sektorea ezagutzera ematea.



Gaur egun, mugatuta daukagun eremuan, abeltzaintza intentsiboan ari den instalazio bat dago. Nahiz eta LPPk horri eragiten dion, bi jarduerak ez dira bateraezinak, are gehiago, esplotazio hori lagungarria ere izan daiteke. Beraz, ez da oztopo izango.

Gainera, gune honetan Bizkaibusen linea baten autobus-geltokiak daude. Garraio publikoa, beraz, bermatuta dago.

Ekipamendu honek aurreikusita duen gehieneko azalera hamasei (16) hektareakoa da eta OE-9 operazio estrategikoaren barruan sartuta dago, "Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena".

8.1.2 SUSTAPEN EKONOMIKORAKO ETA ENPRESA-ARLOKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAREN GARAPENERAKO EKIPAMENDUA ARTZENTALESEN

Artzentalesen, Bilbo-Santander trenbidearen eta Traslaviñako herrigunearen artean kokatzea proposatzen da, Reneja izenaz ezagutzen den gunean. Hor sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako ekipamendua jartzea aurreikusten da. Gune misto bat izango da eta ekipamendua nekazaritzan oinarritutako industriari lotuta egongo da.

Gaur egun, guneak mugatutako esparruaren barruan, "Reneja eremuko Erabilerak Antolatze Plan Berezia" indarrean dago, bertako lur ez urbanizagarriak antolatzen dituen. Instalazio batzuk ere baditu gune honek (hotela, jatetxea, medikuntza zentroa, e.a.). Plan berezi hau behin betiko 5/2008 Foru-agindua onartu zuen urtarilaren 8an eta Reneja eremuko erabilerak antolatze plan bereziari buruzkoa da; Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak eta Hirigintza Sailak bultzatu zuen. Martxan dauden Jarduera hauek ez dira bateraezinak hizpide dugun LPPekin eta bere proposamenekin. Aitzitik, guztiz bateragarriak dira.

Ekipamendu honen instalazioak egokiak izan behar dira landa-inguruneari buruzko konferentziak, hitzaldiak, saio didaktikoak eta abar egiteko, eta gazteei eta ikastetxeei jarduerak eskaintzeko erabili ahal izango dira eta horrela lehen sektorea ezagutzera eman ahal izango da. Bestalde, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren inguruko industriak ere bere baitan hartu ahal izango ditu lehen sektorea bultzatzeko; edota I+G ikerketaren arloko jarduera berritzaileak, betiere landa-ingurunearekin zerikusia dutenak. Baina kontuz, ekimen hauek ezin dute kutsagarriak izan, Traslaviñako auzunea hurbil baitago eta bizitegiekin bateragarriak izan behar dute.

Ekimen honen harira LPPk beste proposamen batzuk ere baditu zuzenean ekipamendu berri honi lotuta daudenak; FEVEren linean (Bilbo-Santander) dagoen Traslaviñako (Artzentales) tren-geltokia auzunera hurbiltzea eta aurreikusita dagoen ekipamendu berritik gertu uztea adibidez. Neurri honek garraio publikoa eskurago eta erabilgarriago jarri nahi du, Traslaviñako biztanleentzat zein Renejan jarriko den ekipamendua erabiliko dutenentzat. Eremu honek, gainera, Bizkaibusen linea baten autobus-geltokiak oso gertu ditu.

Ekipamendu honek aurreikusita duen gutxi gorabeherako gehieneko azalera hogeita hemezortzi (38) hektareakoa da eta OE-9 operazio estrategikoaren barruan sartuta dago, “Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena”.

8.1.3 KIROL EKIPAMENDU TURISTIKO HANDIA

Los Cotarroseko (Sopuerta) auzunearen ondoan Kirol ekipamendu turistiko handi bat egitea proposatzen da; oinarrian plangintzako Industriaren 2tik 6rako Egite-unitateak daude. Ekipamendu honen barruan golf-zelai bat egitea aurreikusten da eta bere inguruan turismoarekin lotuta egongo diren beharrezko azpiegiturak ere bai.

Ekipamendu honek herri-saihesbide bat beharko du, “integratutako kale urbano” bezala gainera. Horri esker BI-2701 errepidean barna Sopuertaren erditik (El Crucero, Capetillo, La Baluga eta Mercadillo) pasatzen den trafikoa desbideratu ahal izango da. Saihesbidea herrigunearen ekialdean egingo da, eta edukiko duen trazadura aproposa izango da Muskizetik eta Malabrigotik datorren trafikoarentzat. Lan honek posible egingo du gaur egungo zeharbidea kale urbano bihurtzea, eta ondorioz Sopuertak biziko duen bizitegien hazkundeari hobeto erantzungo dio.

Ekipamendu turistiko honetatik gertu, gainera, Bizkaibusen linea askoren (Santurtzi, Bilbo, Muskiz, Balmaseda, Lanestosa, e.a..) autobus-geltokiak daude.

Ekipamendu honek aurreikusita duen gutxi gorabeherako gehieneko azalera berrogeita zortzi (48) hektareakoa da eta OE-6 operazio estrategikoaren barruan sartuta dago, “Iparraldeko atea. Sopuerta indartzen”.

8.1.4 BEREIZMEN HANDIKO OSPITALEA

Egia da Enkarterriko osasun ekipamenduak onak direla; esate baterako, larrialdietako zerbitzuak dituzte Balmaseda eta Zallako osasun-zentroetan. Eta egoera espezifikagoei aurre egiteko, aldiz, Enkarterriko biztanleak Bilboko ospitaleetara joaten dira, izan ere zonalde batzuetatik Bilbora joatea eroso eta azkarra baita.

Bereizmen handiko ospitalea “El Carmen” izenaz ezagutzen den gunean egitekoa da, Mimetizen (Zalla) erdi-erdian. Larrialdietako zerbitzua eskainiko du, baita espezialitate-kontsultak ere, diagnosi-probak, eta anbulatorioko kirurgia handiak. Zerbitzu hau Eremu Funtzionaleko herri guztientzat zuzenduko da eta biztanleen joan-etorri luzeak ekidingo ditu.

Ekipamendu honek bertan dauka garraio publikoa; batetik, FEVEren Bilbo-Balmaseda aldiriko linea; eta bestetik, Bizkaibusen linea askoren (Santurtzi, Bilbo,

Muskiz, Balmaseda, Lanestosa, e.a.) autobus-geltokiak gertu-gertu daude. Gainera, ekipamendu honek heliportu bat edukitzea aurreikusita dago.

LPPk ekipamendu honi lotuta beste proposamen bat ere badauka, alegia, FEVEren (Bilbo-Santander linea) tren-zerbitzua Mimetizeko herrigunetik gertu egoteko apeadero berri bat egitea, Euskadi plazaren parean hain justu. Lan honi esker Enkarterriko mendebaldetik etortzea askoz errazagoa izango da eta biztanle gehiagok hurbildu ahal izango du ekipamendu honetara.

Ekipamendu honentzat aurreikusita dagoen gehienezko azalera bost mila metro koadrokoa (0,5 hektarea) da gutxi gorabehera. Halaxe adostu dute behintzat Zallako Udalak eta Osakidetzak.

LPPk Zallako Udalari gomendatu dio bere plangintza berrikusterakoan ekipamendu honentzat dagoen lurzoru erreserba handitzeko. Zeren, gaur egungo bost mila metro koadroko (5.000 m²) erreserba gutxitzat jotzen baita. Lurzoru erreserba handitzeko aprobetxatu daitezke Kadagua ibaia Bideratzeko Planak erabilgarri egingo dituen lurzoru berriak. Beraz, ona izango litzateke ospitalearen ondoko lurzoruak ez hipotekatzea eta, etorkizunari begira, ospitalearen balizko handitzeak egiteko uztea.

Proposamen hau OE-3 operazio estrategikoen barruan dago, “Zalla, zerbitzu-nodoa”.

EKIPAMENDU HANDIAK LPP-REN LURRALDE EREDUA AZALEREN ESTIMAZIOAK (HA)	
ARTZENTALES	38
BALMASEDA	-
KARRANTZA HARANA	16
GALDAMES	-
GORDEXOLA	-
GÜEÑES	-
LANESTOSA	-
SOPUERTA	48
TRUCIOS-TURTZIOZ	-
ZALLA	0,5
GUZTIRA	102,5

8.2 BESTELAKO PROPOSAMENAK

8.2.1 DAUDEN EKIPAMENDUAK HOBETU

Eskualdeari osotasunean begiratuta ondorioztatzen da Enkarterri ondo hornituta dagoela, orokorrean ekipamendu egokiak dituela eta ez daukala premiarik. Hala ere, azterketa sakonagoa egiten bada ikusten da ekipamenduak gune populatuenetan eta ondoen komunikatuta daudenetan daudela (Kadagua harana); ondorioz, ekipamenduen eskaintza desorekatuta dago Eremu Funtzionalean. Eta noski, arrazoiak aipatu dira; populazioaren dispersioa eta urritasuna batetik, eta orografia menditsua bestetik.

Ekipamenduen eta espazio libreen inguruko desorekari, beraz, tokian tokiko konponbideak emateko, lurraldearen ereduak udal zein eskualde mailako proposamen batzuk jarri ditu mahai gainean. Hauek dira:

a) Ekipamenduak:

- Eskualde mailako ekipamenduak sendotu Balmaseda eta Zallan; eskualdeko ekipamendu nagusi bilakatzeko eta, hartara, nabarmenagoa izateko Eremu Funtzionaleko herri nagusiak edota herriburuak bi herri hauek direla. Proposamen honek ez dio ezer ekipamendu proposamen berriei buruz, baizik eta jada dauden ekipamenduak sendotzeari buruz ari da.
- Eremuan bigarren mailako herriak edota herri nagusien ordekoak Sopuerta eta Sodupe izango dira. Horregatik, bere ekipamenduak dagokien mailan sendotu behar dira eta argi utzi beraiek direla herriburu-ordeak. Sodupeko eta Sopuertako ekipamenduek zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte inguruko biztanle gutxiko auzuneei. Aukera honek inbertsioa bera ere justifikatzen du.
- Hirigune historikoetan (Balmaseda eta Lanestosa) berritze eta hobekuntza lanak gizarteari zerbitzu hobea emateko eta urbanismo mailan gora egiteko. Hau horrela izanda, eta ekonomia berriaren hariari jarraituz, guneek duten bisitariak erakartzeko ahalmena aprobeztatu ahal izango da.
- Enkarterrik dituen aktiboak turismoaren eskakizunei erantzuteko moduan hobetu eta sustatu. Aktibo horiek zerrendatuta daude Kultura ondare bezala.

b) Espazio libreak

- Aisialdigune-sarea eta Naturaren Interpretazio Zentroak.
- Kadaguako ibai-parkearen proposamena, Sodupe eta Balmasedaren artean.
- Done Jakue bidea: Turismoari begira aukera handiak ematen ditu.

- Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbide-sarea: herrien arteko komunikabide jasangarriak izango dira eta aisialdirako garraio alternatiboaren sarean egongo dira.

Ekipamenduen proposamenak ondoko operazio estrategikoen barruan sartuta daude: OE-2 “Balmaseda, izaera eta aukera”, OE-3 “Zalla, zerbitzu-nodoa” eta OE-6 “Iparraldeko atea. Sopuerta sendotzen”. Era berean, espazio libreen inguruko proposamenek OE-7 “Kadaguako ibai-parkea” operazio estrategikoarekin eta AE-10 “Hiri-sare berdea” akzio egituratzailerekin dute zerikusia.

8.2.2 EKIAMENDUEN PROPOSAMENAK

Ekipamenduen proposamen gehienak arlo hauetan planteatu dira: heziketa, jolasa, kultura, osasuna, asistentzia eta kirolak. Instalazio batzuk jada martxan daude eta hobetu edota handitu besterik ez dira egingo; beste kasu batzuetan aldiz, berriak egiteko proposamenak dira. Hona hemen zehaztapenak:

Dauden ekipamenduei begira hobekuntza hauek planteatu dira:

- Orain arte gutxi lagundua izan den landa-eremuko **Jolaserako ekipamenduak** hobetzea eta sustatzea proposatzen da; izan ere, ekipamendu honek turismoa erakar baitezake, eta horrez gain, bertako populazioak ez alde egiten lagun dezake. Era honetako hobekuntza nabariak egin behar dira, esate baterako, Karrantza Haranean eta Artzentalesen.
- Enkarterriko hirugarren sektoreak gora egiteko dagoen **ekipamendu komertziala** sendotu egin behar da, batez ere Zalla, Güeñes eta Sopuertan; herrigune hauek baitira iristeko errazenak eta gune estrategikoenetan kokatuta daudenak.
- **Ekipamendu kulturala** ere garrantzitsua da. Batez ere Balmasedan eta Karrantza Haranean hobetuko dira hornidurak, eta era berean, kultura eskaintza handituko da bisitariak erakartzeko asmoarekin. Honekin batera ekipamenduak atondu, egokitu, zerbitzuez hornitu eta zaindu egin behar dira. Oro har, katalogatuta dagoen Enkarterriren Kultura ondarea eta bere balio kulturalak ezagutzera eman behar dira publizitate kanpainen bidez.
- **Osasun ekipamendua** hobetu behar da Sopuertan; bertako biztanleen beharrak asetzeko, eta baita ere ondoko herrietako biztanleak zerbitzatzeko.

Ekipamendu berri-berriak ere planteatu dira. Hauexek dira hain zuzen:

- **Eguneko egoitza** bat egingo da Sopuertan. Bere zerbitzua Galdames eta Artzentalesera ere hedatu daiteke.

- **Osasun dotazioa** jarriko da, eta Concha hirigunean (Karrantza Harana) dagoen Lehen-mailako Gizarte Arretako Oinarrizko Unitatea hobetuko da. Beharrezkoa da osasun eta laguntzarako ekipamendu-molderen batekin osatzea; kontuan hartu behar baita adinekoek horren beharra dutela. Ekipamendu hau Karrantza Haraneko biztanleek eta hortik gertu dauden Trucios-Turtzioz eta Lanestosako biztanleek erabiltzea aurreikusten da. Ildo horretan, Karrantza Haranean urritu psikikoentzako laguntza-zentroa eraikitzea aztertu da, osasun-arloko zuzkiduraosatze aldera.
- **Kirol ekipamenduak** ere proposatuta daude, udalaz gaindi; adibidez, Karrantza Haranean polikiroldegi bat egitea aurreikusita dago, Trucios-Turtzioz eta Lanestosari ere zerbitzua emateko; bukatzeko, beste kirol ekipamendu bat egingo da, Galdamesen, Sopuertari ere zerbitzua emango diona.
- **Jolas-ekipamendua ostatu batzuekin** sendotzea planteatzen da. Behar hau Balmaseda, Sopuerta eta Galdamesen ikusten da herri hauetan egiten diren jardueren osagarri bezala izateko.
- **Bisitarien harrera-zentroa** sustatzea planteatzen da Pozalaguako haitzuloaren ondoan, Karrantza Haranean. Haitzuloaz eta inguruaz disfrutatzen lagunduko du; bertan baitago anfiteatro berria, Pozalaguako antzinako harrobia zena eta gaur egun eszenatoki zizelkatzen ari direna bertan kontzertuak eskaintzeko. Lan hau OE-1 operazio estrategikoaren barruan dago, “Landa- eta ingurumen-parkea”.
- **Ibilbide kultural** bat planteatzen da Gordexolan zehar. Ibilbide honetan herrian dauden indiano estiloko etxeak ikusi eta gozatu daitezke; interesgarria izan daiteke ibilbidea turistak erakartzeko. Proposamen hau OE-12 operazio estrategikoan gauzatzen da, “Kultura-bidezidorra Gordexolan”; era berean, bidezidor hau AE-10 “Sare berdea” akzio estrukturaragariaren ibilbide eta bizikleta-bideekin lotuta egongo da. Bestalde, Gordexolan, Oxirando eta Albitxu auzoen artetik doan bidezidor



edo galtzada bat areago sendotuko da.

- **Kultura-ekipamenduei** buruz, ikusi da komenigarria dela Artzentalesen arlo hau indartuko duen zerbait sustatzea bisitariak herri honetara ere hurbil daitezen. Proposamen honek zerikusia dauka AE-10 "Sare berdea" akzio estrukturagarrian zehazten diren ibilbide eta bizikleta-bideekin.
- Artzentalesen ekipamendu bereziren bat egitea proposatzen da, erabilera anitza duen ekipamenduren bat hain zuzen. Hartara, lantzean behin herrian antolatzen diren **nekazaritza- eta abeltzaintza-azokak** ekipamendu honek hartuko lituzke.
- Karrantza Haranean dauden ibilbideak egokitu egin behar dira; mendi-ibilbideak egiteko oinez, mendi-bizikletaz edota zaldian. Kontuan hartu Armañoneko Parke Naturala eta Ordunteko GKLa oso gertu daudela.
- **Ibilgailuen Azterketa Teknikorako Zentro** bat jarri nahi da El Longar poligonoan (Zalla).
- Gordexolan **tiro-zelai bat egitea** proposatzen da. Ekimen hau, bestalde, posible da ekimen pribatuak finantzatzea bazkideen kuoten sistema erabiliz. Beraz, klub baten egitura edukiko luke eta zentroari errentagarritasun handiena ateratzen saiatuko litzateke; eta ahalik eta jende gehien erakartzen ere bai.

Tiroko guneak hiru tiro-eremu gutxienez eduki ahal ditu: lehenengoak skeet-a, uso-tiroa edota aire libreko beste modalitatearen bat praktikatzeko balioko luke; bigarrena, barrualdean egiten diren modalitateak praktikatzeko, doitasun-tiroa adibidez; eta hirugarrena, arku-tiroa praktikatzeko. Gainera, tiro-eskola izango litzateke. Era berean, komenigarria izango litzateke ekipamenduak taberna-jatetxe bat edukitzea; baita ere aldagelak zein tirorako osagarriak (kartutxoak, platerak, e.a.) saldu eta armak alokatzeko denda bat. Bestalde, gogoan izan behar da Gordexolan munizioak egiteko fabrikak daudela.

Tiro-zelaia kokatzeko Gordexolako zabortege zaharra proposatu da. Leku hau gaur egun itxita eta landatuta dago. Gaienera, herrigunetik urrun dago eta horrek esan nahi du tiro-hotsak nekez entzungo direla herritik.

Hala ere, jaurtiketa-zelaian sortutako zaratak eragina izan dezake migrazioetan, Orduntetik Valderejora doan igarobide ekologikoaren moteltze-arloan sartuta baitago. Hortaz, Gordexolako zabortege zaharrean jaurtiketa-zelai bat jarri ahal izateko, egokiak diren baimen sektorialak lortu, eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren Banakako Azterketa prestatu beharko da. Hor, neurri egokiak hartu beharko dira, adierazi ditugun alderdietan eraginik egon ez dadin, eta, horrez gain, plan berezi bat prestatu beharko da, indarrean dagoen legeari jarraiki idatzia.

- Lokalak sortuko dira telelana garatu ahal izateko. Proposamen hau herrigune nagusietatik urrun dauden zonaldeetan gauatzeko izango da; Karrantza Harana eta Artzentales adibidez.
- Hirugarren sektorea indartuko duen **ekipamendu komertziala** Balmedadako herrigunean kokatuko da; Eremu Funtzionalean pisu estrategiko handia duen herria baita.
- Oinarrizko ekipamendua baino ez duten herri txikiagoentzat bada proposamenik; **ekipamendu ibiltari bat** sortzea proposatzen da eta honek eskainiko ditu, besteak beste, liburutegia, musika, jolasak eta internet konexioa.

8.2.3 HIRIGUNE HISTORIKOAK

LPPk Enkarterriko kultura- eta turismorako aktiboak bultzatzearen aldeko apustua egiten du; tartean daude eraikin singularrak, eraikuntza historikoak, Lanestosako eta Balmedadako hirigune historikoak, e.a.. Hirigune historiak sustatzeko proposamenak, betiere beraien ezaugarri propioak errespetatuz, ondoko hauek dira:

- Enkarterriko **kultura- eta turismorako aktiboen hobekuntza sustatu;** esate baterako eraikin singularrak, eraikuntza historikoak, e.a. eta batez ere Balmedadan eta Lanestosan, Hirigune Historiko izugarri eder eta garrantzitsuak baitituzte.

Balmedadaren kasua aipatu da. “Gazteluaren muinoa” izeneko parkea dauka Alde Zaharraren ondo-ondoan, eta proiektu batek parke hori garatuko du; turismoari begira herriguneko arkeologia-parke aparta bilaka daiteke, eta gainera, herriaren jatorrizko perimetroa, harresiak, gaztelua, e.a. agerian utzi daitezke. Balmedadak Enkarterriko historiaren- eta kulturaren-hiriburua izan beharko luke eta historian espezializatze aldera ekimenak jarri beharko lituzke martxan.

Lanestosako Hirigune historikoa berritu eta sustatu egin behar da. Ezin ahaztu horretarako herriko saihebidia ezinbestekoa dela. Era berean dauden eraikuntzen balioa handitu behar da berrikuntza lanen bidez, herriaren patrimonio baitira. Horretarako, alegia katalogatuta dauden eraikuntzen berritzea sustatzeko, elementu horiek zatitu ahal izango dira, hau da, zati txikiagotan zatitu. Beraz, katalogazio berria mesedegarri gerta daiteke.

- Alde zaharreko eraikuntzen **errehabilitazioa sustatu;** kaleen zolaketa hobetu eta azpiegiturak orokorrean ere bai.
- **Ondasun patrimonialetan erabilera** sustatzea. Herriaren erdiguneko eraikin hauetako batzuk antzoki gisa edota ostatu gisa berrerabil daitezke.

Eremuko turismoa erakartzeko interesgarriak dira patrimonio-ondasun hauek. Mota honetako hornidurak indartzeak asko suspertuko luke Eremua; eta hazkundearen bidean sartzeko bultzada bikaina izango litzateke.

- Hirigune Historikoko kaleen eta beraien ingurumenaren kalitatea handitu. Hala izanda, lekua askoz ere atsegin eta erakargarriagoa izango da edozein familia hara bizitzera joanda ere, eta aukera erakargarri bat izan daiteke non bizi erabakitzen ari bada. Beraz, Hirigune Historikoa hobetzeak **populazioa erakar dezake** eta asko lagunduko luke lekuko populazioa hazten. Eta zer esanik ez. Mesedegarri litzateke zerbitzuei eta turismoari begira.
- Aipagarriak diren **Kultura-patrimonioaren seinaleak hobetu**. Hirigune Historikoan zehar dibulgaziozko panelak jarri, eta baita ere lurraldeko beste gune batzuetan zehar.
- Funtsezkoa da **Hirigune Historikoan erabilera anitza sustatzea**. Bizitegi izateko lurzoruak eta hirugarren sektoreko jardueratan edo zerbitzuetan aritzeko lurzoruak konpatible egin; jada eraikita dagoenaren balioa handitu eta herriguneei indarra eman. Gainera, proposamen honek industria-jarduerak dakarren inguruaren desitxuratzea bizitegietatik urruntzen du; beraz, bizitegien ondoan ameti daitezkeen jarduerak bakarrik onartzen ditu.

LPPk Balmasedako eta Lanestosako Hirigune Historikoak hobetzeko proposamenak zehaztuta ditu OE-2 eta OE-11 operazio estrategikoetan, “Balmaseda, izaera eta aukera” eta “Lanestosa berritzen” hurrenez hurren.



9 SARE BERDEA

“Sare berdea” delako hori espazio libreetako ekipamenduen sareak osatzen du, hau da, aisialdiguneek, bide berdeak, bizikleta-bideek, udalaz gaindiko parke handiek eta Naturaren Interpretazio Zentroek. Gune guzti hauek lurraldeaz edota ingurune fisikoaz gozatzen laguntzen diete biztanleei, betiere espazio horietako bakoitzarekin errespetuz jokatzuz.

Naturgune Babestuak zein Paisaia baliotsuko nekazaritza-sistemak dokumentu honetan bertan araututa daude eta inguru fisikoaren elementu funtsezkoak dira; bere ezaugarriak eta balio handia behinenak dira Sare Berdea osatu nahi izateko eta disfrutatzeke.

Enkarterriko “Sare Berdeak” kalitate handiko paisaia eta inguruak dauzka, landa-eremuarekin oso lotua daudenak; landa-paisaia deituko genioke. Honi esker eremu honek aukera handia eskaintzen du landa-turismoa garatzeko, aisialdia eta natura uztartzen dituzten jarduerak garatzeko, e.a.. Eskaintza zabal honi esker Eremua Bizkaiko “Landa- eta ingurumen-parkea” izango da.

LPPk paisaiaren ezaugarri eta elementu baliotsuenak mantendu eta, ahal bada, errealizatu nahi ditu. Gainera paisaia eta garapena -garapen ekonomiko eta soziala- bateragarri egin nahi ditu; hau da, garapenak ez dezala natura suntsitu. Beste hainbeste esan daiteke Eremu Funtzionaleko biztanleen bizi-kalitatea hobetzearekin, ez dadila izan naturaren kaltetan. Jarduera bateragarriak bilatzen hasita hauek aipa daitezke: landa-turismoa eta naturan egiteko aisialdiko jarduerak.

Ikuspuntu honetatik paisaia bera produktu bat izango balitz bezala hartzen da, gaur egun erabilera berriak posible egiten dituen eta irabazi ekonomikoak eman ditzakeena. Turismoa eta paisaia elkarrekin lotzen saiatu behar da.

Esan bezala, Enkarterriko Naturaren eta Landa-eremuaren disfrutatzeak mota jakin bateko jarduera ekonomikoa ekar dezake bere atzetik. Baina honek ezin du bertako izaera tradizionala zapuztu, baizik eta martxan dauden jarduera tradizionalen osagarri izan behar du. Irizpide honi esker posible izango da baserri-guneak etorkizunean irautea.

AE-10 akzio egituratzailea “Sare Berdea”, bi operazio estrategikoen inguruan egituratzen da: OE-1 “Landa- eta ingurumen-parkea” eta OE-7. “Kadaguako ibai-parkea”.

9.1 KADAGUAKO IBAI-PARKEA


Proposamen hau, **Kadaguako ibai-parkea**, oso garrantzitsua da, esan genezake Enkarterrirako anbiziotsuenetarikoa dela eta “Sare Berdea”rekin lotuta dago zuzen-zuzenean. Parke honek izaera urbanoagoa dauka, izanez ere, Kadagua ibaian zehar egiten du aurrera eta lurzoru hutsak uzten ditu. Lurzoru huts hauek Kadagua bideratzeko planak Balmaseda eta Zallatik pasa eta Güeñeseko herrigunerainoko tartean aurreikusten zituen hutsuneak dira; eta gune horretatik aurrera ibaiaren gune inundagarrietako hutsuneak ere bai.

Konkretuki, ibaian zehar eremu batzuk proposatzen dira ondoko erabilera hauek hartuko dituztenak:

- **Jolas- eta aisialdi-eremua:** gune hauetan ekintza desberdinak egin ahal izango dira, jolaserako, kirolak praktikatzeko edota kulturaren alorrekoak. Baldintza bat badago baina; bada, eraikinik ez egotea hain justu, izan ere baldintza hori jarrita baitago eremu inundagarrientzat. Hiru zonalde proposatzen dira; bat Balmasedan, beste bat Sodupetik gertu, eta bestea Zallan.
- **Lorategi botanikoa eta aisia:** Landaretzaren kontserbazioa, dibulgazioa eta ikerketa egiteko zentro bat izango litzateke. Zalla eta Arangurenen artean kokatuta egongo litzateke, Arangurenen ez baitago mota honetako espazio bat bera ere. Kasu honetan, horrelako lorategiek bisitarien aisialdia asetzen dute eta ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa indartu ere bai.

Ona izango litzateke gune honetatik gertu ingurumen-hezkuntzarako zentro bat egotea. Hartara posible izango litzateke lorategian bertan aurrera eramateko heziketa- eta sentsibilizazio-jarduerak eskaintzea, bai ikastetxeei, elkarteei zein publikoari. Horrez gain, eskaintza zabalagoa izate aldera, aproposa izango litzateke lorategi botanikoak jatetxeren bat eta jolas-guneren bat edukitzea. Baita ere komenigarria litzateke lorategi botanikoak naturako ekosistemak irudikatzea benetako landareekin eta ale bakoitzari karteltxo batean berari buruzko xehetasunak jartzea: zientzia-izena, izen arrunta eta non aurki daitekeen.

Kadagoako ibai-parkearen eskema



- **Faunaren Behatokia edo Basoko faunaren Parkea:** zona batzuk doitu daitezke informazio minimo bat eskaintzeko. Zona horietan material dibulgatzailea, araei buruzko informazioa, markatutako bidezidorren planoak, interpretazio panelak, e.a. aurkitu ahal izango dira.
- **Labore-gune experimentalak:** zonalde batzuetan ortuak antolatu daitezke, Udalek kudeatutakoak eta asmo desberdinak eduki ahal dituztenak: aisialdirako asmoa, ortuariak ateratzeko, asmo didaktikoak edota asmo experimentalak. Ibaiaren gertutasuna oso ona da ekimen honetarako.

Espazio hauek prestatzeak aisialdirako aukera berriak ematen ditu, batez ere adinekoei. Gainera, jubilatuek mota honetako espazioak gogo handiz hartzen dituzte eta oso ondo aprobetxatzen dituzte. Baldintza batzuk jarri behar dira baina; alegia, laborantza ekologikoa praktikatzeko, bidezidorrak txangozaleentzat irekita uztea, e.a.. Espazio hauek eta bertan egiteko lanak arautuko dituen udalaz gaineko araudi bat ezarriko da. Era berean, komenigarria izango litzateke laborantza ekologikoarekin zerikusia duten ikastaroak ezartzea. Azkenik, proposatutako espazio guzti hauetan sarbideak erraztuko dira, baita barneko bide eta bidezidorrak ere, espazio hauetan posible izan daitezen bisita gidatuak.

Aisialdirako zonalde hauek prestatzean datza ekimena, ingurumenaz gozatzeko azken batean. Baina espazio hauek zentzuzko erabilera merezi dute Kadagua ibaiaren ertzen balio naturalak bere horretan bermatzeko, eta ahal bada hobetzeko. Bestalde, ibaiaren ertz batean egongo den paseo batek lotuko ditu eremu eta herri desberdinak. Kadaguako Ibai-parkearen proposamena O-6 ordenazio planoak jasotzen du, "Sare Berdea".

Kadaguako Ibai-parkea garatzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Harrietako parkeen eredua edota lorategi-guneen estiloa ez da jarraituko. Lortu behar diren habitatek ahal bezain naturalak izan behar dute.
- Parkearen marjinetan babes-banda bat gordeko da. Babes-banda horietan ez da obrarik egingo.
- Zuhaitzik ez dagoen zonaldeetan zuhaitzak landatzeko lanak sustatu behar dira.
- Produktu kutsatzaileak erabiltzea saihestuko da; kutsagarriak direnak bai ibaiarentzat eta bai landaretzarentzat ere.

Parke honen izaera udalaz gaingarria da, ez dago Enkarterriko herritarrentzat bakarrik pentsatuta, baizik eta Bilbo Metropoli-eremuko biztanleei ere zuzenduta dago. Lan honen zehaztasunak OE-07 operazio estrategikoan daude, "Kadaguako Ibai-parkea".

9.2 LANDA- ETA INGURUMEN-PARKEA

“Sare Berde”arekin lotuta dagoen proposamen garrantzitsu bat da Landa- eta ingurumen-parkea. Enkarterrirako bigarren proposamen anbiziotsuena dela esan daiteke. Bere helburua ingurumen- eta paisaia-balio izugarria duen eremuaren babesa da. Eremu hau baserri-giroarekin eta lehen sektorearekin zerikusi zuzena dauka.

Landa- eta ingurumen-parkea ganaduentzako diren larre handiek osatzen dute. Larre horiek osatutako paisaiari landazabal atlantiarra edo mosaiko-paisaia deitzen zaio, eta Karrantzan oso ugari da paisaia estilo hori; gainera ikusgarria da Karrantza Haraneko, Trucios-Turtziozko eta Artzentalesko udal-mugarteen kasua, atzean Ordunteko eta Armañoneko mendiak ikusten baitira. Parke honek bere baitan ditu Eremu Funtzional osoko “Nekazaritza-sistemaren paisaia”rik hedatuenak eta ederrenak; izan, EAEko ederrenak ere izango dira ziur. O-6 ordenazio planoan sartuta daude, “Sare Berdea”.

Denboraren poderioz lehen sektorea indarra galtzen joan da, populazioaren ehuneko gero eta txikiagoa aritzen da baserriko lanetan eta esan daiteke generazioen arteko erreleboa ziurtatu gabe dagoela. Jarduera hau alde batera uzteak ondorio oso txar asko dakartza ingurumenean, paisaian eta lurraldean. Nekazaritzak eta abeltzaintzak asko lagundu dute lurraldearen oreka mantentzen eta landa-eremuaren garapen jasangarriari eusten; inguruko bioaniztasuna eta natura- paisaia eta kultura-ondareak mantentzen lagundu du baita ere.

Landa- eta ingurumen-parkea indartu nahi da batetik Eremuko nekazaritzari eusteko galdu gabe, eta bestetik Euskal Herriko betiko gizartearen ezaugarriak eta bizimodu tradizionala babesteko. Hartuko diren neurriak eta martxan jarriko diren ekintzak hauek dira:

- Erakunde Publikoak inplikatu dira diru-laguntzak ematen baserriko bizimoduaren alde. Landa-bizimodu hau estrategikoa baita dituen balioengatik; ekologiaren balioa, paisaiarenak, gizartekoak zein kulturaren balioak.
- Etengabeko formazioa bultzatu jendea lehen sektorean lanean hastera animatu dadin.
- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren ustiapen metodoak hobetu, batez ere ingurune fisikoari kalterik txikiena ere ez egiteko, eta horrela, ekosistema naturalak beti bezala bizirauteko.
- Landa-eremua garatzeko Foru Aldundiaren programa espezifikoak bultzatu.
- Landa-arkitektura edo baserriak berritu, sustatu eta babestu. Baserriak herrietako plangintza orokorretan kultura-ondare bezala sartu.

- Landa-eremuak turismoarentzat erakargarri egin.

Neurri eta lan guzti hauek OE-1 operazio estrategikoaren barruan daude, “Landa-eta ingurumen-parkea”.

9.3 DAUDEN AISIALDIGUNEETAN HOBKUNTZAK

Eremu Funtzionalean dauden Aisialdiguneetan egingo diren hobekuntzen xehetasunak hauek dira:

- Aisialdigune natural guztiak hobetuko dira eta elkarrekin lotuta egongo dira **bide arinen** bidez; bide hauek oinez, bizikletaz edota zaldian ibiltzeko izango dira Bestela, beste mota bateko bide astunagoak edo fokalizatuagoak eginez gero naturan eginiko inpaktua handiagoa izango litzateke. Hartara, naturaz gozatzea posible izango da ingurumenari inolako kalterik eragin gabe.
- Aisialdi-leku hauek Eremutik kanpoko jendeari, eta oro har, turismoari ezagutzera emateko **seinale egokiak** jarriko dira. Ikusi da EAEko biztanleek ez dutela Enkarterri ezagutzen eta horregatik Eremua ezagutzera emateko eta **turismoa garatzeko** ekimenak aurrera eramatea proposatzen da. Proposamen hauen artean ondokoak egon daitezke: hedabide guztietan publizitate kanpaina bat egin, eta azpimarratu zein ederra den lurralde hau, zein gertu dagoen, dituen baliabide naturalak gogoratu, e.a.; Web-orrialde bat sortu, stand batzuk paratu turismo-azoketan, e.a..
- Aisialdiguneek eskaintzen dituzten zerbitzuak **atundu eta hobetu**: gune barruko bideak txukunduko dira, iturriak jarri, merenderoak, haurrentzako jolas-guneak, aire librean kirolak praktikatzeko espazioak, behatokiak, e.a..
- Bestelako aktibitateak ere eskainiko dira, hala nola bizikletak alokatzea, zaldiak alokatzea, ekitazio eskola, parapentea, txangoak globo aerostatikoan, eskalada, e.a..

9.4 NATURA-IBILBIDEAK

“Natura-ibilbideak” esaterakoan, egon badauden eta proposatutako Aisialdiguneen arteko lotura-bideez ari gara. **Ibilbide arinak**, oinez, bizikletaz edota zaldian egiteko dira. Aisialdigune desberdinetara joateko bide alternatibo bat izan daiteke; edo bestela, beraietan zehar pasean ibiltzeko.

Ibilbide hauek, gainera, eremuko leku interesgarrietara joateko modua eduki beharko lukete; interesgarriak direlako bai naturaren ikuspuntutik, edota zientzia, kultura zein historiaren alorrean; elementu kultural interesgarri hauek LPP honek zehazten ditu, hain zuzen O-6 ordenazio planoan daude, “Sare Berdea”.

Garraio-moduari dagokienean ondokoak izan daitezke:

- **Oinezko ibilbideak:** oinez ibiltzeko pentsatuta daude: oinezkoentzako zonaldeak, paseoak, mendi-zidorrak, basoko pistak, abelbideak, e.a.. Bide hauek balizatu egin behar dira eta informazio-seinaleak jarri behar dira beraietan. Bide hauek bizikleta-bideen parean joan daitezke, edota oinezkoentzako bakarrik izan.
- **Bizikletentzako edo zaldientzako ibilbideak:** bizikletaz edo zaldian ibiltzeko pentsatuta daude: paseoak, bizikleta-bideak edo Bidegorriak, mendi-zidorrak, basoko pistak, e.a.. Bide hauek ere balizatu egin behar dira eta informazio-seinaleak jarri behar dira beraietan. Bide hauek oinezkoentzako bideen parean joan daitezke edota biek espazio bera erabil dezakete.

Enkarterrin, gainera, hiru ibilbide garrantzitsu daude:

- **Done Jakue bidea,** erromes-bide hau Erdi Aroko galtzadan zehar doa. Ondasun kultural izendatuta dago hain zuzen Multzo Monumental kategoriaren barruan; izendapen hau urtarilaren 25eko 14/2000 Dekretuak eman dio. Ibilbide honek Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionala hegoaldeko zeharkatzen du.

Goian aipatutako dekretuak ez zuen grafikoetan jaso Done Jakue bide osoa, besteak beste, Kadaguako ibilbidea ez baita agertzen. Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak 2010eko uztailaren 29an emandako ebazpenaren bidez, hutsune hori zuzendu da, Done Jakue bidearen ibilbide osoa jaso baita grafikoaren bidez, Kadaguako ibilbidea ere barne hartuta.

- **Erromatarren galtzada,** Enkarterriko ekialdeko zonaldea zeharkatzen du iparraldetik hegoalderako noranzkoan. Balmasedako Hirigune Historikoa lotzen du Zalla eta Sopuertan inbentarioan sartuta dauden ondasunekin.

Galtzada erromatarrek ez du babes berezirik, ez baita azterketa zehatzik egin bere ibilbidea aztertzeke. Hala ere, Enkarterrin dagoen aktibo hori babesteko, LPPk kautelaz ezarriko du Euskal Kulturako Ondareari buruzko 7/1990 Legea (45.5 artikulua). Horrenbestez, osagai horretan eragina izan dezaketen obrak egin aurretik, proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari onespina eman diezaion.

- **Ibilbide luzea (GR-123),** ibilbide menditsua da eta Enkarterri inguratzen du perimetralki. Gordexola eta Artziniegaren arteko mugatik hasten da, Balmaseda zeharkatzen du, Ordunteko GKL (Burgoseko muga), Karrantza harana, Armañoneko Parke Naturala, Trucios-Turtziozko herrigunea zeharkatu eta Sopuerta eta Kantabriaren arteko muga uzten du Enkarterri.

Ibilbide naturalen proposamena era honetan zehaztu du LPPk:

- AE-10 “Sare Berdea”. Akzio egituratzaile honetan ondoko arlo hauen inguruko proposamen berriak sartu dira: Kadagua haranerako proposatzen diren Bizikleta-bide edo Bidegorriak, Ibilbide berdeak, Enkarterri osoa lotu eta egituratzen duten bide- eta bidezidor-sarea.
- OP-07 “Kadaguako ibai-parkea”. Operazio estrategiko honek ibilbide hauek lotzen laguntzen du. Gune honetan hasten da ibilbidea herrian barneratzen, herrian sartzeko lehenengo urratsa da.
- OP-01 “Landa- eta Ingurumen-parkea”. Operazio estrategiko honek kalitate handiko paisaia eta ingurumena dituen eremua babesten du. Alderdi hau oso lotuta dago baserri giroarekin Karrantza Haranean, Trucios-Turtziozen eta Artzentalesen. Larre handi eta ugariak daude ganaduarentzat; horiek osatutako paisaiari landazabal atlantiarra edo mosaiko-paisaia deitzen zaio.

9.5 BESTE PROPOSAMEN BATZUK

Beste maila batean, ondoko proposamenak luzatzen dira:

- **Antzinako Bilbo-La Robla trenbidearen trazadura** birmoldatu egingo da eta ibilbide berde bihurtuko da. Ibilbide hau Kadaguako korridorean zehar luzatuko da eta lotura izango dute bai Ibai-parkearekin et bai Done Jakue bidearekin.
- Eremu honetako ingurumena eta paisaia oso aberatsak direnez, **Naturaren Interpretazio Zentroak** edo unitate didaktikoak jartzea planteatzen da. Non jartzeari buruz Lurraldearen Antolaketaren Artezpideak (LAA) eta Lurraldera Sartzeko Guneak (LSG) mintzatu dira. Bada, Galdames eta Balmaseda proposatu dira, izan ere Triano mendietatik eta Koltizatik oso gertu baitaude. Era berean, LAAk proposatu du Karrantza Haranean, Artzentalesen eta Trucios-Turtziozen ere horrelakorik jartzea.

Ondoren jakitera emango da Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Eremu Funtzionalean non kokatuko diren Naturaren Interpretazio Zentroak gutxi gorabehera. Leku horien berri O-5 ordenazio planoan ematen da. Ekipamenduak.

1. La Toba de Arriba (Artzentales)
2. Peña del Cuervo (Balmaseda)
3. El Bortal (Galdames)
4. El Cerro (Trucios-Turtzioz)

5. Ranero (Karrantza Harana)
 6. Aldeacueva (Karrantza Harana)
- Trucios-Turtziozen proposatutako interpretazio-zentroa Armañon Natura Parkerako sarrera moduko zerbait izango da. Interpretazio-zentroa osatzeko, ikerketa-zentro bat zabalduko da alderdi txiki batean. Espeleologiari loturiko gaiak ikertuko ditu, gehienbat izaera zientifikoa izango du, eta endokarst-a aztertzeaz arduratuko da. Kontua da eremu funtzionaleko alde karstikoen ikerketa bultzatzea, eta turismoari eta hezkuntzari begira duen balioa sustatzea, Pozalaguako leize-zuloetatik oso gertu baitago. Ikasgela didaktiko txiki bat egongo da ikasleentzat eta bisitarientzat, eta, era horretan, Enkarterriko geoaniztasuna hobeto zainduta eta babestuta egongo da. Trucios-Turtziozko Interpretazio Zentroa “Sare berdea” izeneko AE-10 ekintza egituratzaileari eta “Ingurumeneko Landa Parkea” izeneko OE-01 eragiketa estrategikoari lotuta dago.
 - Komenigarria izango litzateke gune hauetan harrera-zentroak ipintzea. Abiapuntu apartak izango lirateke. Era berean aisialdigune naturalen arteko lotune izango lirateke eta baita zerbitzu guztiena ere. Lotura guzti hauek bide arinetan zehar egingo lirateke.

Proposamen honi AE-10 “Sare Berdea”k akzio egituratzaileak ematen dio forma. Akzio egituratzaile honetan ondoko arlo hauen inguruko proposamen berriak sartu dira: Kadagua haranerako proposatzen diren Bizikleta-bide edo Bidegorriak, Ibilbide berdeak, Enkarterri osoa lotu eta egituratzen duten bide- eta bidezidor-sarea.

Bestalde, alojamenduak (landa-ostatuak kasu honetan) eta landa-turismoa (landetxeak) sustatu behar dira; Enkarterrik duen ingurumenaren eta paisaiaren aberastasuna aprobetxatu beharrekoa da dudarik gabe. Aipatu behar da azken urteetan nola egin duen gora ekologia- eta ingurumen-turismoak. Turismo mota berri baten aurrean egon gaitezke.

10

HIRI FINKAPENAK

10.1 HIERARKIA URBANOA

Finkapenek hierarkia bat jarraitzen dute Eremu Funtzionalaren barruan jokatzeko duten, edota eman zaien, funtzioaren arabera. Finkapen-sistemari dagokionez, aurreikusitako egituraketak sistema polinuklearra jarraitzen du. Sistema honen barruan lau maila bereiz daitezke:

1. maila: hierarkiaren goiko erpinean **herriburuak** daude. Herri hauetan daude jarduera eta zerbitzu espezializatuenak. Sistemak bi herriburu planteatu ditu eta bien artean osotasuna lortzen dute; nolabait, bi **herriburuak** elkarrentzat osagarri dira:

- Balmaseda: betiko Enkarterriko herriburua. Berak hartzen ditu jarduera administratibo gehienak, bera da barruti judizialaren burua.
- Zalla: Eremuan gehien hazten ari den herria da eta populazio handiena daukana. Bertako merkatal jarduerak eskualde mailan garrantzia handia dauka.

2. maila: hierarkian **herriburu-ordeak** dira. Hierarkian erdiko mailan daude; herriburuak ez badira ere gainontzeko herriek baino zerbitzu espezializatuagoak dituzte. Eremu Funtzionalaren antolaketan zerbitzu eta jarduera jakin batzuk jartzen dituzte herri txikiagoen eskura; biztanle gutxiko herri txikietan posible izango ez ziren zerbitzuek hain justu. Eremuaren barruan bi herriburu-orde planteatu dira espezializazio maila jakin bat dutenak:

- Güeñes (Güeñes eta Sodupe)
- Sopuerta.

3. maila: maila hau **Herrigune Nagusiek** osatzen dute. Auzune txikiz osatutako herrigune asko daude Eremuan. Era berean, bizitegi edo herrigune txiki horiek bat dute beraien artean nagusia dena; bada, horixe da Herrigune Nagusia. Hauetan guztietan, Herrigune Nagusietan alegia, eskainiko dira oinarritzko zerbitzuak eta herrigune txikiak bertara jo beharko dute funtsezko beharrak asetzera, eta hala ez bada berriz, herriburu-orde edota herriburueta.

- Artzentales (Traslaviña eta San Miguel Linares)
- Galdames.
- Karrantza Harana (Concha eta Ambasaguas).
- Trucios-Turtzioz.
- Lanestosa.
- Gordexola (Molinar)

4. maila: hierarkian azpiko maila da hau eta **Bigarren Mailako Herriguneek** osatzen dute. Hemen sartzen dira goiko mailetan ez dauden Eremuko auzune txikiak. Auzune hauetako batzuk oso erakargarriak izan daitezke kultura edo historiaren alorrari begira interesgarriak direlako, edota interes handiko elementu naturalen ondoan daudelako.

Proposatzen den ereduari balmaseda eta Zalla, bata bestearen konplementu delarik, kalitate handiko ekipamenduen kokaleku izango dira. Hori posible izateko, baina, bien artean populazio maila nahikoa izatea lortu behar da eta, beraz, hazi egin beharra daukate. Hazkunde hori etxebizitza berrien eta enplegu berrien eskaintzarekin gauzatu ahal izango da.

Zalla eta Güeñes Arangurenetik gertu daudenez, kokapen horretan bertan daukate beraien garrantziaren gakoa, izan ere Eremu Funtzionaleko oso leku estrategikoan baitaude: garraio azpiegitura handietatik (BI-630 eta FEVEren trenbidea) gertu eta, batez ere, industrialde garrantzitsuak dituzten eremuetatik gertu.

Hauxe izango litzateke, orduan, aipatutako estrategiaren helburua, bada, industria-jarduera bi herri hauetara ekartzea. Jakina, ekimen honek eskatzen du herriguneak industriari itxi eta ondo antolatzea.

Diagnosiaren txostenak Eremu Funtzionalarentzat erronka hau jartzen zuen mahai gainean; alegia, eskualdean urrutien eta aparte dauden zonaldeen garapena. Batetik, hauek baitira hazteko aurreikuspen handiena duten lekuak, eta bestetik, bertan garatu ahal direlako balio erantsi handiena duten jarduerak.

10.2 ESKU-HARTZE MODUAK

LPPk planteatzen duen egitura berria jada garatuta dauden herriguneetan oinarritzen da. Hiri-finkapenen sistema zehazteko Lurraldearen Ereduak egungo egoera hartu du oinarri bere esparruak bereizteko orduan. Beraz, Lurralde Planaren ekinenak hortxe gauzatuko dira.

Hiri-sistema honetan lurzorua okupatzeko moduen artean hauek bereizten dira:

- Eremu urbano garatuak: lurzoru okupatua (urbanoa eta urbanizagarria)
- Garapen berrietarako lehentasuna duten eremuak: dauden eremu urbano garatuen handitzeak. Hauen artean ere bada bereizketarik:
 - o Bizitegien garapena: bizitegi izatera zuzenduta dauden eremuak dira; batzuk etxe-dentsitate altuko- eta ertaineko garapenak; beste batzuk, berriz, etxe-dentsitate ertainekoak.
 - o Ekonomia-jardueretako garapenak.
 - o Ekipamendu handiak: handiak diren partetik, ekipamenduak eskaintzeaz gain ekonomia-jarduerak gauzatu eta garatzeko aukera ere ematen dute.

Hau hala bada, esku-hartzeko moduak ere bi multzotan bereiz daitezke:

- a) **Dauden finkapenetan esku-hartzeko moduak:** Lurralde Planaren proposamen hauek udal-plangintzaren barruan sartu diren eremu urbanoei (dauden herriguneak eta garatuta edota garatzeko dauden lurzoru urbanizagarriak) eragiten diete.
- b) **Garapen berrietarako lehentasuna duten eremuetan esku-hartzeko moduak:** Lurralde Planak garatu ahal izateko eremu berriak proposatu ditu.

10.2.1 DAUDEN FINKAPENAK

Lurralde Planak bost esku-hartzeko modu proposatu ditu dauden finkapenetan:

- 1) **Dentsifikatu:** bizitegien lurzoruetarako pentsatuta dago. Lurzoru batzuetan udal plangintzak hektarea bakoitzeko mugatuta duen etxebizitza etxe-dentsitatea oso baxua da; edota udal-plangintzak zehazten ez badu ere, okupazioa bera da txikia. Bada, bizitegiatarako lurzoru horien parametroak aldatu egin behar dira. Izatez, lurzoruaren erabilera optimoa zapuzten dute. Dentsifikazioa batez ere garraio publiko desberdinetatik (tren-geltokiak batik bat) gertu dauden lurzoruetan pentsatu da; kontuan hartuta, era berean, etxe-dentsitate txikiak garraio publikoaren erabilera ez duela behar beste aprobetxatzen eta bere garapena justifikaezina egingo

lukeela; eta hartara, autoaren erabilera bultzatuko litzatekeela zeharka bada ere.

- 2) **Eraikita dagoen ondarean esku-hartzea:** dauden eraikinetan esku-hartzeko modua da, betiere legearen arabera; posible egin nahi da dauden eraikinak bene-benetan etxebizitza eskaintza izan daitezela. Dauden eraikinen ondarea erabili eta optimizatzea lehentasunetako bat da, era horretan lurzoru berrien erabilera murrizteko eta etxebizitzaren merkaturia osatzeko. Esku-hartze hau funtsean hiru ardatzen inguruan arituko da:

- Etxebizitza hutsetan esku hartu.
- Etxebizitzaren zaharberritzeak sustatu.
- Etxebizitzaren tipologia egungo demandaren moldera egokitu.

Zentzu honetan, garrantzidun arkitektura ondarearen babesa eta bere balio kulturalak babestuko dituen ekintzen bitartezko esku-hartzeak, lehentasuna izan behar dute berreskurapen eta errehabilitazio politikan, beti ere, kultura ondarean indarrean dagoen sektore legediarekin bat etorriz.

- 3) **Berregituratu:** proposamen hauek egungo industria-paisaiaren ingurukoak dira. Azken batean, proposamenek industria-paisaiaren irudia hobetu eta paisaia urbanoan egokiago txerta dadin nahi dute.

Esku-hartze honek eragindako lurzoruak zein diren grafikoki erakusten du LPPk. Lurzoru hauek egun daukaten irudia aldatu beharko dute; helburuak hauek dira:

- Ondo okupatuta dauden lurzoruak hobetu.
- Industrialde zaharkituak berregituratu.
- Industria-lurzoru bezala kalifikatuta dauden okupatu gabeko lurzoruak garatzea eta beste itxura bat ematea: ingurua atsegin bilakatu behar da; eraikita dauden espazioak erakargarri gertatu behar dute; eta inguruaren kalitateari, kantitateari baino gehiago, garrantzia emango zaio.
- Azterketa eta bere balio historiko, teknologiko eta ikonografikoengaitik erreferentzi eta itutzat erabili behar ditugun elementuen aukeraketa zorrotzaren bitartez, industri ondarea osatzen duten elementuen babesa, beti ere, kultura ondarean indarrean dagoen sektore legediarekin bat etorriz.

Honek guztiak ez du esan nahi esku-hartze modu hau LPPk espresuki aurreikusi ez duen lekuetan ez denik horrelakorik egingo, alegia, berritu

beharra duten espazioetan berregituratze lanak egingo ez direnik; beraz, nahiz eta LPPk ez aurreikusi posible da leku batzuetan esku-hartzeak gertatzea berregituratzeko helburuarekin. Horretarako, gomendioa da interbentzio mota hau lehentasuna duten herrietan aplikatzea, eta hori LPSk adieraziko du.

- 4) **Itzuli:** LPPk bere esku-hartzeko moduen artean itzultzeak ere planteatzen ditu; gaur egun udal-plangintzak klasifikatuta dituen lurzoruak naturari itzultzean datza ekimen hau.

Ekimen hau funtsezkoa da. Udal plangintzek beraien berrikusketetan lurzoruak desklasifikatzeko esfortzua egin behar dute; lurzoru batzuk oraindik kudeatu gabe daude, beste batzuk kudeatzeko zailak dira, edota urrun daude; badaude oker klasifikatu zirenak edota leku inundagarrietan daudenak, eta abar. Esku-hartze honek plangintzak doitu eta egokiak egin nahi ditu. Finean, lurzoruen aukeraketan okerrak ekidin nahi ditu inork ez dezan amets ustelik egin.

- 5) **Entitate dentsifikagarriak:** esku-hartze hau mendi-eremuetarako pentsatuta dago. Leku hauetan populazioa baserri-guneetan bizi da batik bat eta hazkunde urbanoak bultzatzeko eremu berririk ez da oraindik topatu; era berean, ez dago gune urbanizagarriarik, ibarren baldintza orografikoen ondorioz, malda handiko lurzoruak baitira, eta dagoen hirigintzako bilbeak, errekek eta beste osagai batzuek dena baldintzatzen baitute.

Hortaz, berriz trinkotzeko moduko erakundeen kontzeptua azaltzen da, arazo zehatz hori tartean dagoelako, eta hiri-lurzoruaren ondoan dauden guneei baizik ez zaie ezarriko.

Dauden finkapenetan esku-hartzeko modua O-7 ordenazio planoan ikus daiteke, "Hiri-finkapenak".

10.2.2 GARAPEN BERRIETARAKO LEHENTASUNEZKO EREMUAK

Garapen berrietarako lehentasunezko eremuetan esku-hartzeko Lurralde Planak arlo batzuk definitzen ditu erabilera eta eraikigarritasuna kontuan hartuta, betiere lurralde ereduarekin bat datozenak:

- 1) **Bizitegien garapena:** etxebizitzak egiteko espazioek osatzen dute. Bi motako bizitegiak daude aukeratutako etxe-dentsitatearen arabera:
 - Etxe-dentsitate ertaina-altua: kasu honetan etxe-dentsitatea hektareako berrogeita hamar (50) edo gehiagokoa da. Beste era batera esateko: eraikigarritasun gordina beti da, metro koadro lurzoruko 0,5 metro

koadro teilatu edo gehiagokoa; eta metro koadro lurzoruko 0,7 metro koadro teilatu edo gutxiagokoa.

- Etxe-dentsitate ertaina: kasu honetan etxe-dentsitatea hektareako berrogeita hamar (50) etxe baino gutxiagokoa da, eta aldi berean, Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legeak onartzen duen minimoa bezalakoa edota handiagoa. Beste era batera esateko: eraikigarritasun gordina beti da, metro koadro lurzoruko 0,5 metro koadro teilatu baino gutxiagokoa; eta aipatutako legeak onartzen duen minimoa bezalakoa edo handiagoa.

Etxe-dentsitate parametroak (etxebizitza/hektarea edo etxe/ha.) beti hartzen du erreferentzi gisa ehun (100) metro koadroko etxebizitza.

- 2) **Ekonomia Jardueren garapena:** estrategikoki, lurralde ereduaren arabera eta ikusi diren gabeziei erantzun nahian jarduera batzuk martxan jartzea aurreikusi da; beste batzuetan, gabeziei erantzuteko baino eremuak eskaintzen dituen aukerak garatzeko izan da. Garapen honen barruan daude, helburu publikoen izenean esku-hartze publikoak jarduera produktiboa martxan jartzeko pentsatu dituen lurrak.
- 3) **Ekipamendu handien garapena:** dotazio hauek proposatzen dira ekonomia jarduerari begira; asmoa baita beraien atzetik ekimen probatuak etortzea.

Garapen berrietarako lehentasunezko eremuetan egingo diren esku-hartze modu hauek O-7 ordenazio planoan ageri dira, "Hiri-finkapenak".

10.2.3 GARAPEN BERRIAK ANTOLATZEKO BALDINTZA BEREZIAK; XEDE HORRETARAKO AURREZ DEFINITU EZ DIRENAK.

Salbuespen bezala garapen urbanistiko berriak onartuko dira xede horretarako definitu ez diren lurzoruetan edota garapen berrietarako lehentasunezko eremuetan. Horretarako Udal-plangintzak zehatz-mehatz justifikatu beharko du dena delako ekintza hori: alde batetik gizarte-interesekoa dela adierazi beharko du; jarraian, LPPk diseinatutako lurralde ereduarekin eduki ahal duen zerikusia azaldu; eta azkenik, lurraldean izan ahal duen inpaktua aztertuko du.

Testuinguru horretan soilik eta bakarrik udal-plangintzak mugatu ahal izango ditu ekonomia-jarduerentzat zein bizitegi-entzatat zonalde orokorrak; aldeaz aurretik dokumentu honek kontuan hartu gabe zituenak. Gainera, horrek ez du esan nahiko LPPren gainean eginiko aldaketa bat denik. Dena dela, aipatutako aparteko aukera hau posible izango da egoera berezi hauetan bakar-bakarrik:

- Hazkunde txikiak, hots, herrigune baten bere-berezko hazkundera dena eta herri-bilbean osatzeke dauden guneetan kokatzen dena, adibidez: bide-

eratzunak, berdegunezko, orografiaren mugak, e.a.. Hau da, osotasunik ez duten aldaketa txikiak dira hemen aipatzen direnak; ez badiote proposamen osoari eragiten.

- Lehendik zeuden herri-guneetan oinarritzen diren aldaketak, eta zeharka bada ere, etxe-multzo horiekin zerikusia dutenak. Aldaketa hau egiteko oso komenigarria dela argi eta garbi azaldu behar da.
- Eremu Funtzionalaren barruan egonda Kadagua ibaiaren urek hartu edo inundatu ahal dituzten lurzoruak; betiere, gune horretako Ibaiaren Bideratze-plana LPP hau baino beranduago idazten bada. Orduan hiri-plangintzaren barruan sartu ahal izango dira lurzoru horiek herrigunearen hazkundera gauzatzeko. Halere, hazkundera herriaren erdigunean gauzatu behar dira eta herri-bilbea osatzeko balio beharko dute.
- Irizpide hauen arabera udal-plangintzak bizitegi izateko proposatutako lurzoru berriek ezin dute zehaztuta dagoen bizitegien kopurua handitu, ez eta proposamenaren arabera bizitegi izateko okupatuko diren lurzoruen azalera handitu ere.
- Irizpide honen arabera udal-plangintzak ekonomia-jardueretara zuzentzeko lurzoruak mugatu ahal izango dira, batez ere, herriak berregituratzeko operazio multzoen barruan; bakarrik industria-sare zaharkituei erantzun bat eman behar zaienean, alternatiba gisa, mugatu ahal izango dira lurzoruak helburu horrekin.

10.3 BIZITEGI-LURZORUA

Bizitegien gainean LPPk egiten dituen proposamenak esku-hartze modu desberdinak dituzte: jada lehendik zeuden finkapenen gainean egitekoak; eta garapen berriak bestetik.

Zentzu honetan azpimarratu behar da, gure hirien eta herriguneen etorkizunari begira, ezer baino lehen, lehendik zeuden finkapenak direla garapenaren oinarria eta horregatik indartu egin behar direla. Errazagoa litzateke kolonizazioaren bidez eremu berrik hartzea, baina honek inguru natural hurbilari kalte egingo lioke.

10.3.1 ESKU-HARTZEAK DAUDEN FINKAPENETAN

Dentsifikazioa

LPPren helburuetako bat herri guztietan dentsifikazio politikak sustatzea eta erabilera anitza orokortzea da; bizitegi izateko lurzoruak eta hirugarren sektoreko jardueratan edo zerbitzuetan aritzeko lurzoruak konpatible egin; jada

eraikita dagoenaren balioa handitu eta herriguneei indarra eman; baita herrien arteko harremanei ere. Gainera, proposamen honek industria-jarduerak dakarren inguruaren desitxuratzeari bizitegietatik urruntzen du; beraz, bizitegien ondoan ameti daitezkeen jarduerak bakarrik onartzen ditu.

Hau da Balmasedaren kasua. Herriaren erdigunea dentsifikatzea funtsezkoa da; kontuan hartu, bestela, zein lurzoru gutxi duen erabilgarri herri honek. Lurraldearen ereduak daukan lekua dela-eta, Ereku Funtzionaleko herriburuetako bat baita, bizitegien arloan hazi beharra dauka dentsifikazioaren bidetik. Jada klasifikatuta dituen lurzoruak bete beharko lituzke.

Eraikitako ondarearen gainekeo lanak

LPPk oso komenigarritzat jotzen du dauden eraikinen ondarea berreskuratzea eta berritzea. Lehentasunezkoa eta beharrezkoa da dauden eraikinak aprobetxatzea; beste era bateko esku-hartzeak alde batera utzita. Bi helburu daude honen atzean: lehengoa, lurzoru berrien kontsumoa gutxitzea, nekazaritzarako lur gehiago egon dadin; eta bigarrena, eraikinak doitu, bizitegi egin eta etxebizitzaren eskaintza handitzea.

Dauden eraikinen optimizatzea funtsean hiru ardatzen inguruan arituko da:

- Etxebizitza hutsetan esku hartu.
- Etxebizitzaren zaharberritzeak sustatu.
- Etxebizitzaren tipologia egungo demandaren moldera egokitu; ildo honetan, salbuespenak lurzoru ez urbanizagarrietan dauden eraikinak dira.

Jakina, esan beharrik ez dago aipatutako arloak kudeatzea ez dela batere erraza. Zaila da eta udal-administrazioei dagokie gainera. Beraz, nabarmena da udalek hausnarketa bat egin behar dutela egin behar dutela; esku-hartze modu hau aurrera eraman ahal izateko udalek hartu behar baitituzte neurriak, eta hau ez da gauza erraza.

Eusko Jaurlaritzaren estatistika datuen arabera, gure Erkidegoan dagoen etxebizitza hutsen kopurua etxebizitza-parke osoaren % 10a da gutxi gorabehera. Esan behar da kopuru handia dela eta interbentzio publikoa eskatzen duela etxebizitza guzti horiek merkaturatzeko eta, hartara, eraikita dagoen lurzoruko etxebizitza eskaintza handituko litzateke. Politika honek aurrera egiteko udalek neurriak hartu beharko lituzkete eta ekidin beharko lukete lurzoruaren kontsumo hain arina eta erraza, izan lurra ondasun preziatua baita. Udal-plangintza eta bestelako programa batzuk, Eusko Jaurlaritzaren "Bizigune" programa kasu, oso ekimen eta pizgarri egokiak dira; guzti honi esker posible izango da jada eraikita dagoen ondareari buruz dugun ideia aldatzea.

Arestian aipatu da etxeen tipologia aldatzeko buruzko zerbait. Bada, era berean, argumentu bertsuak erabiliz, etxabeak etxebizitza egitea planteatu daiteke;

gainera, erregulazio hau udalak berak egin ahal duen kontua da, erraza beraz. Dena dela ere, proposamen honek dituen ondorioei erreparatuta, oso kontuan eduki behar de Ekonomia-jarduera; ondorioz, ziurtatu egin behar da etxabeen ehuneko bat komertzioari eskainita edukitzeaz gain, edozein hirugarren sektoreko ekonomia-jardueraren esku egon ahal izatea, zerbitzuen zein industriaren esku; betiere bizitegiekin bateragarriak diren jarduerak izango dira, noski. Beraz, kopuruak zehazten hasita, bermatu behar da, gutxienez, eremuko ehuneko hamabosteko (%15) erreserba bat, bertan ekonomia-jarduera osagarriek lekua har dezaten.

Landa-guneetan dauden baserrien kasuan (2/2006 Lurzoruaren Legea eta berau garatzen duen Dekretuaren arabera), posible izango da landa-gunean dauden baserriak hainbat etxebizitzatan zatitzea. Horretarako, LPPk ezarritako baldintzak guztiak eta indarreko legeriak xedatutakoa bete beharko da. Berrikuntza eginda geratuko diren etxebizitzek, batek berak ere, ez dute laurogeita hamar (90) metro koadro azpitik edukiko.

- Leihorik gabeko etxebizitzarik ez da onartuko.
- Etxebizitzan gutxienez lau gela edukiko dituzte kanpora edota espazio libre batera, publikoa zein pribatua, leihoa dutenak.
- 20/1997 Legeak eta bera garatzen duten dekretuek irisgarritasuna sustatzeko finkatu dituzten baldintzak bete beharko dira.

Landa-guneetako eraikinak hainbat etxebizitzatan banatu ahal izango dira, bai eta, bereizi gabe, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak eta lege hori garatzeko premiazko neurriak finkatzen dituen 105/2008 Dekretuak zehazten dituzten baserriak ere.

Katalogatutako baserriei dagokienez, zatiketa egitean, Euskal Kulturako Ondareari buruzko 7/1990 Legeak kalifikatu edo inbentariatutako kultura-ondasunak babesteko ezarri duen araubidea bete beharko da.

Katalogatutako eraikina hainbat etxebizitzatan zatitu ahal izateko, aurrez, eraberritu beharko da. Eraberritze-lanak osorik egingo dira, hala proiektua idaztean, nola lana betearaztean, eta eraberritzeko proiektuan argi zehaztu beharko da baserria hainbat etxebizitzatan zatitzeak duen emaitza.

Neurri hauekin elementu hauen berreskurapena sustatu eta lortu nahi da. Bestela, zaila edukiko lukete eta.

Proposamen hauek udal-plangintzak kudeatuko ditu eta zehaztapenak bere esku geratuko dira. Honekin etxebizitzan eskaintzari aportazio bat egin nahi zaio eta horrekin batera lurzoru berrien okupazioa murriztu nahi da.

tzultze operazioak

LPPk naturari nahitaez itzuli beharreko lurzoruak zehaztu ditu. Honek ez du esan nahi LPPk espresuki itzulketarik planteatu ez dituen herrietan horrelako esku-hartzeak egin ezin direnik. Herri hauek itzulketak egitea beharrezkoa dela ikusten badute aipatu ditugun helburuen arabera, egin dezatela.

- Zalla (B-6 sektorea, Otxaran): Udal-plangintzaren berrikusketak bizitegi-lurzoru hori zerrendatik atera behar du, oker inplantatuta baitago. Honekin lurzoru horren artifizializazioa ekidin nahi da. Bere azalera, gutxi gorabehera, 4,78 hektareakoa da.

Entitate dentsifikagarriak

LPPk landa-gune guztiak aztertu ditu. Eta ikusi du aipatu ditugun ezaugarri guzti hauek betetzen dituzten landa-guneak badaudela herri horietan. Lurraldetasunaren ikuspegitik uste da, eta ustea loteslea da hain zuzen, hazkunde berriak hartzeko landa-gune aproposenak, hots, entitate dentsifikagarriak, hauexek direla: hirigunearen ondoan dauden bi guneak, Soscaño eta La Tejera (Karrantza Harana). Gune horien zati garrantzitsu bat sartuko da eta berriz trinkotuko da, Concha-Ambasaguas hirigunearen ondoan hazkunde jarraitua sortzeko.

Entitate dentsifikagarri bezala hartuta dauden landa-gune hauetan baliteke etxe-multzoaren betiko muga aldatu behar izatea, eta aldaketaren ondorioz beste tamaina bat hartzea. Honek ez du esan nahi etxe-multzoaren betiko muga osatu eta bete behar denik lurzoru urbano eta urbanizagarrien hazkundearekin; baizik eta udal-plangintzek berrikusketa egiten dutenean tentu handiz aztertu behar dituztela, landa-gune horiek proposamenak lurzoruaren benetako beharretara ondo egokitze, eta lekuz kanpoko akziorik ez egiteko.

LPPk proposatzen duen lurraldearen eredia jarraituz udal-plangintzak egin ahal izango duen gauza bakarra zera da: entitate dentsifikagarri bezala hartuta dauden landa-guneetako hirigune aldameneko eta ondoko zatia lurzoru urbano gisa sailkatzea ahalbidetzea. Proposamen hau OE-08 operazio estrategikoan ikusten da, "Hazkunde selektiboa landa-guneetan".

Esku hartzeko egin den proposamenari jarraiki, Udalak ondo aztertu behar du Concha-Ambasaguas hirigunearen ondoan dauden bi gune horien zati bat hiri-lurzoru bihurtzeko dagoen aukera, eta, horretarako, oinarri hauek hartu beharko ditu kontuan:

- Concha-Ambasaguas guneak hazteko duen gaitasuna; hori jakiteko, gunearen ondoan dauden eta egokiak eta baliagarriak diren lurzoruak aztertu beharko dira.

- Eskatutako azalera doitu beharko da, behar-beharrezkoa den horretara mugatuta.
- Eraldatze-prozesua ondo jasateko egokiak diren azpiegiturak.
- Hazkundera murriztu dezakeen muga geografikorik ba ote den.
- Sortzen den hiri-egiturak jarraipena eman beharko dio hiri-bilbeari.

Bestelako alderdiak

Itxura denez, gasolindegia Gueñesen jartzeko ideia ez da oso egokia, etxebizitza asko eta kultura-etxea oso hurbil dituelako. Gainera, aurreikuspenen arabera, trenbidearen ibilbidea desagertuko da, hirigunea hobeto integratzeko eta Soduperen hiri-irudia hobetzeko.

Hiriko continuumean gasolindegia bat jartzea udal-plangintzaren eskumena da; eta LPPk zera besterik ezin du egin: goian azaldutako arrazoiak aintzat hartuta, beste kokaleku bat proposatu. Hortaz, Gueñesko Udalari gomendioa egiten zaio LPPren proposamen hori aintzat har dezan.

10.3.2 GARAPEN BERRIAK

LPPren lurraldearen ereduak, aipatu bezala, ekonomia-jardueren eta bizitegien artean oreka bat bilatu nahi du; hori dela eta, batez ere bizitegi izango diren garapen berrietan eremuaren ehuneko hamabosta (%15) erreserbatuko du ekonomia-jarduera osagarrientzat, hala nola: txikizkako komertzioek erabiltzeko, bulegoak jartzeko, tailerrak, bizitegien eremuan jardun dezaketen industriak, eta mota guztietako hornidurak eskaintzeko; laguntzazkoak, soziokulturalak, e.a.. Erreserba horrekin etxebizitza eta enpleguaren artean oreka bat lortu daitekeelakoan.

Etxe-dentsitate ertaina-altua duten bizitegien garapenak.

Etxe-dentsitate altua pentsatu da lurzoru gutxi erabilgarri duten zonaldeetarako; edota aldiriko trenen geltokiak gertu dituzten eremuetarako, eta horrela biztanle gehiagok edukiko luke erraz asko garraio publikoa esku-eskura.

Ondoko garapenak proposatu dira:

- Balmaseda (Calzada): egungo herrigunea hazi egingo da; egungo herrigunetik hasi eta Kadaguako korridorea bitarteko tartean hain zuzen. Gutxi gorabeherako azalera: 7,25 hektarea.
- Zalla (Mimetiz): herrigunea Karmengo triangelutik hegoalderantz eta Mendietatik mendebalderantz Gallardi zonaldean zehar. Gutxi gorabeherako azalera: 18,29 hektarea.

- Güeñes (Costanilla-Sier): Güeñes herrigunea hasiko da trenbiderantz bi herri-bilbeak lotuko dituelarik. Gutxi gorabeherako azalera: 6,02 hektarea.

Etxe-dentsitate ertaineko bizitegien garapenak

Oro har, etxe-dentsitate ertaineko eskaintza garraio publikoa gertu ez duten eremuetarako planteatzen da; edota orografia eta inguru zailak dituzten zonaldeetarako. Ondoko garapenak proposatu dira:

- Lanestosa (Lanestosa Iparralde): Lanestosako herrigunea haziko da bere iparraldean, errepidea eta ibaiaren artean. Gutxi gorabeherako azalera: 3,46 hektarea. Ekintza honek Kalera ibaiarekiko, E.A.E.ko Ekologi Korridoreen Sarearen garrantzi bereziko lotura zatia, duen hurbiltasuna dela eta; elkartze funtzioa arriskuan ez jartzeko kontuak handitu beharko dira.
- Artzentales (Traslaviña): egungo herrigunea mendebalderantz haziko da bi sektore osatuz. Gutxi gorabeherako azalera: 6,00 hektarea.
- Sopuerta (Cotarros Mendebalde): Cruceroko herrigunea hegoalderantz haziko da Cotarroseko landa-gunearekin bat egin eta herri bakarra osatu arte, errepidearen mendebaldean. Gutxi gorabeherako azalera: 9,28 hektarea.
- Sopuerta (Cotarros Ekialdea): Cruceroko herrigunea, errepidearen ekialdean, hegoalderantz haziko da Cotarros eta Capetillo auzoekin bat egin eta herrigune bakarra osatu arte. Gutxi gorabeherako azalera: 19 hektarea. Hirigintza-arloan hazkunde egokia lortzeko, komenigarria da Iberdrolak Los Cotarros auzoan duen azpiestazio elektrikoa tokiz aldatzea, eta San Martin de Carral auzotik gertu jartzea, bertan dagoen goi-tentsioko linearen ibilbideari jarraiki.
- Galdames (San Pedro): egungo herrigunea bi sektoretan haziko da, ipar-ekialdean eta hego-ekialdean hurrenez hurren. Gutxi gorabeherako azalera: 8,00 hektarea.
- Güeñes (Quadra): Quadrako herrigunea goiko aldetik haziko da, izan ere, tren-geltoki berria zonalde horretan jartzea aurreikusita baitago. Gutxi gorabeherako azalera: 4,49 hektarea.
- Güeñes (La Sier): La Sier auzoaren hegalean emango da hazkunde, familia bakarreko etxebizitza batzuk dauden zonaldearen ondoan. Gutxi gorabeherako azalera: 2,81 hektarea.
- Güeñes (Sodupe-Etxebarria): Sodupeko herrigunea haziko da Etxebarria auzoan. San Migeleko egungo lurzoru urbanizagarrien sektoreari dagokio Gutxi gorabeherako azalera: 18 hektarea.

- Gordexola (Sandamendi-Ligorria): Molinarreko herrigunearen hazkundera, Sandamendi eta Ligorria auzoen artean, errepidearen iparraldean. Gutxi gorabeherako azalera: 4,92 hektarea.
- Gordexola (Ibarra): Molinarreko herrigunea hego-ekialderantz haziko da Ibarra landa- Gutxi gorabeherako azalera: 3,32 hektarea.
- Gordexola (Oxirando): Oxirandoko landa-gunea hegoaldeetik haziko da. Gutxi gorabeherako azalera: 4,03 hektarea.
- Zalla (Gallardi): Mendietako herrigunea hegoalderantz haziko da Gallardi zonaldean zehar. Hazkunde hau besteren ondoan, jarraian, egongo da, hots, Mimetizeko etxe-dentsitate ertain-altuko bizitegien garapeneren ondoan; biak dira LPPren proposamenak. Gutxi gorabeherako azalera: 17,57 hektarea.
- Zalla (Aretxaga): Aretxagako herrigune hau handituko da. Gutxi gorabeherako azalera: 6,32 hektarea.

Azkenik, aipatuko dugu nola ez den posible izan bizitegien hazkunde bat; Balmasedaren ekialderantz, Zallako udalerrian hain justu. Izanez ere, ibaia baitago bertan eta orografia oro har zaila da. Horregatik ez dator bat LPPren Lurraldearen Ereduarekin eta ez da egokia iruditu.

BIZITEGI-LURZORUA			
LPP-REN LURRALDEAREN EREDUA			
ESKU-HARTZE MODU BAKOITZEKO AZALEREN ESTIMAZIOA (HA)			
	Itzultze Operazioak	Bizitegien garap. (etxe-dentsitate altua)	Bizitegien garap. (etxe-dentsitate ertaina)
ARTZENTALES	0	0	6,00
BALMADEA	0	7,25	0
KARRANTZA	0	0	0
GALDAMES	0	0	8,00
GORDEXOLA	0	0	12,27
GÜEÑES	0	6,02	25,30
LANESTOSA	0	0	3,46
SOPUERTA	0	0	28,28
TRUCIOS-TURTZIOZ	0	0	0
ZALLA	-4,60	18,29	23,89
TOTAL	-4,60	31,56	107,20

10.3.3 BIZITEGI-LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA ETA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA

Bizitegi-lurzoruak kuantifikatzeko prozesuak irizpide hauek ditu oinarri-oinarrian:

- Kalkuluak malgua izan behar du. Horrela bakarrik erantzungo baitie leku geografiko batean eman ohi diren aldaketei; bai aldaketa demografikoei, ekonomikoei, aldaketa urbanoei zein lurraldearen aldaketei.
- Kontuan eduki herri bakoitzaren etxebizitza kopuruaren mugak; maximoak zein minimoak. Horrela hobeto ulertuko dira, egungo lurraldearen eredia aztertzerakoan, gaingitu/aldatu/hobetu eta horrelako aspektuak.
- LAAk erabakitako bizitegi-kuantifikazioak doitu. Horretarako kontuan hartuko da lurraldeak zenbat etxebizitza hartu ahal dituen era egokian eta zein ondorio ekarriko dizkion herriaren egiturari.
- Babes Publikoko Etxebizitzari buruz, kontuan edukiko dugu 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. Lege honek bere 82.artikuluari, *Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak egiteko erreserba-beharra duten udalerrriak*, zehazten du 3.000 biztanletik gorako herriek lurzoru-erreserba eduki behar dutela; eta obligazio bera dute, baita ere, herrigune trinkoa duten 2.000 biztanletik gorako herriek.

Xedapen hauen arabera, Balmaseda-Zalla (Enkarterri) Eremu Funtzionalean, Babes Publikoko Etxebizitzak egiteko lurzoru-erreserba egin beharrean dauden herri eta/edo herriguneak hauek dira:

- Balmaseda
- Güeñes
- Zalla

Ondorengo taulan, udal hauetan aurreikusiak dauden egoitza garapen berriak eta beraz, dagoen legedi sektorialarekin bat datorren babez publikoko arau baten menpe egongo diren egoitzentzako lurzoru zati bat gordetzera behartuta daudenen gainazalak zenbatekotzen dira.

BABES PUBLIKOKO EDOZEIN ARAUREN MENPE DAUDEN EGOITZENTZAKO ERRESERBENGATIK AFEKTATURIKO EGOITZ GARAPEN BERRIEN GAINAZALEN ZENBATEKOTZEA.			
	Egoitza garapenak (dentsitate altua)	Egoitza garapenak (erdi dentsitatea)	Guztira (Hak)
BALMASEDA	7,25	0	7,25
GÜEÑES	6,02	25,30	31,32
ZALLA	18,29	23,89	42,18
GUZTIRA	31,56	49,19	80,75

Sopuertak 2.245 biztanle ditu, eta gainera, gaur egun ez du herrigune trinkoa osatzen; beraz ez du lurzoru-erreserbarik egin behar. Hala ere, LPPk herri hau sustatu nahi du, Sopuerta Eremu Funtzionaleko Herriburu-orde bilakatzeraino. Honek ekarriko duen zuzeneko ondorioa Sopuertako populazioaren handitzea da, eta horri erantzuteko herria hazi eta trinkotu behar da Mercadillo eta La Baluga bat eginez, biek herrigune bakarra osatzeraino. Horregatik, proposamen osagarri gisa, beharrezko ikusten da udal-plangintzak, partzialki bada ere, lurzoru-erreserba egitea; Babes Publikoko Etxebizitzak egiteko, edota etxebizitza sozialen sustapen mistoa aurrera eramateko, Babestutako Alokairuan zein Babestutako etxebizitzaren Osoko Jabetzan.

Hartara, herri bakoitzeko etxebizitza kopurua plangintza orokorrak kuantifikatuko du eta balio-urkila baten arabera egingo du kuantifikazioa. Hauek dira balioak:

- **Plangintzaren bizitegi-ahalmenaren balio maximoa:** plangintzari ematen zaion balio bat da. Honen helburua zera da, alegia, lurzoruaren gehiegizko kalifikazioa dela-eta okerreko eta zentzugabeko garapen urbanistikoak saihestea.
- **Plangintzaren bizitegi-ahalmenaren balio minimoa:** plangintzari ematen zaion balioa da, klasifikatuta lurzoru gutxiegi egotea saihestu asmoz.

Lurralde Plan Partzialak indarrean luze emango duenez, balio maximoaren eta minimoaren artean dagoen tartea edo urkila aplikatzeko udalaren estatistika-datuak erabiliko dira; baina ez edonoizko datuak, baizik eta udal-plangintzaren berrikuspena idazteko momentuan indarrean zeudenak. Kontuan izan behar da, gainera, udal-plangintza zortzi urtez egonen dela indarrean; horregatik, 8 urtetik 16 urterako tartea edo urkila kalkulatzeko lehenengo balioa 1,33 faktorearekin biderkatu behar da.

Lurzoru urbanoaren, lurzoru urbanizagarriaren edota landa-guneen bizitegi-ahalmena herri guztietan errazago kalkulatzeko, etxebizitzaren beharra kuantifikatu behar da. Bost faktore edo osagaien azterketan oinarritzen da kuantifikazioa:

- **C1 osagaia** (Lurralde Ereduaren Inplikazioak). Lurralde Plan Partzialak definitzen ditu; alde batetik, Lurraldearen Ereduak etxebizitza parkearen hazkuntza duen inplikazioen arabera; eta bestetik, LAAREN antolamenduekin eta Bilbo Metropoliaren LPPekin batera. Inplikazio hauek eskualdeko herri nagusien zentraltasuna sendotzeko joera dute; horretan datza lurraldearen oreka eta horregatik hazkuntza selektiboari egiten dio erreferentzia Lurraldearen Ereduak.

Hemen hierarkia bat antolatu da eta kuantifikazioak ere horretara doaz. Beraz, kuantifikazioak Balmaseda, Güeñes eta Zalla herrietan planteatu dira, eta Sopuertan ere bai; herri hauek maila irabaziko baitute herrien arteko loturak, beraien alde, indartzeko dauden proposamenen bidez.

- **C2 osagaia** (Demografia hazkundea). Demografiaren eboluzioa kontuan harturik, aurreikusi beharreko bizitegi-ahalmena biltzen du. Kalkulua gaurkotuta dago, azken datu estatistikoak hartu baitira kontuan. Ildo horretan, atzeranzko bilakaera duten udalerrietan 2 osagaia negatiboa dela hartu da kontuan, hau da, azken urteetako atzeranzko bilakaera zorrotz ezarriz dagoen joeraren egoera.
- **C3 osagaia** (famiaren egituraren aldaketa). Eremuaren egoera sozioekonomikoa dela-eta, herri bakoitzeko familen batez besteko tamaina aldatu egingo da, behera egingo du. Beraz, honen inguruan hipotesi bat ezar dezakegu etxebizitza berrien beharra zenbatekoa izango den ikusteko. Bada, udal-plangintza indarrean egongo den zortzi urteetan familia tasa 0,30 murriztuko dela uste da.
- **C4 osagaia** (eskaintzaren zurruntasuna zuzentzen). C4 balioak LAA 1.3 eranskina biltzen du, baina LPPren eredu berrira moldatzen da: 0,35 Artzentales, Galdames, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Gordexola eta Trucios-Turtziozerako; eta 0,25 Balmaseda, Güeñes eta Zallarako.

Etxebizitza behar minimoa kalkulatzeko zurruntasun koefizientearen balioa erdira murriztu behar da.

- **C5 osagaia (bigarren egoitza)**. Hurrengo udalerrietarako joerako bigarren egoitza hartu da aintzat, 1,40 Artzentaleserako; 1,47 Galdameserako; 1,13 Sopuertarako eta 1,44 Turtzioz-Trucioserako. Eremu Funtzionaleko gaionentzeko udalerrietarako ez da bigarren egoitzarik aurreikusten.

Estimazioaren emaitzak taula honetan zehaztu dira:

HERRIA	c1	c2	c3	c4		c5	Eskaintza maximoa		Eskaintza minimoa	
							8 urte	16 urte	8 urte	16 urte
ARTZENTALES	0	10	25	0,35	104	14	153	203	101	134
BALMAEDA	100	-35	294	0,25	767	0	1.126	1.498	743	988
KARRANTZA (HARANA)	0	-63	103	0,35	378	0	418	556	229	305
GALDAMES	0	3	42	0,35	141	21	207	275	137	182
GORDEXOLA	0	45	64	0,35	265	0	374	497	242	322
GUEÑES	100	110	257	0,25	713	0	1.180	1.569	824	1.096
LANESTOSA	100	-3	14	0,35	47	0	158	210	135	180
SOPUERTA	0	50	93	0,35	374	18	535	712	348	463
TRUCIOS-TURTZIOZ	0	6	21	0,35	83	12	122	162	81	108
ZALLA	200	200	297	0,25	888	0	1.585	2.108	1.141	1.518
GUZTIRA	500	323	1.210		3.760	65	5.858	7.790	3.981	5.296

ABIABURUKO BIZTANLE-KOPURUA: 2007. urtea

$$C4=(VOB + C2 +C3) * CR$$

ESKAITZA MAX. 8 urte: Erabilitako zorrozatasuna LAA artezpideek baliatutakoa da.

ESKAITZA MAX. 16 urte: Eskaintza maximoa 8 urtera: 1,33

ESKAITZA MIN. 8 urte: Erabilitako zorrozatasuna 8 urtekoa da, bitan zatitua

ESKAITZA MIN. 16 urte: Eskaintza minimoa 8 urtera: 1,33

Kontuan izan behar dugu indarrean dagoen plangintzatik abiatzen dela, beheko taulan adierazten den modura. Hemendik ondorioztatzen da, hain zuzen, indarrean dagoen plangintzaren bizitegi-ahalmena handia dela; ziurrenik, berriki onartu diren zenbait udal- plangintzei esker.

INDARREAN DAGOEN UDAL PLANEAMENDUA

Etxebizitza kopurua

	Egungo etxebizitza kopurua				Egiteke dagoen etxebizitza kopurua (hutsak+BOE)				Etxebizitza kop. guztira			
	LU	UNL	LEZ	GUZTIRA	LU	UNL	LEZ	GUZTIRA	LU	UNL	LEZ	GUZTIRA
ARTZENTALES	93	0	278	371	3	32	49	84	96	32	327	455
BALMASEDA	3355	0	251	3606	662	597	17	1.276	4.017	597	268	4.882
KARRANTZA	369	97	985	1451	112	230	423	765	481	327	1.408	2.216
GALDAMES	261	0	245	506	36	80	63	179	297	80	308	685
GORDEXOLA	496	181	226	903	250	57	0	307	746	238	226	1.210
GÜEÑES	3121	0	0	3121	489	475	0	964	3.610	475	0	4.085
LANESTOSA	156	2	20	178	70	18	0	88	226	20	20	266
SOPUERTA	796	141	488	1425	97	325	44	466	893	466	532	1.891
TURTZIOZ	162	32	103	297	87	20	31	138	249	52	134	435
ZALLA	3005	568	568	3903	159	118	24	301	3.164	448	592	4.204
GUZTIRA	11.814	786	3.164	15.761	1.965	1.952	651	4.568	13.779	2.735	3.815	20.329

Iturria: Udalplan 2008

10.4 EKONOMIA-JARDUERETARAKO LURZORUA

10.4.1 LURRALDEAREN OREKA BERRIA

Jada esan dugun bezala LPPk bere lurraldearen ereduan ekonomia-jarduera eta bizitegien artean oreka berri bat egiten du posible. Hori dela eta, batez ere bizitegi izango diren garapen berrietan eremuaren ehuneko hamabosta (%15), berme bezala, erreserbatuko du ekonomia-jarduera osagarrientzat. Erreserba horrekin etxebizitza eta enpleguaren artean oreka bat lortu nahi da.

Herriguneak suspertzeko herrien jarduerak indartzeko hirugarren sektorea berreskuratu eta herrira ekarri behar da; erabilera osagarriak ere mantendu behar dira, hala nola: txikizkako komertzioak, bulegoak, tailerrak, bizitegien eremuan aritu dezaketen industriak, eta mota guztietako bestelako hornidurak; laguntzazkoak, soziokulturalak, e.a..

Kontua da industrialdeetan ez aritzea etxebizitzaren inguruan ondo jardun dezaketen jarduerak; izan ere, industrialdeak gainezka jartzeak ondorio kaltegarriak dakartza. Alde batetik, populazioak haietara hurbiltzeko joera dauka, eta bestetik, ekonomia-jardueretarako industriaguneak handitu egin beharko lirateke; industria asko bizitegien inguruan jarri ezin direlako eta trafiko astunarekin lotura zuzena dutelako. Beraz, komeni da ahal diren jarduerak bizitegien inguruan kokatzea.

Gainera, proposamen honekin lotuta, LPPk beste bat ere egiten du bere ekonomia-jardueren oreka berriaren barruan, alegia, ekonomia-jarduera hauek komunikabide nagusiarekin lotzea, hots, Kadaguako korridorearekin; Kadagua haran osorako eta Malabrigo zonalderako Kadaguako korridorea da komunikabide nagusia, horri esker hurbil daude BI-2701 eta BI-630 errepideak.

Proposamen hauek OE-04 eta OE-05 operazio estrategikoetan gauzatzen dira, "Ekonomia-jarduerak Kadaguako ardatzean" eta "Mendebaldeko ardatzaren garapen ekonomikoa" hurrenez hurren.

10.4.2 DAUDEN FINKAPENENTAN ESKU-HARTZEAK

Berregituratze operazioak

Berregituratzeko operazio hauek daude planteatuta:

- Balmaseda (A-3 sektorea Graziako Ama): sektore honi Irudi urbanoagoa emateko operazioa da. Sektore hau ekonomia-jarduerentzako lurzorua da eta Balmasedako Hirigune Historikotik Pandozales landa-gunerako

errepidean dago kokatuta. Lanaren gutxi gorabeherako azalera bi koma hamabi (2,12) hektareakoa da eta bere dentsitatea ertain-altua.

- Balmaseda (A-5 Gasolindegia urbanoa): espazio honen itxura hobetzean datza. Herri barruan, herriaren sarreran hain zuzen. dagoen gasolindegia izanik, uste da lekuak beste erabilera atseginago bat izan beharko lukeela. Beraz, gasolindegia kentzea proposatzen da eta bere ordeaz herri barruan egoteko egokiagoa den zerbaite jartzea. Laurehun metro koadroko (400 m²) lana litzateke. Proposamen zehatz hau ez da loteslea; gomendio bat da, Balmasedako Udalak kontuan har dezan egina.
- Balmaseda-Zalla (Nozedal): Industriagune indartsu honetan (A-1 La Tejera, UT-4 Nozedal, UI-5 La Tejera eta T-1 El Nozedal sektoreak) Eremu Funtzionaleko herri nagusien zentraltasuna sendotuko lukeen hirugarren sektoreko eta merkataritzako ekipamendu handi bat proposatzen da. Balmasedaren sarreran egongo litzateke eta ekipamendu honek asko hobetuko luke espazio horren irudia. Zehatz esateko, ekipamenduak Balmasedako bi (2) hektarea eta Zallako beste lau (4) hartuko lituzke; beraz, bere azalerak guztira sei (6) hektarea izango lituzke.
- Sopuerta (UEI-2, UEI-2-3, UEI-4, UEI-5 eta UEI-6 sektoreak): gaur egun espazio hauetako erabilera okerrekoak dira eta txarto inplantatuta daude; hori dela-eta planteatzen da berregituraketa. Lurzoru hauek zonalde honetarako aurreikusita dagoen Kirol ekipamendu turistiko handi bati ematea gomendatzen da. Gutxi gorabeherako azalera: lau (4) hektarea.
- Güeñes (UE- Padura lantegia sektorea): beti-betiko tailerra, hiriaren hazkundeak harrapatu duena. Instalazioen tipologia hobetu beharra dauka tailerra herrian hobeto integratze aldera; gune horretan jada bizitegiak nagusitu baitira. Gutxi gorabeherako azalera: bi (2) hektarea.
- Güeñes (Sodupe Kooperatiba): Soduperen erdigunean bertan industria-jarduera duten tailerra da; tailerraren tipologia eta aktibitatea kokagune duten ingurune urbanora moldatu behar dira. Gutxi gorabeherako azalera: hektarea erdia (0,5).

Itzultze Operazioak

LPPk naturari itzuli beharreko lurzoruak zehaztu ditu, eta udal-plangintzek nahitaez bete beharko dute erabakia. Honek ez du esan nahi LPPk espresuki itzulketarik planteatu ez dituen herrietan horrelako esku-hartzeak egin ezin direnik. Herri hauek itzulketak egitea beharrezkoa dela ikusten badute aipatu ditugun helburuen arabera, egin ahal izango dituzte.

- Zalla (I-5 Ibarra sektorea): Industriako lurzoru urbanizagarria, indarrean dauden 1999ko Arau Subsidiarioek hala sailkatuta. Haren ezarpenak ez du loturarik erabilera horri atxikitako jarduerekin. Zenbatespenen arabera,

haren azalera lau eta berrogeita hamahiru (4,53) hektarea ingurukoa da, eta orain arte ez da garatu.

Hori gorabehera, udal-plangintzaren berrikuspenean, jarduera ekonomikoen sektore horri eusteko dagoen beharra justifikatu beharko da, Zallako udal-mugarteko egiturazko antolamenduaren ikuspegitik.

- Karrantza Harana (La Cadena I-1 harrobia): industria-lurzorua hau harrobiaren sailen barruan dago. Bada, kasu honetan ere itzultzea proposatzen da, lehenera itzultzeko eta harrobiaren jardura amaitzen denean bertan industrialde bat kokatzea saihesteko. Bere gutxi gorabeherako azalera: bi koma hogeita hamahiru (2,33) hektarea.
- Galdames (La Aceña 2 harrobia): industria-lurzorua hau harrobiaren sailen barruan dago. Bada, kasu honetan ere naturari itzultzea proposatzen da, lehenera itzultzeko eta harrobiaren jardura amaitzen denean bertan beste industrialde bat kokatzea saihesteko. Bere gutxi gorabeherako azalera: hamar (10) hektarea.

10.4.3 EKONOMIA-JARDUEREN GARAPEN BERRIAK

Ekonomia-jardueretan garapen berri hauek planteatu dira:

- Karrantza Harana (Las Torcachas): ekonomia-jarduerarako (mistoa, hirugarren-eta industria-sektorea) eremu berria izango da eta Las Torcachas herrigunearen ondoan egongo da; kokapenaren arrazoia bertan Minda-fabrika egongo dela da. Ondorioz, ikusita ekonomia-jardueratarako gune bat sortzen dela zonaldean eta BI-630 errepidea esku-eskura duela, Minda-fabrikaren ondoan industria-sektore bat posible izango dela aurreikusi da; gainera, industria-sektore hau betez gero handitzeko aukera ere ematen du. Bere gutxi gorabeherako azalera: bost-sei (5-6) hektarea.
- Sopena-Zalla (Malabriga): ekonomia-jarduerarako (mistoa, hirugarren-eta industria-sektorea) eremu berria egongo da Malabrigoko errepide-lotunean; "Malabrigoko errepide-lotunearen" bidez Kadaguako korridorerara sarrera zuzen-zuzena izango du. Eremu honek Sopena eta Zalla udalerriak hartuko ditu, beraz bi udalen elkarlana beharko da poligonoaren garapena egokia izateko. Gutxi gorabeherako azalera hamalau (14) hektareakoa izango da, bost (5) hektarea Sopenakoak eta bederatzi (9) hektarea Zallarenak.
- Zalla (Allendelagua): Kadaguako korridorearen eta Gallardi auzoaren artean gaur egun existitzen diren ekonomia-jardueretarako bi sektoreak handitu egingo dira beste bi sektore eginez. Guztira, jardura-sektore hauen artean 5-6 hektarea inguruko azalera hartuko dute. Bestalde, horri gehitzen badizkiogu gaur egun martxan dauden industria-lurzoruek, gutxi

- Zalla (Sollano): Allendelaguako ekonomia-jarduerarako eremu berriaren parean, Kadaguako korridorearen beste aldean eta Sollanoko herrigunearen ondoan, jarduera mistoko eremu handi bat proposatzen da. Bere azalera hamar (10) hektarea ingurukoa izango da.

- Zalla (Nozedal): Nozedalen berregituratutako ekonomia-jardueretarako eremuaren osagarri bezala bere hedapena proposatzen da; hedapen hau Balmaseda eta Zallaren arteko mugan izango litzateke, bi herriak lotzen dituen errepidearen ertzean. Sektore berri honek gutxi gorabehera bi (2) hektarea edukiko lituzke; eta bi hektarea hauek gune horretan egingo den hirugarren sektoreko eta merkataritzako ekipamendu handiari gehituko zaizkio.

- Gueñes (Orbijana): ekonomia-jarduerarako (mistoa, hirugarren-eta industria-sektorea) eremu berria egingo da Gueñeseko herrigunearen eta Kadaguako korridorearen hegoaldean, hain zuzen Orbijana auzoan, Kart zirkuituaren ondoan. Bere gutxi gorabeherako azalera: 18-19 hektarea.

- Güeñes (Santxosolo): ekonomia-jarduerarako (mistoa, hirugarren-eta industria-sektorea) eremu berria Kadaguako korridorearen ondoan. Bere gutxi gorabeherako azalera: hogeita bat (21) hektarea.

Poligono honek bere itxura zaindu behar du Kadagua haranera begira edukiko duen aldean bereziki; gune honetan eraikinak atzeraemangune bat behar du Kadaguako korridorea erreferentzi hartuta. Honen helburua da industria-poligonoari "tratamendu berde" bat ematea, eta hartara, ikusinpaktua txikitzea.

Zentzu honetan eta fatxada zainduta edukitze aldera, aurreko aldean jarduera garbienak eta itxurosoenak jarriko dira; aitzitik, eraikinaren zati handienak atzeko partean egingo dira, Errekalde errekaaren haranean barrena; hemen jarriko dira erabilera industrialenak.

- Sopuerta (gasolindegia): hirugarren sektoreko eta merkataritzako eremu bat proposatzen da Capetillo eta El Crucero-ko herriguneen artean, gaur egun gasolindegia dagoen lekuan; multzo urbanoari zerbitzua emateko establezimendu bat jarri nahi da bertan. Sektore berri honek gutxi gorabehera lau koma hirurogei (4,60) hektarea izango ditu.

- Galdames (La Aceña): gaur egun La Aceñan dagoen ekonomia-jardueretarako sektorea handituko da; bi sektore txikik gauzatuko dute handitzea. Guztira, gutxi gorabehera, zortzi koma hirurogeita bost (8,65) hektarea izango dira.

Ekintza honen ipar esparruak, E.A.E.ko Korridore Ekologikoen Sarearen Armañon-Ganekogorta elkartze korridorearekin duen hurbiltasuna dela eta, eta elkartze funtzio hau babesteko, arretak muturreraino eraman beharko dira.

10.4.4 EKONOMIA-JARDUERETARAKO LURZORUAREN ESKAINTZAREN KUANTIFIKAZIOA

Ekonomia-jardueretarako lurzoruari buruz LPPk egindako proposamenek Ekonomia-jardueren LPSren xedapenei erantzuten diete zuzenean; bai kuantifikazioari dagokionez, eta bai poligono berrien kokapenari dagokionez.

Dena dela, Enkarterrik dituen arazoak sakonki aztertu eta gero, ñabardura bat egin zaio proposamenari; izan ere, egokia ikusten da lurzoruak lekualdatu eta lurzoruaren eskaintza poligono trinkoagoetan kontzentratzea. Horretara doa, beraz, proposamena.

Ekonomia-jardueren eta Merkatal Ekipamenduen sustapen publikoari buruz LPSk jorratuta dituen aspektuak arazorik gabe aplikatuko dira, baldin eta dokumentu honen (udal-kategorizazioa, merkatal ekipamendu antolaketa) kontrakoak ez badira.

INDUSTRIA-LURZORUA LPP-REN LURRALDEAREN EREDUA ESKU-HARTZE MODU BAKOITZEKO AZALEREN ESTIMAZIOA (HA)			
	Itzultze operazioak	Garapen berriak	GUZTIRA
ARTZENTALES	0	0	0
BALMAEDA	0	0	0
KARRANTZA	-2,33	6,00	3,67
GALDAMES	-10,00	8,65	-1,35
GORDEXOLA	0	0	0
GÜEÑES	0	39,00	39,00
LANESTOSA	0	0	0
SOPUERTA	0	9,60	9,60
TRUCIOS-TURTZIOZ	0	0	0
ZALLA	-4,53	26,00	19,47
GUZTIRA	-16,86	89,25	70,39

Zortzi urterako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren gehieneko eskaintzak ez du gaindituko LPPk ezarritako eskaintza globalaren %75.

10.4.5 SUSTAPEN PUBLIKOAREN AKTUAZIOAK

Lurzoruen gainerako aktuazio hauek ekonomia-jardueretarako lurzoruen sustapen publikoari begira daude; lurzoru hauek sustapen publikoari eta bere laguntzei lotuta daude; edota, zuzenean, administrazioa beraren inbertsioei lotuta. Kasu zehatz honetan dago Malabrigoko poligonoa, Zalla eta Sopuertako udalerrietan kokatuta dagoena. Malabrigoko industria-poligonoa “Ekonomia-jarduerak Kadaguako ardatzean” izeneko OE-5 eragiketa estrategikoaren barruan dago, Poligono horrek hartuko duen gutxi gorabeherako azalera hamalau (14) hektareakoa izango da.

10.4.6 SUSTAPEN EKONOMIKORAKO ETA ENPRESA-ARLOKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAREN GARAPENERAKO EKIPAMENDUAREN KUANTIFIKAZIOA

Enkarterriko LPPean jarduera ekonomikoari lotutako ekipamendu batzuk zehaztu dira, ingurumenak dituen balio naturalak sustatzeko eta ustiatzeko, betiere, lehen sektoreari eutsiz eta laguntza emanez, eta ingurunearekin lotura duten beste jarduera batzuekin batera biziz. LPPari begira, lehentasunezkoa da paisaia zainduko duten erabilera iraunkorren jarraipena bermatzea, hori babes eraginkorra baita arloak dituen balio naturalistikoak zaintzeko. Horretarako, ezinbestekoa da biztanleriak Enkarterriko mendebaldean bizitzen jarrai dezaten.

Izaera estrategikoa duen landa-guneari lotutako proposamen hauek azal ditzakegu:

- Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako Otidesko (Karrantza Harana) ekipamendua “Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena” izeneko OE-09 eragiketa estrategikoan sartuta dago. Ekipamendu horretarako aurreikusi den gehieneko azalera hamasei (16) hektareakoa da.
- Sustapen ekonomikorako eta enpresa-arloko nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako La Renejako (Artzentales) ekipamendua (Karrantza Harana) “Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena” izeneko OE-09 eragiketa estrategikoan sartuta dago. Ekipamendu horretarako aurreikusi den gehieneko azalera hogeita hemezortzi (38) hektareakoa da.

Lehen sektoreari lotuta dauden eta balio gehigarri handia duten jarduera horiei dagokienez, zenbatespenen arabera, orientabide gisa, azaleraren %60 zuzkidurako ekipamendurako erabiltzen da, eta gainerako %40 jarduera ekonomikorako uzten da. Hortaz, Otidesen sei eta berrogei (6,40) hektarea eta La Renejan hamabost eta hogeia (15,20) hektarea daude; eta gehienez hogeita bat eta hirurogeita bi (21,62) hektarea hartzen ditu.

Ez da inola ere ulertu behar lehen sektoreari atxikitako proposamenek (Otides eta Artzentales) espazioa urbanizatutako duten ohiko industria-poligonoen izaera dutenik. Aitzitik, gehienbat egoera naturalari eutsiko diote, izaera biguneko urbanizazioen bat eta jarduera zehatzen bat egon arren.

Ekipamendu horiek lurzoru urbanizaezinean daude, eta, indarreko legeriari jarraiki, haiek ezartzeko Plan Berezia eta Ingumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioari buruzko Azterketa egokia prestatu beharko dira.

11

ERANSKINAK

I. ERANSKINA

BALMASEDA-ZALLA EREMU FUNTZIONALEAN (ENKARTERRI), ETA BABES BEREZIKO KATEGORIA HAR DEZATEN, ZUHAITZ APARTEKO IZENDAPENA HATZEKO PROPOSATU DIREN ZUHAITZAK.

181

Sodupeko (Güeñes) San Bizenteko artea

Espeziea:

Quercus ilex ilex

Izen arrunta:

Artea

Kokapena:

Güeñeseko Sodupe
auzoa, San Bizente
elizaren ondoan.

Koordenadak:

X: 496.187,31
Y: 4.783.385,69

Lekua eta ingurua:

Eremu publikoan dago, inguru erabat urbanoan. Inguruan bizitegi-lurzoru sektore burutuak dauzka.



San Estebaneko artea Galdamesen

Espezia:
Quercus ilex ilex

Izen arrunta:
Artea

kokapena:
San Esteban auzoa (Galdames)

Koordenadak:
X: 490.232,21
Y: 4.790.687,12

Lekua eta ingurua:
San Esteban landa-gunean dago, San Esteban elizaren ondoan, eremu publikoan.



182

Balmasedako Zuhaitz Lodia

Espezia:
Platanus hispanica

Izen arrunta:
Platano de sombra

kokapena:
Balmasedako herrigunean.

Koordenadak:
X: 484.530,71
Y: 4.782.850,44

Lekua eta ingurua:
Celemín zubiak, Magdalena pasealekuak eta San Seberino plazak bat egiten duten lekuan dago. Gune publiko oso urbanizatua dago beraz.



La Tajadako (Sopuerta) haritza

Espeziea:

Quercus robur

Izen arrunta:

Haritz pedunkulatua

Kokapena:

La Tajada auzoa (Sopuerta)

Koordenadak:

X: 488.177,57

Y: 4.791.532,76

Lekua eta ingurua:

Lurzoru pribatu ez urbanizagarrian dago; baliabide naturalen babes-gune batean hain zuzen. Sopuertatik Muskizera doan BI-2701 errepidetik 50 metrora.



183

Zariketeko (Zalla) San Pedroko haritza

Espeziea:

Quercus robur

Izen arrunta:

Haritz pedunkulatua

kokapena:

Zariketeko (Zalla) San Pedro

Koordenadak:

X: 488.631,04

Y: 4.784.268,87

Lekua eta ingurua:

San Pedro basilizaren ondoan dago, BI-3636 errepidearen ertz batean; etxe-dentsitate txikiko eremu publiko batean, bizitegi-lurzoru urbanoan hain justu.



Txoko Maiteko (Balmaseda) haritza

Espeziea:

Quercus robur

Izen arrunta:

Haritz pedunkulatua

Kokapena:

Padonzales (Balmaseda)

Koordenadak:

X: 483.411,45

Y: 4.783.143,49

Lekua eta ingurua:

Lurzoru ez urbanizagarrian dago
Balmasedan. Txoko Maite finka pribatuaren
lorategian dago.



II. ERANSKINA

BALMASEDA-ZALLA EREMU FUNTZIONALEKO (ENKARTERRI) IBAI-TARTEEN IDENTIFIKAZIOA UR-IBILIAREN AZALERAREN ARABERA

100 Km² baino gehiagoko ur-ibilia duten ibai-tarteak (III, IV, V eta VI mailako tarteak).

- Kadagua, 9tik 36 Km-ra, Alonsotegiko udalerriko mugatik hasi eta Burgoseko mugaraino, hau da, Eremu Funtzional osoan zehar.
- Herrerías, 0tik 6,4 Km-ra, Kadaguarekin bat egiten duen lekutik Rodaiega errekarerekin elkartzen den arte, Gordexolako Iratzagorria auzoan.
- Karrantza, 0tik 1,8 Km-ra, Kantabriako mugatik Rioseco-rekin bat egin arte.

10 eta 100 Km²-ren arteko ur-ibilia duten ibai-tarteak (III, IV, V eta VI mailako tarteak).

- Kalera, 0tik 10,2 Km-ra, Kantabriako mugatik Rebedules errekarerekin bat egin arte.
- Karrantza, de 1,8tik 11 Km-ra, Rioseco errekarerekin bat egiten duen lekutik Peñaranda-rekin elkartu arte.
- Rioseco erreka, 0tik 0,8 Km-ra, Karrantza ibaiarekin elkartzen den lekutik Ranero errekarerekin bat egin arte.
- Callejo, 0tik 3,5 Km-ra, Karrantza ibaiarekin elkartzen den lekutik.
- Escalera, 0tik 2 Km-ra, Karrantza-rekin batzen denetik Bernales errekarerekin elkartzen deneraino.
- Agüera, 0tik 11 Km-ra, Kantabriako mugatik 1 km Mollinedo errekan gora iritsi arte.
- Mercadillo, 0tik 14,5 Km-ra, Muskizeko mugatik Sopuertan La Puente-ra iritsi arte.
- Arroyo, 0tik 1,9 Km-ra, El Arenao eta La Baluga artean.
- Galdames erreka, 0tik 5,3 Km-ra, Mercadillo ibaiarekin bat egin eta Tejera erreka harrapatzen duen arte, Galdameseko San Pedro inguruan.
- Goritza, 0tik 7,5 Km-ra, Mercadillo ibaiarekin elkartu eta Tranburrios auzoraino (Artzentales).

- Herrerías, 6,4tik 16,3 Km-ra, Rodaiega batzen den lekutik, Gordexolako Iratzagorria auzoan, Arabako mugaraino.
- Izalde, 0tik 15,9 Km-ra, Herrerías-ekin bat egiten duen lekutik, Ugarte auzoan (Gordexola), Arabako mugaraino.
- Rodaiega: Herrerías-ekin lotzen den gunetik, Iratzagorria auzoan (Gordexola), Eskoneta-rekin bat egiten duen arte, Araba eta Burgosek mugan.

10 Km2 baino gutxiagoko ur-ibilia duten ibai-tarteak (0 mailako tarteak)

- Eremu Funtzionaleko gainontzeko ibai eta errekek.

III. ERANSKINA

BALMASEDA-ZALLA EREMU FUNTZIONALEAN (ENKARTERRI), ETA LURRAZALEKO UREN BABES KATEGORIAREN BARRUAN, ZONA HEZEEN BABES EREMU IZATEKO AUKERATU DIREN HEZEGUNEEN ZERRENDAA.

a) Zohikaztegiak

- “Ordunte mendilerroko Zohikaztegiak” [B1B3], Karrantza Haranean, guztira 73 zohikaz-gune ditu eta LPPk horietako batzuk aukeratu ditu babes kategoria honetan sartzeko. Aukera egiterakoan tamainari eta berezko balioari erreparatu zaio. Ondoko hauek dira:
 - Juncianas 2 [B1B3_38]
 - Juncianas 4 [B1B3_40]
 - Maza del Pisto 1 [B1B3_45]
 - Salduero 1 [B1B3_47]
 - Salduero 2 [B1B3_48]
 - Salduero 3 [B1B3_49]
 - Salduero 4 [B1B3_50]
 - Salduero 5 [B1B3_51]
 - Salduero 6 [B1B3_52]
 - Salduero 7 [B1B3_53]
 - Salduero 8 [B1B3_54]
 - Argañeda 5 [B1B3_59]
 - Argañeda 6 [B1B3_60]
 - Peñalta 1 [B1B3_61]
 - Peñalta 2 [B1B3_62]
 - Ilso Estacas [B1B3_73]
- Zalamako zohikaztegia [B1B5], Karrantza Haranean baita ere, balio handiko zohikaz-gunea da.

b) Meategietako putzu eta aintzirak

- Sauco-ko putzuak [DB30], Galdamesen, bi elementuk osatzen dute:
 - Sauco-ko putzua I [DB30_1]
 - Sauco-ko putzua II [DB30_2]
- La Buena-ko putzua [DB32_1], Galdamesen
- Jarralta aintzira [DB33], Sopuertan
- Vinagre aintzira [DB35], Galdamesen
- La Pesquera aintzira [DB36], Galdamesen
- Sorpresa putzua [DB38], Sopuertan

IV. ERANSKINA

BALMASEDA-ZALLA (ENKARTERRI) EREMU FUNTZIONALEAN ARRISKUAN DAUDEN FAUNA ETA FLORA ESPEZIEAK

FLORA

a) Galtzeko arriskuan

- *Eriophorum vaginatum* (ihia), Cyperaceae familiakoa da. Zalama mendiaren (Ordunte mendiak) goialdean dagoen zohikaztegi batean dago EAEko landare honen populaziorik handiena. Eremu Funtzionalean galtzeko arriskuan dauden landare espezieen artean Kudeaketa-Plana duen bakarra da; Plana ekainaren 19ko 114/2006 Foru Dekretuaren bidez onartu zen (2006ko uztailaren 6ko BAOa, 129 zkia.).
- *Pentaglottis sempervirens*, Boraginaceae familiakoa, Sopuerta Haranean (Safo auzoa) aurkitu ahal da.

b) Zaurgarriak

- *Culcita macrocarpa* edo koltxoigileen garoa, Eremu Funtzionalean Remendon auzoan (Trucios-Turtzioz) bakarrik aurkitu da.
- *Thymelaea coridifolia*, Galtzeko Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoaren barruan sartuta badago ere, Koltza mendian lekutzen dutelarik gainera, Sestaoko Natur Zientzien Elkartek espezie hau galdutzat jo du.

c) Arraroak

- *Arnica montana*, Ordunte mendilerroan aurkitu da Monte grandetik Zalamarara. Gehienak Salduero mendian topatu dira.
- *Bartsia alpina*, Ordunte mendilerroaren ipar-isurian topatu dira, erreken goi-ibarretan batez ere, Monte grandetik Zalamarako tartean.
- *Cirsium heterophyllum*, ikusgarri agertzen dira Ordunte mendilerroaren ipar-isurian, Monte grandetik Zalamarako tartean. Saldueroko zohikaztegiaren erreka ertzetan ere aurkitu da.
- *Crepis pyrenaica*, Zalama mendian (Ordunte) topatu da.
- *Daphne cneorum*, horrelako sastraka asko aurkitu dira Karrantza Haranean eta Alen mendiaren (Artzentales) hegoaldean.
- *Gentiana lutea*, *Lutea* subespeziea, Ordunte mendilerroaren ipar-isurian aurkitzen da, Monte grandetik Zalamarako tartean, erlaitzetan, belardietan eta txilardietan; Saldueroko zohikaztegiaren ere aurkituko

dugu. Normalean bakan hazten bada ere batzuetan multzoak osatuz aurki daiteke.

- *Iris latifolia*, Triano mendietan (Galdames) aurkituko dugun lirio ederra.
- *Lycopodium clavatum* goroldio mota Ordunte mendilerroko Balgerri mendian topatu da; bi sail topatu dira.
- *Menyanthes trifoliata* hirusta mota Ordunte mendilerroan (Zalama, Rebedules eta Saludero) topatu da. Hirusta-sail ederrenak Saldueroko hezegune eta zohikaztegietan daude.
- *Prunus lusitanica*, zuhaixka honen hiru ale topatu dira (1 heldua eta 2 gazteak) Raneroko Harrietan dagoen karst baten dolinan, Karrantza Haranean.
- *Sempervivum vicentei*, *Cantabricum* subespezia, Kolutza mendiaren tontor eta harkaiztietan hazten da.
- *Soldanella villosa*, Triano mendietan (Galdames) aurkituko dugu nahiko ugari.
- *Tozzia alpina*, *Alpina* subespezia, Ordunte mendilerroan, Monte grande eta Zalaman, sail ugariak ikusi dira.
- *Tofieldia calyculata*, hau topatzeko Sestaoko Natur Zientzien Elkartek Zalama mendian egin ditu saiakerak, baina emaitza positiborik ez dute lortu, oso gune malkartsua baita eta iristeko zaila. Hala ere, landare hau ez dagoenik ez da adierazten.

d) Interes berezikoak

- *Allium victorialis*, basabaratxuria, Ordunte mendilerroko hainbat lekutan topatu da, batez ere Zalama mendiaren ipar-isurian.
- *Huperzia selago*, likopodio hau Ordunte mendilerroan (Zalamatik Balgerriraino) zehar hazten da; baita Gallarraga mendian (Güeñes) ere.
- *Ilex aquifolium* (Gorostia), Ereku Funtzionalean zehar banatzen da: Trucios-Turtzioz (Violedo mendia), Karrantza (El Mazo Haitza, Peña del Moro eta La Calera del Prado), Balmaseda (Kolutza mendia), Artzentales (Alen mendia) eta Galdames (Pico Mayor eta Triano mendiak)
- *Narcissus asturiensis*, Triano mendietan eta Alen mendian aurki daiteke.
- *Narcissus bulbocodium*, *citrinus* subespezia, leku askotan topa daiteke: Ordunte mendilerroan (Saldueko eta Umadermia), Güeñes (Eretza), Galdames (El Sauco, Pico Menor, Ganeran eta Tellitu), Artzentales (Alen) eta Karrantza Haranean (El Mazo).

- *Narcissus pseudonarcissus*, *Narcissus nobilis* barietatea Ordunte mendilerroan presente dago, Zalama menditik Saldueroraino.
- *Ophioglossum vulgatum*, *Lengua de serpiente* gaztelaniaz, Eremu Funtzionalean bakarria aurkitu da, La Calera del Prado-n (Karrantza Harana) hain zuzen.
- *Pinguicula lusitanica*, landare karniboro hau Ordunte mendilerroan (Umadermia, Peñalta eta Monte grande) eta Trucios-Turtziozen (Violedo eta Armañon) topatu da.
- *Sideritis ovata*, Triano mendietan (Galdames) begiztatu da.
- *Taxus baccata* edo hagina, Balgerri mendian (Ordunte), Los Jorrios-en (Trucios-Turtzioz), Ranero Harrietan eta Peña del Moro-n (Karrantza Harana) ikusi da.
- *Trichomanes speciosum*, Ordunte mendilerroan topatu da garo mota hau.
- *Veratrum album* edo *verdegambre* gaztelaniaz, Ordunte mendilerroan (Zalama menditik Balgerri mendira) zehar eta Triano mendietan (Galdames) zehar banatzen da.
- *Woodwardia radicans*, galtzen ari den garo mota hau Ordunte mendilerroan eta Galdamesen (El Vinagre putzua eta Rio Mayor) aurki daiteke.
- *Paris quadrifolia* edo *uva de raposa* gaztelaniaz, Sestaoko Natur Zientzien Elkartea bere bila ekin eta ekin Los Jorrios mendigunean ibili bada ere bere presentzia ez du ziurtatu; hala ere, oso posible da zonalde horretan haztea oso leku egokia delako; zabala, iparrera begira eta kareharrizko zuloz betetakoa.

FAUNA

a) Galtzeko arriskuan:

Hegaztiak

- Ugatza (*Gypaetus barbatus*), Ordunte mendilerroan ikusi dira hegan ugatz gazteak.

Ugaztunak

- Desman piriniarra (*Galemys pyrenaicus*), ez da gauza ziurra Eremuan horrelakorik ba ote den; baina Eremuak oso habitat onak dituen animalia honentzat posible da egotea.
- Bechstein-go saguzarra (*Myotis bechsteini*), Armañoneko Parke Naturalean bakarrik aurkitu dira.

- Mediterraneoko ferra-saguzarra (*Rhinolophus euryale*) Triano mendietan eta Armañoneko Parke Naturalean, koloniatan elkartuta, aurki daitezke bikoteak kumeak egiten.
- Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), Eremu Funtzionaleko ibaietan ikus daiteke han-hemenka. Espezie hau galtzeko arriskuan dagoenez bere gainean Bizkaiko Foru Aldundiak Kudeaketa-plana onatuta dago; hain zuzen, ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuaren bidez (2006ko uztailaren 6ko BAOa, 129 zkia.)

b) Zaurgarriak:

Anfibioak

- Apo lasterkaria (*Bufo calamita*), Triano mendietako urmaeletan topa daiteke. Sedentarioak dira.

Hegaztiak

- Sai zuria (*Neophron percnopterus*), Bizkaia osoan ez dago saientzat Eremuan dauden bezalako lekuak; habitat apartak eskaintzen ditu Eremuak. 8 bikote habiagile detektatu dira kareharrizko malkarretan.
- Buztangorri argia (*Phoenicurus phoenicurus*), Eremu funtzionalean ikus daiteke uda partean; habiarik, baina, ez da aurkitu.
- Miru gorria (*Milvus milvus*), ohikoa da Europako miruak Eremura etortzea negua pasatzera. Eremuan bikote habiagile bat gutxienez topatu da.

Ugaztunak

- Muxarra (*Glis glis*), batez ere Eremuko mendebaldean daude eta baso autoktonoetan ibiltzen dira.
- Leize-saguzarra (*Miniopterus schreibersii*), Eremu Funtzionaleko gunek karstiko guztietan hazten ditu kumeak; Triano mendietan saguzar hauek babes-gune oso ezaguna dute kumeak egiteko.
- Geoffroy saguzarra (*Myotis emarginatus*), saguzar nabarra da eta belarria moztuta daukala ematen du. Eremu Funtzionaleko gunek karstikoetan hazten ditu kumeak.
- Ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*), honek ere Eremu Funtzionaleko gunek karstikoetan hazten ditu kumeak.
- Arratoi belarri-handi grisa (*Plecotus austriacus*), Eremu guztian zehar dago baina gutxi dira.

- Iparraldeko saguzar belarri-handi (*Plecotus auritus*), Armañoneko Parke Naturaleko inguruetan ibitzen da, basoetan batez ere.
- Ferra-saguzarra (*Rhinolophus hipposideros*), Eremu osoan ibiltzen da baina oso urri, oso multzo txikiak daude Armañoneko Parke Naturalean eta Trianoko mendietan.
- Saguzar belarri-handi handia (*Myotis myotis*), Armañoneko Parke Naturalean ugaria da; bertako barrunbeetan kumeak egiten ditu.

Narrastiak

- Apoarmatu korrontezalea (*Mauremys leprosa*), ibaien ur-ibilietan ikus daitezke, bertan ugaltzen baitira.

c) Arraroak:

Narrastiak

- Gailurretako uhandrea (*Mesotriton alpestris*), tranpaletan, uraskatan eta Ordunte eta Triano mendilerroetako putzuetan ikusi ohi dira urte osoan zehar eta ia herri guztietan.

Hegaztiak

- Erlatxoria (*Pernis apivorus*), baso autoktonoetan ibiltzen da; gutxienez lau bikote habiagile detektatzen dira udan.
- Arrano txikia (*Hieraëtus pennatus*), migrazioetan oso ohikoa da Eremuan ikustea, eta uda partean bi bikote habiagile ditugu.
- Belatza (*Falco subbuteo*), oso bikote gutxi eta ondoen kontserbatutako lekuetan (Triano mendiak, Ganekogorta eta Karrantza Harana) ibiltzen da uda partean.
- Buztanikara txikia (*Actitis hypoleucos*), paseko hegaztia da eta negua ibaien inguruan pasatzen dute.
- Aztorea (*Accipiter gentilis*), ez dute migratzen. 3 edo 5 bikote antzemanda daude. Habiak egiteko konifera-baso zaharrak aukeratzen dituzte; pinu-botatzea arrisku handia da beraientzat.
- Hontz handia (*Bubo bubo*), bikote habiagile bat detektatuta dago eta beste bi gehiago izan daitezke. Eremu Funtzionaleko kareharrizko zonaldeetan aurkitu ahal da.
- Arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*), Eremu honetan hiru bikote habiagile ibiltzen dira, Bizkaian beste inon baino gehiago.

- Belatz handia (*Falco peregrinus*), herri guztietan daude belatzak urte osoan. Bikote habiagile asko (4 edo 6) ikusten dira Eremu Funtzionaleko amilburuetan.
- Okila (*Dryocopus martius*), Lanestosa-Karrantza Haranean bikote baten habia behintzat ezagutu da. Apenas habiarik egiten duen hemen.
- Txilinporta (*Tachybaptus ruficollis*), ur-ibili handietan ibiltzen da; Barbadun eta Kadagua bezalako ibaietan; bertan pasatzen du negua.

Ugaztunak

- Marta (*Martes martes*), Eremu Funtzionalean behar dituen habitat hoberenak aurki ditzake, Bizkaiko hoberenak: baso kaduzifolioak. Gutxi daude.
- Natterer saguzarra (*Myotis nattereri*), Armañoneko Parke Naturalean aurki daiteke. Babesteko eta kumeak egiteko barrunbeak aprobetxatzen ditu.
- Elur-lursagua (*Chionomys nivalis*), lursagu mota bat da. Talde gutxi batzuk daude Eremuko mendebaldean, zehazkiago Armañoneko Parke Naturalean. Kareharrizko harkaiztietan bizi dira.

d) Interes berezikoak:

Hegaztiak

- Mendi tuntuna (*Prunella collaris*), urte osoan egoten da leku berean eta mendi-tontorretan (Ordunte eta Ganekogorta-Gallarraga) aurki daiteke. Oso espezie urria da.
- Mirotz zuria (*Circus cyaneus*), sastrakak dauden guneeetan aurki daiteke urte osoan zehar; ia herri guztietan daude. Bikote baten habia detektatuta dago.
- Sai arrea (*Gyps fulvus*), Eremu Funtzionalean egoten da urte osoan zehar. Eremuaren mendebaldean 5etik 9ra bikote daude kumeak ateratzen.
- Zata (*Caprimulgus europaeus*), udan etortzen da Eremu Funtzionalera habiak egitera; leku zabal eta irekiak maite ditu; landazabalak, larreak edo sastrakak.
- Belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*), Urte osoan egoten dira batez ere Triano Mendietan, Ordunte Mendietan eta Armañoneko Parke Naturalean.

- Belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*), Triano Mendietan 30 bikote ingururen habiak aurki daitezke; Ganekogorta-Gallarragan, Ordunte Mendietan eta Armañoneko Parke Naturalean, gutxiago bada ere, badaude. Urte osoan egoten dira bertan.
- Belea (*Corvus corax*), Eremuko harkaizti bakoitzean zortzi bikote ingururen habiak aurki daitezke, oso ugariak dira beraz. Urte osoan egoten dira.
- Gabiraia (*Accipiter nisus*), landazabal asko daudenez oso ugaria da herri guztietan. Habia asko aurki daitezke; Europatik ere etortzen dira negua pasatzera.
- Martin Txiki (*Alcedo atthis*), neguan ere hemen geratzen da. Bikote asko ez daude. Ibaien inguruan bizi dira. Neguan herriguneetako ibai tarteetara hurbiltzeko joera daukate.
- Ur-zozoa (*Cinclus cinclus*), urte osoan zehar egoten da gure artean. Ibaien inguruan egiten ditu habiak; berdin zaio ibai edo erreka, baina kalitate txukun edo oneko uren inguruan bizi da.
- Okil Txiki (*Dendrocopos minor*), landazabaletan zehar dauden haritz eta makalen gainetan egiten ditu habiak. Eremu Funtzionalak Bizkaia osoko hegazti honen populazio handiena dauka.
- Arkaitz-zozo gorri (*Monticola saxatilis*), ziurrenik hegazti udatiarra dugu; harkaitzetan egiten ditu habiak, Eremu Funtzionaleko ipar-ekialdean.
- Harkaitz-zozo urdin (*Monticola solitarius*), urte osoan aurki daitezke eta habiak harkaitzezko amildegietan egiten ditu; batez ere Eremu Funtzionaleko iparraldean eta Ganekogorta-Gallarraga zonaldean daude.
- Pitxartxar nabarra (*Saxicola rubetra*), udan ikusi daiteke. Habiak kareharritzko amilburuetan egiten ditu; Lanestosa-Karrantza Haranean batez ere, bina bikote gutxi daude gurean.
- Lepitzuli (*Jynx torquilla*), udan aurkitu ohi da soro eta landetan. Bikote gutxi dauden arren herri guztietan aurkitu ahal dira; indiano-etxe batzuetako lorategietan ere ikusi izan da.
- Malkar sorbeltza (*Apus melba*), habia gutxi aurkituko dizkiogu, 12 baino bikote gutxiago daude; 12 bikote inguru daude Eremu Funtzionaleko ipar-mendebaldeko kareharri trinkozkozko amilburuetan.

Ugaztunak

- Erbinude zuria (*Mustela erminea*), gutxi daude, eta daudenak Eremu Funtzionaleko mendebaldeko (Karrantza Harana) eremuan.
- Basakatua (*Felis silvestris*), Eremu Funtzionalean Bizkaiko leku onenak, bakarrak ez badira, aurkitzen ditu. Herri guztietan dago nahiz eta populazioa txikia izan.
- Baratze-saguzarra (*Eptesicus serotinus*), Triano mendietan aurkituko dugu eta arrail, zulo zein eraikin zaharretan babesten da.
- Saguzar-belarri handia (*Myotis daubentonii*), Eremu Funtzionaleko mendebaldean bizi da, ibaien ondoan. Zubietan du bere babes-tokia.
- Noktulo txikia (*Nyctalus leisleri*), soro eta basoetan ibiltzen da, Triano Mendietan batez ere.
- Ipurtatsa (*Mustela putorius*), Eremu Funtzional osoan zehar aurkituko dugun arren oso gutxi daude.

Narrastiak

- Eskulapio sukea (*Elaphe longissima*), haran guztietako landazabaletan aurki daitezke, sedentarioak baitira.
- Musker berde-beltza (*Lacerta schreiberi*), oso ugaria da haran epeletako landazabaletan; Sopuertan, Galdamesen, Karrantza Haranean, Trucios-Turtziozen eta Artzentalesen. Sedentarioa da.
- Musker ozelatua (*Lacerta lepida*), Ordunte Mendietan aurki daiteke eta baita ere Karrantza Haranean, Artzentalesen, Balmasedan eta Zallan.